



GOIERRI 21  
Ahots guztien leku

## ***Tokiko Agenda 21:***

# **Ordiziako Iraunkortasunerako Tokiko Ekintza Plana**

I DOKUMENTUA: IRAUNKORTASUN DIAGNOSTIKOA



2004ko Uztaila



# UDALTALDE 21 GOIERRI

## UDALTALDE 21 GOIERRIKO ESKUALDE-BATZORDEA

### IHOBE, S.A.

Xabier González. Teknikaria  
M<sup>a</sup> Mar Alonso. Teknikaria  
Agate Goyarrola. Teknikaria  
Josu Sanz. Teknikaria

### GOIEKI, S.A.

Félix Urkola. Presidentea  
Iker Galparsoro. Zuzendaria  
Ainhoa Alonso. Teknikaria  
Rosa Aurkia. Teknikaria  
Maialen Galparsoro. Teknikaria  
Leire Garmendia. Teknikaria  
Zuberoa Jauregi. Teknikaria

### Udal parte-hartzaileak

Imanol Muxika. Altzagako Alkatea  
María José Olazabal. Aramako Alkatea  
Bittor Oroz. Ataungo Alkatea  
Patxi Plazaola. Beasaingo Alkatea  
Xabier Murua. Gabiriako Alkatea  
Santiago Garmendia. Gaintzako Alkatea  
Antxon Irizar. Idiazabalko Alkatea  
José María Otegi. Itsasondoko Alkatea  
Félix Urkola. Lazkaoko Alkatea  
Xabier Iraola. Legorretako Alkatea  
Iñaki Ugalde. Mutiloako Alkatea  
Txomin Mendoza. Olaberriako Alkatea  
Alejandra Iturrioz. Ordiziako Alkatea  
Iñaki Maiora. Ormaiztegiko Alkatea  
Mikel Areizaga. Segurako Alkatea  
Patxi Aierbe. Zaldibiako Alkatea  
Juan Ignacio Galdós. Zegamako Alkatea  
José Ignacio Berasategi. Zeraingo Alkatea

### Aholkularitza-taldea: Ingurune S.L.-Prospektiker, S.A.

Julen Rekondo Bravo. Teknikaria  
Arkaitz San José Martínez. Teknikaria  
Jon Torre. Teknikaria  
Ane Bustinduy. Teknikaria  
Ibón Zugasti. Teknikaria  
Mikel Irasuegi. Teknikaria

**AURKIBIDEA**

<b>1. DIAGNOSTIKOAREN SARRERA</b>	<b>7</b>
1.1. UDALERRIA ETA TOKIKO AGENDA 21.....	7
1.2. DIAGNOSTIKOAREN AURKEZPENA .....	9
<b>2. INGURU SOZIAL ETA EKONOMIKOA</b>	<b>11</b>
<b>2.1. POPULAZIOA.....</b>	<b>11</b>
2.1.1. Populazioaren eboluzioa .....	11
2.1.2. Berezko Mugimendua.....	14
2.1.3. Migrazio Mugimendua .....	15
2.1.4. Biztanleriaren egitura .....	17
2.1.5. Biztanleriaren leku distribuzioa eta guneak .....	19
<b>2.2. IHARDUERA SOZIOEKONOMIKOA.....</b>	<b>21</b>
2.2.1. Udalerriaren garapen ekonomikoaren maila.....	21
2.2.2. Sektore ekonomikoak.....	22
2.2.3. Biztanleria aktiboa eta sektorekako banaketa .....	27
2.2.4. Langabeziaren analisi eta eboluzioa.....	28
<b>2.3. GIZARTE ONGIZATEA .....</b>	<b>37</b>
<b>2.4. HEZKUNTZA .....</b>	<b>42</b>
2.4.1. Ikasketen araberako biztanleriaren banaketa.....	42
2.4.2. Euskeraren garapen maila .....	45
<b>2.5. OSASUNA .....</b>	<b>51</b>
2.5.1. Biztanleriaren osasuna .....	51
2.5.2. Azpiegitura eta osasun-zerbitzuak.....	51
<b>3. INGURUNE FISIKOA</b>	<b>55</b>
<b>3.1. GEOLOGIA ETA GEOMORFOLOGIA.....</b>	<b>55</b>
3.1.1. Geologia eta litologia.....	55
3.1.2. Geomorfologia.....	56
<b>3.2. KLIMA ETA METERELOGIA.....</b>	<b>56</b>
3.2.1. Euri prezipitazioak .....	57
3.2.2. Tenperaturak.....	58

3.2.3. Haizeak .....	58
<b>3.3. HIDROLOGIA .....</b>	<b>59</b>
3.3.1. Sare hidrografikoa eta azaleko urak .....	59
3.3.2. Lurrazpiko urak .....	60
<b>3.4. EDAFOLOGIA.....</b>	<b>60</b>
<b>4. LURRALDE ETA HIRIGINTZA ANTOLAMENDUAK</b>	<b>61</b>
<b>4.1. LURRALDE-KONTEXTUA.....</b>	<b>61</b>
4.1.1. Baldintzatzaile geografiko eta historikoak.....	61
<b>4.2. UDALERRIARI AFEKTATZEN DIOTEN PLANEAMENDU OROKARRAREN AURREIKUSPENAK ....</b>	<b>62</b>
4.2.1. Euskal Herriarentzat L.A.A.-en aurreikuspenak.....	62
4.2.2. Beasain-Zumarraga eremuaren LZP-ren aurreikuspenak .....	63
4.2.3. Errepide-planak.....	66
4.2.4. Jarduera Ekonomikoetarako Lurralde Arloko Plana.....	66
4.2.5. Ibaiak eta Errekak antolatzeko Lurralde Antolaketa Plana. ....	67
4.2.6. Trenbide Sarearen Lurralde Antolamendu Artezpideak .....	67
4.2.7. Ingurune naturala eta agroforestalaren Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak .....	68
<b>4.3. LURRALDEAREN ERABILERA ETA EGITURA URBANISTIKOA .....</b>	<b>69</b>
4.3.1. Lurraldearen antolakuntza organikoa eta lurzorua erabilera.....	69
4.3.2. Hiribarruaren ezaugarriak.....	70
<b>4.4. HIRI ANTOLAKETA ARAUEN ANALISIA .....</b>	<b>73</b>
4.4.1. Hiri Antolaketa Arauen Helburuak .....	74
4.4.2. Lurzorua erregimena .....	75
4.4.3. Zona urbanizagarriak .....	80
4.4.4. Ekipamenduak .....	84
4.4.5. Aisialdirako espazioak .....	86
4.4.6. Bide sarea eta aparkaleku sistema.....	87
4.4.7. Ez motorizatuentzako ibilbide-sarea (oinezkoak, bidegorriak) .....	89

4.4.8. Lurzoru ez urbanizagarriaren antolaketa .....	91
4.4.9. Ingurunean eragin berezia duten Arau Subsidiarren proposamen nagusiak.....	91
<b>4.5. ONDARE HISTORIKO-ARKITEKTONIKO ETA ARKEOLOGIKOA .....</b>	<b>91</b>
4.5.1. Ondare historiko- arkitektonikoa.....	92
4.5.2. Ondare arkeologikoko zonak.....	96
<b>5. SISTEMA NATURALAK .....</b>	<b>98</b>
<b>5.1. ORIA BAILARA.....</b>	<b>98</b>
5.1.1. Oriako arroaren ezaugarri orokorrak .....	98
5.1.2. Uren Kalitatea .....	98
<b>5.2. LANDARETZA ETA FAUNA.....</b>	<b>107</b>
5.2.1. Landaredia, flora eta baso-eremuak.....	107
5.2.2. Fauna.....	109
5.2.3. Paisaia .....	114
<b>5.3. BABESTUTAKO NATUR GUNEAK.....</b>	<b>115</b>
5.3.1. Parke Naturalak .....	115
5.3.2. Hezeguneak .....	116
<b>5.4. PAISAIAREN ETA ONDARE NATURALAREN KONTSERBAZIO-GUNEAK .....</b>	<b>116</b>
<b>5.5. BIODIBERTSITATEAREN ETA PAISAIAREN KONTSERBAZIOAN ERAGINA DUTEN AKTIBITATEAK .....</b>	<b>116</b>
5.5.1. Lurraren erabilera.....	116
5.5.2. Baso ustiapenak.....	118
5.5.3. Nekazaritza eta abeltzaintza aktibitateak.....	120
5.5.4. Erauzketa aktibitateak .....	122
5.5.5. Kirol, hezkuntza eta aisia erabilerak .....	122
<b>5.6. GUNE HONDATUAK .....</b>	<b>123</b>
5.6.1. Aterakuntzako jarduerak .....	123
5.6.2. Hondakin jarduerak .....	123
5.6.3. Suteak.....	123
5.6.4. Hondatutako beste zenbait zona .....	124

<b>6. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA</b>	<b>125</b>
6.1.1. Eskualdearteko eta lurraldeko bide-sarea .....	125
6.1.2. Tokiko bide-sarea.....	125
6.1.3. Aurreikusitako jarduketak .....	126
<b>6.2. UDALERRI ARTEKO HIGIKORTASUNA.....</b>	<b>127</b>
6.2.1. Udalerri arteko higikortasunaren ezaugarriak .....	127
6.2.2. Trafikoaren intentsitatea .....	132
6.2.3. Garraio Zerbitzuak.....	134
<b>6.3. UDAL BARRUKO HIGIKORTASUNA .....</b>	<b>135</b>
6.3.1. Higikortasunaren ezaugarriak.....	135
6.3.2. Garraioak .....	135
6.3.3. Bide Segurtasuna.....	135
6.3.4. Aparkalekuak .....	136
<b>7. URA</b>	<b>137</b>
<b>7.1. UR BALIAKIZUNAK .....</b>	<b>137</b>
<b>7.2. HORNIDURAK ETA KONTSUMOAK .....</b>	<b>137</b>
7.2.1. Herri hornidurarako sarearen ur- bilketa.....	137
7.2.2. Ur Kontsumoa .....	138
7.2.3. Arazketa eta banatze eragiketetako energia kontsumoa .....	139
7.2.4. Ur tarifak .....	139
7.2.5. Ur kontsumo eta erabileraren ikuspegi integratua .....	139
7.2.6. Hornikuntza uren kalitatea.....	140
<b>7.3. HONDAKIN-URAK.....</b>	<b>140</b>
7.3.1. Estolda sarea .....	140
7.3.2. Hondakin-uren isurketa puntuak.....	141
7.3.3. Hondakin-uren tratamendua.....	142
<b>8. HONDAKINAK</b>	<b>144</b>
<b>8.1. HIRI-HONDAKIN SOLIDOAK .....</b>	<b>144</b>

8.1.1. Ekoizpena .....	144
8.1.2. Hondakinen biltze, garraio eta tratamendu azpiegiturak .....	146
8.1.3. Gaikako bilketa.....	149
8.1.4. Birziklaketa eta berrerabilpena .....	150
8.1.5. Hiri-hondakinen jasotze eta tratamenduen kostu eta tasak .....	151
<b>8.2. HONDAKIN ARRISKUTSUAK .....</b>	<b>152</b>
<b>8.3. ABELTZAINZAKO HONDAKINAK .....</b>	<b>154</b>
<b>8.4. KONTROL GABEKO ISURKETA PUNTUAK.....</b>	<b>155</b>
<b>9. ENERGIA .....</b>	<b>162</b>
<b>9.1. UDALERRIAREN EGITURA EKONOMIKOA .....</b>	<b>162</b>
9.1.1. Energia kontsumo globala .....	163
9.1.2. Sektorekako elektrizitate eta gas naturalaren kontsumoaren banaketa.....	163
<b>9.2. UDALEKO ENERGIA EKOIZPEN INSTALAKUNTZAK .....</b>	<b>165</b>
9.2.1. Energia berriztagarrien instalakuntzak .....	165
9.2.2. Autogenerazio instalakuntzarik.....	166
<b>9.3. UDALERRI ADMINISTRAZIOAN ENERGIA KUDEAKETA ETA KONTSUMOA .....</b>	<b>166</b>
<b>10. ATMOSFERA .....</b>	<b>167</b>
<b>10.1. IGORPENAK.....</b>	<b>167</b>
10.1.1. Aktibitate industrialak .....	167
10.1.2. Ibilgailuen mugimendua.....	168
10.1.3. Etxetako eta zerbitzutako iturriak.....	169
<b>10.2. UDALAREN KALITATE ATMOSFERIKOAREN BALORAZIOA .....</b>	<b>169</b>
<b>11. POTENZIALKI KUTSATURIKO KOKALEKUAK .....</b>	<b>171</b>
<b>11.1. SARRERA.....</b>	<b>171</b>
<b>11.2. ORDIZIAKO INBENTARIOAREN EMAITZAK .....</b>	<b>172</b>
<b>11.3. JARDUTEKO AUKERAK.....</b>	<b>178</b>
<b>11.4. AKTUALIZAZIOA EDO EGUNERATZEA.....</b>	<b>178</b>
<b>12. AKUSTIKA .....</b>	<b>179</b>
<b>12.1. UDALEKO ZARATA MAILAREN BALDINTZA OROKORRAK.....</b>	<b>179</b>
12.1.1. Iturburu mugikorak .....	179
12.1.2. Iturburu finkoak .....	181
<b>12.2. INGURUNEKO MAILA AKUSTIKOEN ANALISIA .....</b>	<b>182</b>
12.2.1. Erabilitako metodologia .....	182

12.2.2. Emaitzak .....	182
12.2.3. Zarataren inzidentziaren pertzepzioa .....	182
<b>13. JARDUERA EKONOMIKOEN INGURUMEN ERAGINA</b>	<b>183</b>
<b>13.1. SARRERA.....</b>	<b>183</b>
<b>13.2. JARDUERA EKONOMIKOAK.....</b>	<b>183</b>
13.2.1. Industria-jardueren ingurumen eragina.....	183
13.2.2. Baso eta abelur aktibitateen ingurune eraginak.....	186
13.2.3. Erauzketa aktibitateen ingurune eraginak .....	186
<b>13.3. JARDUERA SAILKATUEN KUDEAKETA.....</b>	<b>187</b>
13.3.1. Espedienteen tramitazioa .....	187
13.3.2. Sailkaturiko jardueren ikuskapena eta kontrola .....	187
<b>14. INGURUNE-ARRISKUAK</b>	<b>188</b>
<b>14.1. SARRERA.....</b>	<b>188</b>
<b>14.2. ARRISKU NATURALAK .....</b>	<b>189</b>
<b>14.3. ARRISKU INDUSTRIALAK .....</b>	<b>190</b>
<b>14.4. ARRISKUAREN KUDEAKETA.....</b>	<b>190</b>
14.4.1. Jarduketarako plana .....	190
14.4.2. Larrialdietarako Udal Planak (L.U.P.) .....	190
14.4.4. Leku Publikoen Larrialdietarako Planak.....	205
<b>15. BIZTANLERIAREN SENTSIBILIZAZIOA ETA PARTAIDETZA</b>	<b>206</b>
<b>15.1. TOKIKO AGENDA 21EAN BIZTANLERIAREN PARTE-HARTZEA.....</b>	<b>206</b>
<b>15.2. INGURUMEN KOMUNIKAZIOA UDALETIK.....</b>	<b>206</b>
15.2.1. Inguruneari buruzko informazioa .....	206
15.2.3. Biztanleriaren parte hartzea.....	207
<b>15.3. HIRI ERAKUNDEAK.....</b>	<b>207</b>
<b>15.4 UDALEKO IRAUNKORTASUNAREN PROBLEMATIKAREN BIZTANLERIAREN PERTZEPZIOA: ORDIZIA.....</b>	<b>213</b>
<b>16. INGURUGIRORAKO UDAL ANTOLAKETA ETA KUDEAKETA</b>	<b>223</b>
<b>16.1 UDAL ANTOLAKETA .....</b>	<b>223</b>
<b>16.2 INGURUGIROAREN UDAL KUDEAKETA.....</b>	<b>225</b>
16.2.2. Udalaz barruko komunikazio eta Koordinazioa .....	226
16.2.3. Udal ingurugiro kudeaketari atxikitutako enpresa eta erakundeak.....	226
16.2.4. Tokiko ingurugiro arautegia .....	227
16.2.5. Udal aurrekontua.....	227



## 1. DIAGNOSTIKOAREN SARRERA

### 1.1. Udalerria eta Tokiko Agenda 21

Hiriek edota herriek beti ezarri eta islatu dituzte balore nagusiak zibilizazioen baitan. Historiaren aro ezberdinetan ere garapen ereduak hiri gizarteetatik ezartzen etorri dira.

Udalek ingurumen gaietako kudeaketan, betebeharretan eta arduetan duten garrantziaren errekonozimenduak berezko lege-arauak gainditzen ditu, bereziki herri aurreratuenetan.

Tokiko Agenda 21 kontzeptua Rio de Janeiron (Brasil, 1992ko ekaina) sortu zen, Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzian edo "Lurreko Goi-bileran". Gailur horretan "Agenda 21" (edo Programa 21) onartu zen, Garapen Iraunkorra lortzeko bidean ekintza-plan orokorra. Agenda 21en 28. atalak "Agenda 21 babesteko Tokiko Agintarien Ekimenak" izena du eta hauxe dio:

- *1996rako, herrialdeetako herri-agintari gehienek beren komunitaterako "Tokiko Agenda 21"ri buruzko galdeketa-prozesua gauzatu beharko lukete beren herrietan.*
- *Herri-agintari bakoitzak elkarrizketa ezarri behar du bere komunitatearekin, gizarte-erakundeekin eta enpresa pribatuekin eta Tokiko Agenda 21 zabaldu behar du.*

EB-ko Ingurumen Arloko VI. Ekintza Programak ere ("Garapen Iraunkorra lortzeko bidean") herri-agintariak animatzen ditu zentzu bereko ekimenak garatzeko (3. eta 5. kapituluak).

1994ko maiatzean, ICLEI deituta (The International Council for Local Environmental Initiatives), 600 pertsona baino gehiago bildu ziren Danimarkako Aalborg hirian, besteren artean: Europako tokiko agintaritzetako ordezkariak, nazioarteko erakundeak, gobernu nazionalak, zentru zientifiko aholkukariak eta partikularrak. Europako Hiri Iraunkorren Lehen Biltzar honetan, Iraunkortasunera iristeko Hiri Europearren Gutuna heldu eta sinatu zen, egun, Aalborg-eko gutuna bezala ezagutzen dena.

Gutunean, atxikidura azaldu zutenen artean borondatea azaltzen zen Tokiko Ekimen Plana edo Tokiko Agenda 21 idazteko, honek ekimen eta estrategia bateratuak eskatzen zituen, modu honetan hiriak XXI. mendean iraunkortasunerantz eramanez.

Aalborg-eko gutuna hedatzeko lehen denbora bat pasa eta gero, beharrezkoa zen ekintzara pasatzea, eta horrela, Lisboan, 1996an, Iraunkortasunera iristeko Hiri eta Herrien Bigarren Biltzarra iragarri zen, non lanerako hamabi puntu adostu eta sakondu ziren Tokiko Agenda 21en idazteko prozesuan eta beraien ezarpenean. Urte berean, Estambulen iragarritako Nazio Batuen Biltzarrak Gizakiaren Kokalekuaz (Habitat II) aritu zen, bertan pertsona guztiek etxebizitza duin bat izateko eskubideaz eztabaidatu zen eta gizakien kokalekuen garapen iraunkorraz, honek Agenda 21ren printzipioak bere hartu zituen.

2000ko otsailean, Hannover-en izan zen Iraunkortasunari buruzko Europako Hiri eta Herrien

III. Biltzarra, bertan 1400 pertsonak hartu zuten parte, autoritate nazionalen ordezkariak, eskualdekoak eta tokikoak, unibertsitateak eta Tokiko Agenda 21eko prozesuetan inplikaturik dauden beste hainbat entitatek.

2004ko ekainean, berrogeita bost herrialdeetako mila politikarik, teknikari adituek, gobernu kanpoko erakundeetako nahiz tokiko administrazioetako ordezkariak Aalborg-eko Konpromisoak sinatu zituzten Aalborg+10 Herri eta Hiri Iraunkorren Konferentzian. Aipatu Konpromiso horiek hiriko iraunkortasunaren arlo ezberdinei lotuta daude; eta tokiko gobernuak helburu kualitatiboak eta kuantitatiboak identifikatzen lagundu behar dute 10 urte lehenago zehaztutako printzipioak finkatzeko.

Euskal eremuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Babeserako 3/98 Lege Orokorrak Udalerriek iraunkortasunean oinarritutako estrategiak hartzea onartzen du, beti ere gai urbano guztien inguruan ikuspuntu orokor bat izanaz.

Azken urteetan Lurralde Antolamendu eta Ingurugiro Saitetik batik bat Tokiko Agenda 21eko prozesuak sustatu dira euskal udalerrietan, zentzu honetan egin diren ekimenetatik honakoak nabarmendu daitezke:

- “Tokiko Agenden antolakuntzarako Gida Europearra” –ren Itzulpena, argitalpena eta banaketa.(ICLEI Gida)
- Urtero Udaletxeentzako dirulaguntza deialdiak Ingurumen Ekimen Planak eta prozesuak sustatzeko.
- “EAEko udalerrietan Tokiko Agenda 21 prozesuak Sustatzeko Programa 2000-2003”.
- “EAEko udalerrietan Tokiko Agenda 21 garatu eta ezartzeko Gida praktikoa”-ren argitalpena.
- EUDEL-ek, IHOBE-k eta Eusko Jaurlaritzak sustatutako UDALTALDE 21 Proiektua; EAEko 9 udalerritan Tokiko Agenda 21en gaineko proiektu-pilotoak ezartzeko.
- UDALTALDE 21 eskualde mailako Lan Taldeak garatzea; Mankomunitateak, Eskualdeko Garapen Agentziak eta Foru Aldundiekin lankidetzan.

Gaur egun, 170 udalerrri baino gehiago eta 17 UDALTALDE 21 inplikaturik daude Tokiko Agenda 21en ezarpenean. Garapen Iraunkorraren EAEko Ingurumen Estrategian (2002-2020) 2006. urterako ondoko konpromisoa biltzen da: 5.000 biztanle baino gehiago dituzten EAEko udalerrri guztiek Tokiko Agenda 21eko beren programa diseinatuta izatea da, banaka edo eskualdeka.

2003ko urrian *UDALTALDE 21 GOIERRI* konstituzio hitzarmena sinatu zuten Goierri eskualdeko Udalerrri Lan Talde batek (Altzaga, Arama, Ataun, Besain, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia, Zegama, Zerain), Eusko-Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak

(IHOBEn bidez), Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Goierriko Garapen Agentziak, GOIEKI-k.

## 1.2. Diagnostikoaren aurkezpena

Aurkezten den Iraunkortasunerako Diagnosi hau pertsona askoren arteko lanaren ondorio bat da, administrazio ezberdinen, enpresa publiko zein pribatuen, eta entitate nola herritarren lankidetzarekin batera. Diagnosi hau **2004ko irailetik abendura bitartean** egin da.

Iraunkortasunerako Udal Diagnostikoak, iraunkortasun irizpide eta modu integratzaile batean aztertzen du egungo egoera. Analisi honetatik abiatuz, Ingurumen Diagnostika egiten da, eta hau Ingurumen Ekintza Plana definitu eta eraikiko duen oinarria izango da. Baina Planak ez du espero den jo muga bakarrik izan behar, baizik eta Tokiko Agenda 21aren prozesuaren abiapuntua ere beharko du izan.

Tokiko Agenda 21 konpromezuzko dokumentu bat nola gerorako proiektu bat izango da, eta bertan gobernariak, herritarrak eta biltzen diren entitateak, beraien Udalerriko garapen iraunkorra lortzearen oinarriak jarriko dituzte.

1987an iraunkortasunaren kontzeptua iritzi publikoari aurkeztu zitzaion lehendabizikoz. Gro Harlem Bruntland andereak koordinaturiko informe batean, Ingurumen eta Garapenaren Munduko Batzordeak eskatuta, gizateriaren geroa garapen iraunkorrari erabat atxikitua azaltzen da, hau da, gizarteak egungo beren beharrak asetu behar baditu ere ondorengo generazioen beharrak konprometitu gabe izan beharko da.

Ondoko Diagnosi hau kapitulu ezberdinetan zatikatzen da ondoko gai esparruen arabera:

- Ekonomia eta Gizarte Alorra
- Ingurune fisikoa
- Lurralde antolamendu eta hirigintza planeamendua
- Natura sistemak
- Mugikortasuna eta Garraioa
- Ura
- Hondakinak
- Energia
- Atmosfera

- Lurzorua
- Akustika
- Aktibitate Ekonomikoek Ingurumenean duten eragina
- Ingurumen arriskua
- Herritarren parte-hartze eta sentsibilizazioa
- Udalerrietako ingurugiro kudeaketa eta antolamendua

Azken Kapituluan, 17 , gai esparru bakoitzeko ondorioak aurkezten dira.

Iraunkortasunerako Udal Diagnostikoa *UDALTALDE 21 GOIERRI* Lan Taldeak egin du Udaleko arduradun politiko eta teknikoen zuzendaritzapean eta udalaz gaindiko beste erakunde batzuen teknikarien eta enpresa publiko zein pribatuen elkarlanean. Horretarako, eragile sozial eta ekonomikoen partehartzea eta *INGURUNE S.L.* eta *PROSPEKTIKER S.A.* Aholkularitzen Laguntza Teknikoa kontuan hartu da.

## **2. INGURU SOZIAL ETA EKONOMIKOA**

### **2.1. Populazioa**

Ordiziako Udalerriak 5,7 km<sup>2</sup>-ko azalera eta itsasoaren mailarekiko 147 metroko altuera du.

2003. urtearen amaierako udal erroldaren datua kontutan izanik Ordiziak, 8.945 biztanle zituen, honela, 1.568,1 biztanle / km<sup>2</sup>-ko dentsitatea zuelarik.

Geografikoki, Donostiatik 39 km.-ra, Bilbotik 86 km.-ra, Gasteiztik 73 km.-ra eta Iruñatik 76 km.-ra aurkitzen da udalerria. Iparraldean Itsasondorekin egiten du muga, Hegoaldean Senpere-Berri errekarerekin, zeinak Lazkaorengandik bereizten duen, Ekialdean berriz Oria eta Amundarain ibaiekin eta azkenik Mendebaldean Lazkao eta Beasainekin Mariaratz errekarerekin bereizten dituelarik.

#### **2.1.1. Populazioaren eboluzioa**

Udalerriaren gune nagusia alde zaharraren inguruan biltzen da, zeinaren forma eliptikoak erakusten digun bere jatorria Erdi-Arokoa dela. Karlitaden ondorioz udalerriaren harresiak eraisten dira, udalerriaren zabalkundea gertatzen da errepide nazional zaharraren norabidea jarraituz, egungo Filipineta eta Urdaneta kaleetan zehar.

Egungo udalerriaren zabalkundearen hastapena XIX. mendean gertatzen da, alde zaharraren ingurua eta Errepide Errealaren ondoan: Urdaneta Kalea hasierako zabalkunde honen adibide da. Azken mende honetan zehar hasieran udalerriak zuen tamainarekin alderatuaz, 10 aldiz gehiago urbanizatu da, honela, inguruetakoko soroetan zehar eta Oriaren arroaren inguruan etxeak eraikitzen joan direlarik.


XX. mendean, 60 eta 70. hamarkadetan gertatzen da udalerriaren zabalkunde handia bere mendebaldeko aldean, Oria ibaiaren ur-ertzean. Honela, Ategi-Enea, Altamira eta Bustuntza auzuneak sortzen dira. Gertatu den azken zabalkunde garrantzitsuena Sanperio eta Arramendi Kaleen inguruan gertatu da.

Egun, Ordizian lehen sektorearen presentzia ezereza da, landun biztanleriaren 0,7ak egiten duelako sektore honetan lan. Biztanleria aktiboaren zati garrantzitsuena bigarren eta hirugarren sektoreetan kontzentratzen da. Sektore industrialaren barnean aipagarri dira metalurgiara dedikatzen diren enpresa txikiak.

Hirugarren sektorean pertsona kopuru garrantzitsuak lan egiten du eta eskualdean tradizio handia duen sektorea dugu. Honela, aipagarri da astero asteazkenetan egiten azoka. Bestalde, familia inguruko txikizkako hainbat denda aurki genitzake produktu ezberdinak saltzen dituztelarik: arropak, etxetresna elektrikoak, oinetakoak, altzairuak... eta hauei eskualde mailako hipermerkatu bat gehitu behar zaielarik.

URTEA	BIZTANLE KOPURUA	URTEA	BIZTANLE KOPURUA
1900	1.421	1991	9.377
1910	2.318	1992	9.351
1920	3.059	1993	9.316
1930	4.423	1994	9.281
1940	4.435	1995	9.210
1950	4.769	1996	9.111
1960	6.800	1997	9.092
1970	9.380	1998	9.129
1975	10.327	1999	9.093
1981	9.724	2001	9.035
1985	9.734	2003	8.945
1986	9.448		

Iturria: EUSTAT, udal serie estadistikoak (1900-2011) eta Udal Errolda [www.gipuzkoa.net](http://www.gipuzkoa.net) -tik aterata.



Iturria: EUSTAT, udal serie estadistikoak eta Udal errolda [www.gipuzkoa.net](http://www.gipuzkoa.net) -tik aterata.


60 eta 70. hamarkadetan eta 80. hamarkadaren hasieran, Ordiziako biztanleriaren hazkundera gertatu zen, inoiz izan duen biztanle kopururik handiena 1975. urtean erregistratzen delarik (10.327 biztanle). 1985. urtetik aurrera biztanleriaren hazkundera gelditu egiten da eta beheranzko joera nagusitzen hasten da, 2003. urtearen amaieran 8.945 biztanletan kokatzen delarik kopurua.

**Biztanleriaren dentsitatearen konparaketa. 2001 urtea.**

	<i>Biztanleria (Biz)</i>	<i>Dentsitatea (Biz/Km2 )</i>
<b>Euskal AE /</b>	2.082.587	287,9
<b>Gipuzkoa</b>	673.563	340,1
<b>Goierri</b>	38.851	143,4
<b>Ordizia</b>	9.035	1.585,08

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak (BEZ01).

Ordiziako biztanleriaren dentsitatea E.A.E. eta Gipuzkoakoa baino askoz altuagoa da eta Goierriekin alderatuaz, diferentzia are eta handiagoa da, izan ere, Gipuzkoako dentsitate altuenetakoa duen udalerria dugu.



Iturria: Ordiziako Udala, [www.gipuzkoa.net](http://www.gipuzkoa.net) -tik ateratako Udal Errolda.

Azken hamarkadan biztanleriaren eboluzioak pixkanakako jeitsiera erakusten digu aurreko grafikan ikus daitekeen bezala. 1997-1998. urteen artean zertxobait igotzen dela ikus dezakegu, baina berriro ere beheranzko joera nagusitzen da.

## 2.1.2. Berezko Mugimendua

### Berezko Mugimendua Ordizian

Urteak	Jaiotzak	Tasa	Heriotzak	Tasa	Hazkunde Begetatibo Tasa
1985	78	8,01	63	6,47	1,54
1986	73	7,72	65	6,87	0,85
1991	65	6,93	76	8,10	-1,17
1992	82	8,76	81	8,66	0,10
1993	71	7,62	77	8,26	-0,64
1994	67	7,21	78	8,40	1,19
1995	78	8,46	73	7,92	0,54
1996	83	9,10	76	8,34	0,76
1997	85	9,34	80	8,79	0,55
1998	82	8,98	91	9,96	-0,98
1999	88	9,67	76	8,35	1,32
2000	82	9,11	83	9,22	-0,11
2001	86	9,62	68	7,60	2,02

Iturria: EUSTAT.

Berezko hazkunde tasaren azterketak eboluzio aldakor bat erakusten du azkeneko hamarkadan. Honela, berezko hazkundeak jeitsiera nabaritzen du 1991 eta 1993. urteen artean, ordea, 1994-1997. urteen artean zertxobait errekuperatzen da, izan ere, heriotzak baino jaiotza gehiago erregistratzen delako. Aipagarria da 1995. urtetik aurrera jaiotza tasak goruntza egiten duela, batez ere, 1998 eta 2001. urteen artean jaiotza kopuru esanguratsua erregistratzen delarik. Joera horrek heriotzen kopuruaren errebantzia murriztu du eta nahiz eta, heriotza kopurua handiagoa izan jaiotzen kopurutik gertu kokatzen da.



Iturria: EUSTAT-ek eskainitako datuetatik egina.



### 2.1.3. Migrazio Mugimendua

**Biztanleria jaiotze lekuaren, sexuaren eta adinaren arabera. Ordizia. 31/12/2003.**

<b>Sexua</b>	<b>Adinak</b>	<b>Udala bera</b>	<b>Eskualdea</b>	<b>Gipuzkoa</b>	<b>Euskadi</b>	<b>Besteak</b>	<b>Guztira</b>
<b>Gizonak</b>	0-24	785	72	74	1	61	993
	25-49	873	297	335	13	292	1.810
	50-74	362	220	132	22	517	1.253
	75 -104	77	73	32	2	116	300
	Total	2.097	662	573	38	986	4.356
<b>Emakumeak</b>	0-24	802	87	76	8	69	1.042
	25-49	774	318	290	14	256	1.652
	50-74	358	243	189	22	498	1.310
	75 -104	174	124	85	21	181	585
	Total	2.108	772	640	65	1.004	4.589
<b>Biak</b>	0-24	1.587	159	150	9	130	2.035
	25-49	1.647	615	625	27	548	3.462
	50-74	720	463	321	44	1.015	2.563
	75 -104	251	197	117	23	297	885
	Total	4.205	1.434	1.213	103	1.990	8.945


Iturria: Biztanleen Udal Erroldako Estatistikak ([www.gipuzkoa.net](http://www.gipuzkoa.net) -etik aterata)

Ordiziako biztanleriaren %22,2-a beste Erkidego Autonomo batean jaio da eta hauetatik %51-ak 50 eta 74 urte bitartean kokatzen dira. Datu honek adierazten digu, pertsona hauek garapen industrialak gertatu zenean Ordiziara emigratu zutenak direla (50 eta 60. hamarkadak). Bestalde, E.A.E.-ko beste lurralde batean jaio direnak biztanleriaren %1,2a dira.

Biztanleriaren %13,5a eskualdetik kanpo, Gipuzkoako beste udalerriren batean jaio da, kasu honetan gehiengoaren adina 25 eta 49 urte bitartekoa delarik (totalaren %51,5a). Eskualdeko gainerako udalerrietan jaio diren biztanleei dagokionez, biztanleria totalaren %16a osatzen dute eta 25 eta 49 urte bitartekoen kopurua da aipagarri (%43). Gainera, esanguratsua da 25 eta 49 urte bitarteko emakumeen kopurua, baina batez ere, aipatu behar da hauetatik %42a eskualdeko gainerako udalerrietatik datozela.

Azkenik, Ordizia bertan jaio direnei dagokionez, udalerriko biztanleriaren zati handiena osatzen dute, biztanleria osoaren %47,5a hain zuzen ere. Biztanleriaren egiturari begiratuaz, biztanleriaren %37,74ak 25 urte baino gutxiago ditu. Gainera, aipaturiko gazteen kolektibo hau eta 25 eta 49 urte bitartean dituztenen kolektiboa (%39,16) kontutan izanaz, biztanleriaren %76,9a osatzen dute. Portzentaia hauetatik ondoriozta dezakegu Ordiziak biztanleria gaztea duela orokorrean.

### Biztanleriaren distribuzioa jaiotze lekuaren arabera. Ordizia eta Gipuzkoa. 31/12/2003



Iturria: Biztanleen Udal Erroldako Estatistikak ([www.gipuzkoa.net](http://www.gipuzkoa.net) lekutik aterata)

Aurreko grafikan ikus daitekeenez, biztanleria banaketaren inguruan Ordizia eta Gipuzkoaren arteko alderaketa egin ondoren esan genezake ezberdintasunak ezerezak direla, are gehiago, jatorriari dagokionez bi lurraldeen biztanleria egitura oso antzekoa da.

Atzerritik datozen pertsonen kolektiboari dagokionez, 2001. urteko Biztanleria eta Etxebizitza erroldari jarraiki, atzerritarren presentzia Ordiziako biztanleriaren %2ra murrizten da. Bestalde, kolektibo honen banaketa adinari begira nahiko homogenea dela esan genezake. Konkrétuki, Ordiziako biztanleriaren egiturarekin alderatuaz (64 urtetik gorakoak biztanleriaren %19,5a), atzerritik datozen 64 urte baino gehiago dituzten pertsonen kopurua ez dela esanguratsua azpimarratuko genuke (atzerritarren %4a dira).

### Biztanleria jaiotze lekuaren eta adinaren arabera. Ordizia. 2001.

	GUZTIRA	Udalerrria bera	Probintzi berek beste udalerrria	Erkidego berdineko probintzia desberdina	Beste erkidego bat	Atzerrian jaioa
<b>GUZTIRA</b>	8.938	4.258	2.662	102	1.744	172
<b>16-tik behera</b>	1.269	1.033	172	3	30	31
<b>16-64</b>	5.927	2.787	1.909	59	1.038	134
<b>65 edo gehiago</b>	1.742	438	581	40	676	7

Iturria: INE. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua 2001.

### Migrazio-saldoak eremu eta urtearen arabera. Ordizia.

	1991	1992	1993	1994	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001
<b>Guztira</b>	37	-48	-43	-27	-72	-18	-41	34	-17	-54	-27
<b>Kanpokoa</b>	67	-16	-39	-6	-49	-19	-19	2	-5	23	4
<b>Barnekoa</b>	-30	-32	-4	-21	-23	1	-22	31	-12	-77	-31

Iturria: EUSTAT. Migrazio Mugimenduen Estatistika.

Barne-migrazioak, jatorria EAeko udalerrri batean izanik helburua ere erkidego horretako beste udalerrri batean duten migrazioak dira. EAE eta Estatuaren eta atzerriaren artean ematen diren mugimenduei berriz kanpo-migrazioak deitzen zaie.

Aurreko taulan ikus daitekeen moduan, ia 90. hamarkada guztian zehar migrazio saldoa negatiboa izan da, konkretuki 1998. urtean aldatzen zaiolarik zeinua eta positibo bihurtu. Nahiz eta 2000 eta 2001. urteen bitartean saldoa negatiboa izan, aipagarria da kanpoko migrazioen saldoa positiboa dela eta badirudi joera hau mantenduko dela. Ordea, barneko migrazioak 1998. urtean bakarrik erregistratzen du saldo positiboa. Are gehiago, azken bi urteetan barneko migrazioak bihurtzen du migrazio saldoa negatibo.

Atal honen ondorio gisara esan genezake Ordiziako biztanleriaren maila azken urteetan antzera mantendu dela, konkretuki, esan genezake kopurua zertxobait jeitsi egin dela batez ere, migrazio saldo negatiboaren eraginez. Hala ere, 2001. urteko berezko hazkundearen saldoa positiboa dela kontutan izan behar da.

#### **2.1.4. Biztanleriaren egitura**

Biztanleriaren egituraren eboluzioa Ordizian, azterturiko beste eremu geografikoekin alderatuz antzekoa dela esan daiteke. Hala ere, esan genezake Ordiziak 0 eta 19 urte bitartean dituzten biztanleriaren kopurua esanguratsua dela, gainera, eskualdeko eta E.A.E.ko maila gainditzen duelarik, eta ia probintziaren mailara iritsiaz.

Ordea, 65 urte baino gehiago dituztenen portzentaia %19,5koa da, inguruko lurraldeetakoa baino altuagoa, honela, Gipuzkoako batez bestekoa 3 puntu portzentaletan gainditzen du; E.A.E.-ko batez bestekoa berriz 2,4 puntu portzentaletan eta azkenik, Goierrikoari ia puntu portzental bateko diferentzia ateratzen diolarik.


Azkenik esan, Ordiziako 20 eta 64 urte bitarteko biztanleria portzentaia gainerako lurraldeetan baino baxuagoa dela %62,2ko portzentaiarekin.

### Biztanleriaren egitura adin taldeen arabera

	Adin taldeak	1986	1991	1996	2001
<b>Euskal A.E.</b>	0 - 19	29,9	25,5	20,6	18,1
	20 - 64	59,7	61,9	64,0	64,9
	>= 65	10,4	12,6	15,3	17,0
<b>Gipuzkoa</b>	0 - 19	29,9	25,5	20,6	18,5
	20 - 64	59,3	61,6	64,0	64,7
	>= 65	10,8	12,9	15,4	16,8
<b>Goierri</b>	0 - 19	29,1	24,9	20,9	17,9
	20 - 64	60,4	62,1	63,0	63,3
	>= 65	10,5	12,9	16,1	18,6
<b>Ordizia</b>	0 - 19	29,0	24,2	19,9	18,3
	20 - 64	60,0	62,2	63,0	62,2
	>= 65	11,0	13,6	17	19,5

Iturria: Eustat

Biztanleriaren banaketa aztertzen badugu adin taldeak kontutan izanik, honako eboluzioa jasan duela esan genezake azken 15 urtetan:



Iturria: Eustat

Biztanleriaren egituraren eboluzioak erakusten digu gazteen taldearen (0-19) pisua 10 puntu portzentaletan jeitsi dela eta aldiz helduenen pisua (65 urtetik aurrerakoak) handitu egin dela 7,5 puntu portzentaletan. 20 eta 64 urte bitartekoen taldeak jasan du aldaketa txikiena, nahiz eta, igoeratxo bat erregistratu den. Datu hauetatik ondoriozta genezake

Ordiziako udalerrria biztanleriaren zaharkitze prozesuan murgildu dela, zeina, azterturiko gainerako lurraldeetan baino handiagoa den.

### 2.1.5. Biztanleriaren leku distribuzioa eta guneak

Ordiziako biztanleriaren gehiengoa 4 kale nagusiren inguruan kontzentratzen da, Urdaneta kalea (biztanleriaren %11,55), Nafarroa Etorbidea (biztanleriaren %7,15) eta maila txikiago batean, Gipuzkoa kalea (%5,47) eta Filipineta Kaleetan (%4,05). Lau kale hauen artean biztanleriaren %28,22a biltzen da, esan genezake portzentaia garrantzitsua dela kontutan izanik udalerriak duen kale kopurua (71 kale) eta horrek sortzen duen biztanleriaren zabalkundea.

#### Biztanleriaren leku banaketa eta guneak. 31/12/2003.

KALEAK	%
AGIRREBIDEA	0,08%
AITA URDANETA AUZOA	2,09%
ALTAMIRA KALEA	2,08%
AMERIKA KALEA	0,38%
ARANA KALEA	5,34%
ARKARTEALDEA	0,00%
ARRAMENDI KALEA	1,24%
ARRAMENDIBIDEA	0,25%
ARTEAGA KALEA	0,23%
BIONA PLAZA	0,80%
BUSTUNTZA ETXEALDEA	1,71%
BUSTUNTZA PLAZA	1,54%
DIEGO RIVERO KALEA	0,26%
DISEMINADO RURAL	0,00%
DISEMINADO URBANO	0,00%
DOMINGO UNANUE PLAZA	1,59%
EGUTERABIDEA	1,49%
ELKANO KALEA	0,80%
ETXEZARRETA KALEA	1,39%
EUSKAL HERRIA KALEA	0,47%
EUSKAL PILOTA KALEA	2,55%
FILIPINETA KALEA	4,05%
FORJEN PASEALEKUA	0,15%
GARAGARTZA PLAZA	2,69%
GERNIKAKO ARBOLA K.	1,40%
GIPUZKOA KALEA	5,47%
GOENKALEA	0,78%
GOIERRI KALEA	3,04%
GOITIA KALEA	0,06%
GRANJA SAN ISIDRO	0,08%

GUDARIEN ETORBIDEA	0,30%
IBARBIA KALEA	0,50%
IDOIAGA PLAZA	0,67%
INTSAUSTI PLAZA	1,44%
IRUBURUETA KALEA	0,53%
ITURTXOBIDEA	0,75%
J.MIGEL BARANDIARAN	1,25%
JOSEBA REZOLA PAS.	0,31%
KALE BERRIA	0,89%
KALE NAGUSIA	1,27%
LAPURDI KALEA	0,55%
LAZKAOMENDI KALEA	3,19%
LEGAZPI KALEA	0,42%
LEKUEDER ETXEA	0,16%
LUKUSIN PLAZA	2,40%
MAJORI PLAZA	3,43%
MARIARATZ KALEA	0,55%
MARIARATZALDE	0,17%
MARIBARATZA KALEA	1,61%
MENDIZABAL KALEA	0,72%
NAFARROA ETORBIDEA	7,15%
NIKOLAS LEKUONA PL.	0,00%
OIANGURENALDEA	0,02%
OIANGURENBIDEA	2,45%
OKORROBIDEA	2,39%
ORDIZIA KALEA	0,18%
ORIA KALEA	0,15%
OTATZA PLAZA	0,92%
PLAZA NAGUSIA	0,36%
S.PEDRO-DONE PETRI K	0,15%
SAMPERIO KALEA	2,75%
SAN BARTOLOME KALEA	0,82%
SAN INAZIO KALEA	1,61%
SAN JUAN AUZOA	1,12%
SANTA M <sup>a</sup> -ANDRE MARIA	1,31%
TXINDOKI ETXADIA	1,73%
TXINDOKI KALEA	0,29%
URDANETA KALEA	11,55%
ZABALABIDEA	0,19%
ZALDIBIBIDEA	0,07%
ZUMALAKARREGI ETORB.	1,07%
<b>GUZTIRA</b>	<b>100%</b>

Iturria: Udal Errolda ( [www.gipuzkoa.net](http://www.gipuzkoa.net)- etik aterata).

## 2.2. Iharduera sozioekonomikoa

### 2.2.1. Udalerriaren garapen ekonomikoaren maila

Udalerri baten garapen ekonomikoaren maila, besteak beste, udalerriko biztanleko Barne Produktu Gordinaren (BPG) bidez neurtzen da, eremu geografiko baten une bateko aberastasun mailaren indikadore bat izanik.

#### Udalerrikako biztanleko BPGa. 2000. €

	<i>Biztanleko BPGa</i>	<i>Indizea</i>
<i>Euskal AE</i>	19.316	100
<i>Gipuzkoa</i>	19.691	102
<i>Goierri (21)<sup>1</sup></i>	21.245	110
<i>Ordizia</i>	15.940	83

*Iturria: EUSTAT. Kontu Ekonomikoak.*

Ordiziako udalerriaren kasuan, biztanleko Barne Produktu Gordina (BPG) inguruko eremuena baino beherago aurkitzen zen 2000. urtean. Konkretuki, Ordiziako BPG-a Euskal AE-koa baino 17 puntu, Gipuzkoakoa baino 19 puntu eta Goierrikoa baino 27 puntu portzentual beherago aurkitzen zen.

#### Udalerrikako biztanleko familia-errenta gordina. 1997. €

	<i>Familia-errenta gordina biztanleko</i>	<i>Indizea</i>
<i>Euskal AE</i>	8.258	100
<i>Gipuzkoa</i>	8.399	102
<i>Goierri (21)</i>	8.209	99
<i>Ordizia</i>	8.696	105

*Iturria: EUSTAT. Kontu Ekonomikoak.*

Udalerri baten aberastasuna eta garapen ekonomikoa neurtzen duen beste indikadore arruntenetako bat udalerriko biztanleko familia-errenta gordina izaten da. Aurreko indikadorean gertatzen zenaren kontra, kasu honetan Ordiziak, gainontzeko ondoko eremu geografikoak baino biztanleko familia-errenta gordin altuagoa du. Honela, familia-errenta gordina Goierrikoa baino 6 puntu portzentual, Gipuzkoakoa baino 3 puntu eta Euskal AE-koa baino 5 puntu handiagoa da.

<sup>1</sup> Estatistika hau EUSTAT-ek definitzen duen "Goierri" komarkalizazioari dagokio, hau da, Urola Garaiko 4 Udalerriak sartzen dituena eta Legorreta kanpo uzten duena.

## 2.2.2. Sektore ekonomikoak

Sektore ekonomiko desberdinen pisua neurtzeko orduan, gehien erabiltzen diren indikadoreetako bi dira balio gordin erantsiaren eta biztanleria okupatuaren distribuzioa sektoreka.

### Udalerrrikako balio erantsiaren egitura. 2000. Ehunekoak.

	<b>Guztira</b>	<b>Lehen sektorea</b>	<b>Industria</b>	<b>Eraikuntza</b>	<b>Zerbitzuak</b>
<b>Euskal AE</b>	100	1,4	32	6,8	59,8
<b>Gipuzkoa</b>	100	0,94	36,12	5,41	57,53
<b>Goierri</b>	100	1,03	58,59	5,06	35,32
<b>Ordizia</b>	100	0,14	43,19	6,11	50,56

Iturria: EUSTAT. Kontu Ekonomikoak.

### 16 urte eta gehiagoko biztanleria landuna jarduera-adarren arabera. 2001.

	<b>Guztira</b>	<b>Lehen sektorea</b>	<b>Industria</b>	<b>Eraikuntza</b>	<b>Zerbitzuak</b>
<b>Euskal AE</b>	100	1,8	27,5	8,7	62,1
<b>Gipuzkoa</b>	100	1,7	31,5	8,2	58,5
<b>Goierri</b>	100	2,0	45,7	7,0	45,4
<b>Ordizia</b>	100	0,6	44,8	6,6	48,0

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua 2001.

Aurreko koadroetan ikus daitekeen moduan, zerbitzuen sektorea da Ordiziako sektorerik garrantzitsuena balio erantsiaren arabera baita enpleguari dagokionez ere, Goierri sektore honek duen pisu portzentuala baino handiagoa izanik. Egitura hau, Gipuzkoa eta E.A.E.-ren egitura ekonomikoaren antzekoa da, azken ekonomia hauetan hirugarren sektoreak pisu handia duelarik. Aipagarria da Ordizia eta Goierri artean dagoen diferentzia industria sektorearen alorrean, izan ere, eskualdean industria sektoreak garrantzi handiagoa duelako balio erantsiari dagokionez, aldiz, enpleguaren kasuan diferentziak murriztu egiten direlarik.

Honetaz gain, eraikuntzaren sektoreak pisu erlatibo handiagoa du Ordizian gainontzeko eremu geografikoetan baino, balio erantsiaren arabera neurtzen bada behintzat. Eraikuntzaren pisu hau enpleguaren arabera neurtzen bada ordea, bere pisua gainontzeko eremu geografikoetan baino baxuagoa da. Aipatzekoa da nekazaritzak gainerako lurraldeekin alderatuaz duen pisu eskasa.

Azkeneko urteetako eboluzioari dagokionean, 1986 eta 2001 urteen artean Ordiziako ekonomia hirugarren sektorerantz eraldatzen joan da. Honela, industria sektoreko enpleguen pisua nabarmen murrizten joan den neurrian, zerbitzu sektoreak enpleguaren gorakada nabari bat izan du eta baita eraikuntza sektoreak ere, nahiz eta hazkundera txikiagoa izan. Azkenik, nekazaritzari dagokionez, azken 15 urte hauetan sektore honen egoera antzera mantendu da, egun enpleguaren %0,6a suposatzen duelarik.



**Biztanleria okupatuaren distribuzioa jarduera-adarraren arabera. Ordizia. 2001.**

	1986	1991	1996	2001
<b>Nekazaritza</b>	0,6	0,7	0,7	0,6
<b>Industria</b>	56,5	50,8	47,1	44,8
<b>Eraikuntza</b>	4,6	6,0	5,8	6,6
<b>Zerbitzuak</b>	38,3	42,5	46,4	48,0

Iturria: EUSTAT.

**Lehenengo Sektorea**

Lehen aipatu den bezela, lehenengo sektoreak pisu erlatibo txikia du Ordiziako ekonomian, azken 15 urte hauetan aldaketa handirik jasan ez duelarik.

Abelzaintzari dagokionez, azienda guztien gainera behi eta ardiak aurkitzen dira, batez ere ardiarena, %78,8-a suposatzen dutelarik (620 unitate konkretuki), azterturiko gainontzeko eremuetan gertatzen den bezela.

**Abelzaintza unitateak. Ordizia. 1999.**

Lurraldea	AZIENDAK					Hegaztiak(milaka)	Untxi Amak	Erlauntzak
	Behiak	Ardiak	Ahuntzak	Txerriak	Zaldiak			
<b>Euskal A.E.</b>	180.011	316.994	20.414	38.407	16.651	2.195	58.515	5.547
<b>Gipuzkoa</b>	69.365	158.426	5.906	7.504	5.602	1.080	27.311	1.362
<b>Goierri</b>	8.532	27.452	642	621	1.236	385	7.760	178
<b>Ordizia</b>	149	620	12	0	6	0	47	0

Iturria: EUSTAT. Nekazal Zentsua 1999

Bestalde, zentsatutako ustiapenen distribuzioa ganadu eta ganadurik gabe, E.A.E-ren antzekoa da, zeinetan abererik ez duten ustiapenak gehiengoaren diren (ia %52). Ez da gauza bera gertatzen Gipuzkoan eta Goierriin, izan ere, abereak dituzten ustiapenak gehiago direlako.

Bestalde, ustiapenek betetako azalera kontutan izanda, azpimarragarria da batz besteko ustiapenek betetzen duten eremua Ordizian (7,95 Ha) txikiagoa dela, Goierriko (13Ha) Gipuzkoako (13,1 Ha) eta Euskal Autonomi Erkidegoko (15,1 Ha) batz besteko azalerekin alderatuz gero. Azkenik, lurrik gabeko 2 ustiapen aurkitzen dira Ordizian, zeinak udalerrian dauden ustiapenen %4,4a suposatzen duten, aldiz, azterturiko gainerako lurraldeetan kopuru hori %1 ingurukoa da.

**Ustiapen zentsatuak eta guztizko azalera. 1999.**

	Guztira		Abelzaintzaren		Abelzaintzarik gabe		Lurrik gabeko ustiapenak
	Nº	Ha.	Nº	Ha.	Nº	Ha.	Nº
<b>Euskal AE</b>	39.956	606.187	19.066	245.930	20.568	360.257	322
<b>Gipuzkoa</b>	12.405	162.071	7.328	92.504	4.938	69.567	139
<b>Goierri</b>	1.961	25.464	1.067	10.932	866	14.531	28
<b>Ordizia</b>	45	358	20	175	23	183	2

Iturria: EUSTAT.

Lurzoruaren erabileraren banaketari so eginez, azpimarratu beharrekoa da Ordizian, aztertutako beste lurraldeen antzera, pisu gehien hartzen duen erabilera zuhaitz baso trinkoa eta larreak direla, izan ere bi erabilera mota horiek guztizkoaren %75-a bereganatzen baitute. Bestalde, Ordizian ez da ia lan trinkoentzako lurrik erregistratzen. Joera hau Goierriko beste udaletan ematen baldin bada ere, ez da gauza bera gertatzen Gipuzkoa mailan, eta are gutxiago Euskal Autonomi Erkidego mailan, non %14-ko proportzioa hartzen duen.

#### Lurzoruaren erabileren banaketa, lurralde-eremuei jarraiki (hektareak). 1996.

	<i>Etzeak</i>	<i>Larreak</i>	<i>Larrediak</i>	<i>Sastrak adia</i>	<i>Zuhaitz baso trinkoa</i>	<i>Zuhaitz baso barbana</i>	<i>Lan trinkoak</i>	<i>Guztira</i>
<b>Euskal AE</b>	45.259	111.078	25.378	53.971	359.547	30.458	97.790	723.481
<b>Gipuzkoa</b>	12.054	45.683	6.994	13.933	110.973	7.282	1.114	198.033
<b>Goierri</b>	1.065	5.924	756	1.824	20.185	1.054	72	30.880
<b>Ordizia</b>	113	156	-	7	275	21	-	572

Iturria: Eusko Jaurlaritza. *Industri, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Baso Inbentarioa. 1996*

Lurren edukitza-erregimenari dagokionez, 1996-ko Nekazal Zentsuaren datuen arabera, ustiapen guztiak jabetza erregimenean daude. Portzentai hau Gipuzkoa (97%) eta Goierrikoaren (98%)<sup>2</sup> antzekoa da.

#### Bigarren Sektorea

Biztanleria aktiboaren portzentaia nagusienak bigarren eta hirugarren sektorean kokatzen dira. Industria sektorearen inguruan, metalurgiarekin zerikusia duten industria txikiak nabarmenduko genituzke. Ordiziako enpresarik garrantzitsuena *Orkli* kooperatiba da, zeinak, berogailu eta ur beroaren segurtasun osagaiak egiten dituen. Bestalde, nahiz eta Beasaingo udalerrian kokatzen den, *CAF* enpresak hainbat instalakuntza ditu Ordizian eta bertako langile askok egiten dute enpresa honetan lan.

<sup>2</sup> Estatistika hau EUSTAT-ek definituriko "Goierri" eskualdeari dagokio, hau da, Urola Garaiko 4 Udalerririk barne sartzen dituen eta Legorreta kanpo uzten duena.

Jarraian, 10 langile baino gehiago dituzten Ordiziako enpresak aurkezten dira:

<b>ENPRESA</b>	<b>LANGILEAK</b>	<b>JARDUERA</b>
<b>Aguirrezabala Olano, Juan.</b>	19	Reparación y adaptación de muebles. Comercio de muebles.
<b>Anodizados Especiales y Duros, S.L.</b>	20	Tratamientos de anodizado duro del aluminio y sus aleaciones, anodizado industrial, endurecimiento superficial del aluminio.
<b>Eroski, S. Coop.</b>	132	Hipermercado. Elaboración y manipulación de productos alimenticios.
<b>Esparru Erainkutz, S.L.</b>	30	Realización de estructuras de hormigón. Realización de trabajos de albañilería.
<b>Goilaser, S.A.</b>	23	Fabricación de productos metálicos, construcción de maquinaria y equipo mecánico, construcción de vehículos automóviles y sus piezas de repuesto, construcción de máquinas de oficina, construcción de otro material de transporte.
<b>Mekalan, S.A.</b>	20	Reparación de maquinaria en general; mecanizado; construcción de maquinaria por encargo para la industria.
<b>Orkli, S.C.L.</b>	479	Fabricación y ensamblaje de componentes para regulación, control y seguridad en electrodomésticos, climatización, calefacción e instalaciones. Grupos magnéticos, electroválvulas, termopares, válvulas de seguridad, válvulas termostáticas, válvulas para radiadores, válvulas de esfera, reguladores electrónicos para instalaciones de calefacción central e individual y de captación solar, válvulas de zona, mezcladora termostática, diferencial, de llenado y reductores de presión.
<b>Ormalan, S.A.</b>	11	Fabricación de artículos de madera. Ingletes de madera para marquetería, estuches de madera para herramientas, aparatos de precisión, etc., pizarras murales para tiza y rotulador, tablero de corcho para anuncios, pomos de madera para cerraduras, detalles de madera para el hogar (servilleteros, cuberteros, paneras, saleros, toma notas, porta rollos, estanterías, cajas para limpieza de calzado, etc.).
<b>Panadería de Alza, S.A.</b>	11	Elaboración de pan y bollería.
<b>Panificadora del Goierri, S.L.</b>	38	Fabricación de pan, bollería y pastelería. Pan normal, pan especial, de molde, sin sal, integral, artesanos, caseros, de centeno. Croissants, medias noches, ogi-bocatas, perritos, sobaditos, ogi-txokos, croissants rellenos.
<b>Pastelería Unanue, S.A.</b>	84	Pasteles, hojaldres, tartas, bombones, etc..
<b>Talleres Mecánicos Herbe, S.A.</b>	16	Fabricación de válvulas de retención y guillotina.
<b>Talleres Protegidos Gureak, S.A.</b>	1.222	Montaje de conjuntos eléctricos y mecánicos.

Iturria: Euskal Industria eta Esportatzaileen Katalogoa (CIVEX)

## Hirugarren Sektorea

70. hamarkadatik aurrera, industriaren jardueraren gailentasunarekin, hirugarren sektorearen hazkundera gertatzen hasten da bai biztanleriari baita jarduera ekonomikoari dagokionean.

Hirugarren sektorean pertsona askok egiten dute lan eta eskualdean tradizio handia izan du. Ordizian konkretuki, asteazkenero egiten den merkatuak garrantzi handia izan du. Bestalde, familiarteko gutxizkaritzako merkataritza aipatuko genuke, zeinak produktu dibertsitate handia eskaintzen duen: arropak, oinetakoak, altzariak, elektrogailuak... hauei, eskualde mailako izaera duen hipermerkatu bat gehitu behar zaielarik.

Udalerriko establezimenduen azterketa bat eginez gero jarduera adarren arabera, udalerriko %79a zerbitzuen sektoreara lotuak aurkitzen dira, gainera, mota honetako establezimenduen kopurua handitzen joan da urtetik urtera. Zerbitzuen sektorea osatzen duten azpisektoreen artean "merkataritza, ostalaritza eta garraioa"-ren azpisektorea azpimarratuko genuke, izan ere, establezimenduen %46a suposatzen dutelako. Ondoko taulan ikus dezakegunez, gainerako lurraldeetan ere antzeko fenomeno gertatzen da.

### Establezimenduak, udalerriri jarraiki, jarduera-adarren arabera. 2003.

	Guztira		Industria eta energia	Eraikuntza	Merkataritza, ostalaritza eta garraioak	Bankuak, aseguruak eta enpresa-zerbitzuak	Bestelako zerbitzu-jarduerak
	KOP.	Enplegua					
<b>Euskal A. E</b>	171.988	806.220	15.185	23.070	75.553	32.627	25.553
<b>Gipuzkoa</b>	61.870	271.258	5.988	9.264	25.705	11.261	9.652
<b>Goierri</b>	3.071	15.747	363	424	1.400	361	523
<b>Ordizia</b>	702	2.621	49	96	324	91	142

Iturria: EUSTAT. Ekonomia Ihardueren Direktoria.

Zerbitzuen sektorearekin lotura duen eta aztergaia den beste eremu bat "Informazioaren Gizartea"-rena litzateke. Udalerriri mailan aurki genitzakeen adierazle gutxi batzuetakoa da aipaturiko adierazle hau eta nolabait, adierazle honek erakusten diguna da Konekta Zaitetz programaren bidez lorturiko ekipamendu informatiko kopurua. Ondoko taulan ikus daitekeen moduan, Konekta Zaitetz bidezko ekipamendu informatikoen erosketa maila handiagoa da Ordizian eskualde mailako batez bestekoarekin alderatuaz. Ordea, Gipuzkoa eta E.A.E.-ko batez bestekoak baino baxuagoa da Ordiziakoa. Adin taldeei erreparatzen badiogu, inizatiba honen bidez ekipamendu gehien lortu dituen adintaldea 25 eta 44 urte bitartekoa da, zeinak %61,6a suposatzen duen. Sexuari begira, ekipamendu informatikoak erosten dituztenen %64,8a gizonezkoak dira.

Konekta Zaitzez-en bidez tresna informatikoak erosi dituen 15 urte eta gehiagoko biztanleria, lurralde-eremuari jarraiki, sexuaren eta adinaren arabera. 2001 Urteko eroste-tasa o/oo.

	Guztira	Sexua		Adina						Eroste Tasa
		Gizonez koak	Emakum ezkoak	15-24	25-34	35-44	45-54	55-64	>64	
<b>Euskal A. E</b>	88.373	55.369	33.004	10.995	25.187	26.294	17.241	5.922	2.734	42,4
<b>Gipuzkoa</b>	27.106	16.598	10.508	3.497	7.881	7.878	5.228	1.826	796	40,2
<b>Goierri<sup>3</sup></b>	2.140	1.391	749	268	621	676	399	129	47	33,7
<b>Ordizia</b>	347	225	122	43	108	106	68	18	4	38,8

Iturria: EUSTAT. Konekta Zaitzez estadistika. -EKZ-

### 2.2.3. Biztanleria aktiboa eta sektorekako banaketa

Hurrengo taulan Ordiziako biztanleriak jarduerarekiko duen konposizioa aurkezten da. 2001. urtean Ordiziako langile aktiboak (lanik dutenak ala lana bilatzen ari direnak) 17.513, %45,3a dira eta inaktiboak (lanik ez izanik bilatzen ez dutenak) 21.338, %54,7-a. Datu hauek beste lurraldeekin alderatuz gero, aktibitate tasa Ordizian Goierrikoaren antzekoa da (%45,1) eta zertxobait altuagoa Gipuzkoan (%47,9) eta E.A.E.-n (%46,8).

#### Biztanleria, jarduerarekiko erlazioaren arabera, lurralde-eremuka. 2001.

	Guztira	LANE Aktiboak					LANE Inaktiboak	Aparte kontatuak
		Guztira	LANE Okupatuak	LANE langabeak				
				Guztira	Lehen Enplegua	Lanik egin dutenak		
<b>Euskal A.E</b>	2.082.587	975.773	862.407	113.366	25.455	87.911	1.106.814	-
<b>Gipuzkoa</b>	673.563	323.074	291.606	31.468	5.856	25.612	350.489	-
<b>Goierri</b>	38.851	17.513	16.210	1.303	326	977	21.338	-
<b>Ordizia</b>	8.938	4.049	3.734	315	64	251	4.889	-

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua. 2001.

Hurrengo taulan ikus daitekeenez Ordiziako okupazio-tasak aurrerapausu nabaria eman du azkeneko bi hamarkadetan. Aurrerapauso hori, batez ere, lan egiteko adinean dagoen biztanleri kopurua (16-64) 20 urteren buruan 28 puntu portzentaletan jaitsi delako azaltzen da. Honela, aktibitate tasa 1981etik 2001. urtera bitartean igotzen joan da, %52,7an kokatuaz. Bestalde, okupazio tasak ere goruntza egin du nahiz eta gora-behera gehiago izan dituen, %63,03an kokatzen delarik.

Azkenik, langabezi tasa murriztu egin da, nahiz eta 1981 eta 1986 urteen artean nabarmen hazi zen, baina berriro beherantz egin zuen eta 2001 urtean %4,1ean kokatzen da.

<sup>3</sup> Estatistika hau EUSTAT-ek definituriko "Goierri" eskualdeari dagokio, hau da, Urola Garaiko 4 Udalerririk barne sartzen dituen eta Legorreta kanpo uzten duena.

**Aktibitatearen arabera biztanleriaren eboluzioa. Ordizia. 1981-2001**

<b>Biztanleria aktibitatearen arabera</b>	<b>1981</b>	<b>1986</b>	<b>1991</b>	<b>1996</b>	<b>2001</b>
<b>16 urte edo gehiagoko biztanleria</b>	7.328	7.513	7.846	7.883	7.683
<b>16-64 urte bitarteko biztanleria</b>	6.351	6.417	6.487	6.261	5.924
<b>Aktiboak guztira</b>	3.494	3.614	3.793	3.820	4.049
<b>Landunak</b>	2.949	2.776	3.219	3.127	3.734
<b>LANE langabeak</b>	545	838	574	693	315
<b>Lehen enplegu bila</b>	-	-	264	355	64
<b>Lanik egin dute</b>	-	-	310	338	251
<b>Ez aktiboak</b>	-	-	3.876	5.292	4.889
<b>Aparte kontatutakoak</b>	-	-	-	8	0
<b>Tasak</b>	<b>1981</b>	<b>1986</b>	<b>1991</b>	<b>1996</b>	<b>2001</b>
<b>Aktibitate tasa (16 urte edo gehiagoko biztanleriarekiko)</b>	47.68%	48.10%	48.34%	48.46%	52.70%
<b>Okupazio tasa (16-64 urteko biztanleriarekiko)</b>	46.43%	43.26%	49.62%	49.94%	63.03%
<b>Langabezia tasa (16 urte edo gehiagoko biztanleriarekiko)</b>	7.44%	11.15%	7.32%	8.79%	4.10%

Iturria: EUSTAT

Datu hauen adierazgarritasuna ikusteko, beharrezkoa da beste lurraldeko datuekin alderatzea. Ordizian, aktibitate-tasa eta okupazio tasa gainerako lurraldeetakoaren antzeko aurkezten dira, alabaina, aipagarria da Ordiziako okupazio tasa gainerako lau lurraldeetako baina handiagoa dela. Ezberdintasunik handiena langabezia tasari nabari dezakegu, izan ere, Ordizian eta Goierrin baxuagoa delako Gipuzkoa eta E.A.E.-n baino.

**Aktibitate, okupazio eta langabezia tasen alderakuntza lurraldeka. 2001**

<b>Tasak</b>	<b>Ordizia</b>	<b>Goierrri</b>	<b>Gipuzkoa</b>	<b>E.A.E.</b>
<b>Aktibitate tasa (16 urte edo gehiagoko biztanleriarekiko)</b>	52,7%	52,2%	54,1%	53,4%
<b>Okupazio tasa (16-64 urteko biztanleriarekiko)</b>	63,0%	61,8%	62,6%	59,6%
<b>Langabezia tasa (16 urte edo gehiagoko biztanleriarekiko)</b>	4,1%	3,9%	8,3%	11,1%

Iturria: EUSTAT

**2.2.4. Langabeziaren analisi eta eboluzioa**

Esan bezala, Ordiziako langabezia tasa Gipuzkoa eta E.A.E.-koa baino baxuagoa eta Goierrikoaren antzekoa da. Egailanek eskeintzen dituen 2004-ko lehenengo hiruhilabeteko INEM-eko datuak gauza bera esatera datoz, honela, Ordiziak Goierriko langabezia tasa gaintzen du (%5,51 Goierriko %4,94aren aurrean), baina Gipuzkoa eta E.A.E.-ko tasen azpitik. Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri guztiekin zerrenda bat eginez gero, Ordizia 137. (250-etik) postuan egongo litzateke, 49. Gipuzkoan (88-tik) eta 14. Goierrin (18-tik).

Adin banaketari dagokionez, Ordizian langabezia tasa 44 urtetik goragokoen artean kontzentratzen da gehienbat, Goierrin, Gipuzkoan eta E.A.E.-n bezala. Sexuari erreparatu gero, gainerako lurraldeetan gertatzen den bezala, emakumezkoen langabezia tasa (%64,5)

altuagoa da gizonezkoena baino.

### Langabeak adin-talde eta sexuaren arabera. 2004-ko 1. hiruhilabetea

	<b>Adinak</b>	<b>&lt;25urte</b>	<b>25- 34</b>	<b>35- 44</b>	<b>&gt; 44 urte</b>	<b>TOTAL</b>	<b>TASA</b>
<b>Ordizia</b>	Gizonezkoak	9	16	19	35	79	
	Emakumezkoak	10	37	31	66	144	
	<b>Guztira</b>	<b>19</b>	<b>53</b>	<b>50</b>	<b>101</b>	<b>223</b>	<b>5,51%</b>
<b>Goierri</b>	Gizonezkoak	45	67	76	128	316	
	Emakumezkoak	72	176	106	195	549	
	<b>Guztira</b>	<b>117</b>	<b>243</b>	<b>182</b>	<b>323</b>	<b>865</b>	<b>4,94%</b>
<b>Gipuzkoa</b>	Gizonezkoak	1,114	2,463	1,857	3,169	8,603	
	Emakumezkoak	1,199	3,719	3,211	4,704	12,833	
	<b>Guztira</b>	<b>2,313</b>	<b>6,182</b>	<b>5,068</b>	<b>7,873</b>	<b>21,436</b>	<b>6,64%</b>
<b>Euskal A.E</b>	Gizonezkoak	4,453	9,089	6,400	11,972	31,914	
	Emakumezkoak	4,506	12,716	11,229	15,106	43,557	
	<b>Guztira</b>	<b>8,959</b>	<b>21,805</b>	<b>17,629</b>	<b>27,078</b>	<b>75,471</b>	<b>7,73%</b>


Iturria: INEM. EGAILAN.

### Langabeak lanbide-multzo nagusien arabera. 2004-ko 1. hiruhilabetea

	<b>Ordizia</b>	<b>Goierri</b>	<b>Gipuzkoa</b>	<b>E.A.E.</b>
<b>Zuzendariak</b>	2	9	230	964
<b>Teknikoak eta zientzialariak</b>	21	114	2,876	10,104
<b>Teknikoak eta laguntza prof.</b>	23	96	2,620	9,488
<b>Langile administratiboak</b>	23	92	2,614	9,811
<b>Zerbitzuetako langileak</b>	34	126	3,757	13,741
<b>Nekazaritzako langileak</b>	0	2	181	633
<b>Langile trebatuak</b>	16	75	2,166	8,267
<b>Makineria jarduleak</b>	7	37	1,076	3,728
<b>Langile ez trebatuak</b>	97	314	5,916	18,731
<b>Armada</b>	0	0	0	4
<b>GUZTIRA</b>	<b>223</b>	<b>865</b>	<b>21,436</b>	<b>75,471</b>


Iturria: INEM. EGAILAN..

Lanbide-multzokako langabeziaren analisiak esaten digu Ordizian, gainerako lurraldeetan bezala, langile ez trebatuen artean kontzentratzen dela langabezia tasa altuena (%41,7). Jarraian, langabetu kopurua kontutan izaten badugu, zerbitzuetako langileak, langile administratiboak eta tekniko eta zientzilarien taldeak etorriko lirateke.



Iturria: INEM. EGAILAN.

Langabeziaren iharduera ekonomikoaren araberako banaketari dagokionez, “Industria Manufakturoeroak” iharduera da langabetu gehien dituen (%45,3). Bigarren maila batean, “Beste Zerbitzuak” eta “Merkataritza eta ostalaritza” sektoreak aipatuko genituzke langabetuen gehiengoa biltzen baitituzte.




Iturria: INEM. EGAILAN.



Maila akademikoaren arabera Ordizian biztanleriak jarraitzen duen distribuzioaren eta aztertutako beste lurraldeenaren alderaketa egiterakoan azpimarragarria da Ordizian langabezia gehien jasaten duen taldea eskola ziurtagiria eta E.G.B. dutenak direla. Beste lurraldeei dagokionez berriz, eskola ziurtagiria ez dutenen taldean nabari da langabezia gehien.

Langabeziaren eboluzioa azken urteotan zein izan den ikertzean, argi ikus daiteke azken urteotan tasak behera egin duela eta batez ere 1997 eta 2003. urteen bitartean. Hala eta guztiz ere, 2001 urtetik aurrera beherakada horrek ez du jarraitu, langabezia antzeko maila batean mantendu delarik. Aipagarria da 2003. urteko hirugarren hiruhilabetean egiten duen igoera %5,9tik %7,15era iraganaz, hala ere, 2004. urtean berriro ere jeitsiera bat gertatzen da %5,8an kokatuaz.



Iturria: INEM. EGAILAN.

Lan-merkatuaren analisia egin nahi bada oso aproposa izan ohi da kontratazioaren azterketa egitea, hau da, zer nolako kontratuak egiten diren, zer motakoak diren zabalduenak etab. Ordiziaren kasuan, kontratu berrien aldi-batekoen proportzioa oso handia da, esan genezake Goierri, Gipuzkoa eta E.A.E-ko maila gainditzen dela, izan ere, 2004. urteko lehenengo hiruhilabetean egindako kontratuen %92,2a aldi batekoak izan ziren. Kontratu mugagabekoaren proportzioa kontutan izanaz, Ordizian, Goierri baino 3 puntu portzentual baxuagoa erregistratzen da eta Gipuzkoa eta E.A.E.-n baino puntu erdi baxuagoa.

Honela, azpimarragarria da egun, Ordizian kontratuen %7,8a bakarrik direla mugagabe.

**Kontratuak tipologiaren arabera. 2004ko lehen hiruhilabetea.**

<b>KONTRATUA</b>	<b>ORDIZIA</b>	<b>GOIERRI</b>	<b>GIPUZKOA</b>	<b>EAE</b>
<i>Kontratu finko jarraia</i>		0.3%	0.2%	0.1%
<i>Mugagabetan bihurtutakoak</i>	5.3%	7.1%	4.6%	4.1%
<i>Jarrai mugagabe / Jarr. Mug. Rdl 5/2001</i>		0.7%	0.4%	0.2%
<i>Elbarrituentzako finko eta etengabeak</i>			0.0%	0.0%
<i>12/2001-24/2001 Legea Mugagabe arruntak</i>	1.1%	1.0%	1.4%	1.8%
<i>Rdl 5/2001 A.B mugagabeak</i>	0.3%	0.2%	0.4%	0.6%
<i>Mugagabeak aldi osoa bonifikazioarekin</i>	0.8%	0.8%	1.0%	1.1%
<i>Mugagabeak aldibatekoak elbarrientzat</i>		0.0%	0.0%	0.0%
<i>Mugagabeak aldi osoaelbarrientzat</i>			0.0%	0.0%
<i>Mugagabeak aldibatekoak bonifikazioarekin</i>	0.3%	0.2%	0.3%	0.4%
<b><i>Mugagabeak guztira</i></b>	<b>7,8%</b>	<b>10,3%</b>	<b>8,3%</b>	<b>8,3%</b>
<i>Giza lankidetzako kontratuak</i>				0.0%
<i>Aldi osoko lanbideratze kontratuak</i>			0.1%	0.1%
<i>Aldi osoko errelebu kontratua</i>		1.2%	0.6%	0.4%
<i>A.O Behin-behinekoak produkzio beharrragatik</i>	45.0%	31.5%	30.9%	27.6%
<i>Prestakuntza</i>	0.3%	0.4%	0.3%	0.3%
<i>Aldi osoko aldartekotasuna</i>	4.7%	7.5%	10.6%	10.2%
<i>64 urteko erretiro berezia</i>			0.0%	0.0%
<i>Lan/zerbitzu baterako A.O</i>	25.4%	28.6%	21.1%	26.8%
<i>Besteak</i>		0.0%	0.1%	0.2%
<i>Praktikak A.O.</i>	0.6%	0.7%	0.8%	0.7%
<i>Elbarrien aldi baterako kontratuak</i>	0.3%	0.1%	0.1%	0.1%
<i>Aldi batekoak, behin behinekoak</i>	15.9%	19.6%	26.9%	25.2%
<b><i>Aldi batekoak guztira</i></b>	<b>92,2%</b>	<b>89,6%</b>	<b>91,5%</b>	<b>91,6%</b>

Iturria: INEM. EGAILAN.

Kontratuen tipologia adinen arabera banatzean ikusten da aldibateratasunak 20 urtetik beherakoengain eragiten duela batez ere (%100 dira aldibaterakoak) eta baita 20 eta 44 urte artekoen artean. Honela, 45 urte eta gehiago dituztenen artean aldibaterako kontratu tasa txikiagoa erregistratzen da, alabaina, kontutan izan behar da adin talde hau proportzionalki txikiagoa dela.

**Kontratuen tipologia adinen arabera. Ordizia. 2004ko lehen hiruhilabetea.**

<b>Kontratua</b>	<b>&lt; 20</b>	<b>20 / 24</b>	<b>25 / 29</b>	<b>30 / 44</b>	<b>45 y +</b>	<b>Guztira</b>
<b><i>Guztira</i></b>	<b>9</b>	<b>73</b>	<b>86</b>	<b>128</b>	<b>62</b>	<b>358</b>
<i>Mugagabeak guztira</i>	0,0%	4,1%	5,8%	9,3%	12,9%	7,8%
<b><i>Aldi batekoak guztira</i></b>	<b>100,0%</b>	<b>95,9%</b>	<b>94,2%</b>	<b>90,7%</b>	<b>87,1%</b>	<b>92,2%</b>

Iturria: INEM. EGAILAN.

**Kontratuak ikasketa-mailaren arabera. Ordizia. 2004ko lehen hiruhilabetea**

<b>IKASKETA</b>	<b>Gizonezkoak</b>	<b>Emakumezkoak</b>	<b>Guztira</b>
<b><i>Ikasketarik ez</i></b>	1.4%	1.2%	<b>1.2%</b>
<b><i>Lehen irakaskuntza amaitu gabe</i></b>	0.0%	0.6%	<b>0.3%</b>
<b><i>Bigarren hezkuntza titulurik gabe</i></b>	27.0%	22.0%	<b>24.3%</b>
<b><i>Bigarren hezkuntza tituluarekin</i></b>	40.5%	28.9%	<b>34.3%</b>
<b><i>Batxilergoa</i></b>	8.1%	13.9%	<b>11.2%</b>
<b><i>Lanbide Heziketa. Erdi maila</i></b>	2.0%	5.2%	<b>3.7%</b>
<b><i>Lanbide Heziketa. Goi maila</i></b>	8.1%	16.2%	<b>12.5%</b>
<b><i>Diplomatura</i></b>	4.7%	5.8%	<b>5.3%</b>
<b><i>Lizentziatura</i></b>	8.1%	6.4%	<b>7.2%</b>
	<b>100.0%</b>	<b>100.0%</b>	<b>100.0%</b>

*Iturria: INEM. EGAILAN.*

Ordizian kontratu berria sinatutako pertsonen ikasketa-maila arruntena bigarren hezkuntzarena da, tituluarekin edo gabe. Hurrengo beste forma arruntenean artean, Batxilergoak eta goi mailako Lanbide Heziketa azpimarratuko genituke. Sexuen arteko diferentzia aztertzen badugu esan beharra dago emakume gehiago iristen dela Batxilergora gizonezkoak baino; eta era berean, emakume gehiagok lortzen duela unibertsitate titulu bat. Gainera gizonezkoengan, ohi denez, Lanbide Hezkuntzak garrantzi handiagoa du eta hezkuntza unibertsitarioak txikiagoa. Kontratazioari dagokionez, tituludun bigarren mailako hezkuntza basikoa dutenen artean gizonezkoak gehiago dira eta baita Lizentziatura mailan ere, nahiz eta, azkenengo talde honen barnean diferentziak ez izan nabarmenak.

**Kontratuak sektorearen eta sexuaren arabera. Ordizia. 2004ko lehen hiruhilabetea**

<b>Aktibitatea</b>	<b>Gizonez.</b>	<b>Emak.</b>	<b>Guztira</b>
<i>Nekazaritza, abelzaintza, ehiza</i>			
<i>Arrantza</i>			
<i>Erauzketa industria</i>			
<i>Industria Manufakturoa</i>	37.6%	56.7%	<b>49.2%</b>
<i>Energia elektrikoa, gasa...ren ekoizpen eta distribuzioa</i>			
<i>Eraikuntza</i>	25.5%	0.9%	<b>10.6%</b>
<i>Salerosketa, konponketak, motordun autoak, ...</i>	5.7%	10.1%	<b>8.4%</b>
<i>Ostalaritza</i>		4.1%	<b>2.5%</b>
<i>Garraioak, biltegiatzea, komunikazioa</i>	6.4%	5.1%	<b>5.6%</b>
<i>Finantza bitartekotza</i>			
<i>Higiezinekin egindako aktibitateak</i>	17.7%	14.7%	<b>15.9%</b>
<i>Herri administrazioa, defentsa, G.S.</i>	0.7%	0.5%	<b>0.6%</b>
<i>Hezkuntza</i>	5.7%	5.1%	<b>5.3%</b>
<i>Medikuntza, albaitaritza. Gizarte zerbitzuak</i>		0.5%	<b>0.3%</b>
<i>Beste zenbait gizarte ekintza</i>	0.7%	2.3%	<b>1.7%</b>
<i>Etxeko lanak</i>			
<i>Mugaz kanpoko erakundeak</i>			
	<b>100.0%</b>	<b>100.0%</b>	<b>100.0%</b>

Iturria: INEM. EGAILAN.

Sektoreen analisia egitean esan behar da Ordizian kontratu berriak "Industria Manufakturoa" (%49,2), "Higiezinekin loturiko aktibitateak" (%15,9) eta "Eraikuntza"-ren (%10,6) alorrean kontzentratu direla batik bat.

Sexuen artean desberdintasunik nabariena manufaktura sektorean, ostalaritza eta eraikuntzaren sektorean gertatzen dira, izan ere, emakumearen presentzia lehen bi sektoreetan handiagoa da gizonezkoena baino eta aldiz, eraikuntzaren sektorean gizonezkoak dira nagusi. Azkenik, Hezkuntza, garraioa eta biltegiatzea eta higiezinekin loturiko jardueren sektorean bi sexuen arteko proportzioak oso antzekoak dira.

**Kontratuak okupazioaren eta sexuaren arabera. Ordizia. 2004ko lehen hiruhilabetea**

<b>Ogibidea</b>	<b>Gizon.</b>	<b>Emak.</b>	<b>Guztira</b>
<i>Enpresen eta herri administrazioen zuzendaritza</i>	0.7%		<b>0.3%</b>
<i>Teknikari eta profesionalak zientzialariak eta intelektualak</i>	7.8%	6.0%	<b>6.7%</b>
<i>Laguntza teknikari eta profesioanalak</i>	2.8%	3.7%	<b>3.4%</b>
<i>Administrazio enplegatutak</i>	0.7%	8.3%	<b>5.3%</b>
<i>Zerbitzu, ostalaritza, langileria, segurtasuna, dendak</i>	1.4%	13.8%	<b>8.9%</b>
<i>Nekazaritza eta arrantza langile trebatuak</i>			
<i>Artisauak eta manufak., eraikuntza, meategi langile kualif.</i>	30.5%		<b>12.0%</b>
<i>Muntaia, makineria eta instalakuntza jarduleak</i>	11.3%	0.9%	<b>5.0%</b>
<i>Langile ez kualifikatuak</i>	44.7%	67.3%	<b>58.4%</b>
	<b>100.0%</b>	<b>100.0%</b>	<b>100.0%</b>

Iturria: INEM. EGAILAN.

Kontratu berrien okupazioaren araberako banaketan azpimarragarriak dira Kualifikatu gabeko langileen kontratuak, izan ere, %58 inguru suposatzen dutelako; manufaktura

sektoreko langile kualifikatuen kontratuak; eraikuntza eta mehatzaintzako kontratuak eta tekniko eta zerbitzuetako langileen kontratuak. Aipaturiko kontratu hauetan ere, sexuaren araberako diferentzia batzua nabari daitezke, batez ere, manufaktura sektoreko langile kualifikatu eta eraikuntza eta mehatzaintzako sektoretan, izan ere, 2004. urteko lehenengo hiruhilabeteko kontratazioaren %30a biltzen dutelako eta aldi berean, emakumerik ez delako kontratatua izan sektore hauetan lan egiteko. Bestalde, administratibo, ostalaritza, pertsonala...e.a. eta kualifikatu gabeko langileen kontratuetan emakumezkoak dira nagusi.

Lan-merkatuari buruzko analisiaren beste zati bat lan-istripuei dagokiena da. OSALANek istripuei buruzko eskaintako datuek diotenez, 1999-ko urtarrilaren eta 2003-ko azaroaren 18-a<sup>4</sup> bitartean Ordizian 2 hildako suertatu dira lanean, 12 istripu larri eta 623 istripu arin. Istripu mota esanguratsuenak honakoak dira:

- Hezur eta giharre sistemaren kontrako gehiegizko esfortzua (141 istripu)
- Bestelako kontaktuak, 40. talde motako lesioa (113 istripu)
- Harrapatuta, zapalduta gelditzea (67 istripu)
- Talka edo kolpea balantzatutako gauza baten kontra (59 istripu)

---

<sup>4</sup> "In itinere" gertatutako istripuak ez dira kontutan hartu.

---

**Lan istripuen zergatia eta kantitatea. Ordizia. 1-1-1999 / 18-11-2003**

	<b>Hikorra</b>	<b>Larria</b>	<b>Arina</b>
<i>Aplastamiento sobre o contra, resultado de un tropiezo o choque contra un objeto inmóvil</i>		1	39
<i>Aplastamiento sobre o contra, resultado de una caída</i>		3	59
<i>Choque o golpe contra un objeto - en balanceo</i>			37
<i>Choque o golpe contra un objeto - incluidos los vehículos - en movimiento</i>			11
<i>Choque o golpe contra un objeto - proyectado</i>			22
<i>Choque o golpe contra un objeto - que cae</i>			10
<i>Choque o golpe contra un objeto en movimiento, colisión con - Sin especificar</i>			17
<i>Colisión con un objeto - incluidos los vehículos - colisión con una persona (la víctima está en movimiento)</i>			16
<i>Contacto con Agente material cortante, punzante, duro, rugoso - Sin especificar</i>			1
<i>Contacto con llamas directas u objetos o entornos - con elevada temperaturas o en llamas</i>			2
<i>Contacto con sustancias peligrosas - sobre o a través de la piel y de los ojos</i>			2
<i>Contacto con un Agente material cortante (cuchillo u hoja)</i>		1	5
<i>Contacto con un Agente material que arañe - rallador, lija, tabla no cepillada, etc.</i>			1
<i>Contacto directo con la electricidad, recibir una descarga eléctrica en el cuerpo</i>			1
<i>Exposición a radiaciones, ruido, luz o presión</i>			2
<i>Mordeduras, patadas, etc. (de animales o personas) - Sin especificar</i>			3
<i>Otro Contacto - Tipo de lesión conocido del grupo 10 pero no mencionado anteriormente</i>			2
<i>Otro Contacto - Tipo de lesión conocido del grupo 20 pero no mencionado anteriormente</i>			1
<i>Otro Contacto - Tipo de lesión conocido del grupo 30 pero no mencionado anteriormente</i>			2
<i>Otro Contacto - Tipo de lesión conocido del grupo 40 pero no mencionado anteriormente</i>	1	2	113
<i>Otro Contacto - Tipo de lesión conocido del grupo 50 pero no mencionado anteriormente</i>			3
<i>Otro Contacto - Tipo de lesión conocido del grupo 60 pero no mencionado anteriormente</i>			2
<i>Otro Contacto - Tipo de lesión conocido del grupo 70 pero no mencionado anteriormente</i>			1
<i>Otro Contacto - Tipo de lesión no codificado en la presente clasificación</i>		1	49
<i>Quedar atrapado, quedar aplastado - entre</i>		3	67
<i>Quedar atrapado, ser aplastado - bajo</i>	1	1	2
<i>Quedar atrapado, ser aplastado - en</i>			1
<i>Quedar sepultado bajo un sólido</i>			10
<i>Sobreesfuerzo físico, trauma psíquico, exposición a radiaciones, ruido, luz o presión.- Sin especificar</i>			1
<i>Sobreesfuerzo físico - sobre el sistema musculoesquelético</i>			141
<b>TOTAL</b>	<b>2</b>	<b>12</b>	<b>623</b>

Iturria: OSALAN, Gipuzkoako lurralde zentrua

### 2.3. Gizarte ongizatea

Udalerrri batean eskainitako gizarte zerbitzuak bertan dauden azpiegitura sozialen menpe daude. Honela, Eustaten esanari jarraiki, Ordiziak Goierriin dauden 59 zentroetatik bere baitan 8 ditu, horietatik 3 egoitzak lirateke eta 2 zentruk zerbitzu tekniko orokorrak bilduko lituzkete.

#### Zentru kopurua, tipologia eta lurraldearen arabera. 2002.

	<b>Guztira</b>	<b>Elkarteak</b>	<b>Zerbitzu tekniko orokorrak</b>	<b>Orientazio-zentroak</b>	<b>Eguneko zentroak</b>	<b>Egoitzak</b>	<b>Lanbide-zentroak eta enplegu-zentro bereziak</b>	<b>Besteak</b>
<b>EAE</b>	2.305	426	358	7	524	633	154	203
<b>Gipuzkoa</b>	704	126	122	1	165	194	54	42
<b>Goierri</b>	59	12	19	-	16	10	2	-
<b>Ordizia</b>	8	1	2	-	1	3	1	-

Iturria: EUSTAT. Gizarte zerbitzuen estatistika.

3. adineko pertsonen emandako zerbitzuen hornidurari dagokionez, Goierriko (Urola Garaia barne) eskualdean dauden Eguneko-zentro, Egoitza-mixto eta tutoretzapeko-etxebizitzak hurrengo taulan adierazten dira. Guztira 349 leku daude, non 339 konzertatuak diren. Ordiziaren kasuan, San Jose egoitzak 76 leku eskaintzen ditu, zeinak konzertatuak diren. Eguneko zentro, egoitza misto eta tutoretza gabeko etxebizitzari dagokionez esan beharra dago ez dagoela halakorik Goierriin.

#### Eguneko zentro, egoitza misto eta tutoretzapeko etxeak. Goierri.

<b>Udala</b>	<b>Zentroaren izena</b>	<b>Zentro mota</b>	<b>Lekuak guztira</b>	<b>Leku konzertatuak</b>
<b>BEASAIN</b>	Munizipala	Eguneko zentroa	16	6
<b>LEGAZPI</b>	Munizipala	Eguneko zentroa	12	12
<b>URRETXU</b>	Munizipala	Eguneko zentroa	15	15
<b>BEASAIN</b>	Arangoiti	Egoitza	64	64
<b>LEGAZPI</b>	Santa Cruz	Egoitza	46	46
<b>ORDIZIA</b>	San Jose	Egoitza	76	76
<b>SEGURA</b>	San Juan	Egoitza	46	46
<b>ZUMARRAGA</b>	Faustino Orbezozo	Egoitza	46	46
<b>LEGAZPI</b>	Tutoretzapeko etxea	Tutoretzapeko etxea	28	28
<b>GUZTIRA</b>			<b>349</b>	<b>339</b>

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

Udalerrri bateko azterketa sozialaren inguruan garrantzitsua den beste alor bat hiritarren segurtasunarena da. Zentzu honetan, Ertzaintzak eskainitako delitu eta falten inguruko datuak ditugu. Datu hauen arabera, Ordizian 1999an erregistratu zen delitu eta falten kopurua 216takoa izan zen, ordea, 2003. urtean kopuru honen gorakada gertatzen da eta 253 gertakizun erregistratzen dira. Azken laurtekoan gorabeherak gertatu diren arren, 2003. urteko datuei erreparatuaz esan genezake joera gorantzakoa dela .

Honela, 2003. urtean Ordizian gertaturiko 119 delitutatik gehiengoa jabegoa eta orden sozioekonomikoaren aurkakoak izan dira (%73,9a suposatzen dute). Bestalde, segurtasun kolektiboaren aurkako delituetan aipagarri da alkoholaren eta drogen eraginpean gdatzearen portzentaia, %12,6koa hain zuzen ere.

### Ertzaintzak ezagututako delituak eta faltak Ordiziako udalerrian (1999 – 2003)

ARAU-HAUSTE MOTA	URTEA					GUZTIRA
	1999	2000	2001	2002	2003	
<b>Giza hilketa eta horren formak</b>	-	-	-	-	-	-
Giza hilketa	-	-	-	-	-	-
Zuhurtzigabekeria hilketa emaitzarekin	-	-	-	-	-	-
<b>Lesioak</b>	2	1	4	-	4	11
Lesioak zuhurtzigabekeriagaitik	-	1	-	-	-	1
Tratu txarrak familian	-	-	3	-	3	6
Lesioak	2	-	1	-	1	4
<b>Askatasunaren aurka</b>	9	6	7	3	4	29
Legez aurkako atxiloketa/bahiketa	-	-	-	-	-	-
Mehatxua	9	5	6	3	4	27
Derrigortzea	-	1	1	-	-	2
<b>Bizitza pribatuaren, norberaren irudirako eskubidearen e.a. aurka</b>	-	-	-	-	-	-
Bizilekua bortxatze, ...	-	-	-	-	-	-
Bizitza pribatuaren, norberaren irudirako eskubidearen e.a. aurka	-	-	-	-	-	-
<b>Sexu-askatasunaren aurka</b>	1	1	-	-	-	2
Sexu-erasoak	-	-	-	-	-	-
Abusu sexuala	-	-	-	-	-	-
Eraso sexuala	-	1	-	-	-	1
Erakuskeria eta sexu probokazioa	1	-	-	-	-	1
Prostituzioa	-	-	-	-	-	-
<b>Familia-harremanen aurka</b>	2	1	-	-	2	5
Adin txikiko lapurreta	-	-	-	-	1	1
Familia uztea	-	1	-	-	1	2
Adingabe uztea	2	-	-	-	-	2
Familia-harremanen aurka.	-	-	-	-	-	-
<b>Ondarearen eta gizarte eta ekonomiaren ordenaren aurka</b>	78	63	67	84	88	380
Lapurreta	12	19	19	14	25	89
Lapurreta indarkeriarekin	44	24	39	53	48	208
Lapurreta mehatxuekin	3	-	-	3	1	7
Ibilgailuen lapurreta	6	6	1	3	3	19
Higiezinen okupazioa	-	-	1	-	2	3
Iruzurra	2	-	1	3	1	7
Bidegabeko jabekuntza	-	1	-	1	-	2
Kalteak	11	12	6	7	8	44



Ondarearen eta gizarte eta ekonomiaren ordenaren aurka	-	1	-	-	-	1
<b>Segurtasun kolektiboaren aurka</b>	19	12	6	7	16	60
Triskantzak	5	-	-	-	-	5
Suteak	-	-	-	-	-	-
Osasun publikoa: droga trafikoa	2	-	-	-	-	2
Alkoholaren, drogaren,... eraginpean gidatzea	12	11	5	7	15	50
Alkoholemi kontrolari uko egin	-	-	-	-	-	-
Besteak segurtasun trafikoaren contra	-	1	1	-	1	3
Segurtasun kolektiboaren aurka	-	-	-	-	-	-
<b>Faltsutzeak</b>	-	-	-	-	3	3
<b>Justizia Administrazioaren aurka</b>	1	-	1	-	1	3
Kondenaldia urratzea	1	-	1	-	-	2
Justizia Administrazioaren aurka	-	-	-	-	1	1
<b>Ordena publikoaren aurka</b>	4	11	4	2	1	22
Agintari, agenteen, aurkako atentatu...	-	3	1	-	-	4
Agintaritzari erresistentzia eta desobedientzia	3	5	1	-	1	10
Ordena publikoaren aurka	-	2	1	-	-	3
Arma ukantza ez-zilegia	-	-	-	1	-	1
Ondasunaren aurkako terrorismoa	1	1	-	-	-	2
Pertsonen aurkako terrorismoa	-	-	-	-	-	-
Beste terrorismo egintza	-	-	1	1	-	2
<b>Ohorearen aurka</b>	2	-	1	-	-	3
Kalurnia	1	-	-	-	-	1
Irain egin	1	-	1	-	-	2
<b>Langileen eskubideen aurka</b>	2	1	-	1	-	4
<b>Beste zigor lege batzuk</b>	4	1	-	1	-	6
<b>DELITU GUZTIAK</b>	<b>124</b>	<b>97</b>	<b>90</b>	<b>98</b>	<b>119</b>	<b>528</b>

Iturria: Ertzaintza

Ordizian azken urteotan burutu diren faltei dagokionez, aipagarri dira jabegoaren aurka eginiko faltak eta baita pertsonen aurka eginikoak ere. Konkrétuki, 2003. urtean eginiko 134 faltetatik %82a, hau da, 110 falta, jabegoaren aurkako faltak izan ziren, eta hauen artean ebasketak eta kalteak azpimarratuko genituzke. Pertsonen aurka egindako falten artean lesio faltak izan ziren gehiengo, konkretuki 23 faltetatik 11.

**Ertzaintzak ezagututako delituak eta faltak Ordiziako udalerrian (1999 – 2003)**

<b>ARAU-HAUSTE MOTA (Jarraipena...)</b>	<b>URTEA</b>					<b>GUZTIRA</b>
	<b>1999</b>	<b>2000</b>	<b>2001</b>	<b>2002</b>	<b>2003</b>	
<b><i>Pertsonen aurkako faltak</i></b>	16	27	11	27	23	104
Lesio faltak	8	9	4	8	11	40
Lesioa zuhurtzigabekeriagaitik	-	-	-	1	-	1
Tratu txarreko faltak	-	3	-	1	2	6
Tratu txarreko faktak lesiorik gabe	4	2	2	4	3	15
Ofentsa faltak	-	1	-	-	2	3
Mehatxu faltak	2	9	2	7	3	23
Derrigortze faltak	-	-	1	3	1	5
Irain faltak	2	1	2	1	1	7
Gurasoak humeen zaintza urratu izana	-	2	-	2	-	4
<b><i>Ondarearen aurkako faltak</i></b>	75	73	89	59	110	406
Lapurreta falta	49	46	67	43	85	290
Iruzur estafa	1	2	1	-	1	5
Bidegabe jabetzearen falta	1	-	2	-	1	4
Kalte-falta	23	24	19	16	23	105
Ibilgailuen lapurreta falta	1	1	-	-	-	2
Ondarearen aurkako faltak.	-	-	-	-	-	-
<b><i>Interes orokorren aurkako faltak</i></b>	-	-	-	-	-	-
Faltsukeria falta	-	-	-	-	-	-
Interes orokorren aurkako faltak.	-	-	-	-	-	-
<b><i>Ordena publikoaren aurkako faltak</i></b>	1	7	4	1	1	14
Agintaritzari desobeditze, ...	1	6	4	1	1	13
Desordena publikoak	-	1	-	-	-	1
<b>GUZTIRA</b>	<b>92</b>	<b>107</b>	<b>104</b>	<b>87</b>	<b>134</b>	<b>524</b>

*Iturria: Ertzaintza*


Delitu eta falten datu orokor hauetatik interesgarri iruditzen zaigu etxeko indarkeriaren datuen azterketa arazo sozial honen errebantziagatik.

Askatasunaren aurkako delituen tipologiaren barnean, 1999-2003. urteen bitartean, mehatxuen kasuak dira aipagarri (27) eta familia inguruko tratu txarrak, lesioen 6 kasurekin.

Pertsonen aurkako falten inguruan, gehiengo lesio faltak lirateke (%88a) eta gainerakoak bortxakeriarekin lotuak. Datuen ikuspegi orokor batetik esan genezake bai falta eta bai delituen kasuan 2003. urtean gertatu direla gehiena.

ARAU-HAUSTE MOTA	URTEA					GUZTIRA
	1999	2000	2001	2002	2003	
<b>Lesioak</b>	2	-	4	-	4	10
Tratu tzarrak familian	-	-	3	-	3	6
Lesioak	2	-	1	-	1	4
<b>Askatasunalen aurkako delituak</b>	9	6	7	3	4	29
Mehatxatu	9	5	6	3	4	27
Derrigortze	-	1	1	-	-	2
<b>DELITU GUZTIAK</b>	<b>11</b>	<b>6</b>	<b>11</b>	<b>3</b>	<b>8</b>	<b>39</b>
<b>Faltas contra las personas</b>	8	9	5	11	12	45
Lesio faltak	8	9	4	8	11	40
Derrigortze faltak	-	-	1	3	1	5
<b>FALTA GUZTIAK</b>	<b>8</b>	<b>9</b>	<b>5</b>	<b>11</b>	<b>12</b>	<b>45</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>19</b>	<b>15</b>	<b>16</b>	<b>14</b>	<b>20</b>	<b>84</b>

Iturria: Ertzaintza



Iturria: Udaltzaingoa eta Ertzaintza.

Aurreko grafikan azken lau urtetako eboluzioa adierazten da (Udaltzaingoa eta Ertzaintzak eskainiriko datuak dira). Ikus daitekeen bezela 1999-2002 urteen bitartean delitu eta faltak kopuruaren beherakada gertatzen da, 1.000 biztanletatik 23,8 delitu gertatzenetik (1999) 20,6 delitu gertatzera (2002) iraganaz. Ordea, 2003. urtean beherantzako eboluzioarekin hausten da eta 1.000 biztanleko 28,3 delitu gertatzera iragaten da.

## 2.4. Hezkuntza


### 2.4.1. Ikasketen arabera biztanleriaren banaketa

Hurrengo taula eta grafikoan ikus daitekeen modura Ordiziako batz besteko eskolatzeko maila Goierriko, Gipuzkoako eta EAEko maila baino zertxobait baxuagoa da. Izan ere, ikasketarik gabeko eta lehen mailako ikasketak dituztenen pisua (%45,9) handia delako, ondorioz, bigarren mailako ikasketak eta goi mailakoak burutu dituztenen proportzioa txikiagoa da. Bestalde, alfabetatu gabeen portzentaia Goierri baino txikiagoa da, ordea Gipuzkoa eta E.A.E.-n baino handiagoa. Aldiz, lanbide heziketa dutenen pisua Ordizian altuagoa da gainerako eremuetan baino.

**10 urte edo gehiagoko biztanleria, lurralde-eremuen arabera sailkatuta, eskolatzeko mailaren arabera. 2001.**


	<i>E.A.E</i>	<i>Gipuzkoa</i>	<i>Goierri</i>	<i>Ordizia</i>
<b>Guztira</b>	<b>1.922.982</b>	<b>618.314</b>	<b>35.691</b>	<b>8.144</b>
<i>Alfabetatu gabeak</i>	13.027	4.274	1.165	118
<i>Ikasketarik gabek</i>	80.802	25.504	2704	1.063
<i>Eskolaurrea eta lehen mailatuak</i>	810.790	259.306	14.455	2.680
<i>Lanbide-heziketakoak</i>	267.955	90.175	5.648	1.330
<i>Bigarren mailakoak</i>	354.529	116.505	5.864	1.473
<i>Erdi-goi mailakoak</i>	142.858	45.502	2.427	619
<i>Goi mailakoak</i>	253.021	77.048	3.428	861

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak (BEZ01)




Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak (BEZ01)

Azken urteetako datuen azterketak (1996-2001) erakusten du bigarren ikasketak eta goi mailako ikasketak dituen biztanleria hazi egin dela eta, era berean, ikasketarik gabeko eta lehen ikasketak dituen biztanleria txikitu egin dela.



Iturria: EUSTAT

Hurrengo grafikoak erakusten du ikaslego ez unibertsitarioaren banaketa eta baita zentruen jabetasuna ere. Grafikoan ageri denez, haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta bigarren mailako hezkuntzara doazen ikasleen gehiengoak zentru publikoetara joaten da (%59). Aldiz, batxilergo eta lanbide heziketara zuzentzen diren ikasleen gehiengoak zentru pribatueta zuzentzen da (%86). Orokorrean esan genezake, Ordizian ikasleen gehiengoak zentru pribatueta ikasten duela (%57,6). Azkenik aipatu, Ordiziako ikasleen gehiengoak lehen mailako eta bigarren mailako ikasketak egiten ari dela (ikaslegoaren %48a osatzen dute).



- (1) Maila horretako Haur-Hezkuntza eta Hezkuntza Berezia hartzen ditu.  
 (2) Lehen hezkuntza eta maila horretako hezkuntza berezia hartzen ditu.  
 (3) Maila horretako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Hezkuntza Berezia hartzen ditu.  
 (4) Batxilergoa hartzen du  
 (5) Erdiko eta goiko zikloko LH eta Zereginen Ikaskuntza hartzen ditu.

Iturria: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza saila. Estadística de la Enseñanza.

Ikaslegoaren zentruetako banaketari dagokionez, Ordiziako Udaletxeak eskaintzen duen datuen arabera, Ordizian dauden zentruak honako hauek dira: Alotza haurtzaindegia, Goierriko Langintza Eskola, Jakintza eskolaurrea, Jakintza ikastetxea, Musika eskola, Oianguren Institutua, Urdaneta eskolaurrea, Urdaneta ikastetxea, Ordiziako Berritzegunea.


## 2.4.2. Euskeraren garapen maila

Euskal Herriko udalerrri baten diagnostikoa egitean kontutan eduki beharreko beste faktoretako bat, euskararen ezagutza-erabilera maila da. Grafikoan eta taulan ikus daitekeen moduan, Ordiziako 2 urtetik gorako biztanleriaren %47,5-a euskadun alfabetizatua d, aldiz, erabat erdaldunak direnak %21,3a dira. Honela, esan genezake ordiziako 2 urtetik gorako biztanleriaren %78,6ak nolabaiteko euskera ezagutza baduela.

### 2 urte eta gehiagoko biztanleria, lurralde-eremuen arabera sailkatuta, euskara-maila globalaren arabera. 2001.


	Guztira	Euskaldunak				Ia-euskaldunak				Erdaldunak
		Gutira	Alfabeti.	Erdizka-Alfabeti.	Ez alfabeti.	Guztira	Alfabeti.	Ez alfabeti.	Pasiboak	
<b>EAE</b>	2.033.247	656.980	527.771	106.433	22.776	470.124	302.487	71.711	95.926	906.143
<b>Gipuzkoa</b>	656.499	337.796	273.989	53.423	10.384	129.183	67.468	30.830	30.885	189.520
<b>Goierri</b>	37.848	25.706	21.962	2.922	822	5.037	2.013	1.485	1.539	7.105
<b>Ordizia</b>	8.696	5.192	4.137	795	260	1.646	588	528	530	1.858

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua 2001



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua 2001.


Euskeraren ezagueraren eboluzioa 1986 eta 2001. urteen artean positiboa izan da, orokorrean euskaldunen kopurua igotzen joan delarik eta batez ere, euskal alfabetatuen kopurua igo da. Erdaldun biztanleriari dagokionez, erdaldunen bolumena handitu egin da zertxobait, batez ere, igoera hau 1996tik 2001era gertatu da, aldi berean, cuasi euskaldunen kopuruak ere goruntza egin du.



Iturria: EUSTAT




Ordiziako datuak gainerako lurraldeetako datuekin alderatuz gero, ohartzen gara Ordiziako euskara ezagutza maila Goierrikoa baino baxuagoa da baina Gipuzkoakoa eta E.A.E. baino altuagoa.



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua 2001

Beste era batera esanda, euskara jakintzarik ez dutenen portzentaiak Goierri mailako portzentaia gainditzen du, hala ere, esan bezala Gipuzkoako eta E.A.E.-ko portzentaiak baino baxuagoa da.

Euskararen ezagutza maila aztertzen duen beste adierazleetako bat mugirkotasun linguistikoaren tipologia da, zeinaren bidez pertsonen eboluzio linguistikoa aztertzea den helburu. Ondoko grafikan ikus daitekeen moduan, Ordiziako euskara ezagutza Goierri mailakoa baino baxuagoa da, baina Gipuzkoa eta E.A.E.-n baino altuagoa. Orokorrean, euskaldun zaharren (oso edo partzialak) kopurua erdaldun zaharrena (oso edo partzialak) baino handiagoa da Ordizian, nahiz eta, azken hauen proportzioa esanguratsua izan udalerrian (%30 inguru). Konkreteki Ordiziaren kasuan, aipagarria da euskaldun berrien pisu handiagoa 5 urte eta gehiago dituztenen artean, izan ere, eskualdeko portzentaia baino altuagoa osatzen dutelako.




Iturria: II Mapa soziolinguistikoa. Kultura Saila (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)-EUSTAT.

Hizkuntza bilakaeraren tipologia bakoitzaren definizio konkretua ondokoa da:

- Euskaldun Zaharrak: Ama-hizkuntza euskara izan eta euskara "ondo" ulertu eta hitz egiten duten pertsonak.
- Jatorrizko elebidunak: Ama-hizkuntza euskara eta gaztelania izan eta euskara "ondo" ulertu eta hitz egiten duten pertsonak.
- Partzialki erdaldunduak: Ama-hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania izan eta euskaraz "nekez" hitz egin edo, hitz egiten ez badute, "ondo" ulertu eta irakurtzen duten pertsonak.
- Gutziz erdaldunduak: Ama-hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania izan eta euskaraz ezer ez hitz egiteaz gain, ez dute "ondo" ulertzen, ezta irakurtzen ere.
- Euskaldun berriak: Ama-hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskara "ondo" ulertu eta hitz egiten duten pertsonak..
- Partzialki Euskaldun berriak: Ama-hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskaraz "nekez" hitz egin edo, hitz egiten ez badute, "ondo" ulertu eta irakurtzen duten pertsonak.
- Erdaldun zaharrak: Ama-hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskaraz ezer ez hitz egiteaz gain, ez dute "ondo" ulertzen, ezta irakurtzen ere.

Ama hizkuntzaren arabera eremu geografikoetan sailkaturiko biztanleriari dagokionez, aurreko kasuetan bezela, Ordizian ama hizkuntza euskera dutenen portzentaia Gipuzkoa eta E.A.E.-ko portzentaia baino altuagoa da, baina Goierriren kasuan baino baxuagoa. Ordea, kontutan izaten badugu etxean erabiltzen den hizkuntzaren datua, Ordizian gazteleraren erabilera nagusitzen da. Aldi berean, aipagarria da etxean bi hizkuntzak erabiltzen dituztenen portzentaia, are gehiago, gainerako lurraldeetako portzentaiekin alderatuaz Ordiziako portzentaia altuagoa da.


Beraz, datu hauetatik ondorioztatzen dugu, nahiz eta, euskara ama hizkuntza dutenen portzentaia esanguratsua den, kontutan izan behar dela etxean hitzegiten den hizkuntza gehienbat gaztelania dela.



**Biztanleriaren lurralde eremuen<sup>1</sup> ama-hizkuntza eta etxean erabiltzeko hizkuntzen araberako sailkapena, 2001**


*Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua 2001*

Ordea, interesgarria iruditzen zaigu gai honen inguruko azterketa osoagoa egitea, hori dela eta, kontutan izan dugu euskeraren erabilerak etxeetan izan duen eboluzioa. EUSTAT-eko datuek adierazten digute euskararen erabileraren maila nahiko egonkor mantentzen dela, nahiz eta, 1991 eta 2001. urteen artean beherakada txiki bat jasan duen. Bestalde, gazteleraren erabilera murriztu egin da, batez ere, 1996 eta 2001. urteen artean. Honela, bi hizkuntzen erabilerak hartu du protagonismoa azken 5 urte hauetan. Hala ere, gaztelerak jarraitzen du izaten etxeetan gehien hitzegiten den hizkuntza.



Iturria: EUSTAT.

Hezkuntza eredu elebidunari dagokionez, ondoko grafikan ikus daitekeen moduan, Ordiziako ikaslegoaren  $\frac{3}{4}$  baino gehiago D ereduan ikasten dute (%78,5), hau da, euskeraz dituztela gai ezberdinak. B ereduan ikasten duten ikaslegoaren portzentaia %18,8koa da. Azkenik, A ereduan ikasten duten ikaslegoa batxilergoa egiten ari da (%2,7).



- (1) Maila horretako Haur-Hezkuntza eta Hezkuntza Berezia hartzen ditu.  
 (2) Lehen hezkuntza eta maila horretako hezkuntza berezia hartzen ditu.  
 (3) Maila horretako Derrigorresko Bigarren Hezkuntza eta Hezkuntza Berezia hartzen ditu.  
 (4) Batxilergoa hartzen du  
 (5) Erdiko eta goiko zikloko LH eta Zereginen Ikaskuntza hartzen ditu.  
 (6) A: euskara irakasgai bezala. X: ez dute euskara ikasten.  
 (7) Irakaskuntza elebiduna.  
 (8) Irakaskuntza osoa euskaraz.

Iturria: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza-saila. Irakaskuntzaren estatistika.

## 2.5. Osasuna

### 2.5.1. Biztanleriaren osasuna

Biztanleriaren osasun-maila neurtzeko indikadore on bat heriotzen zergatia aztertzea izan ohi da. EUSTATEk datu horiek 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerritarako eskaintzen ditu soilik, nahiz eta, Ordiziako udalerrian biztanle gehiago bizi ez zaigu eskuragarri izan datu hau eta heriotz kopurua sexuaren arabera bakarrik dugu. Honela, esan genezakeen bakarra da 2001. urtan hil zirenen artean gizonezkoak (%62) gehiago zirela emakumezkoak baino.

#### Heriotzak, bizilekuari jarraiki sexuaren arabera. 2001.

	Guztira	Sexua	
		Gizonezkoak	Emakumezkoak
<b>Euskadiko AE</b>	<b>18.087</b>	9.670	8.417
<b>Gipuzkoa</b>	<b>5.860</b>	3.096	2.764
<b>Goierri</b>	<b>489</b>	280	209
<b>Ordizia</b>	<b>68</b>	42	26

Iturria: EUSTAT. Heriotzen Estatistika.

### 2.5.2. Azpiegitura eta osasun-zerbitzuak

Eustatek dionaren arabera, osasun-azpiegitura Ordizian ospitaleaz kanpoko osasun zentru batek osatzen zuen 2002. urtean. 2007. urterako Ordiziako Plan estrategikoaren azterketaren arabera, zerbitzu honetara zuzentzen dira udalerriko biztanle gehienak (%72,5), aldiz, biztanleriaren %38ak Ordiziatik kanpoko zentruetara zuzentzen dira. Gainera, biztanleriak osasun zerbitzuen inguruan balorazio positiboa egiten du.

#### Ospitaleaz kanpoko zentro publikoak. Ordizia. 2002.

	2002
<b>Guztira</b>	1
<b>Anbulategiak</b>	0
<b>Kontsultategiak</b>	0
<b>Osasun-zentroak</b>	1
<b>Larrialdietako-zentroak</b>	0
<b>Zentro periferikoak</b>	0
<b>Osasun mentaleko zentroak</b>	0
<b>Mutuetako laguntza-zentroak</b>	0
<b>Besteak</b>	0

Iturria: EUSTAT

Hala ere, osasun zentru hau udalerrian izateaz gain, Ordiziako biztanleek, eskualdeko gainontzeko biztanleek bezala, Zumarragako Ospitala erabiltzeko aukera ere badute; hospital honek Goierri eta Urolako bailaratan bizi diren 90.000 pertsona ingururi ematen dio zerbitzua.

1.990 urte geroztik, Zumarraga Ospitaleko zerbitzuak udalerrri nagusienetara gerturatzeko helburuarekin, Beasain, Ordizia eta Azpeitiako anbulategietan kontsulta eta errehabilitazio asistentziak eskeintzen dira bertako profesionalekin, zerbitzu hauek hospitaleko efektu guztietara zabalduz.

Ospitalizatutako gaixoei laguntza eskeintzeko, Zumarragako Ospitalak hurrengo atal hauekin kontaktzen du: 4 Hospitalizazio Unitate 106 oheekin, Egonaldi Motzeko Unitate bat (12), anbulategi araubidearen atentzioari dagokion Unitatea (8) eta URPA (Erreanimazio Unitatea) laguntza intentsiboaren 8 postuekin. Gainera, Erditze sail bat eta 4 kirolfano dituen bloke kirurgiko batez gain, kanpoko kontsultari dagozkion 39 lokal eta diagnostiko probak, errehabilitazio gimnasi gela, Zerbitzu Zentralari dagokion egitura (laborategia, erradiologia, anatomia patologikoa, hemodialisia, farmazia) eta laguntza zerbitzuak ere eskeintzen ditu.

Ospitaleko zerbitzu zerrenda pixkanaka areagotuz joan da bezeroen beharretara egokitzeko eta, egun, ospital orokor baten espezialitate guztiak eskeintzen ditu, galeraren bat proba diagnostikotan, zainketa berezietan eta ospitalizazio helbideratutan edukiz.

**Zumarraga Ospitaleko Zerbitzu Zerrenda.**

<b>UNITATEA</b>	<b>Ospitalizazioa</b>	<b>Kanpo Kotsultak</b>	<b>Urgentzia P. Fisikoa</b>	<b>Urgentzia Kokatuak</b>
Barne medikuntza	X	X	X	
Kardiologia	X	X		
Dermatologia		X		
Lixeriketa	X	X		
Endokrinologia		X		
Nefrologia	X	X		
Pneumologia	X	X		
Neurologia	X	X		
Alergologia		X		
Hematologia Klinikoa	X	X		X
Psikiatria	X			
Infekzioak / Barne medik.	X	X		
Medikuntza Prebentiboa		X		
Kirurgia Orokorra	X	X	X	
Oftalmologia	X	X		X (*)
Otorrinolaringologia	X	X	X (*)	
Traumatologia	X	X	X	
Urologia	X	X	X (*)	
Tokoginekologia	X	X	X	
Pediatria	X	X	X	
Erreumatologia		X		
Errehabilitazioa		X		

Iturria: Zumarragako Ospitala. Plan Estrategikoa 2003-2007

**Zumarraga Ospitaleko Zerbitzu Zerrenda**

<b>UNITATEA</b>	<b>Zerbitzu Orokor Klinikoa</b>	<b>Kanpo Kotsultak</b>	<b>Urgentziak</b>
Hematologia Lab.	X		X
Mikrobiologia Lab.	X		X
Bakteriologia Lab.	X		X
Biokimika Lab.	X		X
Serologia Lab.	X		X
Inmunologia Lab.	X		
Farmazia	X	X	X
Anatomia Patologikoa	X		
Anestesia - Erreanimazioa	X	X	X
Odol Biltegia	X		X
Rx Orokorra	X		X
Ekografia	X	X	X
Tac	X		X
Onarpena	X	X	X
Agiri Klinikoa	X	X	X
Bezzeroarenganako laguntza	X	X	X
Gizarte Lan Unitatea	X	X	X

Iturria: Zumarragako Ospitala. Plan Estrategikoa 2003 - 2007

**Zumarraga Ospitaleko Zerbitzu Zerrenda**

<b>OSPITALEEZ KANPOKO KONTSULTAK</b>			
	<b>Azpeitia</b>	<b>Beasain</b>	<b>Ordizia</b>
<b>Kardiologia</b>	X		
<b>Kirurgia Orokorra</b>	X	X	
<b>Lixeriketa</b>			
<b>Dermatologia</b>	X	X	
<b>Ginekologia</b>	X	X	X
<b>Neumologia</b>			
<b>Neurologia</b>			
<b>Oftalmologia</b>	X	X	
<b>ORL</b>	X	X	
<b>Traumatologia</b>	X	X	
<b>Urologia</b>	X		
<b>Errehabilitazioa</b>	X		
<b>Erreumatologia</b>	X		

Iturria: Zumarragako Ospitala. Plan Estrategikoa 2003 - 2007

Zumarragako Ospitalaren kalitateari dagokionez, itzarote zerrenda urtero Kontratu Programan paktatutako baliotan mantendu da, zerbitzuen produktibitateari eta autoitundutako programari esker.

**Zumarraga Ospitaleko atzerapen kirurgikoa.**

<b>Urtea</b>	<b>Eguneko Media</b>	<b>Obj. Zumarraga</b>
<b>1994</b>	36,31	-
<b>1995</b>	43,52	< 90
<b>1996</b>	45,36	<90
<b>1997</b>	48,21	<50
<b>1998</b>	58,73	<50
<b>1999</b>	49,6	<50
<b>2000</b>	53,54	<60
<b>2001</b>	56,87	<60
<b>2002</b>	55	<60

Iturria: Zumarragako Ospitala. Plan Estrategikoa 2003-2007



### **3. INGURUNE FISIKOA**

Ordiziako udalerrria Gipuzkoako Lurralde Historikoan aurkitzen da kokatua eta konkretuki, Goierriko eskualdean. Gipuzkoako hegoaldeko alderdian aurkitzen da kokatua eta Tolosako Barruti Judizialari dagokio. Udalerrri honen koordenada geografikoak 1º 30' 30" luzera E eta 43º 03' 10" latitudea N dira. Ordiziako gunea udalerrriaren erdian aurkitzen da, Oria ibaiaren ezkerreko zabalkundearen eta 155 m-tako altuera du. Oria ibaiaren haranean kokatzen da Ordizia eta udalerrriko lurrek ez dute altuera handiegirik erregistratzen, honela, altuera handiena duen eremua Odetagoena litzateke (729 m). Udalerrriko altuera txikiena duen eremua San Juan litzateke (130m). Ordiziako azalera 5,7 km<sup>2</sup>-takoa da eta 147 m-tako altuera du.

#### **3.1. Geologia eta geomorfologia**

##### **3.1.1. Geologia eta litologia**

Ikuspegi geologikotik Ordiziako udalerrria Pirineoen mendebaldeko amaieran kokatzen da, Euskal-Kantauriar arroaren barnean.

LUR entziklopedian jasoriko datuen arabera ondoko unitate ezberdinak bereizten dira:

- Angiozar-Oiaberria faila Ordiziako udalerrriaren hegoaldean kokatzen da, udalerrri hau osatzen duten bi unitate geologikoak mugatzen. Faila honen hegoaldean, Ordiziako zati txiki batean, Supraurgonianotar konplexua aurki genezake. Konplexu hau “limolita calcarea” eta “marga limosak” osatzen dute zeinak kolore beltz edo gris ilunekoak diren, batzutan harezko tartekadurak ematen direlarik. Litologia honen izaera da bere nodulo konpaktuen disjuntzioa.
- Failaren Iparraldean “flysch”-a aurki genezake, garai zenomaniense Goiko-Koniazensekoa margez eta margokalizez osatua, hauetan noizbehinka harezko kalizak eta kalizak tartekatzen dira. Mota honetako formazioen potentzia 1.500 metrotakoa estimatzen da.

Bi formazio hauen erliebea bizkar txikien alineazioek osatzen dute, zeinak dimentsio txikiko haranak sortzen dituzten eta bertatik tokiko errekaak iragaten diren.

### 3.1.2. Geomorfologia

Ikuspuntu geomorfologikotik honako unitate hauek aurki genitzake:

- *Erosio zelaiak*: Udalerriko azaleraren zatirik handiena osatzen dute, zeinetan %30 baino gehiagoko aldapak nagusitzen diren.
- *Metaketa zelaiak*: Zelaien behekaldeko zatietan, ibarbide nagusietan aldapak leunagoak dira, honela material finen metaketa posibilitatzen da eta lurzoruaren sakontasun handiagoa.
- *Alubioia*: Agauntza ibaiaren ibarra hartzen du eta Sustraitz erreka toaren ibarbidean barneratzen da.
- *Beste formazioak*: azalerari dagokionez udalerrian ordezkartasun gutxiago duten beste unitate batzu aurki genitzake: azaleko labaintak, aktibo dauden erosio eremuak, e.a.

Ordiziako Hegoaldean, lehenago aipatu dugu Angiozar-Olaberria faila kokatzen da.

### 3.2. Klima eta meteorologia

Klimaren ikuspuntutik, Goierriko eskualdea uren mugalderoan dago kokatuta, honela bi klima moten arteko muga bihurtzen delarik; batetik, Gipuzkoako eragin ozeanikoa duen ekialdeko kantauriko klima (Oriako bailara) eta bestetik, Nafarroako Barranka haraneko klima. Mendilerro honek pantaila klimatiko gisa eragiten du eta ondorioz euriaren eta lainoen agerpena areagotzen da.

Itsasoaren eraginagatik bai neguan, bai udaran, tenperaturak nahiko samurrak dira. Urteko batazbesteko hotz-beroa 11°C-koa maximoen batazbestekoa 17°C izanik eta minimoena 7°C. Euriari dagokionez, urteko batazbesteko euri erorketa gutxi gora behera 1.800 mm-koa da, Azarotik Urtarrilera doan tartean euri jasa maximoa izanik. Nahiz eta euria urte osoko fenomeno izan Goierriin, udarako urte-sasoian prezipitazioak gutxitu egiten dira.

### 3.2.1. Euri prezipitazioak

Ordiziak Beasain, Ataun eta Zaldibiako udalerriek bezala behategi publiometriko bat du zeinak prezipitazioen inguruko informazioa jasotzen duen.

#### Ordizia eta inguruko behategi-plubiometrikoek eskaintako informazioa.

<b>Euri-neurgailua</b>	<b>Jabea</b>	<b>X koord</b>	<b>Y koord</b>	<b>Z koord.</b>	<b>Guztira (mm)</b>
<b>Arkaka (Zaldibia)</b>	D.F.G.	571322	4761625	376	<b>1.303</b>
<b>Arriarán (Beasain)</b>	I.N.M.	561946	4769008	276	<b>1.006</b>
<b>Lareo (Ataun)</b>	I.N.M.	572036	4758936	743	<b>1.743</b>
<b>Ataun</b>	D.F.G.-G.V.	567125	4763118	184	<b>868</b>
<b>Salbatore (Beasain)</b>	D.F.G.-G.V.	563725	4766872	167	<b>774</b>
<b>Ordizia</b>	G.V.	567062	4766598	244	<b>951</b>

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia 2004

Goian aipatutako estazio ezberdinen informazio plubiometrikoa oinarri hartuta, 2001ko urriaren 1etik 2002ko irailaren 30era bitarteko epean urtean batez besteko 1.100 mm inguru erregistratu zirela konturatuko gara, Gipuzkoako Lurralde Historikoko prezipitazioen batez bestekoa baino gutxiago izanik (urteko 1.500 mmm).

Informazio honetaz gain Arriarán, Estanda eta Agauntza ibaietan dauden estazio-hidrologikoek eskaintako datuek urteko 1000-1100 mm prezipitazioak islatzen dituzte. Gainera, Arriarango (Beasain) estazioan urteko 154 euri-egun neurtu ziren eta 187 egun Agauntzakoan (Ataun). Hau da, 2 egunetatik bat da euritsua ikertutako lur-eremuan.

#### Arriaran, Agauntza eta Estandako estazioen datu-hidrologikoak (1997-2003).

<b>Agauntza</b>	<b>1997</b>	<b>1998</b>	<b>1999</b>	<b>2000</b>	<b>2001</b>	<b>2002</b>	<b>2003</b>	<b>Batazbeste</b>
<b>Euri-egunak</b>	198	201	188	211	196	190	130	<b>187</b>
<b>Maximoa</b>	49	44,9	35,1	31,2	48,9	47,6	56,8	<b>44,7</b>
Guztira	<b>1.175,1</b>	<b>1.221,8</b>	<b>968</b>	<b>958</b>	<b>935,6</b>	<b>1.158,8</b>	<b>972,6</b>	<b>1.055,7</b>
<b>Arriaran</b>	<b>1997</b>	<b>1998</b>	<b>1999</b>	<b>2000</b>	<b>2001</b>	<b>2002</b>	<b>2003</b>	<b>Batazbeste</b>
<b>Euri-egunak</b>	165	139	152	176	172	176	101	<b>154</b>
<b>Maximoa</b>	79,4	59,8	30,2	38,6	39,6	61,2	53,8	<b>51,8</b>
Guztira	<b>1.169,2</b>	<b>1.005,8</b>	<b>872,6</b>	<b>1.153</b>	<b>913,4</b>	<b>1.298,8</b>	<b>918,4</b>	<b>1.047,3</b>
<b>Estanda</b>	<b>1997</b>	<b>1998</b>	<b>1999</b>	<b>2000</b>	<b>2001</b>	<b>2002</b>	<b>2003</b>	<b>Batazbeste</b>
<b>Euri-egunak</b>	180	189	179	191	138	178	123	<b>168</b>
<b>Maximoa</b>	60,5	59,6	41,3	39,9	39,5	49,1	35,7	<b>46,5</b>
Guztira	<b>1.224,7</b>	<b>1.310,1</b>	<b>1.042,1</b>	<b>1.131,8</b>	<b>630,3</b>	<b>1.107,4</b>	<b>897,6</b>	<b>1.049,1</b>

Iturriak: Diputación Foral de Gipuzkoa, 2004

### 3.2.2. Tenperaturak

Ordiziak klima ozeaniko epela du, hots, prezipitazio ugariak daude, tenperaturek ez dute gorabehera handirik sufritzen eta anplitude termikoa oso ahula da.

Bataz besteko tenperaturei dagokienez, 11 °C inguruan kokatuko genuke. Temperatura altuenen batez bestekoa berriz, 17°C ingurukoa litzateke eta minimoen batez bestekoa 7°C-takoa.

### 3.2.3. Haizeak

Lortutako datuak, alde batetik, Metereologiako Euskal Zerbitzuko barruan dagoen Itsaso-Iberdueroko estaziotik datoz; eta bestetik, Metereologiako Institutu Nazionalak emandakoak dira.

Oro har, nagusitzen diren haizeak Ipar-Mendebaldekoak (IM) dira, egoera antizikloi eta atlantikoko lausoetan sortutako fronte hotzen arteko interakzioak sortutako haizeak. Oria Garaiko eskualdean haize hauek eta mendi masa handien existentziak, zeinek oztopo efektua eragiten duten, laino eta euri egoerak ohiko bihurtzen dituzte.

Urtea	Urt	Ots	Mar	Api	Mai	Ekn	Uzt	Abz	Irl	Urr	Azr	Abe
1997	-	-	-	-	HE	IM	IM	IM	EHE	HE	HE	IM
1998	HE	IM	IM	IM	HE	IM	IIE	IIE	SE	MIM	MIM	-
1999	-	IM	HE	MIM	IM	IM	IIE	IIE	M	EHE	IM	MIM
2000	-	IM	IM	HE	IM	IIE	IM	IIE	IIE	-	IM	-
2001	-	IM	HE	-	IIE	IIE	IIE	IIE	IIE	-	IM	HE

Haize nagusia

Bestalde Hego-Mendebaldetik datozen haizeek, bidean berotuz eta hezetasuna galtzen joan direnek, 28- 30°C inguruko tenperaturak lortu ditzakete. Honi “Foehn efektua” deitzen zaio, urtaro horretan maiz ematen dena.

16 norabideen haizeen arrosa	I	IIE	IE	EIE	E	EHE	HE	HHE	H	HHM	HM	MHM	M	MIM	IM	II
	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%
URTARRILA	1	1	1	0	0	10	21	1	5	0	1	1	4	9	10	2
OTSAILA	4	1	1	1	2	6	4	3	2	1	1	1	5	7	14	6
MARTXOA	5	5	2	1	2	5	9	2	3	0	2	3	6	3	9	6
APIRILA	2	2	1	1	1	7	8	4	3	2	3	2	3	10	14	5
MAIATZA	4	8	5	3	3	7	9	3	2	1	1	1	5	6	10	3
EKAINA	9	13	6	1	5	5	6	3	1	0	1	1	1	6	12	6
UZTAILA	14	15	2	2	4	5	3	1	2	1	1	1	1	7	11	6
ABUZTUA	15	13	3	2	3	4	3	3	2	1	1	1	3	3	5	4
IRAILA	10	6	2	1	1	5	6	3	3	0	2	2	4	5	5	3
URRIA	2	1	1	0	2	6	7	4	1	2	2	2	4	5	6	2
AZAROA	2	1	0	0	1	5	9	2	1	0	0	2	4	9	12	4
ABENDUA	1	1	0	0	2	4	7	2	1	1	1	1	2	5	6	5
URTEKO BATAZBESTEKOAK	6	6	2	1	2	6	8	3	2	1	1	2	4	6	10	4

16 Norabideen haizeen arrosa

Urtaroei dagokienez, udazken eta neguko hilabeteetan nagusiak diren haizeak IM-HE norabidekoak izan ohi dira, eta udako hilabeteetan, aldiz, I eta IIE norabidekoak dira.

### 3.3. Hidrologia

#### 3.3.1. Sare hidrografikoa eta azaleko urak

Ordiziako udalerrria Oriako unitate Hidrologikoaren barnean dago. Unitate honek Gipuzkoako ekialdeko zatia betetzen du eta 912,86 km<sup>2</sup>–ko azalera du. Oria ibaiak 77 Km-ko luzera du, Urbiako mendilerroan jaiotzen da, Beasain, Ordizia eta Itsasondotik pasatzen da, besteak beste, eta Orion amaitzen da.

Oriaren unitate hidrografikoa Gipuzkoako zabalena da. Oria ibaiak bere sorrera Aizkorritik beherantz datozen errekaetara du, azken hauek Otzaurte inguruan elkartzen joaten direlarik eta Oriaren sorrera gertatu. Ibai honek goiko kurtsoa Aizkorriko antiklinikaleko ekialdeko blokean iragaten du. Ordiziako eremuan Zaldibia erreka urak elkartzen zaizkio Oriari.

Oria ibaiaren hertzetan, baita bere isurki diren Agauntza eta Zaldibia erreketan, legar eta izaera ezberdinetako hondarrez eraturiko kuartario garaiko deposito alubialak aurki daitezke. Aipaturiko alubial hauek ez dira 10 metro baino sakonera handiagokoak izaten. Material hauek haran hondoak osatzen dituzte zeinak egitura hiritar eta industrialak

ezartzeko aprobetxatu diren. Bestalde, aipatu beharrekoa da Oria ibaiak markatzen duen ibilbidea Oria failak markaturikoa dela. Oianguko parkearen eremu altuan, Lazkaoko udalerriko mugetatik gertu, zintzilik dagoen terraza txiki bat aurki genezake, zeinaren materialak aipaturiko deposito alubialak osatzen dituztenen antzekoak diren. Terraza honen kokapenak adierazten digu, garai batean maila horretan alubioi baten akzioa gertatu zela, hau da, egungo "talweg"-aren mailaren gainetik 75 metrotara.

Oria ibaiak udalerria zeharkatzen du eta beronen arroan kokatzen da udalerraren eremu hiritar eta industrial. Udalerraren behekaldeko eremuan Zaldibia ibaiaren urak atsikitzen zaizkio Oriari, zeina Amondarain edo Arkaka izenez ere ezaguna den. Aipaturiko Oriaren isurki honek Aralarreko goialdeko eremu gehiena drainatzen du.

Zaldibia ibaiaren arroaren eremuak 40 km<sup>2</sup>-tako azalera hartzen du eta ibai ibilguaren luzera 13,34 km-takoa da. Zaldibia ibaia 700 metrotako altueran sortzen da, konkretuki Aralarko mendikatearen ondoan aurkitzen den Salastarri mendiaren iparraldeko zelaian. Zaldibiako udalerria zeharkatzen du eta ibaiak bere behe aldean Oria ibaiarekin elkartzen da Ordiziako udalerrian.

### 3.3.2. Lurrazpiko urak

Atal honetako informazioa ez dago eskuragarri.

## 3.4. Edafologia

Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako Mota Agrologikoen Maparen arabera, Ordiziako udalerraren gehiengan VII mota agrologikoko lurzoruak daude (guztizkoaren %58a).

Mota honetan barne hartzen diren lurzoruak mugapen zorrotz eta iraunkorrak jasaten dituzte, ondorioz baso-lurzorutzat hartzen direlarik. Erliebe irregularra eta malkartsua dute, eta %30etik gorako aldapak dituzte. Bertan higadura oso trinkoa izaten da, luzorua etengabe berriztatu eta bere bilakaera eragozten duelarik.

Gainerako lurzoruaren %42a izaera agrologiko ezberdinetako lurren artean banatzen da. Lur hauen artean lur ez-emankor edo erabilpen agronomiko murrizteko lurren presentzia esanguratsua da.

### Azalerak Mota Agrologikoen arabera

<b>Udalerria</b>	<b>II</b>	<b>III</b>	<b>IV</b>	<b>V</b>	<b>VI</b>	<b>VII</b>	<b>VIII</b>	<b>GUZTIRA</b>
<b>Ordizia</b>	13,9	15,7	45,6	-	75,8	336,1	90,3	577,4

*Iturria: GFA-ko Nekazaritza eta Arrantza Departamentua*

## **4. LURRALDE ETA HIRIGINTZA ANTOLAMENDUAK**

### **4.1. Lurralde-kontextua**

#### **4.1.1. Baldintzatzaile geografiko eta historikoak**

Oria ibaiaren hertzean kokatzen den udalerrria dugu Ordizia, esan genezake eskualdeko hiriburutasuna Beasaingo udalerriarekin elkarbanatzen duela. Kokapen geoestrategikoa medio, Gipuzkoan fundatu zen lehen herrietakoa dugu, zeinetan, Eztanda, Oria, Agauntza eta Zaldibia ibaiak elkartzen diren.

Ordiziaren fundazioa gaztelar Koroak XIII. mendearen erdialdean bultzatu zituen irizpide geopolitikoei dagokie. Gaztelara Gipuzkoaren lotzearekin, Gaskuña, beronen orbita politikoan sartzen da. Honela, lur eremu ultrapirenaikoekin komunikazio egokia lortzearen beharra planteatzen da, horregatik hainbat herri sortuko dira komunikazio bide nagusien inguruan. Bi izango dira Gaztelaren sarbideak Gipuzkoarako: bata Arlabanetik eta bestea San Adrianetik. Biak ere Ordiziaren inguruan aurkitzen direlako, hortik dator Ordiziaren garrantzi geoestrategikoa.

Honela, egungo gune historikotik ez oso urruti aurkitzen zen biztanlegoa aprobetxatuz, Alfonso X Jakintsuak 1526an udalerrriaren fundazioa agintzen du "Villafranca" izenarekin eta Gasteizko Forua egiletsiaz. Udalerrria harresiz inguratua eraiki zen, Kale Nagusia zelarik beronen ardatza. "Villafranca" izena, izen ofizial bezala gure egunetaraino iritsi da, nahiz eta, herri mailan Ordizia izena ere mantendu den, azken hau Francoren diktadura ondoren ofizialdu zelarik.

XIV. mendearen amaieran eta garai hartan bizi izan zen segurtasunik gabeko klima, Ahaide Nagusiak medio, inguruko hainbat herri eta parrokiak Ordiziara elkartzea erabakitzen dute, beraien segurtasuna bermatu nahian. Denborarekin, herri hauen arrazoiak Ordiziara atsikita mantentzeko desagertzen joan ziren, honela, 1615ean herri hauek gehienak beraien independentzia lortzen dute Koroari eskubide hori ordaindu ondoren. Azkenean, Ordizia banaketa hauek medio, lurzoru murriztarekin geratuko da.

Udalerrriaren gune nagusia alde zaharraren inguruan biltzen da, zeinaren forma eliptikoak bere Erdi-Aro beheko jatorria adierazten digun. XX. mendean, 60 eta 70. hamarkadetan gertatzen da udalerrriaren zabalkunde handia bere mendebaldeko aldean, Oria ibaiaren urertzean. Honela, Ategi-Enea, Altamira eta Bustuntza auzuneak sortzen dira. Gertatu den azken zabalkunde garrantzitsuena Sanperio eta Arramendi Kaleen inguruan gertatu da.

Trenbideak eta N-1 errepidea, zeina komunikazio bide egokiak diren, Ordiziari posibilitatu dio hainbat industria bertan izatea, gainera, Beasainekin batera eskualde mailako burutza duelarik. Honela, inguruko nekazaritza munduko udalerrrietatik nahiz penintsulako beste udalerrrietatik biztanleria kopuru garrantzitsu bat osatzen joaten da zeinak, lan bila bertara inguratu ziren. 1981. urteko biztanleria kopurua, XX. mendearen hasierakoa baino sei aldiz

handiagoa da. Ordea, urte honetan bertan ordurarteko biztanleriaren hazkunde joera hori hautsiko da, industriak jasandako krisia eta jaiotzen kopuruaren jeitsierak motibatua.

Laurogiegarrengo hamarkadan biztanleriaren gainbehera gertatzen da, ordea, prozesu hau gelditu egiten dela dirudi 1996. urtean 9.115 biztanletako kopuruan kokatzen delarik. Hala ere, aipatu behar da biztanleria kopuruaren gainbehera joera horrek jarraitu egin duela.

#### **4.1.2. Lurraldearen egitura eta udalaz kanpoko erlazioak**

5,7 km<sup>2</sup>-tako azalerarekin, udalerrri honek Besainekin batera Goierriko Eremu Funtzionalaren burutza du eta eskualdeko hiriburutza funtzionala. Burutza hau, eskualde barnean eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren baitan ere, bi oinarrizko ardatzen elkartzean kokatua aurkitzen da: N-1 (errepidezko nahiz trenzko euskarria) eta etorkizuneko Beasain-Durango errepidea. Aldi berean, bi ibilgu hauek Beasain-Zumarragako Eremu Funtzionalen Garraio eta Komunikazio Sistema egituratzen dute eta Iparraldetik-Hegoalderako fluxua (Irun-Gasteiz-Madril) eta Ekialdetik-Mendebalderakoa (Nafarroa-Goierri-Debagoiena-Bizkaia) kanalizatzen dute.

Hala ere, komunikazio bide nagusia Madril-Irun Nazional 1-a da, baina, Beasain, Bergara eta Durango eskualde mailako errepidearen garrantzai ahaztu gabe.

Gainerako Ordiziako errepide sareak udalerrria eskualdeko beste udalerriekin lotzen dute (Itsasondo, Arama, Zaldibia...), hala ere, Ordiziatik Lazkao aldera doan errepidearen aipamen espresua egin behar dugu, izan ere, Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko lotunea izan da (Etxarri-Aranaz, Lizarra), nahiz eta, egun garrantzia galtzen joan den Etxegarateko errepidea medio.

Azkenik, Ordizia trenz ere komunikatua aurkitzen da Renfe-ren linea dela eta (Madril-Irun).

### **4.2. Udalerriri afektatzen dioten planeamendu orokarraren aurreikuspenak**

#### **4.2.1. Euskal Herriarentzat L.A.A.-en aurreikuspenak**

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak (LAAK, dekretu bidez onartuak 28/1.997 Otsailaren 11an eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 1997ko otsailaren 12an argitaratuak eta 97-6-4an zuzenduak) Euskal Herriko lurraldearen antolamendua garatzeko dauden lanabesak dira. Euskal Autonomi Erkidegoko lurraldea Hiriburuen Euskal Sistema Polinuklear (HESP) delarikoaren bitartez egituratzen dute eta berau 15 Eremu Funtzionaletan banatu.

Ordizia, Beasain-Zumarragako Eremu Funtzionalan dago, Goierriko eskualdeari dagokiona eta honako udalerriek osatzen dutena: Alzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Urretxu-Zumarraga, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia, Zegama, Zerain eta Legazpik. Honako esparru hauek ere barneratzen ditu: Araba eta Gipuzkoako partzuergo nagusia eta Enirio



Aralar.

LAA-en Ordiziarekiko eginiko aurreikuspenak honakoak dira:

- Besteak beste udal antolamenduak etxebizitza erabilpenerako luraren kalkuluak egitean kontutan izan beharreko irizpideak ezartzen dira, zeinak Lurraldearen Zatikako Plana onartua ez dagoen kasurako diren. Aipaturiko irizpide horien arabera, udalerria ez da aurkitzen “hautazko hazkunde” ezta “habitat alternatibo”ko inguruneen artean; E.A.E.-ko hiritar iherarkia horretan 4. mailan kokatzen delarik, hori dela eta eskaintzaren zurruntasun koefizientea 0,20an ebaluatzen da. Honela, egiten den aurreikuspena gehienera ere 107 etxebizitza/urteko da, zeinak urtean eraikitzen denaren bikoitza suposatzen duen.
- Egun dauden industriguneen berriztatze eta biziberritzea, beti ere, dagoen lurraldearen baitan.
- Lur hiritarrezinean familiabakarreko etxebizitzak egitea debekatzen da, abelur esplotazioeien kasuan izan ezik.
- Ondare kulturala babestu eta batez ere, arkitektoniko eta arkeologikoa.
- Beasain eta Lazkaoko udalerrietako planeamenduarekin bateragarri egin Ordiziako planeamendua, bateratze morfologikoa eta eremu hiritarrena gertatu dadin, baina batez ere, saiakera berezia eginez Beasain-Lazkao ardatzean.

#### **4.2.2. Beasain-Zumarraga eremuaren LZP-ren aurreikuspenak**

Ordizia eskualde-egiturako Lurraldearen Zatikako Planean Beasain-Zumarraga eremu funtzionalaren barnean dago. Lehen adierazi bezala, eremu hori Goierriko eskualdearekin bat dator eta bere barnean 22 udalerrri daude.

Ordizia Oria Garaia azpideremuan aurkitzen da sailkatua eta Beasainekin batera aipaturiko Eremu Funtzionalaren burutza du. Gune honi, intentsiboak diren hiri asentamenduak dagozkio, Oria Garaiko bailararen sakoneraren okupazioan arruntak direnak.

Oraindik-orain Goierriko Lurraldearen Zatikako Plana aurreikuspen modura dago idatzita; ez du inongo onarpen administratiborik lortu oraindik. Hala ere bilerak prestatu dira honi buruz. Azken aldian tramitazioa berriro ere martxan jarri da eztabaida-mahaiak prestatu dira, non Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta LZP honen barruan sartzen diren udalerrien udalbatzek parte-hartzen duten.

Hauek dira LZP-ak Ordiziako udalaren plangintzan dituen eraginak:

#### INGURUNE FISIKOAREN ANTOLAMENDUA

- Udalerriko babestu, hobetu eta/edo leheneratu beharreko eremuak antolatzea, LZParen zehaztapenei jarraiki.
- Ingurune fisikoa antolatzeko kategoriak bere baldintza, ezaugarri, potentzialtasun eta harrera-ahalmenaren arabera definitzea eta arautzea, LZPan eta/edo LAAetan ezarritako irizpideei jarraiki.

#### BIDE-AZPIEGITUREN ANTOLAMENDUA

- Lurzoru erreserbak eta ordenazio aurrikuspenak Ordizia, Lazkao eta Beasaingo udalerrietako guneeetarako N-1etik hegoaldeko sarrerako lotunean hobekuntzak egiteko.

Ordizia eta Lazkao arteko lotunea den errepidea hobetu eta egokitzea, egungo CAF-en industrigunetik, hiri zentritasun ardatz gisara eta Beasain-Ordizia-Lazkao erpinaren egituraren ordenazio gisara.

- Ordizia eta Lazkaoren arteko lotune izango den errepide bat eraikitzea, CAF-eko industrigunearen hegoekialdean, herriarteko artikulazio ardatz gisara eta Beasain-Ordizia-Lazkao erpinaren egitura integralaren ordenazio parte gisa eta industrigune berrien oinarria izango delarik. Errepide honi emango zaion diseinua eta hiri tratamendua zumardi modukoarena izango da.

- Herriko errepide nagusiaren aldaketa. Hiri zentraltasunaren ardatza izanik eta bere diseinua eta tratamendua etorbide batena izango delarik.

- Zaldibiara doan errepidearen aldaketa, hiriarteko artikulazioa duen ardatz bat bihurtuz eta izango duen diseinua eta tratamendua zuhaitzezko zumardiarena izango delarik, espaloi eta bidegorriarekin beti ere, lurraren azaleraren arabera.

### TRENBIDE-AZPIEGITUREN ANTOLAMENDUA

- Trenbide-sare berriari dagokion linearako beharrezko diren erreserbak egitea.
- Ordiziako Bustuntza auzunearen eta Beasaingo Azoka gunearen arteko egungo RENFE-ren ibildidearen aldaketaren exekuzioa egiteko erreserbak eta aurrikuspena.
- San Juaneko estazio berria egiteko erreserbak eta aurrikuspenak.

### ZERBITZU-AZPIEGITUREN ANTOLAMENDUA

- Arloko planak eta proiektuak gauzatzeko beharrezko erreserbak.

### EGITURATZE HIRITARRA ETA ORDENAZIO INTEGRALA

- Beasain-Ordizia-Lazkao erpinaren aldaketa eta biziberritzea, egoitza erabilpenetako, hirugarren adinekoentzako eta zuzkidurentzako.
- Beasain-Ordizia-Lazkao erpinaren aldaketa eta biziberritze hiritarra, egoitza erabilpen, zerbitzuentzat eta zuzkidurentzat Lazkaorekin egitura ardatz bat sortuaz. Ekintza hau CAF enpresaren elementu eta instalakuntzen lekualdatzarekin lotua dago.
- San Bartolome eremuko aldaketa eta biziberritze hiritarra egoitza erabilpena emateko.
- Gune historikoaren babesa eta biziberritzea.

### BIZITEGITARAKO ASENTAMENDUETARAKO LURZORUAREN ANTOLAMENDUA ETA POLITIKA

- Egoitza erabilpenetarako dagoen eskaintzaren zenbatekotzea, LZP-aren arabera.
- Promozio publikoko etxebizitzaren ordenazioa, promozioa eta kudeaketa urbanistikoa egiteko aurrikuspenak, udalerrri hau honelako politikak aurrera eramateko lehenengo mailako interesekotzat jotzen delako.

### AKTIBITATE EKONOMIKOENTZAKO ASENTAMENDUETARAKO LURZORUAREN ANTOLAMENDUA ETA POLITIKA

- Aktibitate mixtoetara zuzenduriko lurraldearen antolaketa, hauen artean zerbitzuetara zuzenduriko aktibitateetarakoak dentsitate altu edo erdi mailakoekin eta Beasain-Ordizia-Lazkao erpinaren aldaketa eta biziberritze hiritarra.

## EKIPAMENDU ETA ESPAZIO LIBREETARAKO LURZORUAREN ANTOLAMENDUA ETA POLITIKA

Izaera hiritarra duten ekipamenduak.

- Zehaztuak ez dauden ekipamenduetara zuzenduriko lurzoruaren antolaketa, zeinak izaera kultural, administratibo eta komertziala izando duten eta Beasain-Ordizia-Lazkao erpinaren aldaketa eta biziberritze ekintza horretan kokatuko diren.

- Goierriko Langintza eskola kokatzen den eremu inguruan zuzkidura izaera izango duen eremu baten erreserba eta antolaketa, egungo formakuntza zentru eta I+D zentruaren zabalkunderako eta hauetara lotuak dauden hirugarren sektoreko erabileretako.

Udalazgandiko ekipamendu eta eremu askeak.

- Udalerriari dagozkion Ingurugiro Sareko ibilbideen antolaketa edo ordenazioa.

- Eskualdeko izaera duen Oiangu-Lazkaomendi aisialdiko eremuaren antolaketa edo ordenazioa.

### **4.2.3. Errepide-planak**

Gipuzkoako Foru Aldundiako Errepide Zuzendaritza Orokorrak eskainitako informazioaren arabera, 2004. urtean ondoko ekintzak burutzea espero da Ordizian:

- Bidezoruaren konponketak N-1 ean Itsasondo eta Beasain artean (lanean), zeinak Itsasondo, Ordizia eta Beasaingo udalerrietan izango duen eragina.

### **4.2.4. Jarduera Ekonomikoetarako Lurralde Arloko Plana**

Jarduera Ekonomiko eta Ekipamendu Komertzialetarako 2001. urteko Lurralde Arloko Planaren aurrerapenean konkretatzen dira udalerrri bakoitzak aktibitate ekonomikoetarako darabiltzan hektareak:

	<b>OKUPATUAK</b>	<b>LIBRE</b>	<b>GUZTIRA</b>
<b>Ordizia</b>	15,71Ha.	19,75 Ha.	35,46 Ha.

Iturria: LZP

20 Ha.tako erreserba aurrikusten da jarduera ekonomikoetarako.

LAP honetan beste aurrikuspen konkretu bat ere egiten da, honela, Ordizia-Beasain eta Urretxu-Zumarragako zentru eremuetan, egun instalakuntza industrialez okupatuak aurkitzen direnak, pixkanaka hirugarren sektoreko erabilpenetako instalakuntzez

ordezkatuak izatea, izan ere, etorkizunean oraindik asko garatzeke dagoen sektore honek garrantzia izango duelako.

LAPa-k Ordiziako udalerrria lehentasunezko intereseko udalerritzat jotzen du iharduera ekonomikoetarako kokagune izateko, honela, hainbat proposamen planteatzen dira:

- Goierriko Garraio Zerbitzu Zentrua: kokagune eta bideragarritasun azterketak eremu logistiko bat sortzeko zeina N-1 eta GI-632 errepideei lotua izango dena. 5/15 Ha. bitarteko aurrikuspena.
- Oria haraneko eskualde mailako industrigune berria: Kokagune eta bideragarritasun azterketak. 10-25 Ha. bitarteko aurrikuspena.

Saltoki Handien lurralde-antolamenduari buruz, esan behar da Ordizia B kategorian dagoela, honek suposatzen duen dimentsioak honako hauek dira:

- Plataforma laueko gehienezko azalera netoa: 40.000 m<sup>2</sup>
- Eraikiriko teilatuko gehienezko azalera: 13.000 m<sup>2</sup>

#### **4.2.5. Ibaiak eta Errekak antolatzeko Lurralde Antolaketa Plana.**

Euskal Autonomi Erkidegoko Ibai eta Errekak Antolatzeko Lurralde antolaketa Plana 415/1998 Dekretu bidez adostu zen 1998. urteko abenduaren 22an.

Ordiziako udalerrriari dagokionez, Oria ibaiaren kalitatea ona dela aipatzen da Ordizia-Beasaingo gune hiritarreko isurketak jasotzen dituen arte. Zuzenketa neurriak hartzeak eta erregulazio ekintzek (Lareo eta Arriarango presak), papelera gehienezko itxierarekin batera, nolabait, uren kalitatea hobetzen joatea suposatu du.

Bestalde, Agauntza ibaia Ordiziatik iragatean, I mailako bideunea kontsideratzen da osagai hidraulikoari dagokionez (10 eta 50 km<sup>2</sup> ibai arroa duten bideuneak).

Azkenik, aipamen bat egiten da Oriaren arroan kokatuak aurkitzen diren interes kultureko zubiei. Ordiziaren kasuan, Oria gainean dagoen Ibares zubia aipatuko genuke (Ordizia-Arama).

#### **4.2.6. Trenbide Sarearen Lurralde Antolamendu Artezpideak**

RENFE-k ustiatzen duen Madril-Irun lineak udalerrria zeharkatzen du. Linea hau berdina da ibilbide luzeetarako nahiz gertuko zerbitzuetarako.

LZP-k Ordiziako Bustuntza auzunearen eta Beasaingo Azoka eremuaren arteko RENFE-ren linearen aldaketa jasotzen du, trazadura lerro zuzen bat emanaz eta trenbidearen kotak handituz egiturarengandik, honela, Lazkao eta Ordizia artean CAF-eko eremuko bidegurutzea salbatzen duelarik eta Galardiko muinoan zehar tunel baten bidez iragan

dadin.

Bestalde, San Juan inguruan beste geltoki bat eraikitzeko lurzoru erreserbak eta antolakuntza aurrikuspenak ezartzen dira.

#### 4.2.7. Ingurune naturala eta agroforestalaren Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak

Ingurune naturala eta agroforestalaren LAA-ren aurrerapenean, erabilera agroforestalaren aktibitateen bideraketa egiten da, lurraldearen planeamendu orokor bat eginez eta lehenengo sektorearen gurak eta interesak beste erabilerekiko defendatuz.

LAA-ren aurrerapen honek ez du Ordiziako udalerriri eragiten dion ekimen konkreturik planteatzen.

#### 4.2.8. Etxebizitza publikoentzat lurraldearen sustapenerako Lurralde Arloko Plana

LAP-k, Beasain-Zumarraga LZP-ren zehaztapenekin bat etorriaz, Ordiziako udalerrria, besteak beste, honela kontsideratzea proposatzen du: "lehentasunezko interesekoa promozio publikoko etxebizitzaren lurzoruaren antolamendu, sustapen eta kudeake urbanistikorako, denetan, dagoen egoitzazko parkearen kontserbazio, hobekuntza eta errekupeazio eta horrela kalifikaturiko lurzoruen garapen eta urbanizaziorako oinarrizko politika bat proposatzen delarik".

LAP-k aurrakusten dituen proposamen espezifikoen artean honako hauek azpimarratuko genituzke:

- Plan honek iraugo duen 16 urtetan, alokairu merkaturako 235 etxebizitzaren errekupeazioa, egungo Beasain-Ordizia-Lazkao eta Zumarraga-Urretxu-Legazpia eremuetan.
- San Bartolome eremuan aldaketa eta biziberritze hiritarra, egoitza erabilpena emanaz.

Aurrikuspenei jarraiki, Ordizian 782 etxebizitza berri aurrakusten dira eta babes ofizialeko 336 etxebizitza.

#### Udal plangintza dimentsionatzeko proposamenak

<b>Udalerrria</b>	<b>Aurreikusitako etxeb. berriak</b>			<b>Etxeb. babestu berriak</b>			<b>BOE/Aurrei k. erlazioa</b>
	<b>Hiri- lurzorua</b>	<b>Lurzoru Urbanizagarria</b>	<b>Guztira</b>	<b>Hiri- lurzoru a</b>	<b>Lurzoru Urbanizagarr ia</b>	<b>Guztira</b>	
<b>ORDIZIA</b>	328	454	782	36	300	336	42,97%

Iturria: LZP

### **4.3. Lurraldearen erabilera eta egitura urbanistikoa**

#### **4.3.1. Lurraldearen antolakuntza organikoa eta lurzorua erabilera**

Ordiziako udalerrria Gipuzkoako Lurralde Historikoan aurkitzen da kokatua eta konkretuki, Goierriko eskualdean. Iparraldean Itsasondorekin egiten du muga; Hegoaldean Senpere-Berri errekaarekin zeinak Lazkaorengandik bereizten duen; Ekialdean Oria eta Amondarain ibaiekin, azken honek Aramarengandik bereizten duelarik eta Mendebaldean Lazkao eta Beasainekin, Mariaratz erreka delarik muga.

Udalerrria Oria haranean kokatzen da. Udalerrriak Erdi-Aroan zuen oinarrizko egitura hori mantentzen duela esan genezake, kontutan izanik garai hartan lautada kostaldea eta iparraldeko lurkin lotzen zuen errepide erreala zela. Egun, ordea, egitura horrek potentzialitate garrantzitsua du, izan ere, harana Iparretik Hegora zeharkatzen duen errepide nagusia iragaten delako bertatik, N-1a hain zuzen ere eta bestalde, Madril-Irun trenbidea.

Oiangu, titulartasun publikoa duen aisialdirako eremua, zeina hirigunetik gertu aurkitzen den, Aralarko Parkerako ateetako bat kontsideratzen da. Aralarko Parkea Gune Natural gisa kalifikatu da eta udal lurraldearen egitura organikoan errelebantzia handia duela esan genezake, gainera, Ordiziak duen garapen potentzialen barnean intereseko aukera gisa agertzen da.

Barrena Parkea, Ordiziako gunean estrategikoki kokatua aurki genezake. Parke honek gune libreen zuzkidura egitura orokorra hornitzen du eta Mariaratzaren aurrikusia dagoen zuzkidurek osatuko dute.

Lurraldearen egitura organikoa oinarrizko azpiegitura eta ekipamenduz ere osatzen da. Honela, aipagarri da Goierriko Lanbide Heziketarako ikastetxea bertan kokatzen dela, bestalde ezin dira ahaztu ere, suhiltzaileen parkea; Altamirako kirol eremua, duen udalerriaz gainetiko interesagatik eta hilherria, azken hau duen azaleragatik.

Egitura honen gainean lurraldearen eremutze orokorra ezartzen da, honela, nekazal eremuaren gainean egin daitezkeen ekintzak erregulatu daitezkeelarik (kontutan izan behar da udalerriko azaleraren zati garrantzitsua dela nekazal eremua). Balore naturalistiko, paisajistiko, produktibo eta aisialdizkoak mantendu, bultzatu eta birsortzeko asmoarekin, nekazal eremuan hiru lurralde eremu bereizten dira, zeinak irizpide ezberdinen arabera bereizten diren, besteak-beste: lurraren gaitasuna eta inpaktu edo talka murriztu nahia, beti ere lur horiek babesteko helburuarekin.

Ordiziako Planeamenduko Arau Subsidiarioen (NSPM) aurrerapenak ondoko lurraren erabilpenak bereizten ditu:

- Lur hiritarra 964.488 m<sup>2</sup>
- Lur hiritargarria 410.093 m<sup>2</sup>
- Lur hiritarrezina 4.268.116 m<sup>2</sup>

Hiri erabilpenen oinarrizko sistematizatea:

Sistematizate horretan ondoko erabilpen hauek bereizten dira:

- \* Egoitza erabilpenak
- \* Erabilpen industrialak
- \* Zerbitzuetarako erabilpenak
- \* Nekazal erabilpenak
- \* Komunikazio erabilpenak
- \* Gune askeen erabilpenak
- \* Elkarrekiko erabilpenezko ekipamenduak
- \* Zerbitzu azpiegituretako erabilpenak

#### **4.3.2. Hiribarruaren ezaugarriak**

Ordizia, Beasain eta Lazkaorekin batera, Oria-Goiko eremua Beasain-Zumarraga eremu funtzionalaren barnean sartzeko prozesu horretan parte hartzen ari den eremu hiritarra da. Beasain-Zumarraga LZP-k adierazten duen bezala, udalerrri hauek Goierriko eremu funtzionala osatzen duten giltzaduretako bat kontsideratzen dira.

LZP-ak adierazten duen bezala, errepideen egituraren iherarkizazioa; erreken hertzen errekupeazioa; gune libreen eta zuzkiduren amaitzea ekipamenduentzat; gune edota eremu degradatuen errekupeazioa eta eremu zaharkitu edo gutxierabilien barne birmoldaketa dira oinarrizko arazo urbanistikoak.

Beasain-Ordizia-Lazkaoren kasuan, aipaturik arazo hauez gainera, tren azpiegiturek, zeinak haranaren erdialdea okupatzen duen, lurraldea zatitzen du eta bere ibilguak eta trazadurak hesi garrantzitsuak sortzen ditu. Besteak-beste, Ordiziako gunean eta San Bartolome eremuan, Ordizia-Lazkaoren lotunea den Laskibar auzoan, Senpereko eremuan, Beasaingo anbulategi ondoan, Beasaingo geltokiaren inguruan identifikatzen dugu aipaturiko arazoa. Trenbideaz gainera, N-1 errepideak ere udalerrri hauetan hesi funtzioa betetzen du hainbat



eremutan.

Egoitza eremuen hazkundera, herri kanpokaldean kokatuta zeuden instalakuntza industrialetara iritsi dira, honela, hiri egituraren aglomerazioa medio, udalerrri gunean bertan hainbat industria eraikin aurkitzea gertatu da, baita lurzoru azpierzabiltza lokalizatzea edota hiri hutsuneak. Gertaera honi errepide sare indartsua gehitu behar zaio, baina udalerrri guneetarako sarbideak trenak suposatzen duen hesiak eta e.a.-ek oztopatuak aurkitu direlarik. Aldiz, gunearen hertzetan errepide bakarrarekin lotuak aurkitzen diren egoitza eta ekipamendu erabilerako guneak aurki genitzake (Beasain eta Ordiziaren arteko ibaiaren hertza, Beasain eta Lazkaoren arteko tunela....) .

Etxebizitzari dagokionez, nahiz eta biztanleriaren kopuruaren beherakada gertatu den arren, etxebizitza parkea, familien tamaina txikitu denez igo egin da, konkretuki, EUSTATen arabera 23.463 etxebizitzatatik (1988) 27.230ra iragan da (1996).

Ordizian konkretuki, etxebizitzaren kopuruan %11aren inguruko hazkundera egon da:

<b>Udalerrria</b>	<b>Etxebizitza-parke 1986</b>	<b>Etxebizitza-parke 1999</b>	<b>GUZTIRA berriak</b>	<b>Hazkundera %</b>
<b>Ordizia</b>	<b>3.337</b>	<b>3.710</b>	<b>373</b>	<b>11,2%</b>

Iturria: Beasain Zumarraga LZP.

Hutsik daudenen tasa (bigarren etxebizitzak+hutsak), parkearen %18,17a suposatzen du (1996).

<b>Udalerrria</b>	<b>Biz./Etxebizitza nagusiak</b>	<b>Etxebizitzak Guztira/1000Biz</b>	<b>Nagusiak</b>	<b>Viv Sec+Deso</b>	<b>Desokupazio- tasa</b>
<b>Ordizia</b>	<b>3,05</b>	<b>401,32</b>	<b>2.995</b>	<b>665</b>	<b>18,17%</b>

Iturria: Beasain Zumarraga LZP.

Bestalde, 1986-2000. urteen bitartean eremu funtzionalean eraiki diren etxebizitza babestu kopurua 1.424tako izan da, hautatik 234 etxebizitza sozialak izan dira. Kopuru honek Gipuzkoan eraiki diren etxebizitza babestuen %13,2a suposatzen dute eta biztanleria pisuari dagokionez %9koa da.

Etxebizitza babestuari dagokionez, lurzoru kalifikatuaren erreserbak 775 etxebizitza eraikitzeke aukera ematen du gutxigora-behera, eskaintza 7000 biztanletatik goragoko lau udalerritan kontzentratzen da: Beasain (150 etxebizitza), Ordizia (330 etxebizitza), Zumarraga (150 etxebizitza) eta Legazpin (150 etxebizitza).

<b>Udalerrria</b>	<b>Giz. Etxebizitza</b>	<b>Txebizitza babestu</b>	<b>GUZTIRA babestu</b>	<b>GUZTIRA berriak</b>	<b>% GUZTIRA</b>
<b>Ordizia</b>	<b>27</b>	<b>156</b>	<b>183</b>	<b>373</b>	<b>49,06%</b>

Iturria: Beasain Zumarraga LZP.

Aipatu behar da LZP-aren arabera lehenago aipatu ditugun udalerrri gehienetan lurzoru baliagarria, egun kalifikatuta dauden lurzoruetatik aparte, oso murrizta dela eta konkretuki, Ordiziaren kasuan azken eremu hau San Bartolome auzoan legoke, egungo Rugby zelaia dagoen tokian.

Beraz, haranean zehar linealki dentsitate handiko okupazio modelo planteatzen da, biztanleria gune garrantzitsuenak udalerrri garrantzitsuenen inguruan eta komunikazio ibilguen inguruan bilduko dira (Beasain-Ordizia-Lazkao eta Zumarraga-Urretxu-Legazpia). Kontutan izan behar da eremu hauetan industria ehuna garrantzitsua da eta azkenean jarraipen bat gertatzen da hiri eta egoitza nodoen artean.

Udalerrriaren hazkundera zentratuz, Ordiziako gune nagusia garai bateko gunearen inguruan kokatzen da, honela, bere forma eliptikoak Erdi-Aro behean sortu zela adierazten digu. Karlistaden ondoren udalerrriaren harresiak botatzen dira, gune zaharraren inguruan hazkundera hasten delarik, garai bateko errepide nazionalaren norabidea jarraituz egungo Filipineta eta Urdaneta kaleetan zehar. 60 eta 70. hamarkadetan gertatzen da udalerrriaren zabalkunde handia bere mendebaldeko aldean, Oria ibaiaren ur-ertzean. Honela, Ategi-Enea, Altamira eta Bustuntza auzuneak sortzen dira. Gertatu den azken zabalkunde garrantzitsua Sanperio eta Arramendi Kaleen inguruan gertatu da.

Beasain, Lazkao eta Ordiziaren garapen urbanistiko eta industrialak hiru udalerrri hauen mugak ez bereiztea ekarri du.

Lehenago aipatu den bezala, XX. mendearen lehen erdialdean udalerrriaren hazkundera mendebaldeantza egin zen, Beasain alderuntza hain zuzen ere, errepidearen hertzetan eta ibairaren bazterrean kokatuaz eraikuntzak. Sahiesbidea eraikitzeak udalerrri gunetik trafikoa ateratzea suposatu zuen eta honela garapena ere soseguzkoa izango delarik. 70. hamarkadaren hasieran Oriarez ekerraldea hiri egituraz josi zen, baita ibaiaren bestaldean, honen eta trenbidearen artean geratzen zen zatia ere, Altamirako eremua urbanizatzen hasiaz. Egun autobien irekierarekin Ordiziako Hegoaldeko eremua herrigunetik kanporatua bezala aurkitu da.

Ekipamenduei dagokionez, Ordiziak, zinea du, Osasun zentrua, Kultur-etxea eta hainbat zerbitzu sozialetako zentru. Gainera, hirugunetik kanpor geratzen den Oiangurengo parkea, zeinetan hainbat ekintza egiten diren naturaren interpretazioaren inguruan.

Kirol ekipamendu bezala honako hauek identifikatu dira: Majori Polikiroldegia, Bete-Alai frontoia (estalia eta estaligabea), Altamirako estadioa, Rugbyko zelaia eta Oiangurengo parkea. Hauetaz gainera, Andres Urdaneta, Jakintza Ikastola, Oianguren Institutuak eta Goierriko Lanbide Heziketako ikastetxeak tamaina txikiagoko hainbat kirol instalakuntza dituzte. Bestalde, Ordiziak Parrokia bat du eta San Bartolome eleiza erlijio ekipamendu gisara.

Ur hornidura eta saneamentuari eta hiri hondakinen tratamenduari dagozkion azpiegituren

berri hurrengo ataletan zabalago ematen da.

#### **4.4. Hiri Antolaketa Arauen analisisia**

Ordiziako Plangintza Arau Subsidiarioen helburua Gipuzkoako Foru Aldundiaren 1.986ko irailaren 30eko eta 1.987ko urriaren 27ko ebazpenen bidez behin-betiko onetsitako "Ordiziako Udal Mugartearen Arau Subsidiarioak" berraztertzea da, bai eta arau hauek aldatzeko nahiz garatzeko formulatu diren espedienteak ere, guzti hauek osatu baitute Ordiziako hirigintza erregimena dokumentu berria behin-betiko onetsi den arte.

Honela, Hirigintza Arauen 7. artikuluan ezarritako irizpideei erantzunez, 1.996ko uztailaren 18an eginiko osoko bilkuran Ordiziako Udalak Udaleko Hirigintza Arau Subsidiario berriak osatzeko prozesua martxan jartzea erabaki zuen.

Proposatutako helburua Ordiziari udalerriko hirigintza arazoari ikuspegi integraletik erantzuna emango dion plangintza orokorreko tresna egokia eskaintzea da, tresna hori gaur egungo zirkunstantzia ekonomiko, sozial eta kulturei nahiz indarrean den legeriari egokitu beharko zaielarik.

Aipaturiko 1.996ko udal ebazpen horretatik gaur egun arteko denboran zehar hainbat aldaketa garrantzitsu jasan ditu hirigintza legeriak.

- \* 1.998ko apirilaren 13ko Lurzoruaren Erregimenari eta Balorazioei buruzko Legea – aurrerantzean, 1.998ko Lurzoruaren Legea-, estatuko Administrazioak jaulkia.
- \* Etxebizitzaren inguruko premiazko neurriei eta hirigintza-plangintza eta –kudeaketarako baliabideen tramitazioari buruzko 1.994ko ekainaren 30eko Legea, Eusko Legebiltzarrak jaulkia.
- \* 1.997ko apirilaren 25eko Legea, Eusko Legebiltzarrak jaulkia: lege honek Euskal Autonomoa Erkidegoak hirigintza-jarduketek sorrarazitako plusbalioetan duen partehartzea zehazten du.
- \* 1.998ko martxoaren 6ko Lurzoruaren Erregimenari eta Hiri Ordenazioari buruzko premiazko neurrien Legea, Eusko Legebiltzarrak jaulkia.
- \* 1976ko Lurzoruaren Legea, eta honen garapenean jaulkitako Erregelamenduak, gerora jaulkitako eta indarrean dauden legezko xedapenetan ezarritakoaren kontra ez doazen neurrian.

Azkenik, nahitaezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolakuntzarako Azterpideak aipatzea, zeinak 1.997ko otsailaren 11ko Dekretuaren bidez behin-betiko onetsi baitziren. Ezinbestekoa da Arau hauen edukia kontuan hartzea, alderdi eta proposamen lotesleei dagokienean.

Udaletxeari dagokion izapidetza egin ondoren, espedientea Gipuzkoako Foru Aldundira bidalia izan zen, bertan, 1999. urteko Ekainaren 22ko Diputatuen Kontseiluan onartua izan zen.

#### **4.4.1. Hiri Antolaketa Arauen Helburuak**

Ordiziako Planeamenduko Arau Subsidiarioen Aurrerapenaren dokumentuak honako helburu orokorrak ezartzen ditu:

- Errenta- eta kontsumo-mailei eustea eta maila hauek handitzea, izaera industrialeko nahiz hirugarren sektorearekin erlazionaturiko ekonomi jarduerak hartzeko ahalmena izango duen lurzorua prestatuz; merkataritza jarduera berritu eta hobetzera bideratutako baldintza egokiak sortuz; eta turismoko sektorearen eta eskaintza ludiko eta kulturalaren ezarpena sustatuko duten neurriak ezarriz.
- Udalerriko bizi-kalitateari eustea eta kalitate hau handitzea, ondare eraiki eta urbanizatua birgaituz –hirigune historikoan batik bat-; bidesare hurbilerraz egokia ordenatuz eta zarata eta poluzioaren eragina gutxiagotuz; ekipamenduen zuzkidura sendotu eta optimizatuz; eta ingurugiroa baloratuz, ondoko jardueren bidez: aisialdirako areen zuzkidura hobetzea, landa-lurraldeko interbentzio-baldintzak erregulatzea, eta batik bat Uraren Zikloari eta saneamenduari dagozkien azpiegitura-jarduketei ekitea.
- Bertako biztanleria gaztea finkatzea eta kanpokoak herrira erakartzea, hori lortu ahal izateko behar adinako lurzoru-eskaintza sortuz, prezio eta tipologia egokiei jarraiki.
- Aurreko helburuak kontuan harturik, beharrezko diren udalaz gaindiko izaerako jarduketak koordinatzea.

Helburu hauek aintzat harturik, ondoko hauek dira lurraldean interbentzioak egiteko irizpide nagusiak:

- Interbentzio erregimena eta, batik bat, eraikuntza erregimena erregulatzea izaera landatarreko lurzoruan, inguru horretako balioak babestuz eta bertako bizigarritasun-baldintzak hobetuz.
- Udalerriari eta hiri-areari hurbilerraztasun-eta mugikortasun-baldintza egokiak eskaintzea.

- Ondare eraiki eta urbanizatua birgaitzea, eta egun dauden hiri "hutsuneak" osatu eta ordenatzea.
- Egin beharreko egoitza garapen berriak eta hauen tipologia koantifikatu, kokatu eta hiri-bilbearekin bat eginik ordenatzea.
- Merkataritza jarduera sendotu eta hobetzea.
- Ekonomi jardueretara (industri jarduerak, hirugarren sektoreko jarduera anitzak eta abar) destinatzeke garatu beharreko lurzoru berriak definitu eta kategorizatzea.
- Hiri-inguruaren kalitatea hobetzea, barnealdeko bidesarea egituratuz eta espazio libreak erlazionatuko dituen oinezkoen bidesare konplexua konfiguraturuz, bai eta inguru horri dagozkion jarduerak bertan integraturuz ere.
- Ekipamenduen zuzkidura optimizatzea eta, hala dagokionean, handitzea.
- Udalerriri behar dituen azpiegitura guztiak eskaintzea: saneamendua, telekomunikazioak eta abar.
- Hiri-lurzoru gisa sailkatutako lurren ordenazio xehekatuko erregimena Arau Subsidiarioetan zehaztea, behar bezala justifikatutako eremuak salbuetsiz.
- Ordiziako plangintza Lurraldearen Antolakuntzarako baliabideekin (LAA, LPP, LPS eta abar) nahiz mugakide dituen udalerrietako plangintzarekin koordinatzea.

#### 4.4.2. Lurzoruaren erregimena

Indarrean dagoen legedia urbanistikoaren arabera, Ordiziako Planeamenduko Arau Subsidiarioek udalerriko lurzoria hiru lurzoru motetan banatzen dute: hiritarra, hiritargarria eta hiritarrezina.

<b>Kalifikazioa</b>	<b>Azalera (m<sup>2</sup>)</b>	<b>%</b>
<b>Hiri-Lurzoria</b>	964.488	17,1%
<b>Lurzoru Urbanizagarria</b>	410.093	7,2%
<b>Lurzoru Urbanizaezina</b>	4.268.116	75,7%
<b>GUZTIRA</b>	5.642.697	100,00%

Arau Subsidiarioetan erabiltzen den terminologiarekin bat eginik, hiri-area (lurzoru ez-urbanizagarri gisa sailkatzen ez den lurraldea) hirigintza interbentziarako area (HIA) izenarekin identifikatzen da. Honela, hirigintza interbentziarako 31 area aurki genitzake

Ordizian.

<b>HIRIGINTZA-JARDUERARAKO EREMU</b>	<b>AZALERA ( m<sup>2</sup> )</b>	<b>HIRIGINTZA-ANTOLAKUNTZA GARATZE</b>
1.- HERRIGUNEA	30.215	PLANGINTZA XEHAKATU
2.- BARRENA	38.069	EKINTZA ZUZENA
3.- GARAGARZA	19.965	EKINTZA ZUZENA
4.- URDANETA	63.350	EKINTZA ZUZENA
5.- ITURTZO	14.009	EKINTZA ZUZENA
6.- ARANA	32.745	EKINTZA ZUZENA
7.- APELLANIZ	21.937	EKINTZA ZUZENA
8.- BUSTUNTZA	78.994	EKINTZA ZUZENA
9.- MAJORI	58.694	EKINTZA ZUZENA
10.- HEGO ALTAMIRA	64.449	EKINTZA ZUZENA
11.- MALLUTZ	55.399	EKINTZA ZUZENA
12.- UPABI	42.061	PLANGINTZA XEHAKATU
13.- FLOREAGA	9.753	EKINTZA ZUZENA
14.- SAN BARTOLOMÉ	45.426	PLANGINTZA XEHAKATU
15.- Pº TXINDOKI	73.886	EKINTZA ZUZENA
16.- IPAR ALTAMIRA	56.942	EKINTZA ZUZENA
17.- ALKARTE (1)	30.420	PLANGINTZA XEHAKATU
18.- LA MODELO	12.741	EKINTZA ZUZENA
19.- FILIPINAS	16.368	EKINTZA ZUZENA
20.- SAMPERIO	19.958	EKINTZA ZUZENA
21.- AGARRE	50.826	PLANGINTZA XEHAKATU
22.- SAN JUAN	107.770	PLANGINTZA XEHAKATU
23.- KANPOSANTUA	8.332	EKINTZA ZUZENA
24.- IRIARTE	12.048	EKINTZA ZUZENA
25.- E.F.P. GOIERRI	31.355	EKINTZA ZUZENA
26.- LA GRANJA	8.841	EKINTZA ZUZENA
27.- PARQUE DE BOMBEROS	17.167	EKINTZA ZUZENA
28.- FERROCARRIL R.E.N.F.E.	32.646	EKINTZA ZUZENA
29.- AUTOVIA N-1	103.561	EKINTZA ZUZENA
30.- OIANGU-ALDE	150.087	PLANGINTZA XEHAKATU
31.- USUNBILA-GOIA	66.567	PLANGINTZA XEHAKATU
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.374.581</b>	

(1) Area honen azalera, erantsi beharreko Aramako lurzorua ere barne -5.070 m<sup>2</sup>-, 35.490 m<sup>2</sup>koa litzateke.

**Hiri lurzorua:** Beren egungo errealitate fisikoari eta hirigintza errealitateari jarraiki – urbanizazioari nahiz eraikuntzari dagokionean-, indarrean dagoen hirigintza legeriak honi buruz ezarritako beharkizunak biltzen dituzten lurrak hartzen dira halakotzat. Honela

sailkatutako lurren azalera 964.488 m<sup>2</sup>koa da guztira. Talde honen barnean bi lurzoru mota bereizten dira:

- \* Urbanizazio kontsolidaturik gabeko hiri-lurzorua: Hiri-lurzoru modalitate honetan barne hartuko dira planteatutako urbanizazio eta eraikuntza aurreikuspenak exekutatzeko hirigintza exekuzio-unitateen eremuan barne hartzen direnak, kasu bakoitzean definitzen den jarduketa-sistema gora-behera.
- \* Urbanizazio kontsolidatuko hiri-lurzorua: Halakotzat joko dira aurreko modalitatean barne hartu ez diren eta hiri-lurzoru gisa sailkatu diren gainerako lur guztiak.

**Lur hiritarrezina.** Halakotzat jotzen dira beren baldintza bereziak eta balio paisajistiko, ingurugiroko, basoko, nekazaritzako, abeltzaintzako edo naturalak direla medio hiri-garapenetik babestu behar diren lurak. Lur hauen azalera 4.268.116 m<sup>2</sup>koa da guztira.

**Lur hiritargarrria.** Halakotzat jotzen dira aurreko ezein modalitatean barne harturik ez dauden eta, hiri-lurzoru gisa sailkatzeko beharrezko diren baldintzak bete gabe proiektu honetan definitutako Ordiziako udal mugarteko hirigintza garapen berrien aurreikuspenek afektatzen dituzten lurak. Lur hauen azalera 410.093 m<sup>2</sup>koa da guztira.

Ordiziako AASS eskuhartze eremuak identifikatzen ditu, baita bere izaera ere.

#### ZONABANATZE GLOBALA

AREA	AZALERA (m <sup>2</sup> )	AZALERA (% guztira)
A.10 - EGOITZA-AREA	29.450	12,40
A.20 - EGOITZA-AREA	502.184	
A.30 - EGOITZA-AREA	168.140	
B.10 – INDUSTRIALDEA	309.570	6,29
B.20 – INDUSTRIALDEA	45.159	
D.10 – LANDA KOMUN	552.673	9,80
D.20 – LANDA BABESA	3.094.744	54,85
D.30 – OIANGUKO PARKEA	536.900	9,51
E.10 - ERREPIDE	128.004	2,68
E.20 – BARRUKO BIDE NAGUSIAK	23.587	
E.30 – TRENBIDE SAREA	40.115	0,71
F.10 – HIRI EREMU LIBREAK	25.455	0,45
F.20 – IBAI-IBILGUAK	72.920	1,29
G.10 - HORNIKUNTZA	113.796	2,02
GUZTIRA	5.642.697	100

Honela, udalerriaren azaleraren erdia baino gehiago (%54,8) “babesturiko abelur lurzorua” gisa sailkatua aurki genezake, egoitza erabilerako lurzorua bigarren postuan kokatzen delarik Ordiziako lurzoruaren %12arekin.

Udalerriko lurzorua eremu ezberdinetan sailkatu ondoren, AA.SS.-en dokumentuak HIA ezberdinak sailkatzen ditu kokatuak aurkitzen diren eremuaren arabera. Adibide gisara honako eremu hauek aipatuko genituzke: 6 (Arana) eta 9 (Majori) eremuak, beraien azalera egoitza erabilera eta udalerriko hiri bide nagusien artean banatzen dituzte eta Suhiltzaileen Parkea (27) eta Lanbide heziketa eskolako (25) eremuak aldiz, ekipamendu gisara sailkatzen dira.



## ZONABANATZE GLOBALA HIRIGINTZA-JARDUERARAKO EREMUETAN.

HIRIGINTZA- JARDUERARAKO EREMU	ZONIFIKAZIO GLOBALA Azalera (m <sup>2</sup> )									
	Egoitza-area			Industrialdea		Errepideak	Herri barruko bide nagusiak	Trenbide sarea	Hiri barruko eremu libreak	Hornikuntza
	A.10	A.20	A.30	B.10	B.20	E.10	E.20	E.30	F.10	G.10
1.- HERRIGUNEA	29.450						765			
2.- BARRENA		24.268					3.039		10.762	
3.- GARAGARZA		19.965								
4.- URDANETA		39.182					9.475		14.693	
5.- ITURTXO		12.902					1.107			
6.- ARANA		23.612	7.642				1.491			
7.- APELLANIZ		14.532					2.405			
8.- BUSTUNTZA		77.433					1.561			
9.- MAJORI		32.023	24.848				1.823			
10.-HEGO ALTAMIRA		64.449								
11.- MALLUTZ				55.399						
12.- UPABI				40.057		2.004				
13.- FLOREAGA		9.753								
14.-SAN BARTOLOMÉ		45.426								
15.- Pº TXINDOKI				57.882		16.004				
16.-IPAR ALTAMIRA										56.942
17.- ALKARTE (1)				29.998		422				
18.- LA MODELO		12.741								
19.- FILIPINAS		16.368								
20.- SAMPERIO			19.958							
21.- AGARRE				50.826						
22.- SAN JUAN		104.530				1.319	1.921			
23.- KANPOSANTUA										8.332
24.- IRIARTE			10.764			1.284				
25.- E.F.P. GOIERRI										31.355
26.- LA GRANJA				8.841						
27.-PARQUE BOMBEROS										17.167
28.- R.E.N.F.E.										
29.- AUTOVIA N-1						103.561				
30.- OIANGU-ALDE			104.928		45.159					
31.-USUNBILA- GOIA				66.567						
<b>TOTAL</b>	29.450	502.184	168.140	309.570	45.159	124.594	23.587	32.646	25.455	113.796

Aurreko taulan ikus daitekeen moduan H.I.A gehienak beren azalera egoitza erabilera, erabilera industriala eta udalerriko errepideen artean banatzen dute.

## 4.4.3. Zona urbanizagarriak

Etxebizitzetarako lurra:

<b>HIRIGINTZA- JARDUERARAKO EREMU</b>	<b>BIZITEGITARAKO ERABILERA</b>	
	<b>Etxebizitza berriak</b>	<b>Ordenazioz kanpoko etxebizitzak</b>
<b>1.- HERRIGUNEA</b>	Birgaiketa	-
<b>2.- BARRENA</b>	-	-
<b>3.- GARAGARZA</b>	13	3
<b>4.- URDANETA</b>	8	1
<b>5.- ITURTXO</b>	22	-
<b>6.- ARANA</b>	8	2
<b>7.- APELLANIZ</b>	184	2
<b>8.- BUSTUNTZA</b>	15	-
<b>9.- MAJORI</b>	6	-
<b>10.- HEGO ALTAMIRA</b>	-	-
<b>13.- FLOREAGA</b>	27	-
<b>14.- SAN BARTOLOMÉ</b>	-	-
<b>18.- LA MODELO</b>	134	-
<b>19.- FILIPINAS</b>	48	6
<b>20.- SAMPERIO</b>	2	-
<b>22.- SAN JUAN</b>	400	-
<b>24.- IRIARTE</b>	-	-
<b>30.- OIANGU-ALDE</b>	54	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>921</b>	<b>14</b>

Ordiziako hiri-arearen ezaugarri bereziak kontuan izanik, hauxe da nolabaiteko intentsitako egoitza asentamendurako lekurik aproposenetako bat Goierrin.

Gaur egun udalerrian 21 eta 32 urte bitarteko biztanleria-taldeak suposatzen duen portzentaia garrantzitsuak (biztanleria osoaren %20tik gora) eta eskualdeko populazio inmigrantea ingurugiro-kalitate handiko eta dotazio egokiko esparrura erakartzeko aukerak are nabarmenago berresten dute proiektuaren orientabidea.

Bestalde, egoitza eskaintza erreala ia guztiz ahituta dagoela –eskaintza kudeatua nahiz merkatukoa-, eta horrek merkatuko prezioak distortsionatu eta gorantz bultzatzen dituela kontuan izanik, ukazina da honen inguruko eskaintza egokiari ekiteko premia.

AA.SS-etako dokumentuaren, denbora-epe gisa 2.007 urtea finkatzen da, orduan beteko baitira zortzi urte AASS-k behin-betiko onesten diren unetik. Honela, denbora-epe horretan 2,80 biztanleren okupazioa aurreikusten da etxebizitza bakoitzeko, okupatuta daudenak bakarrik aintzat hartuz. Hortaz, planteatzen den 1.100 etxebizitzaren eskaintza partzialki beteko dela kontuan hartuz gaur egungo etxebizitza parkearen %25 birgaituz eta merkaturatuz, Arau Subsidiario hauetatik proposatu beharreko etxebizitza berriko eskaintza

950 unitatekoa da.

Formulatutako hipotesiari proposatutako ereduaren esparruan erantzuna eman ahal izateko, proiektuak hirigune historikoa eta honen inguruak birgaitzea proposatzen du, aldi berean gaur egungo hiri-ehuna osatuko duten hainbat barne operazioei ere ekitea planteatzen duelarik. Ildo honetan, interbentzioak proposatzen dira ondoko lekuetan:

- San Juanen (400 etxebizitza berri),
- “La Modelo”-n (134 etxebizitza berri),
- Apellanizen (“Oreja” lurzatian eta bere ingurunean) (152 etxebizitza berri),
- La Granja-n (54 etxebizitza berri),
- Exposito-n (32 etxebizitza berri),
- Iturtxo-n (22 etxebizitza berri),
- Filipinas-en (48 etxebizitza berri),
- Floreaga-n (27 etxebizitza berri),
- Foru ibilbidea-n (8 etxebizitza berri),
- Hegoaldeko hiribidean (8 etxebizitza berri),
- Egutera-n (8 etxebizitza berri),
- Joakin Ibarbia-n (5 etxebizitza berri),
- Beste eremu batzuetan 23 etxebizitza gehiago aurriztatu dira.

Aurreikusitako proposamenek batzen dituzten 921 etxebizitzak lortzeko, nahitaezkoa da egungo 14 etxebizitza inguru eraistea, honek eskaintza erreala 907 etxebizitzatan uzten duelarik hasieran behintzat.

Bestalde, San Bartolomerako egoitza, industri txiki eta hirugarren sektoreko erabilerak bilduko dituen erabilera mistoko area kontsolidatuko duen barne erreformako interbentzioa aukeratu da, ez delarik aurreiztatu egoitza probetxamendu berrien ordenazioa.

Legeria sektorial aplikagarria bete asmoz, egoitza garapen horren zati bat babes publikoko erregimenera edo honi loturikora destinatzen da Arau Subsidiario hauen zehaztapenetatik.

Honela, San Juan arean 300 etxebizitza unitate babes publikoko erregimenera destinatzea aurreiztatu da, honek egoitza lurzoru urbanizagarriko galdatutako %65eko balorea

gainditzen duelarik. Bestalde, eta indarrean den legeriari jarraiki, hiri-lurzoruan babes publikoko erregimenera destinatuko dira Floreagan proiektaturiko 27 etxebizitzak, 32 etxebizitza gutxienez "La Modelo"n, eta 31 etxebizitza Apellanizen.

Hortaz, babes publikoko 390 etxebizitza berri lortuko lirateke, zeina Arau Subsidiarioek eginiko etxebizitza berriko eskaintzaren %40tik gorakoa suposatzen duten.

### **Erabilera industrialerako lurra:**

Ordiziak bere bokazio, ezaugarri eta potentzialtasunaren eta lurralde hedadura txikiak eskaintzen dizkion aukera eta kokapenen arabera, Goierriko testuinguruan bete behar duen funtzio nagusia, eskualdean kokapen estrategiko eta zentrala behar duten hirugarren sektorearekin edo honi lotutakoekin eralzionaturiko ekonomi jarduerak hartu ahal izateko lurzorua prestatzera bideratu beharko da, bai eta CAFen instalazioak berrantolatu, zabaldu eta/edo garatzera ere, Upabi eta Agarre areei dagokien eta neurri handi batean garatu gabe dagoen industri lurzoru erreserba garrantzitsuan. Honen osagarri gisa, beharrezkotzat jotzen da garapen endogenoari, egun dagoen eskariari eta gerta litezkeen lekualdatze premiei erantzuna emango dien industri lurzoru osagarria ordenatzea. Gaur egun, udalerriak industri lurzorutzat kalifikatutako eta benetan industri erabileretara destinaturiko lurzoru kopuru txikia du (11 Ha. inguru).

Honela, gaur egungo eraikinek, indarrean dauden kalifikazio zehaztapenek eta aipaturiko irizpideek ondoko lurraldeen industri kalifikazioa definitzeko eta/edo kontsolidatzeko beharra planteatzen dute:

- **Amundarain ibaiko ibarra**, zeina partzialki garatua dagoen, hegoaldeko mendi-hegala ere barne hartuz. Interbentzio honek Txindoki Poligonoan (Aizpuru-Etxeberri eta beste batzuk) eta Alkarten (eremu honen garapena Aramako udalarekin koordinatuz egin beharko da, Amundarain ibaiaren ezkeraldera mugatuko litzatekeen proiektu interbentzio bakar bat sustatuz) eta Usunbila-Goian kokatuko liratekeen probetxamendu berrietarako lurzoru izatea ahalbidetzen du.

- **Agarre eta Upabiko CAFen lurzoru erreserbak**, zeinak partzialki okupatuta dauden aipaturiko lehen arean (ekonomatoa, egur-biltegia,...). Zehaztapen honek enpresa hau eskualdean kontsolidatzea dadin ahalbidetzen du, gaur egungo instalazioek okupatzen duten lurzoru mugakidea eskura eta hurbilerraztasun baldintza egokietan utziz.

Ekimen hauek Ordiziako udalean kudeatuko litzatekeen 10 Hektareako industri lurzoru eskura izatea suposatzen dute, (CAF enpresari loturikoak alde batera utziz, hauek 10 hektarea gehigarri inguru suposatzen dutelarik). Kantitate hau jarritako helburuei erantzuna emateko behar adinakoa da.

Erabilpen eta aprobeitxamendu industrialak H.I.A bidez honela sailkatzen dira:

<b>HIRIGINTZA- JARDUERARAKO EREMU</b>	<b>AZALERA ( m<sup>2</sup> (s) )</b>	<b>APRBETXAMENDUA ( m<sup>2</sup>(t)/m<sup>2</sup> ( m<sup>2</sup>(t) )</b>	<b>OHARRAK</b>
<b>11.- MALLUTZ</b>	55.399	-	Aprobetzmendu industrialia finkatu
<b>12.- UPABI</b>	40.057	0,45 m <sup>2</sup> (t)/m <sup>2</sup>	Antolamendua Plan Bereziari igorrita
<b>15.- P<sup>o</sup> TXINDOKI</b>	57.882	10.396 m <sup>2</sup> (t)	Partzialki finkatuta
<b>17.- ALKARTE</b>	29.998	13.499 m <sup>2</sup> (t)	Antolamendua Plan Bereziari igorrita
<b>21.- AGARRE</b>	50.826	22.872 m <sup>2</sup> (t)	Antolamendua Plan Bereziari igorrita
<b>26.- LA GRANJA</b>	8.841	-	Aprobetzmendu industrialia finkatu
<b>30.- OIANGU-ALDE</b>	45.159	20.321 m <sup>2</sup> (t)	Antolamendua Plan Bereziari igorrita
<b>31.- USUNBILA-GOIA</b>	66.567	0,45 m <sup>2</sup> (t)/m <sup>2</sup>	Antolamendua Plan Bereziari igorrita
<b>GUZTIRA estimatua</b>	<b>365.374</b>	<b>115.068 m<sup>2</sup>(t)</b>	

## **Hirugarren Sektoreko erabilerak**

Eskualde mailan Ordiziarentzat lortu nahi den espezializazioa sektore hau sustatu eta dibertsifikatzean oinarritu beharko da. Ondoko hauek dira udalerrriaren funtzioa sektore honetarantz bideratzea gomendatzen duten arrazoiak: egun ezarrita dagoen merkataritza jarduera, turismo sektorearen potentzialtasuna, I+G zentroak egotea, Goierriko Lanbide Heziketa Ikastetxearen funtzio garrantzitsua eta eskualdeko industri sektorearen eskaria.

Honela, plangintza Arau Subsidiario hauek xede horretarako lurzoru egokia mugatzea eta bertako erabilera egokiak erregulatzea dute helburutzat. Bestalde, kontutan izanik, merkataritza sektoreak udalerrian duen tradizioa eta garrantzia kontuan, sektore hau berpiztu eta sustatzeko beharra azpimarratzen da, sektorearen modernizazio eta dibertsifikazioaren bidez. Horregatik jarraian aipatzen diren ekintzak planteatzen dira:

- Hirigune historikoko merkataritza-ehuna sendotzea planteatzen da, ingurune honen birgaikuntza eta balorazioaren hirigintza-esparruan, bai eta sektore hau “La Modelo” eta “Apellaniz” inguruetarantz zabaltzea ere. . Izan ere area hauek hirigunearen ondoan daude eta ordenazio berriak ibairantz zabaltzen ditu, honela iparralderantz egingo lukeen hiri-jarraitua sutatuz: Bustuntza eta San Juan auzoak.
- Bestalde, San Bartolome auzoan dagoen merkataritza zuzkidura kontsolidatzen da, halaber eremu hori birmoldatzea planteatzen delarik, beharrezko den barne erreformari ekingo dion Plan Berezia formulatuz (hirigune historikoan bezalaxe), esparru honetan posible izango litzatekeelarik gaur egun kontsolidatuta dagoen probetxamenduaren erabilerak aldatzea.
- Halaber, esparru honetan garrantzi berezia du Ordizako ohiko merkatuak, zeina baloratu eta eguneratu egin beharko den. Hau lortu asmoz, unean-unean azokara destinatuturiko espazioak osatzeko aukera planteatzen da, multzo horri “La Modelo”n, Zuhaitzia eta “Anselmoren Baratze” deiturikoaren ondoan ordenaturiko espazio publikoak erantsiz.

### **4.4.4. Ekipamenduak**

AA.SS-en dokumentu honen arabera, Udalak ahalegin handia egin du azken hamabost urteotan ekipamenduko zuzkidurak egokitzeko. Ahalegin honen ondorioz, proposamen gutxi batzuri ekiteko beharra baino ez da antzematen Arau Subsidiario hauen esparruan.

Nolanahi ere, egungo premiak eta aukerak aintzat harturik, Arau Subsidiarioek ondoko ekipamenduen kokapena eta kudeaketa erregulatzeko beharra ikusi du:

- Udal-bulego berriak: Etxe-dorrean kokatzea proposatzen da.
- Epaitegietarako eraikuntza: lehentasunez hirigune historikoan kokatzea proposatzen da.
- Parke Mugikorra eta udal-biltegiak: lehentasunez Alkarten kokatzea proposatzen da eta,

bigarren alternatiba gisa, Oiangu-aldean.

- Lanbide Heziketa Ikastetxea handitzea: egungo Oiangu-aldeko instalazioekin bat eginik.
- Pilotalekua egokitzea: Gaur egungo kokapen berean, erabilera anitzetara destinatuta ahal izateko.
- Altamira berrordenatzea: Altamirako kirol-eskola zuzkidura kontsolidatzea planteatzen da, bere erabileraren eta probetxamenduen optimizazioa ahalbidetuz eremuan egingo den proiektu interbentzioaren bidez.
- Rugby-zelaia lekualdatzea: lehentasunez Altamiran kokatzea planteatzen da eta, bigarren alternatiba gisa, Oiangu.
- Gaztaren Museoa: lehentasunez hirigune historikoan kokatzea proposatzen da.

AA.SS-n dokumentuak honako eremuak identifikatzen ditu ekipamendu eta zerbitzuak daudenak:

**Ekipamendu komunitarioa sistema orokorren barruan.**

<b>IDENTIFIKAZIO EREMUAK</b>	<b>ERABILERA</b>	<b>AZALERA ( m<sup>2</sup>)</b>
<b>IPAR ALTAMIRA</b>	KIROLA / IRAKASLAN	56.942
<b>KANPOSANTUA</b>	HILERRIA	8.332
<b>E.F.P. GOIERRI</b>	IRAKASLAN	31.355
<b>SUHILTZAILE-ETXE</b>	SUHILTZAILE-ETXE	17.167
<b>GUZTIRA</b>		113.796

#### 4.4.5. Aisialdirako espazioak

Udalaren kudeaketa eta azken jarduketeki esker, gaur egun Ordiziak espazio Libreen Sistema Orokorra osatzen duten bi pieza nagusi ditu: Barrena parkea hiri-arearen edierdian, eta Oiangu Parkea, zeina hiri-arearen mugakide den hegoaldeetik. Zuzkidura hau 14.693 m<sup>2</sup>ko azalerako Mariaratz parkeak osatzen du.

<b>IDENTIFIKAZIOA</b>	<b>AZALERA KOMPUTAGARRIA ( m<sup>2</sup>)</b>
<b>BARRENAKO PARKEA</b>	10.762
<b>MARIARATZAKO PARKEA</b>	14.693
<b>PARQUE DE OIANGUKO PARKEA (Azalera totala: 536.900 m<sup>2</sup>)</b>	287.900
<b>GUZTIRA</b>	<b>313.355</b>
<b>EMAITZAKO ESTANDARRA</b> (10.300 biztanleko poblazioa kontutan harturik)	<b>30 m<sup>2</sup>/hab.</b>

Eremu nagusi horiek 10.762 m<sup>2</sup> eta 498.000 m<sup>2</sup>ko azalera dute hurrenez hurren. Dena dela, Oiangu, parke osoa titulartasun publikokoa izan arren, azaleraren zati bat nekazaritza eta abeltzaintzara zuzendua dago, lurralde honen zati bat Lazkaomendiko Nekazaritza Unitatean barne harturik baitago.. Honela, gaur egun, Oiangu espazio librea destinaturiko azalera gorago aipaturiko azalera guztiaren %50 da. Beraz, udalak gaur egun titulartasun publikoko 274.455 m<sup>2</sup>ko azalerako lurra ditu espreski espazio libreetara emanak, hauei sistema orokorreko lerruna esleitu zaielarik. Zuzkidura honek Ordiziako biztanle bakoitzari sistema orokorreko espazio libreen 30 m<sup>2</sup> dagozkiola esan nahi du (biztanleria 9.22 lagunekoa dela erreferentzia gisa hartuz). Indarrean dagoen lurzoruari buruzko legeriak galdatzen duen gutxieneko zuzkidura (5 m<sup>2</sup>/bizt.) kontuan harturik, egun eskura dagoen azalera 50.000 biztanletik gorako eskaerari erantzuteko gai izango litzateke. Eta biztanle kopuru hau Arau Subsidiarioetan formulatzen den eskaintzaren saturazioa gertatuko balitz baino askoz handiagoa da. Bestalde, espazio hauen kokapenak, kalitateak eta urbanizazio-mailak berretsi egiten dute eskura dagoen eskaintzaren balioa.

Nolanahi ere, Arau Subsidiario hauen esparruan, Oiangu parkea handitzea planteatzen da, egun oraindik indarrean dauden Arauek defendatzen dutenari jarraiki. Hala ere, handitze hori mendebalderantz soilik gauzatzea defendatzen dugu hemen, honela hiri-arearekiko integrazio nabarmenago eta egokiagoa lortu ahal izateko La Granjatik Altamiraraino. Erantsi nahi den espazioak parkea 536.900 m<sup>2</sup>ra zabaltzea esan nahi du. Honek parkerako sarbideak birmoldatzea ahalbidetzen du eta espazio libreen zuzkidura biztanleko 30 m<sup>2</sup>tik gorako ratioan jartzen du, ondorio horretarako 10.200 biztanleko aurreikuspena kontuan



hartuz.

Orain arte aipatu ditugun sistema orokorreko lerruneko espazio libreen zuzkiduraz gain, Arauek lehendik dauden tokian tokiko izaerako espazio libreak kontsolidatzen dituzte: plaza Nagusia, Garagarza plaza, Zuhaiztia, Domingo Unanue, Bustuntzako plazak, Juan XXIII plaza, Altamira parkea, San Juango lorategiak eta abar. Guzti hauek aisialdirako espazioen eskaintza osatzen dute, erabilera publikoko zortasuna dutenekin batera, esate baterako Jose Miguel Barandiaran plaza. Bestalde, espazio hauei Arau Subsidiarioetatik tokian tokiko sistemen izaeraz proiektatzen diren ezarpen berriko espazioak erantsi beharko zaizkie: eraldaketa eta/edo garapen berriko berdeguneak: San Bartolome, San Juan, Oiangu-alde eta Alkarte; Orexa finkaren eta honen ondokoaren (Apellaniz Area) ordenazioaren ondorioz sortuko diren espazio libreak; hirigunearen inguruan egingo diren interbentzio txikien ondorioz sortuko diren espazioak; eta La Modelo izeneko eremuan ordenatu beharko diren eta erabilera publikoko zortasunaren menpe dauden eremuak.

#### **4.4.6. Bide sarea eta aparkaleku sistema**

Bi zona-mota bereizten dira esparru honetan: Errepideak eta Hiri Bide Nagusiak:

- Errepide gisa definitzen dira udalaz gaindiko lerruneko egiturazko elementuak, elementu hauen titulartasuna gora-behera, hau da, N-1 eta Itsasondo, Arama, Zaldibia eta Lazkaorako errepideak, bai eta hauen eta hiri-areen arteko konexiorako beharrezko diren elementuak ere.
- Gainerako bidetza orokorra Hiri-areako bidetzari dagokio, hau da batik bat udalaren eskumenekoa den sareari.

#### **Errepideak**

Ordizia, Beasain eta Lazkaok osatzen duten hiri-arearako hurbilerraztasun baldintza eskasak eta errepide sarea osatzen duten bideen arteko mailaketa ezak interbentzio berezia eskatzen dute. Horretarako, Arau Subsidiarioek bi soluzio zehatz proposatzen dituzte ordenazio orokorrari dagokionean. Lehena, eragin gutxiagokoa, Ordiziako udal mugartetik kanpo gauzatzen da eta bigarrena, berriz, udalaz gaindiko eragina duen garrantzi handiagoko interbentzioa da.

Aztertutako egoera ikusirik, batetik, iparraldetik hiri-arearako sarbidean trenbidepeko galibo-baldintzak (2,80 m.) hobetu nahiak dituen zailtasun teknikoak kontuan harturik, uholde-kotak eta trenbidearen sestra direla eta, N-1 zaharraren eta San Juan auzorako sarbidearen arteko bidegurutzeari interbenitzea planteatzen da (Itsasondoko udal mugartean), honela iparraldetik sarbide alternatibo egokia lortu ahal izateko, galibo murrizketarik gabe. Ondoren proposamen hau isladatzen duen grafikoa eskaintzen da. Sarbide horrek gainera zerbitzu egokia eskainiko lioke Amundarain ibaiaren ibarrari, bai eta Altamirari ere.

Bestalde, Altamiratik pasatzea hiri-areara sartzen diren ibilgailuentzako mugarik gabeko alternatiba bakarra izan ez dadin (orain arte bezala) eta berezko hiri funtzioari erantzun diezaion eta, batik bat, N-1 errepidea Laskaibarreko errepidearekin lotu ahal izateko (bi errepide hauen titulartasuna Foru Aldundiarena da eta azken errepide honen funtzionaltasuna sustatu egingo da, egun trenbide-pasagunea kentzeko egiten ari diren obren ondorioz), tunelaren ondoan N-1 errepidetik sarbide berri bat proiektatzen da, zeina Malkaskoraino iritsiko den, Agarre eta Upabitik barrena. Trazadura honek egungo lotura hartuko luke oinarri eta lehen mailako ardatz hori, batetik, Ordizia eta Beasaingo hiri-areetarako sarbideekin lotzen du Malkaskoko zubiaren bidez (beharrezkoa da zubia ha zabaltzea) eta, bestetik, Lazkaoko sarbiderako ardatzarekin, honela eskualde osoaren bidetzaren ordenazioan garrantzi handia hartzen duelarik.

### **Herri barruko bide nagusiak**

Udaleko hiri izaerako bidesarearen esparruan, jarraitu eraikia egituratzen duten bi ardatz nagusiak definitzen dira. Ondoko hauek dira:

1. Filipinas, Arana, Ordizia eta Urdaneta kaleen jarraipenak osatzen duen ardatza.
2. Hegoaldeko Bide deiturikoak, Oria gaineko zubiek, trenbideak eta N-1 errepideak eta Zaldibiarako errepidearekin loturak osatzen duten jarraipena.

Sare guzti hori lortu ahal izateko, beharrezkoa da Arau hauek proposatzen dituzten ondoko interbentzioei ekitea:

- Filipinas eta Arana kaleen arteko bidegurutzea birmoldatzea, jarraipena emateko eta goi-mailako ibilgailuentzako hiri-ardatz gisa egituratzeko, trafikoa murriztuz pilotalekua eta Zuhaitzia kokaturik daudeneko hirigune historikorako atea osatzen duen Foru Ibilbidean.
- Garagarza plaza ordenatzea, oinezkoentzako plaza eta ibilgailuentzako errepidea bananduz.
- Urdaneta eta Joseba Rezolaren arteko konexioari dagokion hegoaldeko bideko trazadura exekutatzea.

### **Herri barruko bide-sare lokala**

Orain arte aipaturiko sistema orokorreko lerruneko jarduketei, tokian tokiko hainbat jarduketa erantsi behar zaizkie. Hauek ondorengo grafikoan erakusten dira eta dokumentu honen emaitzazko hiri-sarea egituratzen dute.

Bidesarearen ikuspuntutik konpondu beharreko arazo nagusia hiri-arearako hurbilerraztasuna bada ere, beharrezkoa da aldi berean Ordizia barneko bidesarearen egitura osatuko duten proposamen puntualak egitea. Ildo honetan, udalerriko bide eskema osatzen duten eremuen ordenazio xehekatutik ordenatu beharko diren ondoko jarduketak planteatzen dira:

- La Modelo eremuan sare nagusiaren zeharkako gehigarriak exekutatzeko bi norabideetan eta, hala dagokionean, Amezketako kalea birmoldatzea.
- Ibaiertzeko bide jarraitua egituratzea Gudarien Etorbidearen eta Garayalde-enearen artean.
- Hirigunea San Bartolomerekin lotzen duen trenbidepeko pasabideari dagokion sekzioa zabaltzea. Soluzio gisa 1.993an Sestak erredaktatutako "trenbidepeko oinezkonetzako pasabidearen proiektua RENFEren estazioan" proiektuan aurreikusitakoa proposatzen da.
- Zubi berria Oriako gainean, Nafarroa kalea San Juanerako jarraitu gisa.
- San Juan auzoa ordenatzea, Itsasondotik hiri-arearako sarbidea singularizatuz eta Samperio kalearekin konektatuko duen bide ardatz alternatiboa lortuz.
- N-1etik Oriako eskubi aldeko industri areetarako sarbideak definitzea.
- La Granja ordenatzea, bertarako eta Oiangu Parkerako sarbideak hobetzeko aukera aztertuz.
- Alkarte ordenatzea, Zaldibiako errepidetik sarbidea aurreikusiz, Araman aurreikusitako jarduketekin koordinatuz.

#### **4.4.7. Ez motorizatuentzako ibilbide-sarea (oinezkoak, bidegorriak)**

##### **Aparkalekuak**

Bidesarearekin duen erlazioagatik aintzat hartu beharreko beste alderdi bat aparkaleku-zuzkidura da, hiriguneko areetan batik bat. Bidesarea dela eta proposatutako ekimenen ondorioz, egun erabiltzen diren gainazaleko aparkaleku kopurua murriztuko da. Bestalde, batik bat hirigune historikoko eta honen inguruko etxebizitza hutsak birgaitu eta erabiltzeko proiektuak eta bertako merkataritza bizkortu eta zabaltzeko proiektuak areagotu egingo dute aparkaleku eskaria eta hortaz, nahitaezkoa izango da arazo honi erantzuna ematea.

Egoera hau dela eta, Arau Subsidiarioek, aparkaleku-zuzkidura egokia lortzera bideraturiko ekintzak proposatu beharko dituzte. Ildo honetan, garapen berrietan batik bat egoiliarrei

zuzenduriko lurpeko garajeak exekutatzeko aukera erregulatzen da, aldi berean espazio publikoaren lurpean garaje-plazak ordenatzea ahalbidetzen delarik.

Aurrekoari baliorik kendu gabe, aparkaleku beharrei gainazalean ere erantzun osagarria ematea planteatzen da. Honetarako, bide gehienetan norabide bakarreko zirkulazioa definitzen da, aparkalekurako espazioa eskuratuz eta bestalde xede horretarako hainbat espazio ordenatzen dira espreski:

- Anselmoren baratze deiturikoa (40 aparkaleku plaza berri inguru)
- Maribaratza plaza berria (20 plaza berri inguru).
- Geltokiaren ingurua, intermodalari lotua (20 plaza berri inguru).
- Foru Ibilbidearen atzealdea (40 plaza berri inguru).
- San Bartolomeren birmoldaketa (100 plaza berri inguru, zabalgarriak).
- Gainazaleko aparkalekua ordenatzea kanposantuaren eta San Juaneko geraleku berriaren ondoan (plaza kopurua dagokion Plan Partzialak definituko du).

### **Oinezkoen bide-sare erabilera**

Aipaturiko proposamenak Arau Subsidiarioek planteatzen duten hiria oinezkoentzako berreskuratzea bideraturiko politika orokorrean barne hartzen dira. Udalerriaren eskala, emaitzako hiri-area berriaren garrantzia eta bere espezializazio funtzionala aintzat harturik, ekimen garrantzitsuak susta daitezke, hala nola:

- Hirigune historikoa oinezkoentzako eremu bihurtzea.
- Foruen Ibilbidea ibilgailu eta oinezkoentzako prestatzea.
- Ibai ertzean oinezkoentzako ibilbide jarraituak sortzea.
- Oria ibaiaren bi aldean arteko loturak sortzea oinezkoentzat.
- Azokara destinatuturiko espazio publikoak zabaltzea.

Ekimen hauek trafiko, merkataritza eta ingurugiro politikekin koordinatuz, behar bezalako erantzuna eman beharko diote beharrezko den mugikortasunari.

#### **4.4.8. Lurzoru ez urbanizagarriaren antolaketa**

Printzipioz aipatu behar da L.A.A.-k lurzoru ez hiritarrean familia bakarreko etxebizitzak egitea debekatzen duela, xedapen honen salbuespen bakarra etxebizitza hori abelur esplotazio bati lotua egotea eta nekazal guneen antolaketa osatuko duena izatea litzateke.

Bestalde, lurzoru ez-urbanizagarriaren balio naturalistiko, paisajistiko eta produktiboak mantendu, sustatu eta birsortzea da, aldi berean zenbait area luraren ahalmenerako egokiago diren beste erabilera batzuetara bideratzea da helburu.

Zentzu honetan, lurzoru ez-urbanizagarria batik bat nekazaritza-, abeltzaintza- eta baso-ustiapenera destinatzea proposatzen da eta, izaera xehekatuagoz, jarduera kultural, pedagogiko, atsedeneko, turistiko eta abarretara, beti ere jarduera horiek lurzorua, fauna, flora eta paisajea bezalako interes bereziko elementuak errespetatu eta beren babesa eta artapena bermatzen duten neurrian, eta landa-inguruneke oreka orokor, ingurugiroko eta ekologikoan funtsezko alterazioak sorrarazten ez dituzten bitartean. Landa-lurraldea ordenatzean, luraren ohiko nekazaritza-funtzionaltasunaz gain, lur horrek funtzio berriak bereganatzeko dituen aukerak ere aintzat hartu behar dira, ohiko funtzioaren bestelakoak eta baimen daitezkeenak, beti ere erabilera eta jarduera asoziatuek landa-lurraldeko ezaugarri paisajistiko, ekologiko edo naturalistikoak hondatu, aldatu eta/edo degradatzen ez badituzte.

Modu honetan, lurren sailkapena egiten da berauen baldintzak eta duten balio paisajistiko, ingurugiroko, baso, nekazaritzarako, abeltzantzarako, e.a. kontutan izanik eta hiri garapenetik at mantenduaz. Ordiziak duen lurzoru mota honen azalera 4.268.116 m<sup>2</sup> takoa da.

#### **4.4.9. Ingurunean eragin berezia duten Arau Subsidiarren proposamen nagusiak**

Ordiziako Arau Subsidiarioek barnebiltzen dituzten ingurugiro izaerako proposamenak honako hauek dira:

- Udalerritik iragaten diren ibaietan aurrikusiak dauden eskuhartzeak, konkretuki Oria eta Amundarain ibaitean. Egin beharreko ekintzak ibai hauen ubideratzeak suposatzen dituenak lirateke.
- Bestalde, Uren Zuzendaritzak ezarritako irizpideen arabera, AA.SS.-en aurrikuspenek, dauden ezpondak eta ur hertzetako zuhaitziak mantentzen saiatuko dira Apeilanizeko eremuan.

### **4.5. Ondare historiko-arkitektoniko eta arkeologikoa**

#### 4.5.1. Ondare historiko- arkitektonikoa

Ordiziako Arau Subsidiarioen dokumentuak ondare historiko artistikoan katalogatuak dauden elementuen jarraian eskaintzen den inbentarioa biltzen du, beti ere egungo babes maila edo proposaturikoa azalduaz:

#### **ONDASUN ETA KATALOGATURIKO ELEMENTUAK. BABES MAILA.**

- *Ordiziako Gune Historikoa*

Ordiziako herrigune historikoa Monumentu Miltzo kategoriako Kultur Ondasun gisa kalifikatu zuen 1996ko martxoaren 12ko Dekretuak. Hortaz, herrigunea eta bertan barne harturiko elementu eta eraikuntza guztiak ondokoetan definitutako hirigintza eta artapen erregimenari lotetsirik daude:

- 1990eko uztailaren 3ko Euskal Kultur Ondareari buruzko Legea.
- Aipaturiko Dekretua, une honetan tramitazio bidean dagoen dekretuaren aldaketa ere barne.
- Herrigunea zona arkeologiko izendatu zuen 1998ko apirilaren 6ko Agindua.
- Behin-betiko onetsi zain dagoen Birgaikuntza Plan Berezia.

Gainera, "Abaria" etxea eta "Barrena", "Gazteluzar" edo "Ibarbia" jauregiak, zeinak "monumentu" bezala kalifikatuak izan diren 1964ko Urtarrilaren 17ko Ordenaren bidez, aipaturiko xedapenak aurrezarriko araubidera lotuak izan dira.

- *Artapen-maila hertsitari loturiko beste arkitektura elementu batzuk:*

1964ko urtarrilaren 17ko Ordenaren eta Euskal Kultur Ondareari buruzko Legearen Lehen Xedapen Gehigarriaren arabera kalifikatutako monumentuak:

- Zabala Jauregia
- *Oinarrizko artapen-mailari loturiko arkitektura elementuak:*
  - Anai Andresi Monumentua
- *Santiago bideari dagozkion elementuak*
  - San Bartolome Ermita
  - Zabale Baserria eta Miltzoa
- *Interes naturalistikoa duten elementuak eta miltzoak:*

- Oiangutik esekitako terrazak
- *Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak 1.996ko azaroaren 11n emandako ebazpenaren eraginpean dauden eremuak eta elementuak:*
  - Eraikin barruko areari loturikoak:
    - Arramendi-Barrena baserria
    - Arramendi-Goena baserria
    - Oyanguren-txiki baserria
  - Eraikin barruko areari eta honen inguruko beste hamabost metreri loturikoak (kanpoaldeko mugetatik zenbatuta):
    - San Bartolome Ermita

Jarraian Ordizian inbentariatu diren eta Euskal Ondare Kultureko Zentruan jaso diren Elkarte Monumentalen ezaugarri nagusiak deskribatzen dira:

#### Abaria Jauregia

Abaria jauregia Ordiziako enparantza nagusiko izkina batean dago. Oinplano angeluzuzena du eta lau isuriko estalkia. Bi fatxada bakarrik ikusten dira, nahiz eta mehelina atzealdeko fatxadak bakarrik osatzen duen. Ondo landutako harlanez eginda dago, eta hau izkinetan eta baoinguruetan agertzen da. Adreilua ere agertzen da kanpoaldean. Beheko solairua eta beste bi ditu. Fatxada nagusia oso sinplea da. Jatorriz ziren bezala bost ardatz angeluzuzen gordetzen dira, baoenak, eta hauek harlanduz inguratutako apaindurak dituzte.

Sarrera nagusiko baogunea nabarmentzen da beraien kuxindurengatik. Tatxetez apaindutako egurra dute ateen. Lehen solairuan, fatxadaren muturrean hegala dituzten balkoiak daude eta hiru sarrera dituen balkoia erdigunean. Goiko solairuan, burdin landuzko karela dituzten lau balkoi daude eta fatxadaren erdigunean armari barroko ederra erliebe polikromatuekin. Platabandek horizontalki fatxada zeharkatzen dute, solairuak banatuz. Elementu hauek harlanduz eginak daude. Ezkerraldeko fatxadak nagusiaren ezaugarri berdinak ditu, baina txikiagoa denez hiru baogune ardatz baino ez ditu.

#### Barrena Jauregia

Ordiziako barrena jauregia aintzinako dorretxe baten gainean eraikia dago. Eraikin honek historia tradizio handia du, bertan izan baitziren Gipuzkoako Biltzar nagusiak zenbait aldiz. Oinplano angeluzuzenekoa da eta faldoiez estalia. Hiru fatxada ikusten dira eta laugarrenak beste eraikin bati jarraituz horma-bitartekoa osatzen du. Harlandua ageri da, luzitua. Beheko solairua eta beste hiru ditu. Fatxada nagusiak hiru baogune ditu beheko bi solairuetako bakoitzean, irregularki antolatutako eta azken bietan ardatzak osatzen dira.

Beheko solairuan leihotxo bat, leiho bat eta sarrera dintelduna daude, eta hauen gainean gurutze bat apaindura gisa. Lehen solairuan balkoi hegaldunak daude eta horietako hiruk dintelaren gainean hiru gingileko arkuak. Ganbarako baoguneez balkoi hegaldun txiki eta itxia dute. Fatxada gehiegi landu gabeko harburuen gaineko hegalek errematatzen du, modiloietan sostengatua. Fatxada honek badu garaiera txikiagoko atal atxikia, handitze baten ondorioz sortua. Hiru zati desberdinetan banatzen da, eta antolamendua erdiko ardatz irekiaren eta alde bakoitzeko hiru bao ardatzen inguruan eginga dago, ardatz bertikaleko izkinekora eta puntu erdiko arkuaren erdigunekoak.

### Santa Maria parrokia Eliza

Santa Maria parrokia eliza harresiaren lerroaren gainean dago eta herria gotortzen lagundu du. Hasierako elizatik, erdi aroan sortua, eraikin berriari jaso diren hondar batzuk geratzen dira.

gaur egungo fabrika 1511ko sutea zela eta eginiko berreraikuntzaren ondorio da. Mende amaierarako bukatua izan behar zuen.

Elizak areto oinplanoa du zortzi aldeko absidearekin. Alde bakoitzean kapera bat dauka, honela gurutzadura beso bat eratuz. Hori berritze moderno baten ondorio da. Lau zatitan banatua dago eta koru garaia du. Gangek gurutzadura sinpleak dituzte, tertzeleteak, eta ligadurak. Kapera nagusiko ganga bakarrik da konplexua. Baserik gabeko hiru zutabe dira euskarriak. Burualdeko eta koruko bi aldeetan dauden leiho angeluzuzenen bitartez sartzen da argia, eta baita kaperetako baogune biribiletatik ere. Presbiterioan eta sakristiako gaur egungo atean armariak daude (Espainiakoa, uztarria eta geziak, etab.), eta baita 1556 data ere.

Kanpoaldean tenplura sartzeko ataria nabarmentzen da, ebanjelioaren alderdia hartzen duena, fundiziozko zutabe bidez sostengatua. Bertan daude jatorrizko sarrera eta gaurkoa: karpanel arkuak ojibazko karpanelekin. Kanpandorra XVIII. Mendekoa da eta Martin de Carreraren planoak jarraituz eraiki zen. Beste aldeko fatxadan beste dorre bat dago, baina duda egiten da harresiaren dorrea ote den ala mantentze arazoak zirela eta erabiltzen ez zen beste kanpandorre bat.

Kanpoaldeko kontrahormak eta kanpora zabalduetako ataria ere eraikin honen osagarri bereizgarriak dira. Elizaren burualdeari atxikia dago parrokia etxea, epistolako horma hartuz. Altzarien artean, erretaula nagusia eta alboetakoak (XVII. Mendekoak) aipatu behar dira, eta baita Andra Mari gotikoa ere.

### Ordiziako Azoka

Ordiziakoa tradizio handiko azoka da eta bertako plaza nagusian kokatzen da. 1923an eraiki



zuen F. Gurruchagak. Izugarrizko espazioa da, hormigoi armatuz estalitakoa. Barruti guztiz irekia da eta lurraren desnibela berdintzen duen plataformaren gainean altxatzen da. Oinplano trapezoidalekoa da, izkina alakatuak ditu eta estalkia terraza modukoa da. Barnealdean faxa ildaskatuekin dekoratutako zortzi pilare sendok eta fuste ildoduna duten korintoar ordenako 12 zutabe lodik eusten dute sabaia. Horietatik lauk besterik ez dute banatzen barrualdea eta forjatuaren erdialdeko habeteria eusten dute. Dekorazioa, fusteetan eta kapitiletan oinarrituta, teiletegalaren errematean biltzen da, friso eta arkitrabe molduratu gisa, euskarrien korrespondentzietan lorontzi handiekin eta udaletxera ematen duen fatxadan hiribilduaren armariarekin. Lineen eta egituraren sinpletasunak nabarmendu egiten du obraren monumentaltasun klasikoa eta garapen bertikala.

### Udaletxea

Udaletxea, Neoklasizismo garaiko bi arkitekto adierazgarriek egin zuten: Alejo de Miranda eta Pedro Manuel de Ugartemendia. Laukizuzen itxurako oinplanoa du. Beheko solairua dauka, eta teila arabiarrez egindako bi isurialdeko teilatupean, beste bi solairu ere badauzka. Harlanduzkoak dira nagusiki bere hormak, eta beheko solairuan kuxindurak ageri dira. Goiko solairuetan, baoen inguruetan eta ertzak inguratzen zerrenda zabal batean harlandua egon arren, gainerakoa harlangaitz luzitua da. Fatxada nagusia tipologikoki Udaletxeen ezaugarri beretsukoa da, beheko solairuan erdi puntuko hiru arku handi dituen arkupea dago. Ataria oso sakona da eta barrualdean, goiko solairuko lehen hormarteekin bat datozen lau zutabe toskanar dauzka. Sakonean daude hala nola: erdi puntuko sarbide zentrala eta eskailera. Sarbide nagusiaren gainean herriko armarrria dago. Armarrriak ia-ia ezkutuan uzten du bigarren solairuko hiru balkoi kareldunetako bat. Eraikin horrek konposizio aldetik kalitate handia du, eta jatorrizko ezaugarri guztiak gordetzen ditu.

### Infanterriko Dukearen Etxea

Jauregia Ordiziako Plaza Nagusian dago, Udaletxearen eta Abaria etxearen ondoan, leku pribilegiatua Ordiziako kasuan. Sijetoenea izenez ere ezaguna den eraikina, izkinan dagoen eraikuntza da, laukizuzen itxurako oinplanoa du eta ziur aski, teilatua hiru isurialdekoa da. Harlangaitzez egin dago nagusiki, baina harlandua azaltzen da baoen inguruetan, ertzetan eta platabandetan. Beheko solairuaz gain, beste bi solairu eta ganbara dauzka. Fatxada nagusiak Plaza Nagusira ematen du, eta hiru ardatz dauzka baoen arabera. Beheko solairuko muturretan, dendentzako gunek dauzkate, lehen solairuan kareldun balkoia eta leihatila ganbaran. Erdiko ardatzean baoak modu berean daude antolatuta, baina hor sarbide gunea, dinteldun arkuz egin, handiagoa da. Aipagarria da balkoietako forjaketallana, baita lehenengo solairuko bi armarrri txikiak ere. Fatxada bukaeran, teillatu-hegal ederra ikus daiteke modu finean landutako tantez, obaz eta zuburuz hornitua. Jatorrian, fatxada guztia kolore gris eta gorrixkaz margotutako freskoz estalia zegoen, gaur egun horiek ganbara inguruan soilik gordetzen dira.

### 24 Santa Maria Etxea

Ordiziako kaskoan dagoen jauregietxea, tartekoa da alboko bi fatxadetan. Bietako bat bota

zutenez, gaur egun, ezker aldean besterik ez da tartekoa. Laukizuzen itxurako oinplanoa du eraikinak, bi isurialdeko teilatua dauka, eta gailurra fatxada nagusiarekiko paraleloa da. Hormak bistako harlangaitzez eginak daude, harlandua, berriz, ertzetarako, platabandetarako eta baoen inguruetarako erabiltzen da. Beheko solairuaz gain, beste bi solairu dauzka. Fatxada nagusian, ongi antolatutako bi bao ardatz daude. Beheko solairuan, hesiduradun leihoa dago, baita tataroiz hornitutako zurezko ate dinteldu handia ere. Gainerako guneak, burdina forjaketako kalostra interesgarriak eta jabaloiak dauzkaten balkoi hegalduek dira. Ongi landutako zuburuek ixten dute fatxada. Atzeko fatxadan, lehengo solairuan antolatzen diren hiru gune eskartzano dira azpimarragarri.

### Barrena Jauregiko Eranskina

XVIII. mendeko eraikin eder hau, Barrena jauregiarekin tartekoa da, baita Santa Maria Kaleko 24. zenbakiko etxebizitza eraikinarekin ere. Fatxada nagusia besterik ez du agerian. Laukizuzen itxurako oinplanoa du, eta bi isurialdeko teilatupean, beheko solairua, lehengo solairua eta ganbara dauzka. Gailurra fatxada nagusiarekiko paraleloa da. Kuxindura duen harlanduz egina dago. Fatxada estua da eta konposizio sinplea du. Laukizuzen itxurako baoz osaturiko ardatz bakarra du: garaje baterako sarbide lerronahasia, balkoi hegalduek batera sarbide dinteldua eta balkoi hegalduek txiki baterakoa. Goialdean, balkoiaren alboetan bi leiho dinteldu daude. Platabanda bidez daude bereziak solairuak. Zurezko eta forjaketako lana aipagarria da.

## **4.5.2. Ondare arkeologikoko zonak**

### **4.5.2.1. Presuntzio arkeologikoko zonak**

Zona, orube edo eraikin hauetan aurkitutako zenbait haztarna garrantzitsu aztertuta, bertan arkeologia-aztarnategi bat dagoela esan daiteke; baieztapen horren oinarriak dira, alde batetik hainbat arkeologia-material, azalera ikusten diren egiturak, lurtean egindako ekintza antropikoen ohiko aldaketak, eta abar aurkitu direla, eta bestetik, hainbat agiri eta/edo bibliografietan aipatzen diren datuak, zeintzuk bertan historia aurrean jada jendea bizi zela baieztatzen diguten.

Hala ere, ez dakigu arkeologia-aztarnak zein egoeratan kontserbatu diren, ezta aztarnen stratigrafia, kultur sekuentzia edo sekuentzia kronologiko osoa ere; ez dugu ezagutzen ere zona honetako arkeologia-aztarnen benetako balioa, izan ere, orain artean ez da indusketa sistematikorik egin, eta egin badira, indusketa puntualak izan dira. Udalerri honetako Arkeologia Presuntzioko Zonak honako hauek dira:

- Arramendi Barrena baserria
- Arramendi Goena baserria

- San Bartolome basiliza
- Oyanguren Txiki baserria

## **5. SISTEMA NATURALAK**

### **5.1. Oria bailara**

#### **5.1.1. Oriako arroaren ezaugarri orokorrak**

Ordiziako udalerria Oria ibaiaren arro barruan dago. Aipatu arroa Gipuzkoako Lurralde Historikoaren handiena da, 882 km<sup>2</sup>-ko guztizko azalera baitu. Bere azaleraren zati bat Nafarroako Foru-Erkidego barruan dago, Araxes eta Leitzaran ibaien goi-ibarrak, hain zuzen ere. Gainontzekoa, %85, Gipuzkoan barne dago. Materiale geologikoak aldatu egiten dira arroan zehar, kareharrizko azaleramenduak nagusi izan arren. Oria ibaia Otzaurteko mendatetik gertu jaiotzen da eta Orio herrian itsasoratzen da. Ibaiaren ibilbidean zehar Beasain, Ordizia, Tolosa, Andoain eta Lasarte bezalako herri populatuak finkatu dira. Bere ibarretan 126.000 biztanle bizi dira.

Ibai honen arroan hainbat ibai eta erreka kokatzen dira zeinak Orian isurtzen dituzten beren urak, besteak beste: Estanda, Agauntza, Amundarain, Araxes, Berastegi eta Leitzaran.

Ibai-habitati dagokionez, Aralar eta Aizkorriko mendizerretan kokatuta dauden goi-ibarrak kontserbazio-egoera onean daude. Hirigune, industrialde eta azpiegituren garapenak ardatz nagusiko eta zenbait adarretako haran-hondoak kaltetu ditu. Isurpenek, ur-bideraketek eta aprobetxamendu hidroelektrikoek ibai-habitata eta uren degradazio sakona eragin dituzte. Dagoen aprobetxamendu hidrauliko kopurua esangurtsua dela aipatu beharrekoa da; izan ere, 50 baino gehiago erroldatuta daude.

#### **5.1.2. Uren Kalitatea**

##### **Uren kalitate fisiko-kimikoaren kalitatea**

###### *Eboluzioa eta egungo egoera*

Oriaren arroa talka maila garrantzitsuen eraginpean aurkitzen da, izan ere, hirigintza eta industrializazio maila handia izan delako eremu honetan, arrazoi hauek medio arro honetako ibai eta erreken kalitatearen egoera baldintzatua aurkitu da.

Oriaren ardatzean kokatzen diren estazioetan, hots, O-262, O-424, O-490, 1993. urtetik hartu dira muestrak, aldiz, O-606 estazioa 2002. urtetik aurrera hasi zen funtzionatzen.

2002. urtean erregistratzen den nitrito kontzentrazioak erakusten du aipaturiko lau estazioetan gutxitu egin dela. Kontutan izan behar da historikoki O-262, O-424 eta O-490 estazioetan jasotako nitrito mailak 78/659/CEE Direktibaren ez betetzea suposatu duela eta horregatik egindako muestreoak ezin izan direla kalifikatu II Klasekoak.

2002. urtean eta batez ere O-606 estazioaren kasuan, nitrito kontzentrazioak maila baxuan mantentzen dira. Gauza bera esan daiteke amoniakoaren inguruan, izan ere, 2002. urtean

hilabetero egindako muestreoaren erantzunek aurreko urtetako baino maila baxuagoa erakusten baitute.

Zintzilik aurki genitzakeen solidoei dagokionez, O-262, O-424 eta O-490, estazioetako emaitzak gora-beheraz beterikoak dira, baina esan genezake 78/659/CEE Direktibak, zeinak arrain hazkuntza gerta dadin uren kalitatea kontrolatzen duenak, ezarritako 25 mg/l maila gainditzen dutela.

Batez ere, O-262 estazioan DBO-a kezkarria izan da, izan ere, aldagarri honen emaitzek 6 mg/l-tako kontzentrazio maila gainditu egiten dutelako eta beraz, 78/659/CEE Direktibak ezarritako irizpideen arabera eta ikusiaz aldagarri honen kontzentrazio maila estazio hau ez litzateke egokia ziprinidoen bizitzarako eta are gutxiago izokinkideak bizitzeko. Bestalde, DQO-ren kontzentrazio maila 4 estazioetan ere antzekoa da.

#### *Arrain hazkuntzarako uren kalitatearen 78/659/CEE Direktiba*

Oria ibaian kokatuak dauden estazioek adierazten dutenari jarraiki, uraren kalitate kimikoa ez da ona; hileroko egin diren muestreoaren emaitzen arabera eta 78/659/CEE Direktibari jarraiki, uren kalitatea III klasekoa da, hala ere, esan behar da O-262, O-424 edota O-490-n eginiko muestreo batzuen emaitzek kalitate hobea erregistratu dela.

78/659/CEE Direktibaren arabera, urteko batez besteko Oria ibaiaren kalitatea III klasekoa izan da.

#### *Egoera Kimikoa:*

Oriako estazioen kalitateari dagokionez, ICG irizpideak jarraituaz esan behar da ezberdintasunak nabari direla O-262 eta ardatza osatzen duten gainerako estazioen artean, honela, ICG-aren zenbakizko balioa O-262 estazioan 60-aren inguruan kokatzen da, aldiz, O-424 eta O-490 estazioetan ICG-ak 70-eko baloreak gainditzen ditu normalean. 2002. urtean, ICG-aren urteko batez bestekoa Oriako lau estazioetan Ona gisa sailkatu da.

Bestalde, Patri adierazlearen hileroko emaitzei begiratuz gero, esan genezake O-262 eta O-424 estazioetan adierazle honen pixkanakako beherakada gertatzen joan dela (honek suposatzen du uraren kalitatearen hobetzea gertatu dela), honela, 1993. urtean erregistratu ziren Patri adierazlearen balore handiak (4,5 baino balore handiagoak) pixkanaka hobetzen joan direla ohartzen gara. Konkretuki, 2002. urtean egin diren muestreo batzuetan adierazle hau 1 balorearen gainetik kokatu da.

2002. urtean batez besteko sailkapena Oriako honako estazio hauetan onargarria izan da: O-262, O-424 eta O-490.

#### *-Beste kalitate adierazleak:*

O-262, O-424 eta O-490 estazioetan gai organiko kutsagarrien inguruko azterketak egin dira. Nahiz eta HCH eta AOX-en kontzentrazio garrantzitsuak aurkitu diren, HCH-ri dagokionez,

84/491/CEE Direktibak ezarritako muga ez du gainditzen.

Metalen kontzentrazioaren kasuan berriz, Oriako estazioetan ez dira arazoak antzematen, konkretuki R.D. 995/2000 ezarritako zink eta berun mailak ez dira gainditzen.

*Gatz kutsaduraren analisia: Eroankortasun eredu:*

O-262, O-424, O-490 eta O-606 estazioetako urteko diagnosiak gatz kutsadura dagoela adierazten du eta kutsadura honen arrazoiak zati hauetan egiten diren isurketak dira.

*Sedimentuen kalitate fisiko-kimikoaren eboluzioa:*

O-262 eta O-424 estazioetan sedimentuetan egon daitezkeen kutsatzaileen analisia egitea erabaki da. Orokorrean, sedimentuetan aurkitutako kutsatzaile organikoen kontzentrazio handienak O-262 estazioan kokatzen dira O-424 estazioarekin alderatuaz, izan ere, unitate hidrologikoan, industria inplantazio handienak kokatzeaz gainera, nekazal-baso garapen handiagoa kokatzen da zati hortan eta jarduera hauek medio ibaiaren sedimentuetan pestizidaren presentzia bultzatu dute.

Bestalde, metalei dagokionez, unitate hidrologikoan industriaren garapena garrantzitsua denez, argi dago, ibaian goran O-262 puntuan kokatuta dauden gune industrialen jarduerak ibaiaren sedimentuen kalitate kimikoa baldintzatu dutela.

Gainera, ezin dugu ahaztu, Legorretako papelerak (O-262 estazioa) ibaira kutsadura maila garrantzitsua jaurtitzen duela, honela, ekintza hauek ibaiaren sedimentuetan eragina dutelarik.

*Biotaren kalitate fisiko-kimikoaren eboluzioa*

O-262, O-424 eta O-490 estazioetan, iktiofaunaren ehunen kutsadura kimikoaren azterketak egin dira. Emaitei erreparatuaz, hiru estazioetan ere kutsatzaile organikoek sorturiko kutsadura nabari da eta konkretuki O-262 estazioan kontzentratzen da kutsadura maila altuena. Gainera, O-262 estaziotik O-490 estaziora bitartean kutsaduraren beherakada somatzen da, DDE-a salbu.

Iktiofaunaren ehunetan metalek kontzentrazio maila antzekoa mantentzen dute Oriako hiru estazio hauetan.

*Uren kalitate kimiko orokorra:*

Oriako unitate hidrologikoak jasaten duen gizaki kopuru mailak historikoki eragin nabarmena izan du bertako ibai eta erreketako uren kalitatearengan. Are gehiago, eskualde honek duen industrializazio mailak eta nekazal eta baso jardueren garapenak ibaiaren osasunarentzat arazo garrantzitsu bilakatu dira.

2002.urtean, Oriako estazio ezberdinetan uren kalitate kimiko orokorrak ez du gainditu

“egoera kimiko ona”, honela, beharrezko izango da saneamendu neurrien garapenean lan egitea unitate hidrológico honetako ibai eta erreken kalitatea hobetzen joan dadin.

### Oriako uren kalitate kimikoaren laburpena

<b>Arroa</b>	<b>Estazioa</b>	<b>ICG</b>	<b>ICG mota</b>	<b>Prati</b>	<b>Clase Prati</b>	<b>Bizitza</b>	<b>Beste Kutsatzaileak</b>	<b>GUZTIRA</b>
<b>Oria</b>	O-262	80,60	Ona	1,48	Onargarria	III	Ona	Ez da iristen
<b>Oria</b>	O-424	82,73	Ona	1,00	Onargarria	III	Ona	Ez da iristen
<b>Oria</b>	O-490	82,24	Ona	1,06	Onargarria	III	Ona	Ez da iristen
<b>Oria</b>	0-606	89,22	Ona	0,83	Onargarria	III	Ona	Ez da iristen

*Bentos-en kalitate biologikoaren eboluzioa:*

*- Egitura eta osaera faunistikoa:*

#### **0-262**

Estazio honen ezaugarri nagusia da dibertsitate eta ugaritasun adierazleek erakusten dutela kutsatua dagoela, eta batez ere udaberrian. Maiatzean, organismoen ugaritasunak 120.000 ind m gaintzendu, baina taxon gutxitan kontzentratuta, eta batez ere, oligoketoak. Irailean ugaritasun hori 80.000 ind m-ra jeisten da, eta dibertsitatea pixkabat hobetzen da, baita oligoketoak ere, zeinak oso ugariak diren, gainera, moluskoak ere beren ordezkapena lortzen dute %10ean baino gehiago.

Elkartearen egitura eta konposaketa asko sinplifikatu da, horregatik esan genezake iada ez dela komunitaterik existitzen, horren ordez harrez osaturiko zopa bat baino, zeina kutsadura maila altuaren adierazle den. Oxigenoaren defizitrik ez da aurkezten honela, beste familia batzu agertzen dira, batzuk kondarrak baino ez dira, Hidropsyche eta Rhyacophilen kasuan bezala, aldiz beste batzu ugariagoak dira: efemeropteroak (betido, kanido eta efemereila motatakoak). Familia hauek kutsadura organikora iraunkorrak direla esan genezake. Nahiz eta ez diren oso ugariak txironomido gorrien (1.249 ind m) presentzia nabarmendu behar da, zeina kezkarri bihurtzen den, izan ere, oxigeno arazoak daudenaren adierazgarri dira eta baldintzak okertuko balira menperatzaile bihurtzera iritsi daitezke, azken batean sistema guztiaren egoera txarraren adierazgarri bihurtuaz.

- *Taxoi tolerantetako eta ez tolerantetako arteko erlazioa. ASTP'Adierazlea.*

Taxoi tolerantetako eta ez tolerantetako arteko erlazioak ASTP'adierazleak ematen ditu.

Oria ibaiaren arroa bi lurralderi dagokio: O-262 estazioa euskal-pirineotar eremuaren parte da eta O-424, O-490 eta O-606 estazioak ardatz kantauriarrekoak dira. Honela aztertutako estazioetako baloreak eta gainera sasoi ezberdinetan eginak direla kontutan izanik, O-262 estazioaren kalitatea onargarria dela esaten digute eta O-424, O-490 eta O-606 estazioen kalitatea ona dela aipatu dugun parametroaren kasuan.

- *Makrohornodun bentonikoetatik ondorioztaturiko egoera ( BMWP<sup>5</sup> adierazlea eta SCAF*

<sup>5</sup> **El BMWP** (Biological Monitoring Working Party modificado) se computa sumando las puntuaciones asignadas a los distintos táxones encontrados en las muestras de macroinvertebrados. La mayor o menor puntuación asignada a un taxón está en función de su mayor o menor sensibilidad a la contaminación orgánica y al déficit de oxígeno que este tipo de contaminación suele provocar en la mayor parte de los ríos. La clasificación de las aguas según este índice adquiere valores comprendidos entre 0 y un máximo indeterminado que, en la práctica, no suele superar 200. Se establecen 6 clases de calidad para el agua (las dos primeras clases pertenecen al grupo de aguas no contaminadas)

Mota	Balioa	Esanahia
Ia	>120	Ur oso garbiak
Ib	101-120	Ur ez kontaminatuak edo ez aldatuak modu sentsible batean
II	61-100	Kritikoa: kutsadura efektu batzuk somatzen dira
III	36-60	Ur kutsatuak. Kalitate txarra. Aguas contaminadas. Mala calidad
IV	16-35	Ur oso kontaminatuak
V	<15	Ur erabat kontaminatuak

**ASPT** valor del índice dividido por el número de taxones que puntúan. **S** es la riqueza de especies o, en su defecto, la riqueza taxonómica. **Dimensión fractal de la biocenosis (D)**: es uno de los índices más utilizados por el modelo SCAF<sup>5</sup> para ser aplicado a las comunidades fluviales. Expresa la rapidez con que se identifican especies de invertebrados (número de individuos recolectado o número de individuos analizado). **El índice E** determina la probabilidad de que las aguas contengan la máxima biodiversidad, teniendo en cuenta el contexto geográfico al que pertenecen y que además, ésta biodiversidad esté representada por especies propias de los diferentes ambientes y que sean intolerantes a la contaminación. El índice E diferencia entre cinco estados ambientales (el E1 el peor estado ambiental de las aguas, E2 Contaminación; aguas contaminadas, ambiente duro, E3 Eutrofización; ambiente fluctuante, E4 Aguas limpias; ambiente estable mientras que el E5 implica la máxima calidad ambiental). **IS**: cuantifica el impacto producido por la actividad antropogénica en pérdida de diversidad con respecto a las condiciones naturales. **IH**: cuantifica el impacto producido por la actividad antropogénica en pérdida de diversidad en bits/ind. **IP(D)**: cuantifica el impacto producido por la actividad antropogénica en pérdida de heterogeneidad ambiental. **IE**: cuantifica el impacto producido por la actividad antropogénica en grado de conservación del ecosistema acuático.

<sup>5</sup> El denominado índice QBR es un índice sencillo para la evaluación y determinación de la calidad de los sistemas ribereños. El sistema de cuantificación de la calidad ribereña se fundamenta en la valoración de los siguientes cuatro bloques: Cobertura Total de la vegetación de ribera, Estructura o grado de madurez, Complejidad y naturalidad del sistema y Grado de alteración del canal fluvial

Los cuatro bloques con el mismo peso en el resultado final intentan cuantificar separadamente grupos de variables indicativas del estado natural del sistema y la suma de todos nos da la puntuación final. El índice QBR presenta una puntuación máxima de 100, dividiéndose en 5 clases de calidad, de acuerdo también con las sugerencias de la Directiva Marco sobre las aguas: QBR: 0-25. Ribera en estado pésimo, degradación extrema, QBR: 30-50. Ribera en estado deficiente, fuerte alteración, QBR: 55-70. Ribera en estado aceptable, inicio de alteración, QBR: 75-90. Ribera en buen estado, ligera perturbación y QBR: 95-100. Ribera en estado natural, sin alteraciones



modelua). 2002ko emaitzak:

O-262 estazioan maiatzean egindako azterketek adierazten dute bertako urek kutsadura zantzuak dituztela (II klasea) BMWP´adierazlearen parametroetan, gainera, ingurugiro egoera estres egoerakoa da, urak eutrofizatuak aurkitzen direlako (E3 Klasea) E adierazlearen parametroetan. Iraileko azterketen emaitzei erreparatuaz, diagnostikoak urak kutsatuak daudela adierazten du (III Klasea) BMWP´adierazleari dagokionez eta ingurugiro estrés egoerak jarraitzen du, urak eutrofizatuak daudelako E adierazlearen parametroetan (E3 Klasea).

Estazioa	O-262	O-262	O-424	O-424
Hilabetea	Maiatza	Iraila	Maiatza	Iraila
BMWP indizea	63 (II mota)	47 (III mota)	34 (IV mota)	30 (IV mota)
ASPT Indizea	4,20	3,62	3,78	3,75
Espezie aberastasuna (S)	17	16	13	10
Biozenosis-aren dimentsio fraktala (D)	0,336664	0,330612	0,310315	0,285682
E indizea	E3 (Eutrofizazioa)	E3 (Eutrofizazioa)	E2 (Kutsadura)	E2 (Kutxadura)
IH	0,43	0,51	0,78	1,09
IS	6	7	10	13
IPD(%)	65	73	91	98
IE(%)	91	97	99	100
Estazioa	O-490	O-490	O-626	
Hilabetea	Maiatza	Iraila	Iraila	
BMWP indizea	39 (III mota)	70 (II mota)	80 (II mota)	
ASPT indizea	3,90	3,89	4,00	
Espezie aberastasuna (S)	13	20	23	
Biozenosis-aren dimentsio fraktala (D)	0,310315	0,353149	0,367613	
E indizea	E2 (kutsadura)	E3 (Eutrofizazioa)	E3 (Eutrofizazioa)	
IH	0,78	0,20	0	
IS	10	3	0	
IPD(%)	91	32	0	
IE(%)	99	77	46	

Beraz, ingurunearen degradazio egoera hau, zeina Oriaren ardatzean zehar nahiko konstantea den, jarduera antropogenikaren ondorio da eta honek ur ekosistemaren mantentzeari, ingurugiro heterogeneitatea eta taxoiaren dibertsitateari eragiten dio, honela erakusten dute IPD (%) eta IE (%) adierazleek, eta batez ere O-424 eta O-490 estazioetan.

Honela, Oriako estazioetako 2002ko diagnostikoa honako hau da: O-262-a "III Klase"-koa bezala sailkatzen da kalitate biologikoari dagokionez, eta bere urak eutrofiatuak daudenez E3 gisara sailkatzen dira. Bestalde, O-424-a "IV Klase"-koa bezala sailkatzen da eta uren kutsadurari dagokionez "E2 klase"-koa da. O-490 estazioa "III klase"-koa bezala sailkatzen da uraren kalitate biologikoari erreparatuaz eta O-424 estazioa bezala E2 bezala sailkatzen da.

Azkenik, O-626 estazioa egoera kritikoan aurkitzen da, "II klase"koa bezala sailkatzen da eta urak eutrofiatuak daude.

*- Aipaturiko adierazle biologikotan oinarrituriko diagnostikoa:*

Erabilitako edozein adierazle biologikok adierazten dute, makrohornogabeen komunitatea erreferentzia diren baloreetatik aldentzen dela.

BMWP indizearen bidez urtean zehar lorturiko balore eskasena aukeratzen da eta iadanik euskal-pirinear eta kantauriar eremuetarako aurrezarriak dauden muga baloreekin alderatzen da, izan ere, arro hau kokatua dagoen eremuak direlako.

Laburbilduz esan genezake, O-262 estazioa kalitate eskasa duten erreken taldean sartzen dela.

*- Ingurugiro Egoeraren adierazlearen arabera:*

Ingurugiro Egoeraren adierazlearen arabera O-262 estazioak eskaintzen duen potentzialitate ekologikoa E3 mailakoa da eta beraz, ingurugiro egoera onargarria du.

Kalitate biologikoaren eboluzioa. Makrohornogabe bentonikoen ingurugiro egoeratik ondorioztatua (BMWP adierazlea eta SCAF modelua).

O-262 estazioaren egoerak kutsadura eta ingurugiro estrés jarraia adierazten digu, izan ere, eutrofizazioaren diagnostikoa kutsadura gogorrenarekin alternatzen baitira.

*Taula . Kalitate biologikoaren aldagaien urte barneko eboluzioa. UO: Ultraoligosaprobioa; OS: Oligosaprobioa; EU: Eutrofizazioa; C: Kutsadura; HE: Hipereutrofia*

Estazioa	Data	BMWP	ASPT	S	D	E%	E	IH	IS	IPD (%)	IE (%)
O-262	1993 Udaberria	10 V mota	2,5	6	0,24	0	E1 - HE	1,58	17	100	100
O-262	1994 Udaberria	60 III mota	4,29	20	0,35	1,35	E3 - EU	0,2	3	32	85
O-262	1994 Uda	53 III mota	3,53	20	0,35	0,97	E3 - EU	0,2	3	32	89
O-262	1995 Udaberria	67 II mota	4,47	19	0,35	1,51	E3 - EU	0,28	4	44	83
O-262	1995 verano	40 III mota	3,64	14	0,32	0,1	E2 - C	0,69	9	86	99
O-262	1996 Udaberria	86 II mota	4,78	23	0,36	4,7	E3 - EU	0,12	0	16	48
O-262	1996 Uda	39 III mota	3,55	16	0,33	0,18	E2 - C	0,51	7	73	98
O-262	1997 Uda	54 III mota	4,15	20	0,35	1,02	E3 - EU	0,2	3	32	89
O-262	1998 Uda	74 II mota	4,93	16	0,33	0,96	E3 - EU	0,51	7	73	89
O-262	1999 Uda	34 IV mota	3,4	12	0,3	0,03	E2 - C	0,88	11	94	100
O-262	2000 Uda	26 IV mota	3,25	11	0,29	0,01	E2 - C	0,98	12	97	100
O-262	2001 Uda	54 III mota	3,6	20	0,35	1,02	E3 - EU	0,2	3	32	89
O-262	2002 Udaberria	63 II mota	4,20	17	0,34	0,80	E3 - EU	0,43	6	65	91
O-262	2002 Uda	47 III mota	3,62	16	0,33	0,28	E3 - EU	0,51	7	73	97

*- Fauna iktiologikoaren kalitate biologikoaren eboluzioa*

Komunitatearen osaerari dagokionez, emaitzak honako hauek dira:

O-262 estazioan 2 arrain espezie aurkitu dira: zarboa eta loina. Kopuruari begira espezie menperatzailea zarboa da izan ere bere presentzia pieza guztien %77,3koa delako. Aldi berean, loinak pieza guztien %22,7a dira 100m<sup>2</sup> tan 15 piezetako dentsitatearekin. Frekuentzia hauekin dibertsitate adierazle oso baxua lortzen da (H=0,773) zati honetarako.

O-262 estazioan zarboa espezie hautemangarria bezala aurkezten da. Aldiz, badira hainbat espezei desagertu direnak, horien artean aipagarria da izokinaren desagertzea. Badira beste espezie batzuek ere faltan somatzen direnak: amuarraina, angira, burulatxa eta ezkillua. Aldiz, zati honetan sartu den espeziea karramarro gorria litzateke.

Oria ibaiaren ardatzean zehar aztertu diren lau estazioek ur kutsatuak dituztela adierazten da, "biotoxizitate" metatua aurkezten duen urteko diagnostiko batekin. Ur hauen ezaugarria da beren kalitate txarra, honela, toxizitate maila ezberdinak aurkitu dira: nitritoak, amonioa edota hidrokarburoak, zeinak kaltegarriak diren arrain populazioentzat.

O-262 estazioko emaitzak ikusirik egiten den Arrain komunitatearen egoeraren Diagnostikoan lorturiko balorea 2,57-koa da, zeina balore moderatu bezala kontsideratzen den. Nahiz eta 2001. urtean Zaintza Sareak komunitatearen ebaluazioa egiteko erabiliriko metodologia ezberdina izan zen, urte horretan ere egoera "moderatu" bezala kalifikatu zen, horregatik esan genezake 2001. urtetik 2002. urtera egoera mantendu egiten dela.

*- Urtar ingurura loturik dagoen landareriaren kalitate biologikoaren ebaluazioa*

O-262 eta O-424 estazioak ez dira barneratuak izan 2002. urteko perifitoiaren azterketan; aurreko kanpainetan egoera fitofisiologikoa II sistemari dagokiona izan da.

*QBR Adierazlea*

Oria ibaiak bere erdiko zatian Legorreta iragaten du (O-262), zeina industria duen udalerria den (papergintzako industria) eta nekazal eta baso jarduerak garatzen diren. Honela, ibaiaren hertzak eremu hiritar-industrial bilakatu dira eta bertan aurki genezakeen landaredia bakarra zelaiak eta laborantza atlantikoez gainera, eskuinaldeko hertzean Platanus sp. landaketa hilara bat da.

*Oriako muestreo estazioen osaera granulometrikoa*

Muestrak hartzeko eremuan arroaren presentzia ikus dezakegu, hala ere, uharri eta errekarriek osatzen dute batez ere sustratoa. Inguru hortan kokatuak dauden industriek (papergintza) sustratoaren osaera granulometrikoari eragin diezaiokete (aldaketa arina).

<b>Oriako unitate hidrologikoa</b>								
Direktibako elementuak		Oria				Amundarain		Estanda
		0-262	O-424	O-490	0-606	OAM-038	OAM-090	OES-116
Adierazle biologikoak	Fitobentoak (IBD)/Fitoplanctona	NA	NA	D	NA	NA	NA	NA
	Makrofitasak/Macroalgak	D	D	M	D	B	D	A
	Macroornogabe bentonikoak	D	M	D	A	MB	MB	D
	Fauna ictiologikoa	A	A	A	A	A	B	A
Egoera biologikoa		D	M	D	D	B	A	D
Adierazle fisiokimikoak	Egoera orokorra	D	D	D	D	B	A	D
	Kutsatzaile zehatzak (> L.D.)	Bai	Bai	Bai	NA	Sí	NA	NA
	Kutsatzaile zehatzak (< N.C.)	Ez	Ez	Ez	NA	Ez	NA	NA
Adierazle hidromorfologikoa	Erriberako basoa (QBR)	M	M	M	D	B	M	A
	Aldaketa morfolo. Garrantzitsuak	A	A	A	A	B	A	D
<b>EGOERA EKOLOGIKOA</b>		<b>D</b>	<b>M</b>	<b>D</b>	<b>D</b>	<b>B</b>	<b>A</b>	<b>D</b>

## 5.2. Landaretza eta fauna

### 5.2.1. Landaredia, flora eta baso-eremuak

Lur entziklopedian aurkitutako informazioa bildu dugu atal honetan, honela, Ordiziako udalerraren ezaugarriak landareria eta floraren inguruan ondoko lerroetan adierazirikoak lirateke.

Udalerriaren eremu baxuenetan aurkitzen dira jende bizi den baserri gehienak, honela, zelai eta labore atlantikoen mosaiko bat osatzen da Euskal Herriko isurialde atlantikoko ohiko paisaia osatuaz.

Zelai eta laboreen artean harizti azidofilo zati txikiak tartekatzen dira eta baita harizti baso misto atlantikokoak ere, zeinak landaredia potentzialaren testigu diren. Ordea, baso landaketak nagusitzen dira eta batez ere Pinus radiatarenak.

Udalerriaren iparraldean, aipaturiko landaketa hauek hartzen dute lurraldearen zati handiena, Isignis pinuaz gainera, alertzia (*Larix kaempferi*) ere aurki genezakeelarik. Hariztiak eta harizti baso misto atlantikokoak ere bere presentzia egiten du, ordea, baso landaketak baino askoz ere eremu murrizagoa hartzen dute.

**Landaredi potentzialak** lurraldearen bokazio naturala zein izango litzatekeen ezagutzeko balio du. Egungo landaredia eta potentziala alderatuz, paisaiaren desnaturalizazio maila ikusten da, eta beraz, toki jakin bateko gizakiaren eragina ikusten da.

Ordiziako landaredi potentziala ondorengo landaredi unitatetan banatzen da:

- Pagadi kaltzikola edo eutrofikoa: Itsusti inguruan kokatzen da 600 m-tako kotatik gora. Nagusitzen den espeziea pagoa litzateke, *Fagus sylvatica*.
- Haltzadi kantauriarra: erreka eta ibai alboan egongo litzateke batipat.
- Harizti azidofiloa eta harizti-baso mistoa: udalerraren zatirik nagusia hartuko luke.

**Egungo landarediari** dagokionez, landaredi potentzialarekiko ezberdina da. Ordizian dauden landaredi unitateak honako hauek dira:

- Zelai eta labore atlantikoak:

Koniferoen landaketekin batera kantauri isurialdeko paisaiaren elementu garrantzitsuenetako bat dira. Gehienbat haritz kandudunaren lurrean kokatuak.

Larre onenek haranetako lur sakonenak hartzen badituzte ere, azaleko lurretan ere agertu ohi dira. Larreen maneia desberdina da, baina orohar ximaurrekin, bizpahiru mozketekin eta neguan ganaduak bazkatuz.

Larreetako landare esanguratsuenak honako hauek dira: *Anthoxantum odoratum*, *Cynosurus cristatus*, *Lolium sp.*, *Festuca arundinacea*, *Poa pratensis* eta *Dactylis glomerata* graminea artean. *Taraxacum* gr. *Praestans-officinale*, *Crepis vesicaria* subsp. *Haenseleri* y *Bellis perenni* konposatuaren artean. Leguminosen artean *Trifolium pratense*, *T. Repens*, *T. Dubium*, *Lotus corniculatus* etab. Gainera, *Plantago lanceolata*, *Linum viene*, *Ranunculus acris*, *Rumex acetosa*, *Rhinanthus mediterraneus* eta *R. Angustifolium* larre sikuetan Alfalfa (*Medicago sativa*) eta llolobelarra (*Lolium sp*) ere larre batzuetan ereiten dira bazka belar moduan egokiak direlako.

Askotan larreetan sagarrondoak aurki daitezke baita, Intxaurrondoak, gereziak, udaraondoak etab. ere. Azken hauek nahiz eta maiz ikusten diren, kantitate txikitik landatzen dira.

Labore lurrek normalean partzela txikiak okupatzen dituzte. Erremolatxa, arbia, artoa, lekariak eta barazkiak ere landatzen dira giza kontsumorako.

Labore lur hauetako belar txar nabariak hauek dira: *Oxalis latifolia*, *Stellaria media*, *Verónica persica*, *Senecio vulgaris*, *Capsella rubella*, *Euphobia helioscopia*, *Chenopodium album*, *Amaranthus lividus* subsp. *Ascendens*, *A. Retroflexus*, *A. Hybridus*, *Calystegia sepium*, *Poligonum persicaria*, *Mercurialis annua*, *Cardamine hirsuta*, etab.

- Harizti azidofiloa eta harizti baso misto atlantikoa:

Haritz kanduduna nagusi den basoak bi motatakoak izan daitezke:

- o Lurzoru azidoetan kokatzen den hariztia: landare azidofiloen presentzia nabarmentzen da bertan *Blechnum spicant*, *Dryopteris dilatata*, *Pteridium aquilinum*, *Hypericum pulchrum*, *Teucrium scorodonia*, *Deschampsia flexuosa*, *Pseudarrhenatherum longifolium*, *Hieracium laevigatum*, *Lonicera peryclimenum*, bezelako espezieak agertzen dira. Baita *Castanea sativa* eta beste zuhaitz batzuk ere ( *Ilex aquifolium*, *Pyrus cordata*, *Betula celtiberica* eta *Fragula alnus*).
- o PH neutrodun ibarbide (vaguada) eta amildegietan kokatzen den hariztia: hauetan ere haritz kanduduna nagusi bada ere, landaredi aberatsago bat agertzen da. Zuhaitz eta zuhaitzaska ezberdinak agertzen dira: Lizarra (*Fraxinus excelsior*), urritza (*Corylus avellana*), Gaztainondoak (*Castanea sativa*), Astigar arrunta ( *Acer campestre*), ezkia (*Tilia platyphyllos*), Zumarra (*Ulmus glabra*), altza, pagoa, elorri zuria, zuhandorra, zahatsa... Era berean, landare belarkara ugari agertzen dira *Polystichum setiferum*, *Asplenium scolopendrium*, *Hypericum androsaemum*, *Mercurialis perennis*, *Sanicula europea*, *Geum urbanum*, *Lamium galeobdolon*, *Symphytum tuberosum*, *Vicia sepium*, *Ruscus aculeatus*, *Melica uniflora*, *Carex sylvatica*, *Silla lilio-*

*hyacinthus, Brachypodium sylvaticum, Rubus sp.* etab.

- Baso landatuak:

Herriaren zati handiena hartzen du. Baso landatuak zuhaitz multzo homogeenak izan ohi dira, bai zuhaitzaren adinari baita zuhaitzen arteko distantziari dagokionez ere. Normalean espezie bakarreko landaketak izaten dira, nahiz eta batzuetan espezie desberdineko partzelaren bat edo beste izan. Txanda motzetan tratatzen dira eta espezierik edatuena *Pinus radiata* (Intsignis pinua) da.

Baso landatuak direnez, ez daukate zonaldeko talde klimatikoekin zerikusirik, hau da, ez dago flora konposaketa jakin bat definituta.

Baso landaketa hauetan espezie nagusia Intsignis pinua da (*Pinus radiata*). 0-800m bitarteko altitudetan landatzen da. Alertze japoniarra (*Larix Kaempferi*) da landaketetan erabiltzen den beste espezie bat. Batez ere mendian landatzen da.

### 5.2.2. Fauna

Ordiziako faunari buruzko ikerketa zehatzik ez dagoenez, landarediaren arabera aurkitzen den fauna aztertuko da hemen. Ordiziako udalerrian hiru habitat faunistiko bereizi daitezke, hein handi batean lurralde hori osatzen duten landare-komunitate ezberdinei dagozkienak:

- Harizti hezeak eta baso mistoak
- Landazabala
- Koniferoen baso berritzeak

Jarraian habitat hauen ezaugarri nagusiak eta beraiei dagozkien ornodun-komunitate arruntenak deskribatzen dira, betiere ondorengo taulak habitat horien espezie karakteristikoei dagozkiela eta udalerrian horien presentzia egiaztatua ez dagoela kontuan hartuz.

- **Koniferoen baso berritzeak**

Beren monolaborantza dela medio, oso habitat eskasa sortzen dute eta ez diote fauna anitza eta aberatsa eratzeari laguntzen.

Unitate hauetako ezaugarrienetako bat beren epe laburrerako ustiapena eta baso-soilketa da. Horrek ekosistema heldugabea sortzen du etengabe, non espezie oportunistak nagusi baitira. Koniferoek hartutako azalera handiek ez dute zuhaitzi-mota honi lotutako beste

espezie berririk ekarri. Zenbait animalia-espezierentzat koniferoen basoek laborantzen arteko irlak moduan funtzionatzen dute. Baso hauekako espezie karakteristikoaren artean, ondoko hauek aipatuko ditugu: zuhait-belatza (*Falco subbuteo*), oilagorra (*Scolipax rusticola*), katagorri arrunta (*Sciurus vulgaris*).

#### ANFIBIO ETA NARRASTIAK

<b>Gaztelania</b>	<b>Izen zientifikoa</b>	<b>EUSKERA</b>	<b>EAE kodea</b>
<b>Rana roja</b>	<i>Rana temporaria</i>	Baso- igel gorria	SP
<b>Lución</b>	<i>Anguis fragilis</i>	Zirauna	SP
<b>Sapo Común</b>	<i>Bufo bufo</i>	Apo arrunta	SP

#### HEGAZTIAK

<b>GAZTELANIA</b>	<b>Izen zientifikoa</b>	<b>EUSKERA</b>	<b>EAE kodea</b>
<b>Chochín</b>	<i>Troglodytes troglodytes</i>	Txepetxa	SP
<b>Petirrojo</b>	<i>Erithacus rubecula</i>	Txantxangorria	SP
<b>Gavilán</b>	<i>Accipiter nissus</i>	Gabiraia	IE
<b>Carbonero garrapinos</b>	<i>Parus ater</i>	Pinu kaskabeltza	SP
<b>Herrerillo capuchino</b>	<i>Parus cristatus</i>	Amilotx mottoduna	SP
<b>Reyezuelo listado</b>	<i>Regulus ignicapillus</i>	Erregetxo bekainzuria	SP
<b>Agateador común</b>	<i>Certhia brachydactyla</i>	Gerri- txori arrunta	SP
<b>Piquituerto</b>	<i>Loxia curvirostra</i>	Mokokerra	SP



**UGAZTUNAK**

<b>GAZTELANIA</b>	<b>Izen zientifikoa</b>	<b>EUSKERA</b>	<b>EAE kodea</b>
<b><i>Musaraña de Millet</i></b>	<i>Sorex coronatus</i>	Millet satitsua	SP
<b><i>Topillo rojo</i></b>	<i>Clerhrionomys glareolus</i>	Lurgasu gorria	SP
<b><i>Ratón de campo</i></b>	<i>Apodemus sylvaticus</i>	Basa sagua	SP
<b><i>Lirón careto</i></b>	<i>Eliomys qurcinus</i>	Soro- muxarra	V
<b><i>Ardilla común</i></b>	<i>Sciurus vulgaris</i>	Katagorri arrunta	SP
<b><i>Zorro común</i></b>	<i>Vulpes vulpes</i>	Azeri arrunta	SP
<b><i>Gineta común</i></b>	<i>Genetta genetta</i>	Katajineta arrunta	SP

- ***Landazabala (baratzeak, zelaiak...)***

Landazabaleko unitatean baserriak, zelaiak, erreka, sastraka eta basoak kokatzen dira. Ere honetan hainbat espezie aurkitzen dute babes eta janaria.

Anfibioen artean uhandre palmata, uhandre marmolairia eta txantxiku arrunta aurki genitzake. Narrastiei dagokionez berriz, musker berdea, Schreiber muskerra, horma sugandila eta suge gorbataduna aipatuko genituzke.

Hegaztien espezieak ugariak dira, izan ere, landazabalean habitat ezberdinen presentzia aurkitzen ditugu, bai basoetako hegaztiak bai ere irekietako hegaztiak direla eta. Arruntenetakoak, zapelaitz liztorjalea, kukua, hontz arrunta, lepizulia, okil berdea, buztanikara zuria, zozoa, txepetxa, birigarro arrunta, euli-txori grisa, antzandobi kaskagorria, kardantxiloa eta hesi berdantza dira.

Hugaztunen artean, marraskarien espezieak eta intsektiboroak aurki genitzake. Batzuk aipatzekotan: satorra, satitsu arrunta, Millet satitsua, satitsu txikia, ur-satitsu hankazuria, uzta-sagua, arratoi beltza eta triku arrunta. Haragijaleak ez dira asko, baina aurki genitzako honako espezie hauek: erbinudea, lepozuria, azkonarra eta azeria.

- ***Harizti heze eta baso mistoak***

Baso hauek beraien egituragatik, argi ugari uzten dute pasatzen eta honek azpibasotik aberatsa izatea baimentzen du. Halere, baso hauen azalera ez da oso handia, eta beraz ezinezkoa zaie tamaina handiko espezieei bertan bizirautea.

Zuhaitz hostozabalen basoetan, orbelak lurreko buztinarekin nahasten dira "konplexu

xurgatzaile” deritzona sorraraziz. Lur hau hegazti intsektiboroen bazka diren espezie zulakariak eta ornogabe ezberdinek erabiltzen dute. Egitura egonkorak izan ohi direnez, zuhaitz zaharretan komunitate faunistiko aberatsak mantentzea ahalbidetzen dute.

#### ANFIBIO ETA NARRASTIAK

<b>GAZTELANIA</b>	<b><i>Izen zientifikoa</i></b>	<b>EUSKERA</b>	<b>EAE kodea</b>
<b><i>Tritón palmeado</i></b>	<i>Triturus alpestris</i>	Uhandre palmatua	SP
<b><i>Tritón jaspeado</i></b>	<i>Triturus marmoratus</i>	Uhandre marmolairea	SP
<b><i>Rana patilarga</i></b>	<i>Rana iberica</i>	Baso- igel iberiarra	EI
<b><i>Rana roja</i></b>	<i>Rana temporaria</i>	Baso- igel gorria	SP
<b><i>Lución</i></b>	<i>Anguis fragilis</i>	Zirauna	SP
<b><i>Lagarto verde</i></b>	<i>Lacerta viridis</i>	Musker berdea	SP
<b><i>Lagartija Ibérica L</i></b>	<i>Podarcis hispanica</i>	Sugandila iberiarra	SP
<b><i>Lagartija roquera</i></b>	<i>Podarcis muralis</i>	Horma- sugandila	SP
<b><i>Culebra de collar</i></b>	<i>Natrix natrix</i>	Suge gorbataduna	SP

## HEGAZTIAK

<b>GAZTELANIA</b>	<b>Izen zientifikoa</b>	<b>EUSKERA</b>	<b>EAE kodea</b>
<b>Cuco</b>	<i>Cuculus canorus</i>	Kukua	SP
<b>Cárabo común</b>	<i>Strix aluco</i>	Urubu arrunta	SP
<b>Pico menor</b>	<i>Dendrocopus minor</i>	Okil txikia	IE
<b>Bisbita arbóreo</b>	<i>Anthus trivialis</i>	Uda txirta	SP
<b>Chochín</b>	<i>Troglodytes troglodytes</i>	Txepetxa	SP
<b>Petirrojo</b>	<i>Erithacus rubecula</i>	Txantxangorria	SP
<b>Zorzal común</b>	<i>Turdus philomelos</i>	Birigorra arrunta	SP
<b>Curruca mosquitera</b>	<i>Sylvia borin</i>	Baso- txinboa	SP
<b>Curruca capirotada</b>	<i>Sylvia atricapilla</i>	Txinbo kaskabeltza	SP
<b>Mosquitero común</b>	<i>Phylloscopus collybita</i>	Txio arrunta	SP
<b>Papamoscas gris</b>	<i>Muscicapa striata</i>	Euli- txoni grisa	SP
<b>Carbonero palustre</b>	<i>Parus palustris</i>	Kaskabeltz txikia	SP
<b>Herrerillo común</b>	<i>Parus caeruleus</i>	Amilotx urdina	SP
<b>Trepador azul</b>	<i>Sitta europaea</i>	Garrapoa	SP
<b>Arrendajo</b>	<i>Garrulus glandarius</i>	Eskinosoa	SP
<b>Camachuelo</b>	<i>Pyrrbula pyrrbula</i>	Gailupa	SP

## UGAZTUNAK

<b>GAZTELANIA</b>	<b>Izen zientifikoa</b>	<b>EUSKERA</b>	<b>EAE kodea</b>
<b>Musaraña de Millet</b>	<i>Sorex coronatus</i>	Millet satitsua	SP
<b>Musgaño patiblanco</b>	<i>Neomys fodiens</i>	Ur- satitsu ankazuria	SP
<b>Topillo rojo</b>	<i>Clerrbrionomys glareolus</i>	Lurgasu gorria	SP
<b>Ratilla agreste</b>	<i>Microtus agrstis</i>	Larre- lursagua	SP
<b>Ratón de campo</b>	<i>Apodemus sylvaticus</i>	Basa sagua	SP
<b>Lirón gris</b>	<i>Glis glis</i>	Muxar grisa	V
<b>Ardilla</b>	<i>Sciurus vulgaris</i>	Katagori arrunta	SP
<b>Zorro</b>	<i>Vulpes vulpes</i>	Azeri arrunta	SP
<b>Gineta</b>	<i>Genetta genetta</i>	Katajineta arrunta	SP

**EAE-ko katalogoa:** (V)arrisku egoerara pasa daitezkeen espezieak, gertuko etorkizun batean, sufritzen dituzten mehatxuek jarraitzen badute. R(arraroak): populazio gutxi duten espezieak dira.IE(interés berezikoak): atentzio berezi bat merezi dute, bai bere balio zientifiko, cultural edo berezitasunagatik.SP(arrisku gabeak): arriskurik ez duten espezieak dira.

## 5.2.3. Paisaia

Goierriko eskualdeko eremu funtzionaleko Lurraldearen Zatik Planak egiten duen sailkapenean Ordiziako udalerrria **Haranen ingurune unitatearen** barnean kokatzen da. Orokorrean, esan genezake udalerrriaren kotarik altuena 600 m inguruan kokatzen dela. Klimari dagokionez berriz hezea eta epela da eta sasoiagatiko lehorreak nekez gertatzen dira.

Erliebeari dagokionez, nabaria dela esan genezake izan ere, jarraian dauden muino eta mendiek eta hauek eginiko haranek osatzen dutelako. Orografia malkartsua den eanean eta euri asko egiten duenez, eremuan hainbat erreka aurki genitzake zeinak haran txikietatik iragaten diren lehen aipaturiko azalerako drainatze sarea osatuz.

Eremu honen paisaiari begira, nekez geratzen da berezko landarediaren zantzurik hainbat baso autoktono (zeinetan nabari den gizakiaren presentzia) eta ibaien gorako zatian aurki genezakeen erriberako landaredia salbu.

Eskualde mailan haranen sakonetan gertatu den biztanleria kontzentrazio altua dela eta, ibai eta erreka garrantzitsuenen ubideetan gizakiak esku hartu du, are gehiago arazketa sistema egoki bat ez izateak (egun exekuzio fasean aurkitzen da) erriberetako ekosistemen txirotzea

ekarri du eta uren kalitatearen txartzea.

Tradizionalki haranen sakonean (zeinak ibai eta errekaetok zeharkatzen dituzten) garatu dira komunikazio eta garraio azpiegiturak eta bestalde, eremu horietan kokatzen dira jarduera industrial eta hiritar garrantzitsuenak, izan ere, eremu funtzionalean aurki genitzakeen lurzoru lauenak bertan kokatzen direlako. Esan beharrik ez dago aldapa leunenak dituzten zelai eta muinoak direla garapen berriak lekutzeko tokirik desiratuenak, hala ere, jarduera berri hauen kokapenak gune hiritarraren jarraipena izan beharko dute beti ere, paisaiaren kalitateak okerrera egin ez dezan, lurraldean zehar asentamentuak zabalduaz eta aipaturiko gune hiritar horien etorkizuneko garapena hipotekatu ez dadin.

Haranen sakoneko eremuetatik aldeginaz, zeinak dentsitate maila altua jasaten duten, landazabaleko eremuak aurki genitzake nekazal gune txikiekin, baserri sakabanatueak eta zelai berdeekin, zeinak batzutan labore eta fruta sail batzuez lagunduak izaten diren.

Haranen sakonak bezala, eremu honetan gizkiaren eskuhartzea esanguratsua izan da, izan ere, haranen sakonek jasaten duten dentsitate altuak eta lurzoruaren eskasiak bigarren eremu honetan jarduerak egitera bultzatu duen.

Bestalde, paisaiaren eremu honetan esplotazio intentsiboko koniferen birpopulaketek azalera garrantzitsua hartzen dute, baita zelai sentsibleetan ere, kontutan izanik azken hauetan, dituzten ezaugarriengatik, babes basoak egon beharko luketela zeinak erosioarengandik babesteko eta honela lurraren galerarik gertatu ez dadin.

Eremu hauen bokazioa (hauen paisaiek gizakia eta naturaren arteko historia eta lotura erreflejatzen dutelarik) eraikinetatik garbi mantentzearena dela dirudi, egungo berauen erabilpen anitzak mantenduaz, izan ere, ondare kultural garrantzitsua suposatzen dutelako eta tokiko nahiz eskualdeko identitatearen zati direlako.

### **5.3. Babestutako natur guneak**

#### **5.3.1. Parke Naturalak**

Ordiziako udalerraren barnean ez dago inongo ekimenik bere lurren zatiren bat Babes Bereziko Eremu Natural gisara antolatzeko.

Honela Ordizian, babes kategoria hau hostozabalen basoentzako (hariztiak, pagadia, baso mistoak eta haltzadiak) eta erabilpen horretara destinaturiko lurrentzat (baso autoktono) proposatzen da; baita, baso ez autoktonoentzat; mendiko zelaientzat; nekazal bokazio altua duten lurrentzat (Nekazal lurzorua); Lazkaomendiko nekazal unitatean barneratzen den eremuarentzat (Lazkaomendiko Nekazal Unitatea) eta balio paisajistiko altua duten eremuarentzat.

Eremu hauetan araudiak eskuhartze antropikoa debekatzen du, honela, egiten diren

ekintzak egoera mantentzera zuzenduak edota degradazio edo aldaketa egoeran dauden eremuen egoera hobetzera zuzenduak izango dira. Ordea, lurzorua esplorazioa modu iraunkor batean baimentzen da, beti ere, erabilitako errekurtsoak berrezarriaz.

### **5.3.2. Hezeguneak**

EAEko Hezeguneen Lurraldeko Arlokako Plana, 2001eko apirilaren 23an onartu zen hasiera batean, nahiz eta oraindik ez den behin betiko onartu.

EAEko Hezeguneen deskribapen eta analisi bat egiteaz gain, Hezegune hauen egoeraren diagnosi orokor eta espezifiko bat egiten du. Baita balorazio bat ere.

Azkenik, EAEko Hezeguneen inbentario bat egiten da bertan. Inbentario honetan Ordiziako herrian kokaturik dagoen hezegune bat agertzen da: Altamirako urmaela. Hezegune hau "ureztatzeko baltsa" deritzon kategoriaren barne sailkatuta dago.

### **5.4. Paisaiaren eta ondare naturalaren kontserbazio-guneak**

Espazio naturalek garrantzi edota natur-balio bikaineko elementu edo sistemak edukitzeagatik babesa merezi izatearen kontzeptua indarrean dago Euskal Autonomi Erkidegoan. Nahiz eta industrializazioak, azpiegituren ezarpenak eta urbanizazioak eragin handia izan duen lurraldearen egiturari, oraindik orain badira hurrengo belaunaldientzako egoera onenean gordetzeko merezi duten hainbat gune, eta hori lortzeko konpromezua gaur egungo gaia da.

Honela, atal honetan aipatu beharrekoa da Oianguko Parkeak duen garrantzi natural eta paisajistikoagatik. Kontutan izanik titulartasun publikoko eremua dela (Ordiziako Udala), parke hau udalerriaren Hegoekialdean kokatzen da eta bere azalera 500.000 m<sup>2</sup>-takoa da gutxigora behera. AA.SSek eremuaren mugatzea planteatzen dute, honela, egungo lur publikoaren kontsolidazioa gertatuaz, gainera, eremuaren zabaltzea ere proposatzen da bere ingurunean eremu hau egokiago integratu dadin.

Are gehiago, dokumentu berean aipatzen da, mugatzen den eremuaren barnean Oriatik Zintzilikuturiko Terraza eremua eta Lazkomendiko Nekazal Unitateak partzialki barneratzen direla, beraz, eremu hauen babeserako neurri espezifikoak kontutan izan beharko dira.

### **5.5. Biodibertsitatearen eta paisaiaren kontserbazioan eragina duten aktibitateak**

#### **5.5.1. Lurraren erabilera**


Ordiziako lurzorua erabileren banaketari dagokionez, zuhaitz baso trinkoa nagusi da (275 Ha), udal azalera osoko %48 hartuz. Erabilera horietara dedikatutako ehunekoa Goierri eta Gipuzkoako batez bestekoa baino zabalagoa da. Aldiz, bazkalekuetara bideratutako lurzoruen urritasuna larreek hartutako zabalera handiarekin kontrajartzen da, %27a.

**Lurzoruaren erabileraren banaketa, lurralde-eremuei jarraiki (hektareak)**

<b>Ordizia</b>			<b>Goierri</b>		<b>Gipuzkoa</b>	
<b>Erabilera</b>	<b>Ha</b>	<b>%</b>	<b>Ha</b>	<b>%</b>	<b>Ha</b>	<b>%</b>
<b>Etzeak</b>	113	19,7	1.457	3,7	12.054	6,09
<b>Larreak</b>	156	27,2	7.227	18,6	45.683	23,07
<b>Larrediak</b>	-		875	2,25	6.994	3,5
<b>Sastrakadia</b>	7	1,2	2.164	5,57	13.933	7,04
<b>Zuhaitz-baso trinkoa</b>	275	48	25.840	66,5	110.973	56,04
<b>Zuhaitz-baso barbana</b>	21	3,6	1.207	3,11	7.282	3,68
<b>Lan trinkoak</b>	-	0	87	0,22	1.114	0,5
<b>GUZTIRA</b>	572	100	38.857	100	198.033	100

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Industria, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Inventario forestal 1996.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurugiro Sailak eskaintako lurzoruaren banatzeari buruzko datuek 1.212 Ha-tatik %3,64a baino ez dela titulartasun publikokoa adierazten dute. Gainera, zuhaitz baso trinkora zuzendutako azaleraren %5,5 dela jabari publikokoa azpimarratzen da.



### 5.5.2. Baso ustiapenak

Eustateko datuen arabera (1996), Ordizian zuhaitz baso azalera 296 Ha-koa zen. Baso hauen gehiengoa koniferari dagokie, batez ere Intsignis pinuari (*Pinus radiata*) baso azalera totalaren %52,3 da. Hostozabalen azalera, guztizkoaren %40,5a da.

#### Baso-azalera zuhaitzeztatua, lurralde-eremuei jarraiki, espezieen arabera

<b>Ordizia</b>		
<b>Mota</b>	<b>Ha</b>	<b>%</b>
<i>Baso Atlantikoa</i>	60	20,2
<i>Pagoa</i>	20	6,7
<i>Bestelako hostozabalak</i>	40	13,5
<b>Hostozabalak guztira</b>	<b>120</b>	<b>40,5</b>
<i>Intsinis pinua</i>	155	52,3
<i>Ezkametza</i>	-	0
<i>Bestelako koniferak</i>	21	7,1
<b>Koniferak Guztira</b>	<b>176</b>	<b>59,4</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>296</b>	<b>100</b>

Iturria: EUSTATen datutik abiatuz landua. (1996)

Masa egoeraren araberrako espezien banaketari buruzko datuen arabera, jabego pribatuko baso azalera altua nabarmen daiteke Ordizian. Honela, koniferen aldaketen %7,27a bakarrik dira titulartasun publikokoa, aldiz, hostozabalen landaketen kasuan %2,05a dira publikokoa.

Ordiziak Ernio-Aralar Mankomunitatean parte hartzen du eta beronen azaleraren %5,35a suposatzen du. Partzuergo honek 3.384 Ha-tako azalera du, zeinak Aralarko Parke Naturalaren azaleraren %30,9a suposatzen duen. Partzuergo honen helburu soziala birpopulaketa eta baso sustapena da.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Garapen Departamentuaren arabera, Ordizian 1996tik 1999ko urrira eginiko baso mozketak 29,66 Ha-koak izan ziren. Guztira 7.683 m<sup>3</sup> -ko bolumena moztu zen.



**Mendi pribatuetako baso mozketak (1996-1999)**

<b>Urtea</b>	<b>Zenbakia</b>	<b>Espeziea</b>	<b>Mozketa</b>	<b>Ha</b>	<b>M<sup>3</sup></b>
<b>1996</b>	217	Insignis, Pagoa	Soilketa	0,3	48
	218	Haritza	Entresaka	0,15	7
<b>Guztira</b>				<b>0,45</b>	<b>55</b>
<b>1997</b>	199	Insignis	Soilketa	1,59	358
	603	Insignis	Soilketa	0,83	227
	604	Insignis	Soilketa	0,8	464
	605	Insignis	Soilketa	1	227
	607	Insignis	Soilketa	0,9	436
	608	Insignis	Soilketa	0,67	426
	612	Insignis	Soilketa	1,06	293
	655	Insignis	Soilketa	4,18	785
	757	Insignis	Soilketa	0,19	38
	758	Insignis	Soilketa	0,76	172
	765	Insignis	Soilketa	0,92	442
	766	Insignis	Soilketa	0,41	304
	1.134	Insignis	Soilketa	0,48	248
	1.460	Haritza, Lizarra	Entresaka	4,02	114
	1.659	Insignis	Soilketa	2,31	191
1.660	Insignis	Soilketa	1,18	571	
<b>Guztira</b>				<b>21,30</b>	<b>5.296</b>
<b>1998</b>	25	Insignis	Soilketa	1,36	616
	26	Insignis	Soilketa	0,82	322
	339	Insignis	Soilketa	0,26	126
	611	Insignis	Soilketa	1	251
	677	Insignis	Soilketa	0,34	77
	1.435	Insignis	Soilketa	0,3	23
	1.460	Insignis, Akazia	Soilketa	0,25	15
	1.951	Insignis	Soilketa	3,58	857
<b>Guztira</b>				<b>7,91</b>	<b>2.287</b>
<b>GUZTIRA (1996-1998)</b>				<b>29,66</b>	<b>7.683</b>

Iturria: Departamento para el Desarrollo del Medio Rural de la DFG, 2004.

1999ko azarotik 2004ko otsailera, berriz, zuhaitz mozketak pribatuak 12,98 Ha-koak izan ziren. Bolumen guzti honetatik Insignis Pinuaren soilketa bidezko mozketak izan ziren gehiengoa (%94).

**Mendi pribatuetan baso-mozketak (1999 Azar.tik 2004ko Ots. arte)**

<b>Zuhaitz mota</b>	<b>Mozketa mota</b>	<b>M<sup>3</sup></b>	<b>Ha</b>
<b>Akazia</b>	Soilketa	16,73	0,18
<b>Entresaka</b>	Entresaka	26,06	1,20
<b>Haltz beltz</b>	Soilketa	2,30	0,05
<b>Norteko haritza</b>	Soilketa	1,79	0,05
<b>Haritza</b>	Soilketa	17,68	0,17
<b>Insignis Pinua</b>	Entresaka/ Soilketa	65,17 3.108,78	3,26 7,83
<b>Nekosta</b>	Soilketa	0,90	0,05
<b>Platano</b>	Soilketa	81,62	0,19
<b>GUZTIRA</b>		<b>3.321,03</b>	<b>12,98</b>

Iturria: Departamento para el Desarrollo del Medio Rural de la DFG, 2004.

**5.5.3. Nekazaritza eta abeltzaintza aktibitateak**

EUSTATen arabera, 1999an nekazaritza eta abeltzaintzako aktibitateek hartutako azalera osoa 358 hektarea ziren, 45 ustiategitan banandurik. Horrek tamaina txikiko ustiategiak dakartza; ustiategi bakoitzeko 8 hektarea inguru, hain zuzen ere.

**Ustiapen zentsatuak eta guztizko azalera.**

	<b>LURRA BADUTEN USTIAPENAK</b>						<b>LURRIK GABEKO USTIAPENAK</b>		<b>ENAdunak</b>	
	<b>Guztira</b>		<b>Aziendadunak</b>		<b>Aziendagabeak</b>					
	<b>Zbk</b>	<b>Ha.</b>	<b>Zbk</b>	<b>Ha.</b>	<b>Zbk</b>	<b>Ha.</b>	<b>Zbk</b>	<b>Ha.</b>	<b>Zbk</b>	<b>Ha.</b>
<b>Ordizia</b>	45	358	20	175	23	183	2	0	31	129

Iturria: EUSTATen datuetatik landua (1.999)

**Ordiziako aziendak mota eta úntate kopuruen arabera, 1999.**

	<b>Ustiapen kop.</b>	<b>Unitateak</b>
<b>Behi-aziendak</b>	11	149
<b>Ardi-aziendak</b>	6	620
<b>Ahuntz-aziendak</b>	2	12
<b>Txerri-aziendak</b>	0	0
<b>Salid-aziendak</b>	4	6
<b>Hegaztiak ostrukak izan ezik (milaka)</b>	17	0
<b>Untxi amak</b>	4	47

Iturria: EUSTATen datuetatik landua (1.999)

**Landutako lurren aprobeixamendua. 1999**

	ORDIZIA	
	Zbk	Ha
<b>Belarkiak</b>	21	2
<b>Fruta-arbolak</b>	21	4
<b>Beste lur landuak</b>	0	0
<b>Lur landu guztiak</b>	26	6

Iturria: EUSTATen datuetatik landua (1.999)

**2000. urteko Nekazal Kanpainaren datuak**

<b>Larreak (Ha)</b>	350
<b>Basoakl (Ha)</b>	743
<b>Besteak (Ha)</b>	111
<b>Guztira (Ha)</b>	1.204
<b>Profesionalak (Zbk) (1999)</b>	9
<b>Arteldeak (Zbk)</b>	12
<b>Ardiak (Zbk)</b>	767
<b>Haragitarako behi-azienda ustiapena (Zbk)</b>	38
<b>Haragitarako behi-azienda abelburu (Zbk)</b>	371
<b>Esnetarako behi-azienda ustiapena (Zbk)</b>	13
<b>Esnetarako behi-azienda abelburu (Zbk)</b>	225

Iturria: GOIMEN

Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako datuen arabera, 2003an, Ordiziak nekazaritzara bideratutako 235 Ha zituen. Azalera guzti honetatik gehiengoa bazka laborez eta zuhaitz espeziez landutua zegoelarik.

1999-2003 bitartean, nekazal laborantzara dedikatutako azaleraren gorakada bat ematen da 2000 eta 2001 bitartean, nahiz eta hurrengo urteetan beherantza egin duen eta konkretuki, 2003. urteko azalera 1999. urtean erregistratzen zenaren antzekoa delarik.

**Nekazaritzan erabilitako lur azalera. Ordizia (1999-2003)**

	1999	2000	2001	2002	2003
<b>Bazka-laborantza</b>	140,0497	149,6353	156,2088	116,3315	115,9937
<b>Lore eta apaingarriak</b>	-	-	-	-	-
<b>Basogintza</b>	85,4989	86,4597	114,6622	102,4839	111,7274
<b>Frutalak</b>	1,2766	1,2766	2,1552	1,9786	1,9786
<b>Barazkiak</b>	0,1000	0,1000	0,1418	0,1568	0,1568
<b>Sastraakdiak, ez emankorrek</b>	4,3205	4,3205	5,4250	4,3942	4,3942
<b>Betse laboreak</b>	0,9102	0,9100	0,9100	0,3625	0,3625
<b>Azalerak guztira</b>	<b>232,1559</b>	<b>242,7021</b>	<b>279,5030</b>	<b>225,7075</b>	<b>234,6132</b>

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2004

Hazkunde handiena baso landaketei dagokie, lau urtetan bere azalera %30ean igotzen delarik.

#### **5.5.4. Erauzketa aktibitateak**

Ez dago funtzionamenduan dauden erauzketa aktibitateen aztarnarik Ordiziako udalerrian. Bestalde, iada funtzionatzen ez duten aktibitateak ere ez da erregistratzen.

Betelan eta lur-mugimenduei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak ez du horrelako lanen gaineko baimenik eman, erabili gabeko ustiategiak berreskuratzeko lanen ingurukoak izan ezik.

#### **5.5.5. Kirol, hezkuntza eta aisia erabilerak**

Ekipamendu gisara, Ordiziak zinea du, Osasun Zentrua eta zerbitzu sozialen hainbat zentru. Gainera, Oianguren parkea du, zeina herrigunetik gertu kokatua aurkitzen den eta naturaren interpretazioarekin loturiko hainbat ekintza egiten diren.

Udalerriko hezkuntza eskaintza ondoko zentruak osatzen dute:

*Haur Eskola Alotz:* Haur hezkuntza (0-3 urte) eta haurtzaindegia.

*Jakintza Ikastola, Urdaneta-Oianguren Ikastetxea:* Haur hezkuntza 3-6 urte, Lehen hezkuntza, Bigarren mailako hezkuntza eta Batxilergoa.

*Goierriko Langintza Eskola:* Lanbide heziketa.

*Mondragon Unibertsitatea:* Ingenieritza Teknikoa.

*Lanerako Prestakuntzarako Lantegiak.*

*Helduen Hezkuntza.* (EPA)

*Esperientziaren Ikastetxea*

Aisialdirako Ordiziak hainbat plaza eta leku ireki ditu: Plaza Nagusia, Garagarza, Goen, Barandiaran, Unanue, Arboleta, Barrena Parkea, N. Lekuona Plaza, Bustuntza, Loiaga, Biona, Intxausti, Otatza (Poligonoa), Altamira Parkea, Majori Plaza, Otegi-enea. Kultur gune garrantzitsuenak Barrena Kultur Etxea, Herri Antzokia eta Gaztetxea, AA.VV-ren Altamirako Denbora libreko lokala, Jubilatuta eta Pentsionisten Elkartearen lokala eta Santa Ana eta La Milagrosa Ikastetxeak, baita izaera pribatuko kirol-kultural-gastronomia elkarteak.

Bestalde, kirola egiteko eremu publikoen artean Majori Polikiroldegia, tapatua eta tapatu gabea dagoen Beti Alai frontoia eta udalerriko hezkuntza zentru ezberdinetan dauden kirol espazioak aipatuko genituzke.

Gainera, udalerrian festa eta gertaera ezberdinak ospatzen dira eta hauen artean aipatuko genituzke:

- Santa Ana egunean (Uztailaren 28a) urte hortan ezkondu diren bikoteak Udaletxean elkartzen dira, non Alkateak lagundurik plazara irtetzen diren eta “Santaneros-en eskudantza” egiten duten. Emakumeak manilako mantoiak janzten dituzte.
- Irailaren lehen astean ospatzen diren euskal-jaiak oso ezagunak dira, gainera, egun horretan egiten da horren ezaguna den gazta txapelketa.
- Ordiziako nekazal produktuen azoka Gipuzkoa guztiko ezagunena da. 1514.urteetik asteazkenero ospatzen da, gainera, bertan ezartzen diren produktuen prezioek eragina dute aste horretan Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

## 5.6. Gune hondatuak

### 5.6.1. Aterakuntzako jarduerak

Udalerrian ez da honelako jarduerarik erregistratzen ez aktiboa dagoena ezta aktibitate itxirik ere.

### 5.6.2. Hondakin jarduerak

IHOBE, S.A.-k eskainitako datuei jarraiki, Ordizian ez dago inbentariatutako zabortegirik.

### 5.6.3. Suteak

Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerago Departamenduak emandako datuen arabera, Ordiziako udalerrian 1998ko urtarrilaren 1etik 2004ko urtarrilaren 1era bitarteko epean suteek kaltetutako mendiak honako hauek dira:

#### Sute kopurua sortze arrazoien arabera. Ordizia (1-I-1998 a 1-I-2004)

Sute kop.	Sortze arrazoia				Azalera Ha.		
	Arduragabekeria	Besteak	Intentzioz	Ezezaguna	Arboladuna	Arbolik gabea	Guztira
7	3	-	4	-	11,50	205,70	217,20

Iturria: Departamento del Medio Natural de la DFG, 2004.

Aipatutako denboraldian zehar 7 sute gertatu dira eta erre den azalera 217 hektareatakoa izan da. Guztizko udal azaleraren araberrako espazio erre %38koa izan da. Erretako %38ko

azalera horretatik, %5,3a zuhaitzeztatua zen, eta gainerakoa zuhaitzik gabeko azalerari zegokion. Suteak sortzearen arrazoiari dagokionez, 7 horietatik 4 apropos sorturikoak izan ziren aldiz, beste 3ak zuhurtzigabekeriazko portaerek eragin zituzten.

#### **5.6.4. Hondatutako beste zenbait zona**

- *Uholdeak jasan ditzaketen eremuak:*

Oria eta Amundarain ibaien hertzetan konkretuki, udalerriko planeamenduan aurrikusiak dauden bideratze partzialaren obrei jarraipena ematea aurrikusten da.

Zentzu honetan, Eusko Jaurlaritzak eginiko azterketek ondorioztatzen dute egungo egoeran ibai herten gehiengoa 100 urte lehenagoko epealdiko uholde eremuetan daudela, batez ere, hertzak egoera kuasi-naturalean aurkitzen diren eremuetan, hau da, ubidea bideratzeko obrarik egin ez den eremuetan. Bestalde, ibaien ezaugarri morfologikoez, baita erriberen kotak ubideekin alderatuaz ere (zeinak partzialki edo osoki eraikinez okupatuak dauden), eskuhartze posibilitateak asko murrizten dituzte.

Egoera honetan, Ordiziako AA.SSen helburua erriberetan urak gainezka egitearen maiztasuna murriztera zuzenduriko ekintzak aurrera eramatea litzateke, inguruko lurak ureztatuak gertatzearen posibilitatea minimizatuaz. Honela, Oria ibaiaren inguruan eginiko azterketak adierazten duenez, Tximista zubiaren eta San Juan zubi berriaren arteko zatian Oria ibaiaren ubideratzea amaitu ezker eta ur hertzetako hirigintza arrasak egokituz gero 100 urte lehenagoko epealdiko etorbidearen emaria ebakuatzea lortuko litzateke, egungo egoera hobetuaz.

Bestalde, ingurugiro ikuspegi batetik eta Eusko Jaurlaritzako Ur Zuzendaritzak emandako irizpideekin bat eginik, AA.SS.-k egun dauden ezpondak mantentzen saiatzen da baita Apeilanizeko eremuko erdigunean aurkitzen den erriberako zuhaitzak ere.

- *Zelaietako prozesuak eta berauei loturiko arrisku potentzialak:*

Prozesu geologiko aipagarrien artean, aldapa handienak dituzten zelaietan labainketak lirateke, batez ere, %50 baino handiagoko aldapa duten zelaietan. Eremu hauei arrisku handiko kategoria ematen zaie.

- *Poluituta egon daitezkeen lurzorua*

11. atalean horren inguruko informazioa gaineratzen da.

## 6. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA

### 6.1. Bide-sarearen ezaugarriak

#### 6.1.1. Eskualdearteko eta lurraldeko bide-sarea

Udalerria maila handiagoko beste lurralde-eremuekin lotzen duen bide-sareari dagokionez, Ordiziak ondoko errepide hauek igarotzen dira:

- *Lehentasuneko bide-sare (Sare Gorria):*

-N-1: Madriletik Irunera. Autobia da Idiazabal hegoaldeko sarrera eta Lasarteko N-1 elkargunearen artean.

- *Eskualdearteko bide-sarea (Sare berdea)*
  - GI-2131: Ordiziatik Alegira.
  - GI-2133: Ordiziatik Alegira Zaldibia, Abaltzisketa eta Amezketatik iraganez.

#### 6.1.2. Tokiko bide-sarea

Tokiko bide-sarea Herriarteko Sareari edo Sarea Grisari dagokio.

Tokiko bide-sarea (Sare Grisa):

- Bigarren Mailako Sare Grisa:
  - GI-4761: Ordiziara GI-2131 errepidetik.

Trenbide Sareari dagokionez Lurraldearen Zatiko Planak udalerrinari eragiten dizkioten honako ekintzak aurriztatu ditu:

- Bustunza Auzunean eta Beasainen Azokaren inguruko eremuan RENFE-ren linearen aldaketa. Trazadura zuzena eginaz eta egituraren ganean trenbide errailen kota handituaz, honela, CAF-eko eremuan Lazkao eta Ordiziaren artean dagoen bidegurutzea salbatuaz, eta Galardiko muinoa tunel baten bidez zeharkatuko duelarik.
- Ordiziako geltokiaren leku aldaketa.

Udalerriaren iparraldean iragaten da trena, N-1 errepidearengandik gertu eta paraleloki. Hori dela eta, N-1etik San Juanerako sarrera mugatua geratzen da, galibo arrazoiengatik. Honela, sarrera hau zirkulazio zentzu bakarrekoa da eta galiboa mugatua du, gainera, oinezkoentzako dagoen oinbidea ere hertsia da.

Ordiziak Irun-Brinkola RENFEren lineako geltoki bat du.

### 6.1.3. Aurreikusitako jarduketak

Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepideen Zuzendaritza Nagusiaren arabera, 2004an ondoko bide-jarduketa hauek aurreikusita daude Ordiziako udalerrian:

- *N-1: Itsasondo eta Beasain artean bidezoruaren indartzea (2004-ean egiteko)*, zeinak Itsasondo, Ordizia eta Beasaingo udalerriei eragiten dien.

Bestalde, Beasain-Zumarraga eremu funtzionaleko Lurraldearen Zatik Planak (Goierri) hainbat proposamen eta eskuhartze aurrikusten ditu Ordiziako udalerrinari zuzenduak zeinak, egungo planeamendu sektorialari egokitu behar zaizkion eta Errepide Sare Modelu Integralari. Aipaturiko proposamen horiek honako hauek dira:

- Ordiziako hegoaldeko lotunean, N-1etik Ordizia, Lazkao eta Beasaingo herrietarako sarreren hobetzea.
- Hegoaldeko lotunea hobetzeko lur erreserbak eta ordenazio aurrikuspenak (N-1-etik Ordiziako, Lazkao eta Beasaingo udalerrietarako sarreren hobetzeko ekintzen barnean).
- Ordizia eta Lazkao lotzen dituen errepidearen hobetzea egungo CAF-eko industriagunetik, Hiri Zentraltasunaren ardatz gisa eta Beasain-Ordizia-Lazkao erpinaren ordenazio egituraren elementu nagusi gisa.
- CAF-en hegoekialdeko eremuan Lazkao eta Ordiziaren arteko lotunea izango den errepidea eraikitzea Hiriarteko Artikulazio Ardatz gisa eta Beasain-Ordizia-Lazkao erpinaren ordenazioaren egitura integralaren zati bezala, gainera, industriagune berrien kokaleku izango da eta bere diseinua eta hiri tratamendua lertxunez osaturiko etorbide batena izango delarik.
- Hiri etorbide nagusiaren aldaketa, zeina Lurraldearen Zatik Planean aurrikusten den eta Hiri Zentraltasunaren Ardatza izango dena. Etorbide baten diseinua eta tratamendua jasoko du.
- Zaldibiara doan errepidearen aldaketa Hiriarteko Artikulazio Ardatz gisa, izango duen diseinua eta trazarera lertxunez osaturiko etorbidearena izango delarik, oinbide zabalekin eta bidegorriarekin.
- Bustunza Auzunean eta Beasainen Azokaren inguruko eremuan RENFE-ren linearen aldaketa. Trazadura zuzena eginaz eta egituraren gainean trenbide errailen kota handituaz, honela, CAF-eko eremuan Lazkao eta Ordiziaren artean dagoen bidegurutzea salbatuaz, eta Galardiko muinoa tunel baten bidez zeharkatuko duelarik.



- Ordiziako tren geltokiaren lekualdatzea.

## 6.2. Udalerrri arteko higikortasuna

### 6.2.1. Udalerrri arteko higikortasunaren ezaugarriak

2003. urtean eginiko Ordiziako udalerrriaren Plan estrategikoan, udalerrri mailako Mugikortasunaren inguruko azterketa bat egin zen. Azterketa horretan kontuan izandako gaietako bat Ordiziako bidaiarien garraio bide motak izan ziren eta emaitzak ikusirik, trena eta gertuko nahiz hurrunekeo autobus lineak izan ziren garraio bide azpimarragarrienak ondoko taulan ikus daitekeen bezala.

<b>ORDIZIAKO GARRAIO BIDE NAGUSIAK. 2003.</b>	
<b>TRENBIDEA</b>	Linea: Irún- Brinkola
<b>URREKO AUTOBUSAK</b>	Linea: Zegama – Ordizia Linea: Ordizia-beasain-Idiazabal Herri Txikietako Zerbitzua: Ordizia- Arama-Altzaga-Gaintza Linea: Ordizia-Ataun Linea: Legorreta-Itsasondo-Ordizia-Beasain-Ormaiztegi-Zumárraga (Hospital)
<b>AUTOBUSES LARGO RECORRIDO</b>	Linea: Donostia-Bilbao Linea: Irún-Madrid Linea: Donostia-Estella
<b>TAXIAK</b>	

Iturria: Siadeco, 2003.

### Garraio bideen erabilpenaren frekuentzia Ordizian (% biztanleria).

	(la) egunero	3-4 aldiz astero	1-2 aldiz astero	(la) inoiz	Ed/Ee	GUZTIRA
<b>Kotxea/motoz ikleta</b>	42.9	6.3	13.2	36.9	0.7	100
<b>Trena</b>	3.9	4.4	21.1	68.4	2.2	100
<b>Autobusa</b>	2.2	2.2	12.7	80.8	2.2	100
<b>Bizikleta</b>	1.0	-	0.9	95.2	2.9	100

Iturria: Elaboración propia. Siadeco, 2003.

Bestalde, azterketa honetan bertan udalerriko garraio bideen erabilpenaren maiztasuna baloratu zen eta autoa eta motorra dira udalerrian garraio bide erabilienak trenak eta autobusak jarraitzen diotelarik. Asteaz zehar erabilpen batetik bi erabilpenetara, trena eta autobusa gehiago erabiltzen dira autoa baino (gehienetan astebukaeran). Biztanleek gutxien

erabiltzen dituzten garraiobideak bizikleta eta autobusa dira.

2004. urtean Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailak argitaratutako "Euskal Autonomi Erkidegoko Mugikortasunaren Artezlan 2003" azterketan Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren joan-etorriei buruzko ohiturak aurkezten dira, eta baita Goierriko eskualdeari buruzko ondorio garrantzitsuak dituen egungo garraio-sistemaren diagnostia.

Azpimarratu behar da "Euskal Autonomi Erkidegoko Mugikortasunaren Artezlan 2003" azterketan egiten den eskualde-mugaketa ez datorrela bat Goierriko eskualdearen berezko karakterizazioarekin. Horrela, Legazpi, Urretxu, Zumarraga eta Ezkio-Itxaso Goierriko eskualde barruan sartuta egongo ziren, Legorretako udalerria Tolosaldeko eskualde barruan dagoen bitartean. Edonola ere, datuak beraiek eta beren analisia baino garrantzi handiagoa daukate denboran zeharreko eboluzioak eta mugikortasun-eredu ezberdinek duten pisuak, datu horiek joerak estrapolatzea eta proiektzioak egitea ahalbidetzen baitute.

### Mugikortasun Orokorra

Euskal Autonomia Erkidegoan bizi direnek, batez besteko lanegun batean, 5.464.160 joan-etorri egiten dituzte. Horietatik, %97 lurralde bakoitzaren barruko harrenaka dira, %2 lurralde artekoak; eta %1 kapo-zonekiko harremanak. Pertsonako desplazamendu media 2,7koa da (Araba:2,8; Bizkaia:2,6; Gipuzkoa:3)

Goierriko eremua EAEan egindako joan-etorri guztien %3ko helmuga da (155.779 bidaia).

### Eskualde barneko joan-etorriak

Eskualde barruko joan-etorriei dagokienez, EAEan egindako guztien %97 dira. Goierriko eskualdearen barrukoak EAEan egiten direnen %3 dira.

<i>Eskualdea</i>	<i>Barruko desplazamendu kop.</i>	<i>Eskualdearekiko %</i>	<i>EAEkiko %</i>
<b>Goierri</b>	143.619	85%	3%

*Iturria: Estudio de la Movilidad en la Comunidad Autónoma Vasca 2003".*

### Eskualde arteko joan-etorriak

Eskualde arteko joan-etorriak 479.453 dira (joan-etorri guztien %9). Goierriko eskualde arteko mugimenduak EAEan egiten direnen %5 dira: 26.053 joan-etorri.

### Ibilgailu pribatuan eginiko joan-etorriak

Batez besteko lanegun batean Euskal Autonomia Erkidegoan bizi direnek ibilgailu pribatuan eginiko joan-etorriak 1.894.295 dira, hots, guztizkoaren %35. Ibilgailu pribatua erabiltzeko arrazoi nagusia lana da, %70; aisiagatik, %10; erosketengatik, %8; bestelako arrazoiengatik, %8; eta ikasketengatik, %4.

Helburua	Desplazamendu kopurua	Gutzizkoarekiko %	Helburuarekiko %	Barruko despl. %
<b>Goierri</b>	62.349	3%	40%	87%

Iturria: "Estudio de la Movilidad en la Comunidad Autónoma Vasca 2003".

Goierriko eskualdea mota horretako joan-etorrien %3ko helmuga da.

### Garraio publiko bidez eginiko desplazamenduak

Garraio publikoan egindako joan-etorriak 762.358 dira, bai osorik garraiobide horretan eginak eta bai ibilgailu pribatua ere erabiliz eginak kontuan hartuta. Garraio publikoan eginiko bidaien arrazoiak honako hauek dira: lanarengatik, %38; ikasketengatik, %27; aisiagatik, %15; erosketengatik, %10 eta bestelako arrazoiengatik, %10.

Helburua	Desplazamendu kopurua	Gutzizkoarekiko %..	Helburuarekiko %	Barruko despl. %
<b>Goierri</b>	4.974	1%	3%	42%

Iturria: "Estudio de la Movilidad en la Comunidad Autónoma Vasca 2003".


Eskualde mailan, Goierri da EAEko garraio publikoan egindako joan-etorrien %1eko helmuga. Bestalde, Goierri helmuga duten joan-etorrien %3 garraio publikoan egiten dira.

### Mugikortasunaren bilakaera

Bilakaerari dagokionez, Artezlana idatzi dutenek 1998-2002 bitarteko epean Gipuzkoako Lurralde Historikoan mugikortasun motordunak %10eko igoera izan duela, batez besteko lanegun batean 90.726 bidaiak berri dakartzana. Ibilgailu pribatuak gehikuntza hori bere osotasunean erakarri du; aldi berean, garraio publikoko erabileraren nolabaiteko beherakada egiaztatuz.


### Mugikortasuna lan eta ikasketengatik

EUSTATEk argitaratutako 2001ko Biztanleria eta Etxebizitza zentsuko datuen arabera, Ordiziako langileetan lanarengatik duen mugikortasunak pisu gehiago dauka "EAEko beste udalerrietan", aztertutako beste eremu geografikoetan baino. Ezberdintasunak somatzen dira hedadura honetan, Ordiziako kasuan (%62,9), Euskal AE (%42,3) eta Gipuzkoan (%41,0) baino altuagoa da. Goierriekin alderatuaz ezberdintasuna zerbait baxuagoa da (%58,1). Bestalde, mugikortasunaren pisua "Bizi den udalerrian" beste kasuekin alderatuaz baxuagoa da Ordizian (%27,9), EAE (%46,7) eta Gipuzkoan (%48,1) baino. Goierriekin kasu honetan ere, ezberdintasuna txikiagoa da (%33,6).



Iturria: EUSTAT. Censos de Población y Viviendas (CPV01).

Antzeko zerbait gertatzen da ikasketengatik ematen den ikasleen mugikortasunarekin. Honela, "EAeko beste udalerrietako" mugikortasunak pisu antzekoa dauka Ordiziako kasuan (%51,8), EAE (%50,8) eta Gipuzkoarekin (%49,7) alderatuaz. Ordea, eskualdearekin alderatuaz mugikortasun balioa txikiagoa da (%73,7).



Iturria: EUSTAT. Censos de Población y Viviendas (CPV01).

Bestalde, "Bizi den udalerriko" mugikortasunak pisu antzekoa dauka Ordiziaren kasuan (%42,7) besteekin konparatuz, Euskal AE (%42,6) eta Gipuzkoa (%42,7). Goierriko kasuan berriz Ordiziako pisua handiagoa da (%21,0).

### 6.2.2. Trafikoaren intentsitatea

Ordiziako errepide nagusietan antzemandako intentsitateei buruzko datuak Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio eta Errepide Sailaren aforalekuek emandakoari dagozkie.

Lehenago aipatu bezala, N-1 Lehentasunezko Sareak Ordiziako udal-muga zeharkatzen du. Aipatu, bide-azpiegiturak aforaleku bat duela Yurre-Beasain izeneko kokagunean. Aforaleku horrek udalerritik igarotzean emandako emaitzak ondorengo lerroetan azaltzen dira.

Lehendabizikoz, joan-etorrien maiztasuna handiagoa da Vitoria-Gasteizeko norabidean, Donostiakoan baino. Aldi berean, Eguneko Batez besteko Intentsitateek ia %45eko hazkundera izan dute 1995-2002 denboraldian.

Bigarrenkoz, azken urtean Yurre-Beasain izeneko aforalekuan erregistratutako trafikoa nahiko handia: 22.086 ibilgailu, horietatik % 66 ibilgailu arinak, eta beste % 34 ibilgailu astunak, eta % 12,7k atzerriko matrikula izanik.

#### Eguneko Batzbesteko Intentsitatearen (E.B.I.) eboluzioa N-1 1995-2002.

Urtea	E.B.I. Guztira		1 norabidea		2 norabidea	
1995	15.243		8.009		7.234	
1996	15.694		8.019		7.675	
1997	16.778		8.694		8.084	
1998	18.133		9.507		8.626	
1999	19.231		10.077		9.154	
2000	19.609		10.335		9.274	
2001	21.602		11.145		10.457	
2002	22.086		11.245		10.841	
Urtea	E.B.I. Guztira	E.B.I Atzerria	% Motozikleta	% Arinak	% Astunak	
1996	15.694	2.134	0%	65%	35%	
1997	16.778	2.308	0%	68%	32%	
1998	18.133	2.398	0%	64%	36%	
1999	19.231	2.511	0%	64%	36%	
2000	19.609	3.019	0%	65%	35%	
2001	21.602	2.539	0%	63%	37%	
2002	22.086	2.825	0%	66%	34%	

Iturria: Gipuzkoa.net

N-1 errepideko beste aforalekuekin alderatuz gero, Etxegaratekoa eta Itsasondokoia; Yurre-Beasain deritzon aforalekua ertaineko egoeran dago ondoko bi aspektu hauei dagokienez:

joan-etorrien kopurua, eta Eguneko Batez besteko Intentsitatearen (EBI) bilakaera azken bi hamarkadetan.

#### E.B.I ren eboluzioa 1980-2002 n-1.

P.k.	Deskripzioa	1985-1980	1990-1985	1995-1990	2000-1995	2002-2000
404.4	Etxegarate	-3,19	15,43	41,08	13,43	0,40
416.4	Yurre-Beasain	-	-	15,82	28,64	12,63
424	Itsasondo	-	-	-	55,62	2,62

Iturria: Departamento de Transportes y Carreteras de la DFG, 2004.

Ordiziako udalerrria zeharkatzen duen beste errepide garrantzitsua, Eskualde mailako GI-2133 errepidea da, E.B.I.-aren eboluzioak erakusten digu 1995. urtetik 2002. urtera autoen zirkulazioaren gorakada nabarmena izan dela, konkretuki 1.244 autotatik 4.366ra pasa delako.

1999. urterarte eguneko trafikoaren intentsitate osoa Ordiziarako norabidean gertatzen zen, ordea, urte honetatik aurrera bi norabidetan ematen da. Honela, eguneko batez besteko intentsitatea Alegiarako norabidean handiagoa da, nahiz eta, Ordiziarako norabideko trafikoarekin parekatzen joan den. Honela, 2002. urtean %50,9ko intentsitatea Alegiarako norabidean izan zen, aldiz geratzen den %49,1 Ordiziarako zentzuan izan zen.

(Ordizian kokatuta, Ordizia y Zaldibia artean)

Errepidea		Mota		Alta-data
GI-2133		24		1988
Kokalekuaren P.Km.		Hasierako P.Km.		Bukaerako P.Km.
1.3		0		3.5
1 Norabidea		2 Norabidea		Deskribapena
ORDIZIA		ALEGIA		CASERIO AIZPURU-ETXE
Urtea	E.B.I. Guztira	1 Norabidea	2 Norabidea	
1995	1.244	1.244	0	
1996	4.703	4.703	0	
1997	3.996	3.996	0	
1998	3.964	3.964	0	
1999	4.254	1.926	2.328	
2000	4.343	2.108	2.235	
2001	4.542	2.262	2.280	
2002	4.366	2.143	2.223	

Iturria: Gipuzkoa.net

GI-2133 errepideko gainerako aforo estazioekin alderatuaz, Ordiziako estazioan trafiko bolumen handiagoa erregistratzen da Zaldibian dagoenarekin alderatuaz, izan ere, azken honek adierazle negatiboa aurkezten duelako 2000-2002 epealdian, aldiz, Ordiziakoa epe berean adierazle positiboarekin erregistratzen da, nahiz eta, aforo estazioan izugarriko

beherakada gertatu den, konkretuki %40tik (1995-2000. urterarteko epea) %0,53ra (2000-2002).

#### GI-2133 errepidearen E.B.I ren eboluzioa 195-2002 epean.

<i>p.k.</i>	<i>Deskripzioa</i>	<i>1985-1980</i>	<i>1990-1985</i>	<i>1995-1990</i>	<i>2000-1995</i>	<i>2002-2000</i>
1.3	Ordizia	-	-	-	40,14	0,53
5.3	Zaldibia E.	-	-	-	16,07	-15,77

*Iturria: Departamento de Transportes y Carreteras de la DFG, 2004.*

#### 6.2.3. Garraio Zerbitzuak

- *Trena*

Garraio publikoaren eskaintzari dagokionez, Ordizian RENFE estatuko enpresaren Irun-Brinkola eta Madrid-Irun lineek emandako zerbitzua dago.

- *Errepide bidezko Garraio Zerbitzua*

Udalerrian egun hainbat autobus lineak funtzionatzen dute, zeinak udalerrria Gipuzkoako Lurralde Historikoko hiriburuarekin (Donostia) eta beste helmuga batzuekin lotzen duten. Autobus linea hauek honakoak dira:

#### GERTUKO AUTOBUSAK

Linea: Zegama – Ordizia

Linea: Ordizia-beasain-Idiazabal

Herri Txikietako Zerbitzua: Ordizia- Arama-Altzaga-Gaintza

Linea: Ordizia-Ataun

Linea: Legorreta-Itsasondo-Ordizia-Beasain-Ormaiztegi-Zumarraga (Hospitala)

#### IBILBIDE LUZEKO AUTOBUSAK

Linea: Donostia-Bilbo

Linea: Irun-Madril

Linea: Donostia-Lizarra



### 6.3. Udal barruko higikortasuna

#### 6.3.1. Higikortasunaren ezaugarriak

Atal honetako informazioa ez dago eskuragarri.

#### 6.3.2. Garraioak

##### 6.3.2.1. Parke mugikorra

2002. urteko EUSTAT-eko datuen arabera, Ordizian 4.589 ibilgailu erregistratzen ziren; zifra honek 8.945 pertsonatako biztanleria duen udalerrri batentzat 513 ibilgailu/1000 biztanleko motorizazio adierazlea suposatzen du, zeinak, balore handia suposatzen duen. Ibilgailu moten sailkapenaren barnean, azpimarragarria da kamioien kopuru handia, izan ere, Ordiziako ibilgailu parkearen %15 suposatzen dutelako.

##### Ordiziako parke mugikorra. 2002.

<i>Turismoak</i>	<i>Motorrak</i>	<i>Kamioiak</i>	<i>Autobusak</i>	<i>Ind. traktoreak</i>	<i>Besteak</i>	<i>Guztira</i>
3.411	124	681	-	133	240	4.589

*Iturria: EUSTAT, 2002.*

EUSTAT-ek eta Ordiziako udal erroldak eskainitako datuen arabera 1985-2002. urteen bitartean gertatutako ibilgailu kopuruaren hazkundea azpimarragarria da, izan ere, 1985. urtean erregistratzen zen 221 ibilgailu/1000 biztanleko batz bestekotik 513 ibilgailu/1000 biztanleko batez bestekora iragaten garelako.

##### Turismo kopuruaren eboluzioa 1.000 biztanleko (1985-2002).

<i>Urtea</i>	<i>Turismo kopurua</i>	<i>Turismoak mila biztanleko</i>
1985	2.153	221
1987	2.280	242
1993	2.701	290
1996	2.838	311
1997	2.885	317
2001	3.364	376
2002	3.411	378

*Iturria: Elaboración propia a partir de los datos del censo municipal y de EUSTAT.*

##### 6.3.2.2. Pertsona eta talde elbarrien ailegarratasun eta higikortasuna

Ordiziak ez du Udal Irisgarritasun Planik.

#### 6.3.3. Bide Segurtasuna

Nahiz eta udalerrriak ez duen Irisgarritasun Planik, Ordiziako 2007. urterako Plan Estrategikoan aurrikusten den ekintzetako bat "Trafikoaren hobekuntzarako, garraibideen erabilpenerako eta aparkaleku berrien sorrerarako jarraipen sistema" baten sorrera da.

Sistema hau martxan jartzeko epea, lehenetsun handiarekin, 2004. urtea da eta Ordiziako Udaletxeak aurrera eramango duen ekintza da.

Honela, errepide sistemaren hobekuntzara lagunduko duen informazio sistema bat sortzean datza, ondoko helburu hauekin:

- Oinezkoaren segurtasunari lehenetsuna emanaz.
- Oinezkoen eta autoen arteko elkarbizitza orekatua lortzea, errepide sarearen efizientzia handituz.
- Trafikoa erlajatu, abiadura murriztuaz.
- Zarata maila murriztu.
- Garraio publikoa eta motor gabeko garraioa bultzatu.
- Egun dauden aparkalekuak hobetu eta bultzatu (Adibidez: San Bartolomeko aparkalekuaren kasua).
- Herrigunetik gertu dauden eremuetako aparkalekuetan txandaketa handiagoa egon dadin, OTA sistema bat ezartzearen aukera aztertu.
- Aparkaleku plaza berriak sortu (teknikoki lurrazpiko aparkaleku berriak sortzeko aukerak aztertuaz: Buztuntzan, Torresoleko eremuan eta Anselmoren baratzeko eremuan).

#### **6.3.4. Aparkalekuak**

2007rako egina dagoen Ordiziako Plan Estrategikoaren helburuetako bat "Bertakoentzako aparkamentuen hornidura eta txandakako aparkamentuak" da, zeina jarraian azalduko dugun.

Hirigune gehienetan gertatzen den moduan, hiri egituren ahultasun bat da aparkalekuen arazoa, zeina, erdi eta epe luzera okertu egingo denaren aurrikuspena dagoen.

Ordiziako udalerrriak, Beasain-Ordizia-Lazkaok osaturiko multzoan papel nagusia jokatu nahi badu, eta soziokomunitarioki eragin nagusia duen eremuak aurreko garaian izan duen garrantzia mantendu nahi badu Beasain-Ordizia-Lazkaok osaturiko multzoaren barnean eta eremu funtzionaleko bizitza soziokomunitarioan, esfortzu garrantzitsua egin beharko du Lurraldearen Zatiko Planak aurrirakusten dituen ekintza estrategiko esanguratsuenak materializatzen eta honela, Ordizian soziokomunitarioki eragin nagusia duen eremura modu erosoan iristea posibilitatuko duen aparkaleku sistema garatuaz.

Lurraldearen Zatiko Planak proposatzen dituen ekintza estrategiko nagusien garapenak aparkalekuen sistema oso bat garatzea suposatuko du N-1etik dagoen sarreretako baten inguruan eta soziokomunitarioki eragin nagusia duen eremuan.

## 7. URA

### 7.1. Ur baliakizunak

Aralarko mendilerroaren ezaugarriek zona hau euri-ibai askoren jaiotze lekuan bihurtzen dute, ondorioz, uren ezaugarri fisiko eta kimikoek berebiziko garrantzia izango dute arroetan. Inguruko udalerriei ur bilketa txikien bidez hornitzeaz gain, urbide hauetako batzuk Lareoko eta etorkizuneko Amondaraingo urtegitara dauden arroetara drainatzen dute.

Uraren esparruari begiraturaz, bai azaleko zein lurrazpiko urak kontutan hartuz, Aralarko azalera 4 zatitan banatu daiteke : Agauntza, Zaldibia, Ibiur eta Amezketa.

Orokorrean Aralarko urbideak bai luzera eta baita ur kopuruan ere txikiak direla esan behar da. Alde batetik garrantzi naturalistikoa dute bere baitan balio altuko ekosistemak aurkitzen baitira eta bestetik, garrantzi ekonomiko handia dute ekoizpen hidroeletrikorako eta kontsumorako hornidura ur-jasotze puntu asko baitituzte. Aralarko urbideetan udan eta udazken partean ur kantitatea murriztu egin ohi da, nahiz eta murrizketa hori ez den oso nabaria. Plubiometria eta lurrazaleko uraren artean dagoen erlazioa, euri jasa handiak gertatzen diren denboraldi baten ondoren agertzen diren iturburu, ur-sorburu eta urmaelen kopuru handiak agerian uzten du.

### 7.2. Hornidurak eta Kontsumoak

#### 7.2.1. Herri hornidurarako sarearen ur- bilketa

##### Hornidura

Goierriko hornidura sistema bi urtegitaz eta bost Ur Edangarrirako Tratamendu Estazio (UETE)k osatzen dute. Urtegiak honakoak dira: Arriaran Beasainen, zeinek Ormaiztegi, Segura, Idiazabal, Olaberria, Beasain, Ordizia, Lazkao, Itsaondo, Arama, Alzaga, Orendain, Gaintza, eta Legorretako udalako hornitzen dituen eta Lareo Ataunen, zeinek Ataungo udala hornitzen duen. Arriarango sistemak 35.000 biztanleri eskaintzen dio ur edangarria.

##### □ *Arriarango Urtegia*

Arriarango urtegia hormigoiko konpaktatuaz dago osatua. 3.200.000 m<sup>3</sup> ko ahalmena du, 57 m ko altuera eta erregulazio-ahalmena 250 l/seg-koa da.

Beasain, Ordizia, Gaintza, Olaberria, Idiazabal, Segura, Ormaiztegi, Lazkao, Itsasondo, Legorreta, Arama, Orendain eta Alzagako udalak hornitzen ditu.

□ *Arriarango E.U.A*

Arriarango Edateko Uraren Araztegian, urtegitik datorren ura edangarri bihurtzen da. 225 l/s-ko tratamendu-ahalmena du eta urtero eskualdeko herrietan 3.500.000.000 litro banatzen ditu gutxi gorabehera. EUAn urak jasotzen duen tratamendua ondoko prozesu hauek osatzen dute: aurretiko ozonizazioa, erreaktiboak nahasteko kamera, dekantazioa, tarteko ozonizazioa, iragazketa, fluorazioa eta desinfekzioa.

□ *Lareoko Urtegia*

Lareoko Urtegiak Ataungo udala hornitzen du eta leorte kasutan Arriarango sistemaren laguntza moduan erabil daiteke. Hormigoizko pantailaduna, nasa motakoa da. Biltegitratze ahalmena 2.400.000 m<sup>3</sup> koa da.

Urtegiaren altuera 67 m-koa da eta erregulazio-ahalmena 200 l/segkoa da. Egundaino egindako inbertsioaren guztizkoa, urtegia UETEA eta depositoak barne 6.000 milioi pezeta ingurukoa da (36.000.000 €).

Ataun eta Lazkaoko(??) udalak hornitzen ditu.

Bai altako sarea baita bajako sarea ere Gipuzkoako Ur Partzuergoak kudeatzen ditu.

## 7.2.2. Ur Kontsumoa

### Sareko Ura

Gipuzkoako ur Konsortzioak eskinitako datuen arabera 2003. urtean Ordiziako udalean kontsumitutako ur kantitatea 679.101 m<sup>3</sup>-koa izan zen; horietatik guztiak Arriarango urtegitik hartuta.

Zentrua	Bezeroa	Deposittoa	4. hiruhile.	3. hiruhile.	2. hiruhile.	1. hiruhile.	guztira urtean
<b>ARRIARAN</b>	<b>Ordizia</b>	Municipal	187.209	189.738	149.441	152.713	<b>679.101</b>

Iturria: Gipuzkoako Ur Kongsortzioa, 2004

**Etxetako kontsumoa**

2003 urtean zehar Ordiziako udalerrian, eguneko etxetako batazbesteko ur kontsumoa 1.420,4 m<sup>3</sup>/eguneko izan zen, 157,4 l/biz./egun baliokidea, Gipuzkoako Ur Kontsorzioak hornituriko Goierriko udalerrien guztizkoan lorturiko batazbestekoa baino altuagoa, 147 l/biz./egun.

**Ordizia eta Goierriko ur kontsumoa 2003.urtean**

	<b>Ordizia</b>	<b>Goierri</b>
<b>Etxetako kontsumoa (m<sup>3</sup>)</b>	518.458	2.028.293
<b>Batazbestekoa (l/bizt/*egun)</b>	157,45	147

Iturria: Gipuzkoako Ur Kontsorzioa, 2004

**Etxez kanpoko ur kontsumoa**

Kontzeptu honen barnean etxekoen desberdinak diren kontsumo guztiak sartu behar dira, hau da: merkataritza eta industria kontsumoa, udal bulegoak,... 2003 urtean etxekoa ez den kontsumo honek 560,6 m<sup>3</sup>/egun suposatu zuen, zeinaren baliokidea 62,1 l/biz/egun den.

	<b>Ordizia</b>	<b>Goierri</b>
<b>Etxez kanpoko kontsumoa (m<sup>3</sup>)</b>	204.622	1.147.155
<b>Batazbestekoa (l/bizt/*egun)</b>	62,1	83,2

Iturria: Gipuzkoako Ur Kontsorzioa, 2004

**7.2.3. Arazketa eta banatze eragiketako energia kontsumoa**

Atal honetako informazioa ez dago eskuragarri.

**7.2.4. Ur tarifak**

Atal honetako informazioa ez dago eskuragarri.

**7.2.5. Ur kontsumo eta erabileraren ikuspegi integratua**

Atal honetako informazioa ez dago eskuragarri.

### 7.2.6. Hornikuntza uren kalitatea

Kontsumo ur sarearen kalitate-kontrola Eusko Jaurlaritzako Osasun- Sailak eta Gipuzkoako Ur Konsortzioak egiten dute. Gipuzkoako Ur Konsortzioak eskainitako datuen arabera hornikuntza uren kalitatea neurtzeko analisis egiteko definitutako parametroak honakoak dira:

- *Temperatura:* **12° C**
- *Kloro aske hondakinak:* **0,7 mg/l**
- *Fluoruroak:* **0,6 mg/l**
- *Konduktibigarritasuna:* **1.500 µS/cm-1 a 20°C**
- *Amoniakoa:* **detekzio limite txikiena**
- *Nitratoak:* **detekzio limite txikiena**
- *Guztizko koliformeak:* **Eza**
- *Hondakin koliformeak:* **Eza**
- *Uhertasuna:* **0,1 UNF**

### 7.3. Hondakin-urak

#### 7.3.1. Estolda sarea

Goierriko uren arazketa sistema honako kolektoreek osatzen dute: Ezkio-Itsaso-Ormaiztegi Ezkio Ibaian, Ormaiztegi-Beasain Estanda ibaian, Segura-Idiazabal-Beasain Oria ibaian, Beasain-Ordizia-Itsasondo Oria ibaian, Ataun-Lazkao-Ordizia Agauntza ibaian, Zaldibia-Ordizia Amundarain ibaian eta Itsasondo-H.U.A.\* Oria ibaian eta Legorretako H.U.A.\*

Oria ibaira isuritako hondakin-urak biltzen dituen kolektorea hormigoi armatuzkoa da. 1.200 mm-ko gehieneko diametroa du eta 14 km-ko luzera gutxi gorabehera, 1.000 l/s-ko gehieneko garraio-ahalmenarekin. Sistemak gainezkabideak ditu.

**Legorretako HUA-ren kolektoreak**

<b>Kolektorearen izena</b>	<b>Guztizko luzera (m)</b>
<b>Ezkio-Itsaso-Ormaiztegi</b>	12.000
<b>Ormaiztegi-Beasain</b>	3.500
<b>Segura-Idiazabal-Olaberria</b>	
<b>Beasain-Ordizia-Itsasondo</b>	14.000
<b>Ataun-Lazkao-Ordizia</b>	6.000
<b>Zaldibia-Ordizia</b>	4.000
<b>Itsasondo-EDAR de Legorreta</b>	1.500
<b>Olaberria-Beasain</b>	3.500

*Iturria: Red de Vigilancia de las Masas de Agua Superficial de la C.A.P.V, 2002*

□ *Ataun-Lazkao-Ordizia kolektorea*

Agauntza ibaira isuritako hondakin urak jasotzez dituen kolektorea hormigoi armatuz eginda dago, 600mm ko lodiera maximoaz eta gutxigorabehera 6 Km -ko luzera duelarik sistema bere gainezkabideak baditu.

### 7.3.2. Hondakin-uren isurketa puntuak

Oriako ibaiadarren uren kalitatea ardatz nagusiaren urena baino kalitate hobegokoa da nagusiki, izan ere, gehienak isurketaz eta uraren kalitatea mintzen duten erabilerataz libratzen baitira. Agauntza ibaiaren erregimen hidrologikoa Lareoko urtegiaren erregulazioaren menpe dago, horren ondorioz, ibaieko ur-emia minimoa da.

Ur hertzeko landaretzak Zaldibia ibaiaren lehen zatian agertzen duen egoera "natural" gisara kalifikatzen da. Esan genezake ibaiaren lehen zatian zuhaitz estaldura ona mantentzen dela. Ordea, basoen esplotazioak berezko landaretzan eragina izan du, izan ere, ordezkaturia izan delako baso espezieengatik.

Euskal Autonomi Erkidegoko Lurrazaleko Ur Masen Behategi Sareak 2002. urtean Agauntza ibaiean 9 isurkin kuantifikatu zituen; horietatik ia erdia hiri-hondakin motakoak ziren eta bestea prozesu industrialei loturikoak (metalaren tratamenduak, hozketa eta lantegi mekanikoak).

Uren Zuzendaritzak eskainiriko datuei jarraiki, azken laurtekoan (2000-2003) egin diren muestra analitikoek erakusten dute mota honetako kutsadura sortzen duen lantegi nagusia Orkli S.Coop. Ltda. da.

Muestretan aurkituriko elementuak honako hauek izan ziren: solidoak, sustantzia

sedimentagarriak, Zinc, Burdina, Kromo totala, Nikela, Kobrea, detergente anionikoa, Fosforo totala eta olio eta grasak.

### Hondakinen isurpena Ordizian

<i>Empresa</i>	<i>Analisiaren data</i>	<i>Emaria (l/s)</i>	<i>pH</i>	<i>Konduktibitatea (μS/cm)</i>	<i>DQO (mg/l)</i>
<b>Orkli S.Coop.Ltda.</b>	09/05/2000	0	8,02	387	82
	27/06/2000	0	7,81	320	68
	24/10/2000	2,6	8,37	317	74
	13/02/2001	4,4	8,08	432	80
	17/07/2001	1	6,86	340	42
	18/07/2001	0	6,73	298	26
	19/07/2001	0	6,76	298	20
	20/07/2001	0	6,95	633	377
	07/11/2001	1,8	7,44	409	15
	16/05/2002	0	7,48	409	0
	13/11/2002	2	7,33	502	140
	14/05/2003	0	7,47	608	82
	18/11/2003	0	8,07	832	0

*Iturria: Dirección de Aguas del Gobierno Vasco, 2004.*

### 7.3.3. Hondakin-uren tratamendua

Gaur egun Oriako uniate hidrológicoaren saneamendu-azpiegiturak osatzen ari dira, beraz, H.U.A. berrien agerpenak unitate honen uren kalitatea hobetzea espero da.

Oriako unitate hidrológicoak hir eta industria garapen garrantzitsua bizi izan du eta horren ondorioz gaur egun dauden azpiegiturak hobetzea beharrezkoa da uren konposizio kimikoa hobetzeko.

Goierriko eskualdeko saneamendu-sistema Ezkio-Itsaso, Ormaiztegi, Segura, Idiazabal, Olaberria, Beasain, Ordizia, Lazkao, Ataun, Zaldibia, Arama, Alzaga, eta Itsasondoko udalerriei eta Legorretako H.U.A.ari dagokiona da.

### Gaikao (Legorreta) HUA-ren ezaugarriak

	<i>Gaikao HUA (Legorreta)</i>
<b>Jabetasuna</b>	Gipuzkoako Foru Aldundia
<b>Ustiatzen duen erakundearen izena</b>	Gipuzkoako Ur Kontsorzioa
<b>Eraikuntza urtea</b>	2002
<b>HUA-ren egoera</b>	Eraikia
<b>N-ren ezabaketa</b>	Bai
<b>P-ren ezabaketa (kimikoki)</b>	Bai

*Iturria: Red de Vigilancia de las Masas de Agua Superficial de la C.A.P.V, 2002*



□ *Legorretako HUA*

Legorretako Hondakin Uren Araztegiaren diseinua lokatz aktiboen motakoa da eta bi etapa ditu, nitrogenoaren ezabapen biologikoarekin. Karga kutsatzailea 60.000 bizt./baliok.koa du, aurretratamendurako gehieneko ahalmena 900 l/s-koa eta tratamendu biologikoarena 365 l/s-koa. Urtean 3.000.000 m<sup>3</sup> tratatzen ditu.

Orain artean egindako inbertsioa (kolektoreak+HUA\*) 1.500 milioi pezetakoa da eta 5.000 milioikoa dago egiteko (kolektoreak+HUA).

Ur Kontsorzioak eskaintako datuen arabera, 2003. urtean 2.460.000 m<sup>3</sup> ur araztu zuen, zeinetatik 565 tonelada lokatz eta 138 tonelada zabor atera ziren.

#### **7.3.4. Indarrean dagoen legediaren betetze maila**

Ur-hornidurari dagokionez, edateko uren Osasunerako Arautegi Teknikoa onesten duen 1138/90 Errege-Dekretua dago. Honek, beste gauzen artean, uraren kalitatearen analisiak maximoki izan dezakeen maila eta maiztasuna ezartzen ditu.

Saneamenduko sareari dagokionez, 1998ko otsailaren 20koa den Gipuzkoako Ur-kontsortzioaren Kolektorean Isurtzeko Arautegi Arautzailea eta errekarara doazen isuriaren Araudia daude.

## 8. HONDAKINAK

### 8.1. Hiri-hondakin solidoak

#### 8.1.1. Ekoizpena

Sasietako Mankomunitatea, Ordizia, Goierriko gainontzeko udalek eta Urola Garaikoek osatzen duten udalaz gaindiko erakundea, bertako hiri-hondakinen bilketa, garraio, tratamendu eta kanporaketaz arduratzen da.

Sasietako Mankomunitatea hondakinen arazoari irtenbide bat bilatzeko sortu zen. Sasietako zabortegei kontrolatua 1991ean inauguratu zen, aurretik martxan bazegoen ere. Urte bat beranduago hondakinen bilketa mankomunatu zen. Era berean, 1992 urtetik aurrera bereizketa bultzatzen hasi zen, 1992an soilik beira berziklatzetik gaur egun banandurik biltzen diren 8 materiale talde desberdinetara iritsiz.

Gipuzkoako Hiri-hondakinak Kudeatzeko 2002-2016ko Plan Orokorrak emandako informazioaren arabera, Sasietako Mankomunitatean etxeko hondakinetako frakzio ezberdinen gaineko karakterizazio-azterketa honako hauxe zen:

#### Sasietako Etxeko Hondakinen karakterizazioa. 2000-2001

<i>Materialak</i>	<i>Etxeko Hondakinak (% pisua)</i>
<i>Materia organikoa ustelkorra</i>	32,37
<i>Papera eta kartoia</i>	30,03
<i>Beira</i>	11,95
<i>Plastikozko ontzi arinak</i>	8,89
<i>Ontzi ez diren bestelako plastikoak</i>	1,59
<i>Ontzi arin metalikoak</i>	2,64
<i>Ontzi ez diren burdinezko metalak</i>	0,12
<i>Bestelako ontziak</i>	1,84
<i>Etxeko hondakin arriskutsuak</i>	0,07
<i>Nahastuak</i>	4,63
<i>Tamaina handikoak</i>	4,51
<i>Inerteak</i>	1,35
<b>GUZTIRA</b>	100

*Iturria: Gipuzkoako PIGRU 2002-2016ko datuetan oinarrituriko berezko elaborazioa.*

Ordiziako etxeko hondakinen bilketa arrunta beste udalerrri batzuetatik barrena pasaz ibilbide bat ezarria duen ibilgailu batek egiten du. Horregatik, ezinezkoa da udalerrrian jasotzen den etxeko hondakinen kopurua zehaztasunez jakitea.

Mankomunitateak emandako 2003ko datuen arabera, sortutako etxeko hondakinen kopurua lehendabizikoz murriztu da, aurreko urteetan gertatu ez beste. Dena dela, hondakinen sorreran izandako jaitsiera hori apala izan da. Urte horretako datuek zera erakusten dute;

urtean biztanleko 455,3 kilo sortu dira, hots, batez besteko 1 kilo biztanleko eta eguneko.

<b>Urtea</b>	<b>Kg./bizt. /urte</b>	<b>Kg./bizt./egun</b>
<b>1995</b>	313	0'85
<b>1999</b>	423	1'1
<b>2000</b>	440	1'2
<b>2001</b>	441	1'2
<b>2002</b>	458	1,2
<b>2003</b>	455,3	1

*Iturria: Sasieta Mankomunitatearen 2003. urteko Memoriatik hartutako datuetatik landuta*

2003. urtean zehar Sasieta Mankomunitateko biztanle bakoitzak bota duen zaborren batez bestekoa 363 kg ingurutakoa da, hau da, kilogramo bat eguneko. Kantitate honetaz gainera, birziklatuak izan diren hondakinen desglosea honako hau da.

<b>Hondakin mota</b>	<b>Kg./bizt. /urte</b>
<b>Jasotze arrunta</b>	336,8
<b>Tamaina handikoak</b>	14
<b>Merkatuak</b>	9
<b>Hondakin ez birziklagarriak</b>	3,33
<b>HONDAKINAK GUZTIRA</b>	<b>363</b>
<b>BIRZIKLATUAK GUZTIRA</b>	<b>92,3</b>
<b>SORTUTAKOAK GUZTIRA</b>	<b>455,3</b>

*Iturria: Sasieta Mankomunitatea, 2004.*

2000. urtean Sasieta Mankomunitateak argitaratutako txostenaren arabera, Ordizia da gaikako biltzearen inguruan kontzientziazio maila altuena aurkezten duen udalerria. 2000. urtean, Ordiziar bakoitzak 73 kg bildu zitu gaikako bilketako ontzietan batez beste. Aldiz, mankomunitateko batez bestekoa 59 kg/biztanlekoa izan zen. Beira, ontzi arinak baita paperaren kasuan ere emaitza onenak lortu dituen udalerria izan da.

Pertsonako hondakinen Europako batez bestekoari erreparatzen badiogu, zeina 425-450 kg/pertsona/urtea den, Sasieta Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako biztanleen batez-bestekoa muga hauen barnean kokatzen da. Nahiz eta hondakinen sorreraren kopuru hauek altuak diren, E.A.E.-ko batez bestekoa baino zertxobait baxuagoak dira, izan ere, batez besteko hau 504 kg/pertsona/urtekoa izan zelako (1,4 kg/egun/pertsona).

2000. urteko Urtarrilaren 5ean Ingurugiro Ministerioak Hiri Hondakinen Plan Nazionala onartu zuen (PNRU), zeinetan estatu mailako berreskurapen helburuak espezifikatzen diren. Plan honetan, 2002. urterako hondakinen sorreraren batez bestekoa 441 kg/pertsona/urtean ezarri zen.

**8.1.2. Hondakinen biltze, garraio eta tratamendu azpiegiturak**

Sasietako Mankomunitateak Ordizian eskaintzen dituen bilketa eta garraio zerbitzuak honako hauek dira:

<b>Bilketa mota</b>	<b>Maiztasuna</b>	<b>Enpresa kontratatua</b>
<b>Etxeko hondakinak eta beste hiri-hondakinak</b>	Egunero: 6 egun/asteko. Gauko ordutegia , larunbat gaua ezik.	FCC, S.A.
<b>Merkatuetako hondakinak</b>	Astero	FCC, S.A.
<b>Hildako etxabereak (zakurrak eta katuak)</b>	Egunero: Dei bidez	FCC, S.A.
<b>Beira edukiontzi berdeen bidez</b>	Betetze mailaren arabera 1-2-3 aldiz/hileko	“Servicios logísticos Aringar” para ECOVIDRIO
<b>Papera edukiontz urdinen bidez</b>	Betetze mailaren arabera 1-2-3 aldiz/hileko	CESPA, S.A.
<b>Ontzi arinak edukiontzi horien bidez</b>	Betetze mailaren arabera 1-2-3 aldiz/hileko	CESPA, S.A.
<b>Etxeko olioak</b>	Hilero Hileko leen astelehenean	
<b>Industria eta saltokietako kartoia atean biltzea</b>	Saltokietako kartoia: Egunero, astelehenean ostiralera. Industriako kartoia: Astean bi aldiz (asteartea eta ostirala). Ibabe eta Zubierreka.	CESPA, S.A.
<b>Industriako egurren bilketa</b>	Ibabeko industrialdea Asteazkena arratsaldean	
<b>Pilak saltokietan</b>	Bi hilabetean behin	
<b>Arropa erabilia</b>		
<b>Taimana handiko hondakinak</b>	Astero Asteazkena	FCC,S.A.

Iturria: Sasietako Mankomunitatea, 2004

Sasietako Mankomunitatea Ordizian sortutako hiri-hondakin solidoen bilketaz eta kudeaketaz arduratzen da. Udalaz gaindiko entitate horrek Goierri eta Urola Garaia eskualdeetako 22 udalerrri batzen ditu eta 64.861 biztanleen premiei erantzuten die.

- **Bilketa eta Garraioa**

Gaikako bilketa jatorrian 4 edukiontzi-motaren bitartez egituratuta dago: materia organikoa eta ez-balorizatua, beira (berdea), papera (urdina) eta ontzi arinak (horia).

Gaikako bilketako edukiontziak 3 m<sup>3</sup> –tako gaitasuna dute, aldiz, zaborrontziak 1.100 litrotakoak dira orokorrean (nahiz eta azoka eta materia organikoa sortzen duten hainbat

saltokitako 240 litrotakoak ere badauden).

Sasietako Zerbitzu Teknikoak udal teknikarien lankidetzaz instalatu beharreko edukiontzien kopurua eta kokapena ezartzeaz arduratzen dira.

Zaborraren jasotze eta garraio kudeaketa eta baita edukiontzien ezarpena, garbiketa, mantenimendu eta berrezarpena Fomento de Construcciones y Contratas, S.A. (FCC; S.A.) enpresak egiten du.

Papera, dendetako kartoiaren eta ontzi arinen jasotze eta garraio eta baita edukiontzi urdin eta horien garbiketa eta mantenimendua CESPAS, S.A enpresari adjudikatu zaio.

Beiraren jasotze, garraio eta balioztatzea eta baita edukiontzien ezarpena, garbiketa, mantenimendu eta berrezarpena Eusko Jaurlaritzaren ECOVIDRIO Sistema Integratuaren esparru-hitzarmen baten bitartez egiten da. Beiraren jasotzea "Servicios Logísticos Aringar" ECOVIDRIOk azpikontraturiko enpresak egiten du.

Pila eta telefono mugikorrek saltzen diren denda beretan jasotzen dira. Bi hilabetero egiten da jasotzea, azalera handiko dendak izan ezik, kasu hauetan 15 egunetik behin egiten delarik. Jasotako pilak Urretxuko Garbigunean jasotzen dira epe baterako eta ondoren RECYPILOS S.A. enpresari bidaltzen zaizkio. Enpresa honetan birrintze prozesua egiten da eta destilazio kontrolatua jasaten dute honela, pilen osagai gehienak errekuiperatu eta birziklatzen direlarik.

Beste hondakin batzu ere, objektua sortu edo saldu den toki berean biltzen dira. Sendagaien kasuan botikatan jasotzen dira, Farmazia sektoreko ontzien jasotze eta kudeaketa sistema integratuaren bidez (SIGRE), zeinak ontzien birziklapenean eta sendagaien kondarren desagerketan kudeaketa egokia bermatzen duen.

Automozioan erabilitako olioak baimendutako kudeatzaileek jasotzen dituzte. Olaberriako CARREFOURean gainera, gidariek egindako olio aldaketatean sobratutako olio jasotzeko edukiontzi berezi bat dago. Horren ondoren, erabilitako olio Zamudioko Birziklaketa Zentru Aintzindarira eramaten da eta han tratamanedu fisiko-kimiko baten ostean berriro erabiltzeko prest gelditzen da.

2001. urtean sukaldeko olio bejetalaren jasotzea hasi zen. Olio hau birziklatzeko eta BioDiesel bihurtzeko EAEn enpresa bat sortu da, "Bionor Transformación", Berantevilla (Araba) . Para reciclar este aceite y su transformación en biodiesel se ha formado una empresa vasca llamada", ubicada en Berantevillan (Araba) kokatua dagoena. Jasotze mota hau momentuz Beasain, Ordizia, Lazkao, Ordiziako Maxi-Eroski eta Olaberriako Carrefour-en egiten da. 2002. urtean jasotzea Zumarraga, Urretxu eta Legazpin ere egiten hasi zen.

Urtero mankomunitatea osatzen duten udalerrietan dauden 11 dendek bidez urtean behin edo bitan materiale optikoaren jasotze kanpaina bereziak egiten dira. Azkenengo kanpainan 2000 betaurreko eta lente inguru jaso ziren. Jasotako materialaren gehiengoa Medicus Mundi erakundeari eman zitzaion Dodomako (Tanzania) proiektu bat aurrera ateratzeko,

25.000 pertsona inguru izan zirelarik onuradun.

2001eko udaberrian, poltsikoko telefonoak jasotzeko kanpaina bati hasiera eman zitzaion pilak biltzeko logistika bera erabiliz; hots, bilketako gune eta modu berdinetan. Ordea, ez da kanpaina aurrera eraman. Konkretuki, poltsikoko telefonoak saltzen dituzten guneei informatzen zaie pilekin batera telefono mugikorrek ere jaso ditzaketela.

2004ko urtarriletik aurrera, erabilitako arroparen bilketarako edukiontzi berriak ezartzen hasi da. Bilketa mota hori gauzatzeko Sasietako Mankomunitateak 3,2 m<sup>3</sup> edukierako 40 kontenedore metaliko ipini ditu.

Arroparen bilketa eta ondorengo birziklapena eta berrerabilpena OLDBERRI S. COOP. enpresari esleitu zaio. Kooperatiba-sozietate hau ehun-hondakinak birziklatzeaz arduratzen da eta CARITASen SAREA Fundazioak sustatutakoa da. Bildutako arropa Errenteriako Masti Loidi izeneko Industrialdean kokaturiko berreskuratze-instalaziora bidaltzen da, bertan bereiztu eta egokitutakoan erabilera ezberdinetara bideratuko delarik.

▪ *Tratamendua eta desagertzea*

Udalerrian sortutako hondakinek tratamendu ezberdinak jasotzen dituzte, hondakin motaren arabera. Zabor-edukiontzietan bildutako hiri-hondakinak Beasainen dagoen zabortegei kontrolatura bidaltzen dira. Hondakin horiei "berezitu gabeak" deitzen zaie.

Aipatu zabortegea Beasaingo Salvatore auzoan dago. Isurpenari lotutako jarduera 1991eko martxoan hasi zen. Zabortegean Goierri, Urola Garaia, Deba Garaia eta Tolosaldeko eskualdeetan sortutako hiri-hondakinak bildu eta tratatzen dira. Gipuzkoako Lurralde Historikoko 59 udalerritan banatutako 186.549 guztizko biztanleriari ematen zaio zerbitzua.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren datuen arabera, Sasietako zabortegea 2009. urtean itxiko zen. Gaur egun, Gipuzkoako Hiri-Hondakinak Kudeatzeko 2002-2016ko Plan Integrala alternatiba ezberdinak proposatzen ari da Goierriko eskualdeko zein Gipuzkoako Lurralde Historikoko hondakinen etorkizuneko tratamendua konpontzeko helburuz.

2002ko otsailean, Biosasieta, S.A. instalazioa abian jarri zen, Sasietako zabortegean sortutako biogasa energetikoki ustiatzeko helburua duena. Alternadore baten bidez argindarra sortzen da eta sare elektrikora bidaltzen da. Lehendabiziko urtean 3,05 milioi Kw/h sortu dira, potentzia honekin 4.000 biztanleren beharrak asetu daitezkeelarik. Etrokizunean ezaugarri berdineko bigarren motorra instalatzea aurreikusita dago.

Bildutako papera eta kartoia Legorretako DESPANORSA enpresara bidaltzen da, manipulazio-prozesu baten ondoren (bereizketa, paketatzea,...), paper-industria ezberdinetara igorritik.

Bildutako beira Laudiko (Araba) VIDRALA, S.A. enpresara bidaltzen da, instalazio horrek berreskuratutako materiala beirazko botila berriak fabrikatzeko erabiliz.

Ontzi arinak Legazpiko Industrialdean kokatutako Sailkatzeko Plantara bideratzen dira. Sasieta Mankomunitateak instalazio hori zeharka kudeatzen du, bereizketa eta sailkatze lanak betetzeko Berzik-Biurrarena aldi baterako enpresa-elkartea kontratatua izanik.

Planta horretan birziklatzaile erberdinei bidaltzen zaizkien ondoko ontzi-material hauek bereizten dira:

- Dentsitate altuko polietilenoa (HDPE)
- Dentsitate baxuko polietilenoa (LDPE)
- Polietilen tereftalato (PET)
- PVC
- Altzairua
- Aluminioa
- Brik-konplexuak
- Papera eta kartoia
- Beira

Instalazioko erreusak; hots, ontziak ez diren material inpropioak eta egun birziklatu ezin daitezkeen ontziak, zabortegira bidaltzen dira.

2001. urtean, Legazpiko ontzi arinak bereizteko eta sailkatzeko planta horretako erreusetatik abiatuz, erregai berreskuratu edo deribatu baten (CDR) clinker-labe bidezko balorazio energetikorako esperientzia pilotoa egitea enkargatu zen.

### **8.1.3. Gaikako bilketa**

2003. urtean zehar Sasieta mankomunitateak selektiboki batz bestea 92,3 Kg. hondakin jaso ditu pertsonako. Honek esan nahi du sortutako zaborraren %20,2a berreskuratzen dela. Hau da, sortutako 455,3 Kg. tik 92,3 berreskuratu dira eta beste 363 Kg.ak zabortegira bota dira. Azaleko analisi hotz batek esango luke zifra hori oso baxua dela %79,7ak bukatzen baitu, baina 1995-tik hona jarraitutako eboluzioak erakusten du nola zortzi urteko epean selektiboki jasotako zabor kopurua hirukoiztu den.

Guztira jasotako 92,3 kg. Horietatik 43,5 kg. Paper eta kartoia dira, 26 kg. beira, 16,3 kg. besteak (pilak, olioak, inausketa soberakinak, textilak, etab.), eta 6.5 kg. ontzi.

Ordiziako gaikako bilketari dagokionez, ondoko tauletan ikus daitezkeen bezala, azken urteotan goruntza egin du, batez ere, ontzien bilketak (%15 gehiago azken bi urtetan).

**Ordizian egindako hondakin biltze selektiboaren bolumena. 1999-2001.**

<b>BILDUTATKO KANTITATE GUZTIAK</b>				
<b>URTEA</b>	<b>BEIRA</b>	<b>ONTZIAK</b>	<b>PAPERA</b>	<b>GUZTIRA</b>
<b>1999</b>	225.275	64.651	316.554	<b>606.480</b>
<b>2000</b>	237.392	77.011	345.129	<b>659.532</b>
<b>2001</b>	226.758	74.525	318.855	<b>620.138</b>

*Iturria: Sasieta Mankomunitatea.*

Era berean, biztanlek jasotako bolumenetan hazkunde hori nabari dezakegu ondoko taulan, non beiraren bilketa nabarmentzen dugun.

**Ordizian bildutako hondakinaren kantitatea biztanleko. 1999-2001**

<b>BILDUTATKO KANTITATEA BIZTANLEKO</b>				
<b>URTEA</b>	<b>BEIRA</b>	<b>ONTZIAK</b>	<b>PAPERA</b>	<b>GUZTIRA</b>
<b>1999</b>	24,7	7,1	34,7	<b>67</b>
<b>2000</b>	26,2	8,5	38,1	<b>73</b>
<b>2001</b>	25,0	8,2	35,2	<b>68</b>

*Iturria: Sasieta Mankomunitatea.*

**8.1.4. Birziklaketa eta berrerabilpena**

Aurretik aipatu moduan, materialak ondoko bide hauen bitartez berreskuratzen dira: gaikako bilketa, Urretxuko Garbigunea, Legazpiko ontzi arinak Sailkatzeko Planta eta Sasieta zaborteia bera batzuetan zenbait hondakinaren (landare-hondarrak, hondakin elektrikoak eta elektronikoak,...) transferentzia-zentro moduan aritzen denean.

Berreskurapenerako urrats horiek guztiek materialen birziklapena dute helburu. Fase hori zentru ezberdinetan egiten da, instalazio horien gehiengo eskualdeko eremutik kanpo izanik. Adibidez:

- Hondakin elektrikoak eta elektronikoak kaiola batzuetan jasotzen dira, ondoren "Indumetal Recycling" enpresara bidaltzeko.
- Bildutako egurra Urrietako lantegi batera eramaten da, manipulazio prozesu baten ondorioz aglomeratua lortuz.
- Bateriak, fluoreszenteak, pilak... Recypilas enpresara bidaltzen dira.
- Baimendutako kudeatzaileek (ECONOR) etxeko hondakin arriskutsuak hartzen dituzte.
- Inausketa eta lorategietako hondakinak pilatutakoan konpostaje-planta batera eramaten dira. Bertan dena xehatu, hondu eta bahetu ondoren, "konposta" izeneko ekoizkina lortzen da, lorategi, mintegi eta antzeko lekuetan ongarri gisa erabiltzeko egokia dena alegia.



### 8.1.5. Hiri-hondakinen jasotze eta tratamenduen kostu eta tasak

2003. urtean Ordiziako Udalak Sasieta Mankomunitateko aurrekontuei eginiko ekarpen ekonomikoa **248.360,04** €-koa izan zen, hilean **20.696,67** €-ko batez bestekoa eta urtean **27,76** € biztanleko dakarrena.

Ekarpen honek 2002. urteko ekitalditik %9,85eko igoera suposatu du, izan ere urte horretan Ordiziak eginiko ekarpena 226.090,16 €-takoa izan baitzen. Ordiziak egiten duen ekarpena Sasieta Mankomunitatera gainerako udalerririk kontutan izanik, %13,78koa da.

2004ko urtarrilean "Urretxuko Garbigunean eta Beasaingo Sasieta zabortegiko jardura eta zerbitzuen eskeintza tasak erregulatzen dituen ordenantza" sartu zen indarrean. Ordenantza honen arabera, honako tasa hauek ezartzen dira:

- Hiri hondakinen tratamendu zerbitzua, Beasaingo "Sasieta" zabortegian:
  - o Etxetako zabor-bilketatik datozkeen hondakinak
  - o Azoketako hondakinak
  - o Etxetako ontzien sailkatze planten erreus zatikia.
  - o Landare-hondakinak, berdegunetako mantenimendu lanetan sortutakoak, konpostatzeko balio ez dutenak.
  - o Akabatutako animaliak
  - o Konfiskatutako elikagaiak edota egoera txarrean daudenak
  - o Elikagai arloko industrietako kosko eta hondarrak
  - o Haragi-industrietako eta hiltegitako hondakinak
  - o Janaridenda, supermerkatu eta merkatalgune handietatik datozkeen hondakin organikoak
  - o Beste zenbait hiri hondakin

Tarifa aplikagarria: 34,96 euro/Tonako (16,93 € zabortegiaren ustiaketara zuzenduak + 18,03 € 1999/31/CE Direktiba Betetzeko Berme-Fondorara zuzenduak).

Bolumen handiko hondakinen tratamendua, esate baterako etxetako altzari, tresna elektriko eta baliorik gabeko bestelako traste zaharren tratamendua %50 handituko da ustiaketa zuzendutako tarifa zatian eta beraz, tarifa aplikagarria honako hau izango da: 43,43 euro/Tonako (25,40 € zabortegiaren ustiaketara zuzenduak + 18,03 € 1999/31/CE Direktiba Betetzeko Berme-Fondorara zuzenduak).

- Hondakin berezien tratamendu zerbitzua, Beasaingo "Sasieta" zabortegian:
  - o Moldeagintzako hareak

Gehienez onartu daitezkeen hare-kantitatea, bere kalitatea eta hornidura-maiztasuna mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek erabakiko dute, aukeraketaren ondorioz zabortegian suteen aurka edota estaltze lanetan erabiltzeko harerik egokiena aukeratu etapilatzeke.

Tarifa aplikagarria: 7,21 euro/Tonako

- Hiri hondakinak eta hondakin inerteak utzi, aldi baterako gorde eta kudeatzeko zerbitzua, Urretxuko Garbigunean:

- o Eraikuntza alorreko hondar inerteak, birziklatu ez daitezkeen zurkiak, birziklatu ez daitezkeen plastiko hondakinak edo landare-hondakinak:

Tarifa aplikagarria: 5,15 euro / zerbitzu bakoitzeko

- o Autotako gurpilak:

Tarifa aplikagarria: euro 1 / entregatutako gurpil bakoitzeko

- o Jolas eta aisialdirako makinak eta gaiak (tabakoa, kafea, edariak, janariak etab.) saltzeko makina automatikoak.

Tarifa aplikagarria: 5,15 euro / entregatutako makina bakoitzeko.

## 8.2. Hondakin arriskutsuak

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritzak emandako datuen arabera, hondakin arriskutsuak sortu dituzten Goierriko enpresen inbentariotik, datu interesgarri bat eskaintzen zaigu, zeinak azken 5 urteotan Ordizian sorturiko hondakin arriskutsuen bolumena adierazten den. Datu honen arabera, azken 5 urteotan hondakin arriskutsuen kopuruak goruntza nabarmena egin du.

1998. urtetik 1999. urtera Ordiziak 114.851 kg-tan gehitu zuen hondakin arriskutsuen sorrera, hau da, urte batetik bestera %115eko gorakada gertatu zen, ordea, urte hortatik aurrera kopuruak beherantza egiten du eta 2001. urtean 92.548 kg-tan kokatuko da, berriro ere behera egiten duelarik hurrengo urtean (%13). Honela, 1999. urtetik 2002. urtera Ordizian sorturiko hondakin arriskutsuen kopurua %61,79an jeitsi da.

### Ordizian sortutako hondakin arriskutzuen bilakera (Kg.), 1998-2002.

1998	1999	2000	2001	2002
99.056,00	213.907,53	187.864,53	92.548,63	81.718,04

Udalerrian hondakin arriskutsuak sortzen dituzten enpresei dagokionez, enpresa nagusia ORKLI, S.COOP. LTDA. da. Enpresa honek aztertutako 5 urtetan 590.054,86 Kg sortu ditu (osoaren %87a). Bigarren postuan kokatzen den enpresa ANESDUR, S.L. da, eta azken 5 urtetan udalerrian sortu diren hondakin arriskutsuen %10a sortu du.

Gainerako enpresen artean SIE ELECTRICA RENFE azpimarratuko genuke, izan ere, urte

batean Ordiziako enpresen artean sorturiko hondakin arriskutsuen %0,4a sortu duelako.

**Hondakin arriskutsuak sortzen dituzten enpresak Ordizian.**

<b>EMPRESAS</b>	<b>1998</b>	<b>1999</b>	<b>2000</b>	<b>2001</b>	<b>2002</b>	<b>TOTAL</b>
<b>CENTRO DE SALUD ORDIZIA</b>		129,00	144,00	122,00	91,00	<b>486</b>
<b>CENTRO MEDICO ORDIZIA</b>				345,00	400,00	<b>745</b>
<b>FOTO SISTEMA</b>	805,00	1.090,00	405,00	810,00	670,00	<b>2.691,09</b>
<b>GARAJE SANTA ANA, S.L.</b>					105,00	<b>105</b>
<b>GOIERRI AUTOAK, SAL</b>					55,00	<b>55</b>
<b>GRUAS USABIAGA, S. A.</b>					665,00	<b>665</b>
<b>INVIZA, S.A.</b>				370,00	175,00	<b>545</b>
<b>MEKALAN, S.A.</b>				1.360,00	620,00	<b>1.980</b>
<b>ORKLI, S.COOP. LTDA.</b>	93.870,00	207.559,73	156.256,80	53.467,95	78.900,38	<b>590.054,86</b>
<b>PERSONA FISICA 12</b>		2,80	3,73	3,68	1,66	<b>11,87</b>
<b>USABIAGA S.L. TALLERES</b>					35,00	<b>35</b>
<b>ANESDUR, S.L.</b>	4.000,00	4.000,00	30.000,00	31.000,00		<b>69.000</b>
<b>EROSKI, S. COOP.</b>	381,00	6,00	1.055,00	330,00		<b>1.772</b>
<b>GOIERRI LANBIDE ESKOLA</b>				1.850,00		<b>1.850</b>
<b>SIE ELECTRICA RENFE</b>				2.890,00		<b>2.890</b>
<b>COLEGIO URDANETA</b>		1.120,00				<b>1.120</b>
<b>TOTAL</b>	<b>99.056,00</b>	<b>213.907,53</b>	<b>187.864,53</b>	<b>92.548,63</b>	<b>81.718,04</b>	<b>675.094,73</b>

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ordenazio eta Ingurugiro Saila.

### 8.3. Abeltzaintzako hondakinak

Lehenago Deskribatutako aziendaren arabera, abeltzaintzak Ordizian sortu eta ebaluatutako hondakin-kopuruak ondoko hauek dira:

#### Ordizian sortutako abeltzaintza hondakinak

<b>Espeziea</b>	<b>Buru kopurua</b>	<b>Hondakin buruko Kg./egun</b>	<b>Guztira Kg./egun</b>	<b>Guztira Tona. / urte</b>	<b>Kg./Nitrogeno / Tona hondakin</b>	<b>GUZTIRA Kg. Nitrogeno / urte</b>
<b>Behi azienda</b>	149	60	8.940	3.263,1	4,5	14.683,95
<b>Zaldi azienda</b>	6	25	150	54,75	9	492,75
<b>Ahutz eta ardi azienda</b>	632	2,5	1.580	576,7	8	4.613,6
<b>Hegazti erruleak</b>	0	0,15	0	0	9,2	0
<b>Untxi amak</b>	47	1,5	70,5	25,73	12,5	321,65
		<b>Purinak buruko Litroak/ egun</b>	<b>Guztira litroak/egun</b>	<b>Guztira kl./urte</b>	<b>Kg. N / kl hondakin</b>	
<b>Txerriak</b>	0	47	0	0	5,3	0
<b>GUZTIRA ABELBURUAK</b>						<b>20.111,95</b>

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiko nekazaritza sailak emandako "erratio" eta Eustateko datuetan oinarritutako berezko lanketa.

Sortutako hondakin-kopuru osoa zein mindetako nitrogenoaren osaera gutxi gorabeherakoak dira, iturri bibliografiko ezberdinek erabiltzen dituzten hamaika irizpide kontuan izanik. Hala ere, sortutako hondakin gehienak lursailetan zuzenean erabiltzen direla aipatu beharrekoa da.

GOIMENek ezarritako bilketa-zerbitzu bat dago. Minda-putzuak instalatuta dituzten ustiategietan kamio-zizterna bat hondakin horiek biltzeaz arduratzen da.

2001eko uztailetik hildako aziendak (abelgorriak, ardi-, txerri-, eta ahutz-aziendak) ez ditu Mankomunitateak jasotzen eta zabortegira botatzen, lehenago egiten zuen moduan. Orain azienda hauen bilketa Gipuzkoako Foru Aldundiko abeltzaintza Sailak egiten du, ondoren errausketa bidez balorizatzen.

Sasietako Mankomunitateak duela gutxi akabatutako etxe-abereen (txakur, katu eta antzeakoak) bilketa berezia ezarri du.

#### 8.4. Kontrol gabeko isurketa puntuak

Puntu hau Poluituta egon daitezkeen Lurzoruei dagokien 11. atalean jorratzen da.

Ur Zuzendaritzak eskainitako informazioaren arabera, Ordizian isuritako uren kalitatea kontrolatzeko azken lau urtetan eginiko muestra analitikoaren emaitzen arabera (2000-2003), kutsadura mota hau sortzen duen sortzaile nagusi bezala identifikatzen da ORKLI S.Coop. Ltda.

Aipaturiko muestretan identifikaturiko elementuak honako hauek izan ziren: elementuak esekiduran, sedimentu substantziak, Nitrogeno-Amonio, Zink-a, Burdina, Kromo Totala, Nikela, Kobrea, Anioniko garbigarria, Fosforo totala eta Sulfuroak.

Empresa	Analisiaren data	Emaria (l/s)	pH	Konduktibitatea ( $\mu\text{S/cm}$ )	DQO (mg/l)	(mg/l)	Detergentea k.(mg/l)	Fosforo guztial(mg/l)
Orkli S.COOP.LTDA	09/05/00	0	8.02	387	82	35	0	0.98
	27/06/00	0	7.81	320	68	8		
	24/10/00	2.6	8.37	317	74	12		
	13/02/01	4.4	8.08	432	80	16		
	17/07/01	1	6.86	340	42	44		1.14
	18/07/01	0	6.73	298	26	6	2.17	0.99
	19/07/01	0	6.76	298	20	3	0	0.76
	20/07/01	0	6.95	633	377	92	6.12	8.24
	07/11/01	1.8	7.44	409	15	6		1
	16/05/02	0	7.48	409	0	8		0.7
	13/11/02	2	7.33	502	140	36		1.9
	14/05/03	0	7.47	608	82	16		1.5
	18/11/03	0	8.07	832	0	37		3.1

Iturria: Dirección de Aguas del Gobierno Vasco, 2004.

IHOBE-k egindako inbentarioaren arabera, Ordizian 74 toki aurki genitzake eta hauen artean 98.743 m<sup>2</sup>-tako azalera osatzen dute.

### Ordizian inbentariatutako tokien kokapena

Lekua	Inbentario Kodea	Leku mota	Jarduera Kodea	Jarduera Izena	CNAE	Sailkapen industrialia
<b>IBERDOLA, S.A.</b>	20076-00001	Ind.	20076-00001-01	IBERDOLA, S.A.	40.105	Distribución de energía eléctrica
<b>AGUIRRE, IGNACIO</b>	20076-00002	Ind.	20076-00002-01	AGUIRRE IGNACIO	28.520	Ing. mec. general por cuenta de terceros
<b>IRASTORZA EXPOSITO, JOSE MARÍA</b>	20076-00003	Sol.	20076-00003-01	IRASTORZA EXPOSITO, JOSE MARÍA	28.401	Forja y estampación de metal
<b>ELECTRA ARAXES</b>	20076-00004	Ind.	20076-00004-01	ELECTRA ARAXES	40.105	Distribución de energía eléctrica
<b>AGUIRRE ELOSEGUI, IGNACIO</b>	20076-00005	Ind.	20076-00005-01	AGUIRRE ELOSEGUI, IGNACIO	28.520	Ing. mec. general por cuenta de terceros
<b>APELLANIZ PAGOLA, SERAFIN</b>	20076-00006	Ind.	20076-00006-01	APELLANIZ PAGOLA, SERAFIN	28.740	Fabricación de pernos, tornillos, cadenas y muelles
<b>BILORE, S.A.</b>		Mod.	20076-00007-01	BILORE, S.A.	24.5	Fabricac. Jabones, detergentes y otros artículos de limpieza y abrillantamiento
		Mod.	20076-00007-02	INDUSTRIAS REUNIDAS DE JABÓN	24.5	Fabricac. Jabones, detergentes y otros artículos de limpieza y abrillantamiento
<b>PEÑA BARANDIARAN, FRANCISCO</b>	20076-00008	Mod.	20076-00008-01	PEÑA BARANDIARAN, FRANCISCO	31.1	Fabricación de motores eléctricos, transformadores y generadores
<b>GARAJE GOYERRI, S.A.</b>	20076-00009	Ind.	20076-00009-01	GARAJE GOYERRI, S.A.	50.2	Mantenimiento y reparación de vehículos de motor
<b>LANARGI, S.L.</b>	20076-00010	Ind.	20076-00010-01	LANARGI, S.L.	31.6	Fabricación de otro equipo eléctrico
<b>MEKALAN, S.A.</b>	20076-00011	Ind.	20076-00011-01	MEKALAN, S.A.	28.520	Ing. mec. general por cuenta de terceros
<b>ALOÑA VEHÍCULOS INDUSTRIALES, S.A.</b>	20076-00012	Ind.	20076-00012-01	ALOÑA VEHÍCULOS INDUSTRIALES, S.A.	50.2	Mantenimiento y reparación de vehículos de motor
		Ind.	20076-00012-02	ALTTUR S. COOP.	29.121	Fabricación de bombas

		Ind.	20076-00012-03	GAZTAÑAGA ANAIK, S.A.	28.21	Fabricación de cisternas, grandes depósitos y cont. de metal
<b>ESNAOLA, PEDRO JOSÉ</b>	20076-00013	Ind.	20076-00013-01	ESNAOLA, PEDRO JOSÉ	51.571	Comercio al por mayor de chatarra
<b>ORKLI S. COOP. LTDA..</b>	20076-00014	Ind.	20076-00014-01	ORKLI S. COOP. LTDA..	29.1	Fabricación de máquinas, equipo y material mecánico
		Ind.	20076-00014-02	COPRECI S. COOP.	29.71	Fabricación de aparatos de electrodomésticos
<b>ORMALAN, S.A.</b>	20076-00015	Ind.	20076-00015-01	ORMALAN, S.A.	20.1	Aserrado y cepillado de la madera; preparación industrial de la madera
<b>HIJOS DE J. ARANA</b>	20076-00016	Mod.	20076-00016-01	HIJOS DE J. ARANA	24.5	Fabricac. Jabones, detergentes y otros artículos de limpieza y abrillantamiento
<b>AGUIRREZBALA OLANO, JUAN</b>	20076-00017	Mod.	20076-00017-01	AGUIRREZBALA OLANO, JUAN	36.141	Fabricación de muebles domésticos
<b>MERINO BRAVO JOSÉ MARTÍN-PEÑA BARANDIARAN</b>	20076-00018	Mod.	20076-00018-01	MERINO BRAVO JOSÉ MARTÍN	28.12	Fabricación de carpintería metálica
		Mod.	20076-00018-02	PEÑA BARANDIARAN	31.1	Fabricación de motores eléctricos, transformadores y generadores
<b>GARMENDIA RRUABARRENA FRANCISCO-MÚGICA</b>	20076-00019	Ind.	20076-00019-01	GARMENDIA RRUABARRENA FRANCISCO	28.12	Fabricación de carpintería metálica
		Ind.	20076-00019-02	GALARRECHE	28.21	Fabricación de cisternas, grandes depósitos y cont. de metal
		Ind.	20076-00019-03	AYALA CAMPINUN, MIGUEL ANGEL	50.2	Mantenimiento y reparación de vehículos de motor
		Ind.	20076-00019-04	MÚGICA CHAPARTEGUI, IGNACIO MARÍA	50.2	Mantenimiento y reparación de vehículos de motor
		Ind.	20076-00019-05	ECHEVERRÍA LIZARAZU, IGNACIO	36.1	Fabricación de muebles
<b>AUKERA-CARROCERÍA MODELO</b>	20076-00020	Ind.	20076-00020-01	AUKERA	28.520	Ing. mec. general por cuenta de terceros
		Ind.	20076-00020-02	CARROCERÍA MODELO	35.4	Fabricación de motocicletas y bicicletas

<b>GUIBELALDE CHACARTEGUI, MANUEL</b>	20076-00021	Ind.	20076- 00021-01	GUIBELALDE CHACARTEGUI, MANUEL	50.2	Mantenimiento y reparación de vehículos de motor
<b>TALLER MECÁNICO IRURETAGOYENA</b>	20076-00022	Ind.	20076- 00022-01	TALLER MECÁNICO IRURETAGOYENA	28.520	Ing. mec. general por cuenta de terceros
<b>DORRONSORO AYERBE, RAIMUNDO</b>	20076-00023	Ind.	20076- 00023-01	DORRONSORO AYERBE, RAIMUNDO	50.2	Mantenimiento y reparación de vehículos de motor
<b>CUCHILLERÍA GOENAGA</b>	20076-00024	Rui.	20076- 00024-01	CUCHILLERÍA GOENAGA	28.6	Fabricación de artículos de cuchillería y cubertería, herramientas y ferretería
<b>GALARZA BERONA, MARIANO</b>	20076-00025	Mod.	20076- 00025-01	GALARZA BERONA, MARIANO	51.571	Comercio al por mayor de chatarra
		Mod.	20076- 00025-02	RUIZ DE AZUA ZABALETA, MARÍA CRUZ	93.01	Lavado, limpieza y teñido de prendas textiles y de piel
<b>AZURMENDI AMENABARRO, JOSÉ MARÍA</b>	20076-00027	Ind.	20076- 00027-01	AZURMENDI AMENABARRO, JOSÉ MARÍA	50.5	Venta al por menor de carburantes para la automoción
<b>OYARBIDE ARAMBURU, DIONISIO</b>	20076-00028	Ind.	20076- 00028-01	OYARBIDE ARAMBURU, DIONISIO	36.141	Fabricación de muebles domésticos
<b>GARÍN GOLMAYO JOSÉ FRANCISCO- CAMPOY J.</b>	20076-00029	Ind.	20076- 00029-01	GARÍN GOLMAYO JOSÉ FRANCISCO	22.22	Otras actividades de impresión
		Ind.	20076- 00029-02	CAMPOY J.	28.520	Ing. mec. general por cuenta de terceros
<b>MARTÍN LAMATA JESÚS MARÍA</b>	20076-00030	Ind.	20076- 00030-01	MARTÍN LAMATA JESÚS MARÍA	22.22	Otras actividades de impresión
<b>LECUONA IGNACIO</b>	20076-00031	Mod.	20076- 00031-01	LECUONA IGNACIO	36.1	Fabricación de muebles
<b>GOENAGA</b>	20076-00032	Mod.	20076- 00032-01	GOENAGA	51.571	Comercio al por mayor de chatarra
<b>ESNAOLA ESNAOLA, JOSÉ MARÍA</b>	20076-00033	Mod.	20076- 00033-01	ESNAOLA ESNAOLA, JOSÉ MARÍA	36.1	Fabricación de muebles
<b>ALONSO USABIAGA, JUAN CARLOS</b>	20076-00034	Mod.	20076- 00034-01	ALONSO USABIAGA, JUAN CARLOS	28.520	Ing. mec. general por cuenta de terceros
		Mod.	20076- 00034-02	GABILONDO LASA, DIONISIO	28.520	Ing. mec. general por cuenta de terceros
<b>ROMERO GARCÍA, JOSÉ MIGUEL</b>	20076-00035	Ind.	20076- 00035-01	ROMERO GARCÍA, JOSÉ MIGUEL	50.2	Mantenimiento y reparación de vehículos de motor



<b>COMPAÑÍA AUXILIAR DE FERROCARRILES</b>	20076-00037	Ind.	20076-00037-01	COMPAÑÍA AUXILIAR DE FERROCARRILES	35.2	Fabricación de material ferroviario
<b>ARMENDÁRIZ, GREGORIO</b>	20076-00038	Mod.	20076-00038-01	ARMENDÁRIZ, GREGORIO	24.620	Fabricación de colas y gelatinas
<b>INTERNACIONAL DE ACUMULADORES, S.A.</b>	20076-00039	Ind.	20076-00039-01	INTERNACIONAL DE ACUMULADORES, S.A.	31.4	Fabricación de acumuladores y pilas eléctricas
<b>CREHUET, LUIS</b>	20076-00041	Ind.	20076-00041-01	CREHUET, LUIS	93.01	Lavado, limpieza y teñido de prendas textiles y de piel
<b>MUEBLES SAN JOSÉ-EXPÓSITO Y CÍA.</b>	20076-00042	Ind.	20076-00042-01	MUEBLES SAN JOSÉ	36.141	Fabricación de muebles domésticos
		Ind.	20076-00042-02	EXPÓSITO Y CÍA.	36.141	Fabricación de muebles domésticos
<b>LANCIEGO, GUILLERMO</b>	20076-00043	Ind.	20076-00043-01	LANCIEGO, GUILLERMO	29.401	Fabricación de máquinas-herramientas para trabajar los metales
<b>MUEBLES MUNDUATE-IMAZ GOROSTIZAGA, DIONISIO</b>	20076-00044	Ind.	20076-00044-01	MUEBLES MUNDUATE	36.141	Fabricación de muebles domésticos
		Ind.	20076-00044-02	IMAZ GOROSTIZAGA, DIONISIO	29.401	Fabricación de máquinas-herramientas para trabajar los metales
<b>TALLER ZUNZUNEGUI-ORIA TELLERÍA, ANDRÉS</b>	20076-00045	Ind.	20076-00045-01	TALLER ZUNZUNEGUI	29.322	Reparación de maquinaria y material agrario
		Ind.	20076-00045-02	URBIETA AZCUE, JOSÉ MARÍA	50.2	Mantenimiento y reparación de vehículos de motor
		Ind.	20076-00045-03	ORIA TELLERÍA, ANDRÉS	50.2	Mantenimiento y reparación de vehículos de motor
<b>ARISTRAIN Y LASA, S.A.</b>	20076-00046	Rui.	20076-00046-01	ARISTRAIN Y LASA, S.A.	29.242	Fabricación de material para pesar
<b>CONSTRUCCIONES METÁLICAS IZAR, S.L.</b>	20076-00047	Ind.	20076-00047-01	CONSTRUCCIONES METÁLICAS IZAR, S.L.	28.12	Fabricación de carpintería metálica
		Ind.	20076-00047-02	HERNÁNDEZ CABERO, CELESTINO	50.2	Mantenimiento y reparación de vehículos de motor
		Ind.	20076-00047-03	CUELLAR ESCALANTE, FRANCISCO	28.510	Tratamiento y revestimiento de metal
<b>GARAJE ORIA</b>	20076-00048	Ind.	20076-00048-01	GARAJE ORIA	50.2	Mantenimiento y reparación de vehículos de motor

		Ind.	20076-00048-02	ZUDAIRE PÉREZ, LUIS	28.520	Ing. mec. general por cuenta de terceros
<b>CHATARRERÍA CALVO</b>	20076-00049	Ind.	20076-00049-01	CHATARRERÍA CALVO	51.571	Comercio al por mayor de chatarra
<b>JÁUREGUI AGUIRRE, LUCIO</b>	20076-00050	Ind.	20076-00050-01	JÁUREGUI AGUIRRE, LUCIO	28.520	Ing. mec. general por cuenta de terceros
<b>ESPEJOS SERIGRAFIADOS, S.L.</b>	20076-00051	Ind.	20076-00051-01	ESPEJOS SERIGRAFIADOS, S.L.	22.22	Otras actividades de impresión
<b>ANESDUR, S.L.</b>	20076-00052	Ind.	20076-00052-01	ANESDUR, S.L.	28.510	Tratamiento y revestimiento de metal
<b>TALLERES AUXILIARES GOIHERRI - TAG</b>	20076-00053	Ind.	20076-00053-01	TALLERES AUXILIARES GOIHERRI - TAG	28.12	Fabricación de carpintería metálica
<b>SOLDADURA CARMET</b>	20076-00054	Ind.	20076-00054-01	SOLDADURA CARMET	28.520	Ing. mec. general por cuenta de terceros
<b>IKASLAN</b>	20076-00055	Ind.	20076-00055-01	IKASLAN	28.520	Ing. mec. general por cuenta de terceros
<b>GOIPLAST</b>	20076-00056	Ind.	20076-00056-01	GOIPLAST	34.3	Fabricación de partes, piezas y accesorios no eléctricos para vehículos de motor
		Ind.	20076-00056-02	HERRAMIENTAS LEUN, S.A.L.	29.1	Fabricación de máquinas, equipo y material mecánico
<b>HERBE</b>	20076-00057	Ind.	20076-00057-01	HERBE	28.520	Ing. mec. general por cuenta de terceros
		Ind.	20076-00057-02	ITEYMAN	29.1	Fabricación de máquinas, equipo y material mecánico
<b>HERRAJES DEPORTIVOS, S.A.</b>	20076-00058	Ind.	20076-00058-01	HERRAJES DEPORTIVOS, S.A.	28.520	Ing. mec. general por cuenta de terceros
<b>CONSTRUCCIONES METÁLICAS IZAR, S.L.</b>	20076-00059	Ind.	20076-00059-01	CONSTRUCCIONES METÁLICAS IZAR, S.L.	28.12	Fabricación de carpintería metálica
<b>TALLERES MUAG, C.B.</b>	20076-00060	Ind.	20076-00060-01	TALLERES MUAG, C.B.	28.520	Ing. mec. general por cuenta de terceros
<b>AUKERA-ORMALAN</b>	20076-00061	Ind.	20076-00061-01	AUKERA	28.12	Fabricación de carpintería metálica
		Ind.	20076-00061-02	GARCÍA CARREÑO, GERMÁN	28.12	Fabricación de carpintería metálica
<b>BELOR, S.A.</b>	20076-00062	Ind.	20076-00062-01	BELOR, S.A.	28.740	Fabricación de pernos, tornillos, cadenas y muelles

<b>GARAJE ORDIZIA, C.B.</b>	20076-00063	Ind.	20076-00063-01	GARAJE ORDIZIA, C.B.	50.2	Mantenimiento y reparación de vehículos de motor
<b>GARAJE TXINDOKI, C.B.-CITROEN</b>	20076-00064	Ind.	20076-00064-01	GARAJE TXINDOKI, C.B. - CITROEN	50.2	Mantenimiento y reparación de vehículos de motor
<b>GARBI</b>	20076-00065	Ind.	20076-00065-01	GARBI	50.2	Mantenimiento y reparación de vehículos de motor
<b>HERNÁNDEZ CABERO, CELESTINO</b>	20076-00066	Ind.	20076-00066-01	HERNÁNDEZ CABERO, CELESTINO	50.2	Mantenimiento y reparación de vehículos de motor
<b>MUEBLES ORDIZIA, S.A.</b>	20076-00067	Ind.	20076-00067-01	MUEBLES ORDIZIA, S.A.	36.141	Fabricación de muebles domésticos
<b>TALLERES ELECTROMECAÑICOS HAMCEIT, S.A.</b>	20076-00068	Ind.	20076-00068-01	TALLERES ELECTROMECAÑICOS HAMCEIT, S.A.	31.1	Fabricación de motores eléctricos, transformadores y generadores
<b>INDUSTRIAS TUERMEKA, S.A.L.</b>	20076-00069	Ind.	20076-00069-01	INDUSTRIAS TUERMEKA, S.A.L.	28.740	Fabricación de pernos, tornillos, cadenas y muelles
<b>KALDER ORDIZIA</b>	20076-00070	Ind.	20076-00070-01	KALDER ORDIZIA	28.21	Fabricación de cisternas, grandes depósitos y cont. de metal
<b>IRASTORZA BARANDIARÁN, FRANCISCO</b>	20076-00071	Ind.	20076-00071-01	IRASTORZA BARANDIARÁN, FRANCISCO	28.520	Ing. mec. general por cuenta de terceros
<b>MECÁNICA GARMENDIA, S.L.</b>	20076-00072	Ind.	20076-00072-01	MECÁNICA GARMENDIA, S.L.	28.520	Ing. mec. general por cuenta de terceros
<b>GAZTAÑAGA ANAIK, S.A.</b>	20076-00073	Ind.	20076-00073-01	GAZTAÑAGA ANAIK, S.A.	28.21	Fabricación de cisternas, grandes depósitos y cont. de metal
<b>GOENAGA IRIBARREN, JUAN</b>	20076-00074	Ind.	20076-00074-01	GOENAGA IRIBARREN, JUAN	51.571	Comercio al por mayor de chatarra

Iturria: IHOBE, 2004.

Leku motak:

-Ind.: Industria aktiboa

-W.: Hondakindegia

-Mod.: Aldaturiko lekua

-Rui.: Aurria

-Sol.: Orubea

## 9. ENERGIA

### 9.1. Udalerriaren egitura ekonomikoa

Energia edozein herri industrializaturen ekonomian oinarrizko sektorea da eta garapen ekonomikoaren arlo guztiekin zuzenean erlazionatuta dago: etxebizitza, industria eta zerbitzuak, trafikoa eta garraioa,... Halaber, giza jardueraren ingurumen aspektu ororekin inplikazio zuzenak ditu.

Energia-arazoak lortutako dimentsioa udal politikaren mugetatik haratago hedatu arren, udal mailan ere kudeaketa energetiko orekatuagoa eta iraunkorra garatzen laguntzen duten neurriak eta programak ezarri daitezke. Eta hori posiblea da bi jarduketa-ildoen bidez:

- zuzenean, Udala energiaren kontsumitzaile den ikuspuntutik; bai udal instalazio eta zerbitzuetan energia-eraginkortasuna eta aurrezpena sustatuz, baita erregai garbiagoak zein energia berriztagarriak erabiliz.
- zeharka, herritar kontzientziario eta sentsibilizazio bidez eta kontsumo energetikoaren beharrak kontuan hartzen dituen hirigintzako planeamendurako neurriak ezarriz (garapen ekonomikoan zein bizitegiak, hiri-mugikortasunean,...)

Udalerri baten energia-kontsumoak bi ikuspegietatik aztertu daitezke:

- Kontsumitzen diren energia-motak, beren jatorria edo moduaren arabera.
- Udalerrian garatu eta energia kontsumitzen duten gizarte-jarduerak eta ekonomikoak.

Lehenengo ikuspuntuan, energia-kontsumo nagusiak lehengaien konbustio zuzenaren bitartez egiten dira (petrolio edo bere deribatuak, gas naturala eta erregai solidoak), edo lehengai horiek beraiek edo bestelako prozesuak erabiltzen dituzten produkzio-zentraletatik datorren elektrizitatearen kontsumo bidez. Energia sortzeko prozesu horietako edozein kasuan ingurumen inpaktuak daude, sorlekuan zein kontsumo-eremuan gerta daitezkeenak. Udalerri mailan energia kontsumitzen duten jarduerari dagokienez, ondoko hauek sailkatu daitezke:

- etxebizitzak
- industria
- zerbitzuak
- garraioa

- bestelakoak

### **9.1.1. Energia kontsumo globala**

Ordiziako Udalan ez dago udalerraren energia-kontsumoa edota jarduera ezberdinen gaineko azterketa orokorrik, ezta energia-ikuskaritzarik ere. Udalak berak kudeatutako instalazio eta eraikin ezberdinetan eta emandako zerbitzuetan kontsumitzen duen energiari buruzko azterketarik ere ez dago.

Agiri honetan bildutako datuei dagokienez, enpresa hornitzaileek edo kudeatzaileek eman dituzte (kontsumo elektrikoak Iberdrolak eman ditu; eta gas naturalekoak, NATURGASek edo EVEk).

Ez da posible izan beste erregai batzuen kontsumoari buruzko daturik lortzea: petrolioaren deribatuak eta erregai solidoak.

### **9.1.2. Sektorekako elektrizitate eta gas naturalaren kontsumoaren banaketa**

Orain arte ez da posible izan gasaren kontsumoari buruzko daturik lortzea, Euskadiko Gas Erakundeak eskaini behar duena.

Energia elektrikoari buruzko datuak Iberdrola, S.A.k eskaintzen ditu. Datuei begiratzuz ikus daiteke azkeneko hiru urtekoan Ordizian %11 ko energia eskariaren hazkundea egon dela. Konkretuki, 2001. urtean 51.433.470,88 kWh kontsumituzetik 2003. urtean 56.960.119,85 kWh kontsumitzera pasa da.

Kontsumoaren banaketa sektoreka aztertzean ikus daitekeen lehenengo gauza lehen sektoreak oso pisu txikia duela udalean, izan ere, 2003. urtean sektore honen kontsumoa %0,03 baino txikiagoa izan delako eta gainera, maila berean mantendu da azken urteotan.

Industria sektorea da Ordiziako energia elektrikoaren kontsumitzaile handiena. 2003. urtean, kontsumo osoaren %43,13a suposatzen zuen eta esan behar da 2001-2003. urteen bitartean gorantza joan dela kontsumoa. Aldatzaile metalikoen industria, trenetako garraioa eta janari, edari eta tabakoaren azpi-sektoreen industriek monopolizatzen dituzte bigarren sektorearen kontsumoak.

## Ordiziako energia kontsumoa 2001-2003 epean (kWh)

<b>Sektorea</b>	<b>2001</b>	<b>2002</b>	<b>2003</b>
<b>LEHENENGO SEKTOREA</b> (Nekaza. Abeltz. Ehiza. Arrantza...)	<b>22.943,7</b>	<b>25.714,01</b>	<b>20.225,9</b>
<b>INDUSTRIA SEKTOREA</b>			
<i>Energia elektrikoaren produkzioa eta banaketa.</i>	50.118	56.856	62.190
<i>Siderurgia eta fundizioa</i>	0	338.428	392.896,01
<i>Beiraren industria</i>	20.269	10.677	13.886
<i>Beste eraikuntza materialak. (loza)</i>	23.369	26.277	24.231
<i>Makinak eta transformatu metalikoak.</i>	17.346.836,6	20.729.435,8	22.626.480,01
<i>Autom. eta bizik konstrukzioa.</i>	5.194	5.338	3.529
<i>Aliment., bebidas y tabaco</i>	855.215,7	803.670,2	902.602,7
<i>Ehungintza industria, jantzigintza, larrua,...</i>	5.490	4.384,2	2.853,5
<i>Egur eta kortxo Indust.</i>	93.494	89.836,02	72.788
<i>Pasta papera.,papera,cartoia.</i>	4.039	6.194	4.480
<i>Arte grafikoak eta edizioa</i>	26.456	22.687	20.043
<i>Kautxu, plastiko eta esp.gabea.</i>	171.911,6	188.787	225.769
<i>Eraikuntza eta lan publikoak</i>	425.515,1	487.287,72	219.395,55
<b>INDUSTRIALA GUZTIRA</b>	<b>19.022.967</b>	<b>22.769.858,94</b>	<b>24.571.143,77</b>
<b>ZERBITZUEN SEKTOREA</b>			
<i>Tren garria.</i>	13.094.210	10.884.288	12.505.708
<i>Beste garrio empresak</i>	32.680	54.260	28.740
<i>Ostalaritza</i>	1.595.969,52	1.618.863,99	1.577.876,73
<i>Merkataritza eta zerbitzuak</i>	4.184.876,13	4.325.125,8	4.376.476,24
<i>Administrazioa eta beste zerbitzuak</i>	2.360.333,85	2.277.934,25	2.415.198
<i>Herriko argiak</i>	1.027.715	1.045.689	1.064.237,01
<b>ZERBITZUAK GUZTIRA</b>	<b>22.295.784,5</b>	<b>20.206.161,04</b>	<b>21.968.235,98</b>
<b>ETXEEN SEKTOREA</b>	<b>10.037.260,74</b>	<b>10.966.603,66</b>	<b>10.373.334,49</b>
<b>ESPEZIFIKATU GABE</b>	<b>49.573,9</b>	<b>64.162,49</b>	<b>27.179,71</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>51.433.470,88</b>	<b>54.032.499,14</b>	<b>56.960.119,85</b>

Iturria: Iberdrola, 2004.

2003. urtean zerbitzuen sektorearen kontsumoak, Ordiziako kontsumo totalaren %38,5a suposatzen zuen, beherantzako joera hartuz azkenengo urteotan.

Etxeetako kontsumoari dagokionez, 2003. urtean kontsumo totalaren %18,2a suposatzen zuen eta azken urteotan jasan duen eboluzioa honako hau izan da:

- 2001. urtea: 1.110,93 kWh. Biztanleko urtean.
- 2002. urtea: 1.215,67 kWh. Biztanleko urtean.
- 2003. urtea: 1.159,67 kWh. Biztanleko urtean.

Azkenik, 2003. urtean, espezifikatu gabeko kontsumo elektrikoak kontsumo totalarekiko %0,05a suposatu zuen eta azken hiru urte hauetako joera beherantzakoa izan da.

## **9.2. Udaleko energia ekoizpen instalakuntzak**

Goierriko lurraldea korridore elektriko batek zeharkatzen du, Elgetatik hasi eta Irun arte, Frantziako sarearekin bat egiten duen arte. Hego-ekialdetik (Elgeta, Idiazabal, Zegama, Ataun eta Oñatitik) sartzen diren linea guztiek Ezkio-Itsason egiten dute bat eta elkarrekin jarraitzen dute Hernaniraino. Horiek fluido elektrikoa hornitzen dute transformazio eta banaketako azpiestazioetara.

TBAetatik erdiko tentsioko lineak (30 Kv) abiatzen dira eta ondoren transformazio eta hornikuntzako azpiestazioetara iristen. Horietatik ateratzen dira herriei zerbitzua eskaintzeko 13.2 Kv-eko lineak.

Gaur egungo egoeratik abiatuta, lurraldeari eskaintzen zaion zerbitzuak aurreikusitako eskariei erantzuteko nahikoa malgutasun du. Etorkizuneko joerari dagokionez, badirudi ez dela aldaketarik izango garraio-sarean eta ez da transformazioko eta banaketako beste azpiestaziorik eraikitzea aurreikusi.

Gas-azpiegiturei dagokienez, Bergara-Irun gasoduktoa da gas naturalaren banaketa-sarearen oinarria. Gasodukto horretatik abiatzen da presio ertaineko industria-erabileretarako banaketa-sarea, zuzenean industria-erabiltzaileari eskaintzen diona zerbitzua. Horretatik eratortzen dira gainera etxeko eta merkataritzako erabileretarako banaketa-sareak.

Etorkizunerako joerari jarraiki, ugaritu egingo dira banaketa-sareak, bai industria-erabileren ingurukoak, bai etxeetakoak.

Telekomunikazio-azpiegiturei dagokienez, Goierriko Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plan barruan Hiriarteko Zentral Automatiko bat ezartzea aurreikusita dago.

### **9.2.1. Energia berriztagarren instalakuntzak**

Energiaren Euskal Erakundeak (EVE-EEE) emandako informazioaren arabera, Ordizian energia ziurtagiridun 27 etxebizitza zeuden, eraiki berri diren bi sustapenak energia-eraginkortasunerako ziurtagiria jaso izanik. Udalerrian dagoen energia berriztagarri mota bakarra eguzki fotoboltaikoa da zeinak urtean 1.965 kWh produzitzen dituen.

Ordiziak ez du eguzki-energia termikoa, energia minihidraulikoa edo eolikoko beste instalakuntzarik.

### **9.2.2. Autogenerazio instalakuntzarik**

Ordizian ez dago autogenerazioko edo kogenerazioko instalaziorik.

### **9.3. Udalerri administrazioan energia kudeaketa eta kontsumoa**

Ordizian ISO 14001 zertifikatua izan den enpresa bakarra honako hau da:

#### **-ORKLI, S. Coop. Ltda. (Ordizian egoitza) (ISO 14001).**

Orklin, talde magnetiko, termopare, ura eta gasaren erregulazio eta kontrol elementuak diseinatu, garatu eta produzitzen dira egoitzetarako.

Bestalde, udalerrian kokatuak dauden beste bi enpresa: IKASLAN eta GOIEKI Goierriko Ekimenak beren Ekoscanak dituzte.



## **10. ATMOSFERA**

### **10.1. Igorpenak**

Airearen kalitatea eta kutsadura atmosferikoa hiriguneen iraunkortasunaren analisia berebiziko garrantzia duten gaiak dira, bai osasunean eta bizi kalitatean duten eraginagatik, kutsadura igorpenek lurreko ingurune arazoak areagotzen dituztelako.

Kutsadura atmosferikoaren kutsagune nagusiak honakoak dira:

- Industria jarduerak (atmosfera kutsatzaile potentzialak bezala katalogatuak).
- Ibilgailuen iragaitea.
- Etxeko iturriak eta zerbitzuak.

Ordizian ez dago EAEko Airearen kontrola eta zaintzeko Sareko Estaziorik. Beasaingoa da Sare horretako estazio hurbilena.

#### **10.1.1. Aktibitate industrialak**

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitateko Zuzendaritzak emandako informazioaren arabera, Ordiziako udalerrian "Atmosfera Potentzialki Poluitzen duen Jarduera" gisa sailkatutako enpresarik ez da erregistratzen.

Duela gutxi, Lurraldearen Ordenazio eta Ingurugiro sailak EPER Euskadi plana jarri du martxan. Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak EPER Euskadi izeneko erregistroa martxan jarri du. EPER Euskadiren helburua da, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen (IPPC izenez ezagutzen dena) I. Eranskinean bildutako jarduerak garatzen dituzten euskal entitateek egiten dituzten emisioei eta emisioen fokuei buruzko ingurumen-informazioa modu normalizatuan eskuratzea.

2000ko uztailaren 17ko 2000/479/EB Erabakian xedatutakoaren arabera, alegia, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen (IPPC legea) I. Eranskinean bildutako jarduerak garatzen dituzten entitateen instalazioetan sortutako Igorpen Kutsagarriei buruzko Europako Inbentario bat lantzeari buruzkoaren arabera, agintaritzei jakinarazi beharreko substantzia kutsagarriei buruzko datuak modu sistematizatuan bilduko dira EPER Euskadi erregistro honetan.

2003 EPER-Euskadi inbentarioari jarraiki, Ordizian ez dago IPPC Legean aurreikusitako aktibitaterik egiten duen enpresarik.

### 10.1.2. Ibilgailuen mugimendua

Trafikoaren isurpenen ezaugarri garrantzitsu bat da lurraren arrasean (ihes-hodiak) gertatzen direla. Horregatik, biztanleriaren gaineko eragin kuantitatiboa zein kualitatiboa handiagoa da, gainontzeko jardurekin alderatuta. Gasolinazko motorrek karbono monoxidoa (CO), hidrokarburoak (HC's), nitrogenu oxidoak (NO<sub>x</sub>), partiluka esekiak (VOC's) eta berun-konposatuak isurtzen dituzte.

Diesel motorrek, nagusiki, kedarrez osatutako partikula solidoak (PST) isurtzen dituzte, eta beren agerpena ihes-hodietan "ke beltza" eragiten dute. Ondoko hauek ere isurtzen dituzte: erregai-partikula likidoak, karbono monoxidoa (CO), sufre dioxidoa (SO<sub>2</sub>), nitrogenu oxidoak (NO<sub>x</sub>) eta karbono dioxidoa (CO<sub>2</sub>). Diesek motorrek konbustioa aire gehiegirekin egiten dutela kontuan izanik, karbono monoxidoren isurpenak (CO) nitrogenu oxidorenak (NO<sub>x</sub>) baino txikiagoak dira.

Trafikoak eragindako poluzio-maila kontrolatzeko modu bat ibilgailuen ihes-hodiek isuritako gasen azterketa da, gaizki prestatuta dagoen ibilgailu batek funtzionamendu egokia duen beste batek baino isurpen-maila handiagoa agetzen baitu.

1992ko ekainaren 22ko Kontseiluaren 92/55/CEE Arteztarauak ibilgailuen isurtze-mugak arautzen ditu. Bere aplikazioak Espainiar estatuko erkidego batetik bestera aldatzen du, aspektu hori Ibilgailuen Azterketa Teknikoetan (IAT) islatzen da. Horrela, diesel motorreko ibilgailuen isurpenen kasuan, araudi hori betetzen ez duten ibilgailu-portzentaje handiak izaten dira, batez ere ke beltzak izeneko isurpenei dagokienez.

Ordiziako ibilgailuen parkea honela banatzen da:

<i>Turismoak</i>	<i>Motorral</i>	<i>Kamioiak</i>	<i>Autobusak</i>	<i>Traktoreak</i>	<i>Besteak</i>	<i>Guztira</i>
3.411	124	681	-	133	240	4.589

Iturria: EUSTAT

Bestalde, jarraian erantsitako taulak azken urteotan ibilgalu kopuruaren hazkunde adierazgarria erakusten du:

#### Turismo kopuruaren eboluzioa mila biztanleko (1985-2002).

<i>Urtea</i>	<i>Turismo kopurua</i>	<i>Turismoak mila biztanleko</i>
1985	2.153	221
1987	2.280	242
1993	2.701	290
1996	2.838	311
1997	2.885	317
2001	3.364	376
2002	3.411	378

Iturria: EUSTAT eta Udal zentsutik ateratako datuetatik landua..

Parke mugikorrek sortutako isurpenak direla eta, Ordiziako airearen kalitatea kuantitatiboki

baloratzea zaila den arren, udalerrian detektatutako trafiko-intentsitate trinkoek monoxido karbono (CO), dioxido karbono (CO<sub>2</sub>) eta ozono (O<sub>3</sub>) mailak gainditzen dituztela baieztatu daiteke, EAEko udalerrri populatuagoetan eta zirkulazio-intentsitate handiagoak dituztenetan gertatu ohi denez.

### **10.1.3. Etxetako eta zerbitzutako iturriak**

Poluitzaileak isurtzen dituzten etxeko iturriak bero-instalazioa eta uraren berokuntza dira, nagusiki. Isuritako gasen ezaugarriak eta kopuruak erregai erabiliaren arabera dira. Petrolioaren erregai likido deribatuak pixkanaka ordezkatzek, gas naturala eta sufre-kopuru baxuak dituzten erregaiak sartuz, karbono monoxidoa (CO) eta sufre dioxidoa (SO<sub>2</sub>) bezalako poluitzaile espezifikoen isurpena gutxitzen edo saihesten du.


## **10.2. Udalaren kalitate atmosferikoaren balorazioa**

Lehenago aipatu moduan, Beasainen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak kudeatutako Airearen Kalitatea Zaintzeko eta Kontrolatzeko Sare-estazio bat dago. Beasain-Ordizia-Lazkao udalerrien osatutako konurbazioan dauden egoera sozioekonomikoak eta ingurumen-errealitateak egoera atmosférico berezia dakarte, eskualderaen gainerakoarekin alderatuz gero.

Aipatu Zainketa-Sarearen arabera, 2002an Goierri eskualdean; Beasaingo, Azpeitiko eta Tolosako estazioak barne jartzen dituen aldean, aire-kalitate "txarreko" edo "oso txarreko" bi egun besterik ez ziren erregistratu. Bitartean, azpimarratu behar da 2001. eta 2002 urteetan erregistratutako aire-kalitate "oneko" egunak nabarmen hazi zirela.

Gainera, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak emandako informazioaren arabera, Goierri da EAE osoan airearen kalitate onenatarikoa duen eskualdea.

## Nº DE DÍAS POR ZONA SEGÚN LA CALIDAD DEL AIRE. 2001-2002



Fuente: Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente del Gobierno Vasco.

Orokorrean, Ordizian EAEko zona industrial gehienetan komunak diren zenbait fenomeno edo joera aipatu beharrean dago:

- Industria-jatorriko poluzioa pixkanaka murriztu da, bereziki SO<sub>2</sub> eta NO<sub>x</sub>. Kutsadura-mota hori onartu daitezkeen baloreetan dago eta legezko isurpen-mugetatik oso behean dago, zenbait gertakari puntaletan izan ezik.

Jaitsiera horren arrazoi nagusiak ondorengoak izan dira: teknologia zaharkituetako enpresak ixtea, eduki txikiko sufrea duten erregaiak erabiltzea, eta gas naturala erregai alternatibo moduan ezarri zein isurpenen murrizketa laguntzeko politikak.

- Partikula esekiek (PST) eta nitrogeno oxidoek ez dute bilakaera ez hain argia izan, eta denboran zehar ez dira hain modu nabarmenean jaitsi. Beren balore handienak zirkulazio-intentsitate handiak jasaten dituzten hiriguneetan atzematen dira.
- Ibilgailuen trafikoak eragindako poluzio atmosferikoa pixkanaka eta etengabe hazi da, batez ere tamaina eta dentsitate handiko hiri-aglomerazioetan. CO y O<sub>3</sub> sustantzien mailen gaineko arazoak sortzen dira eta sarritan sintesi-poluzio horrek landaredia babesteko atalase-maila moduan seinalatutako mugak gainditzen ditu.

## 11. POTENTZIALKI KUTSATURIKO KOKALEKUAK

### 11.1. Sarrera

Batzuetan, gizakiaren aktibitateak lurzoruaren konposizioa aldatu egiten du, bere iraunkortasunagatik edo bere kontzentrazio altuarengatik deskonposatu ezin dituen kutsatzaileak erantsi egiten baititu. Kutsatzaile hauen pilatzeak, batez ere jatorri kimikoak dutenak, lurzoruaren funtzioei eragin diezaiekete, lurzoru poluituak sortuz.

Lurzoruari eragiten dioten kutsatzaile ohikoenak metal astunak, fitosanitarioak, ongarriak eta deposizio azido atmosferikoak dira. Industria, nekazaritza eta trafikoaren ondorio dira.

Azken urteetan, hiri-berrikuntza prozesuan murgilduta dauden EAEko udalerrietan lurzoru poluituen presentzia agerian geratu da. Horregatik, eta heldze-aro baten ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko Lege Orokorrak 1998an lehendabizikoz lurzoru baliabide moduan hartu zuen kontuan, bere babes airea edo uraren bezainbesteko interesa baitzuen.

IHOBEk 1998ko urrian Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailarentzat egindako "EAEko Lurzoruaren Poluzioa eragiten duten Jarduera Potentzialak dituzten Guneen Inbentarioak" 34 udalerrietan industriako jarduerak poluzioa eragin dezaketen guneak identifikatzen zituen. Edozein hirigintzako plana garatu aurretik beharrezkoa da arazoak identifikatzea; osasuna eta ingurumena babesteko ez ezik, eskura dauden baliabide ekonomikoak optimizatzeko ere.

Inbentario hau zenbait lurzoruren informazio historikoaren gaineko bilduma moduan planteatzen da. Inbentarioan jasotako lurzoruak honako hauek dira: denboran zehar izandako erabilerak direla eta, horrenbesteko kalitatea galdu dute, ezen gunearen erabilera potentzialak baldintzaturik gera daitezke.

Definizio horretatik abiatuz; industriako jarduerak, isurketakoak edota lurzoru potentzialki poluitu duten betelanak hartu edo hartzen dituzten kokalekuak erregistratzen dira. Manipulatzen dituzten substantzia eta materialak, eta manipulazio-moduak direla eta, aktibitate hauek lurzoruaren kalitatea aldatu ahal izan dute; gizakien osasuna, azpiegiturak, ingurumena edo lurzoruaren produktibitatearentzat arrisku bat izanik.

Soilik lagin-hartzeak eta bere ondorengo analisiak konfirmatu dezakete lurzorian poluzioa dagoela.

Inbentarioaren helburua ondorengoa da; poluzio-probabilitate handien duten kokalekuetan arreta bideratzea. Potentzialki kutsagarriak diren aktibitateak, lau mota ezberdineko kokaguneetan egoten dira, oro har. Berauek inbentario barruan agertzen dira, eta orden

beherakorrean zehazten dira jarraian, epe motzean ekiteko dituzten aukeren arabera.

**Kokaleku ez-aktiboak:** Potentzialki poluitzailea den jardueraren bat hartu duten kokalekuak dira, eta momentu hauetan okupatu gabe eta beste erabilera edo aktibitate baten zain daudenak. Hiru azpitalde bereizi daiteke: orubeak, inongo eraikitze-zantzurik ez dituzten gunek; aurriak, babesteko egoera txarrean daudenak; eta industria ez aktiboak, berrerabiltzeko egoeran dauden eraikinak, beren aktibitatea bukatu duten arren.

**Zabortegeiak:** Ondorengo hauek hartzen dira kontuan: aktiboak eta ez-aktiboak, baimendutakoak eta baimenik gabekoak, eta zabortege kategorian sartzen ez diren zaborguneak. Kokaleku ez-aktiboekin batera, lurzoru poluituen gaineko politikaren lehentasunezko helburu dira, sarritan arrisku bat izateaz gainera, ezartzen diren erabilera berrien ziurtasuna bermaten ez duten egoera batzuetan berrerabili baitaitezke. Talde honetan ere zabortege berreskuratuak hartzen dira kontuan, zeren eta kasu gehienetan hondakinak kokalekuan bertan jarraitzen baitute poluziorako foku potentziala izanez.

**Kokaleku aktiboak:** Kokaleku hauetan gaur egun lurzoruaren poluzioa eragin dezaketen jarduerak garatzen dira. Lehenik, gune hauek inbentariatuta egon behar dute egokitzat jotzen diren prebentziozko neurriak hartzeko helburuz eta; bigarrenik, jarduera bukatzean lurzoruaren kalitateari buruzko ikerketa eta, hala behar izanez gero, bere berrerabilpena eskatzea. Talde honen barruan, etxeen azpialdeetako jarduera industrialak kasu berezia dira. Hauek dira, oro har, ondo babestutako lurzoruen gainean garatutako tamaina txikiko aktibitateak.

**Kokaleku eraldatuak:** Noizbait potentzialki poluitutako jarduerak hartu dituzten gunek eta horregatik inbentarioan sartu direnak, eta egun jarduera edo erabilera ez-poluitzaileak gordetzen dituztenak. Sakabanatze bidez alboko lurzatietatik edo hurbileko jardueretatik poluitutako gunek ez dira sailkapen honetan sartzen. Beraz, poluzio barreiatuak (deposizio atmosferikoa, plagiziden aplikazio intentsiboa,...) eragindako kokalekuak kanpo geratzen dira.

## 11.2. Ordiziako inbentarioaren emaitzak

1998an IHOBek argitaratutako "EAEko Lurzoruaren Poluzioa eragiten duten Jarduera Potentzialak dituzten Guneen Inbentarioa"-ren arabera, Ordizian ezaugarri horiek biltzen dituzten ihardueren kopurua 96-koa da, 74 kokalekutan daudelarik eta 98.743 m<sup>2</sup>-tako azalera suposatzen dute. IHOBEn dokumentuak dionez, iharduera kopuru handiago bat identifikatu zen, baina horietako batzuk ezin izan ziren barne sartzeko beharrezko zehaztasunarekin kokatu. Orokorrean jarduera industrial moten barietatea handia da: mota guztietako pieza mekanikoen egitea, makina eta talde mekanikoak, altzariak, zisternak, torlojuak eta e.a. Pisu gehien duen sektorea "Ingeneritza mekaniko orokorra hirugarrenen konturakoa" da (16 jarduera identifikatzen dira eta jarduera guztiak kontutan izanik %17<sup>a</sup> suposatzen dute), "Ibilgailuen mantentze eta konpontzea" (15 jarduera eta jarduera guztiak kontutan izanik %16<sup>a</sup> suposatzen dute), "Etxeetarako altzarigintza" (%8,3), "Aroztegi

mekanikoak” (%7,3) eta gainerako jardueri dagokionez portzentaiak baxuagoak dira.

Potentzialki kutsatzailea izan daitekeen jarduera baten adibide berezi bat tailer mekanikoak dira. Jarduera hau ez da inbentarioan sartu gehiengoak etxebizitzan behe solairuan aurkitzen direlako, sektorearen berezko lanak ondo babesturiko zoruaren gainean garatzen direlarik.

Ordiziako udalerrian 74 kokaleku sartu dira inbentarioan, 98.743 m<sup>2</sup>-tako azalera izanik. Identifikaturiko lursailen batzbesteko azalera 1.334 m<sup>2</sup>-tako da.

#### Ordizian potentzialki kutsaturiko kokalekuen inbentarioa

<b>Kokalekua</b>	<b>Inbentario kodea</b>	<b>Kokaleku mota</b>	<b>Jarduera kodea</b>	<b>Jarduera izena</b>	<b>CNAE</b>	<b>Sailkapen industrialia</b>
<b>IBERDROLA, S.A.</b>	20076-00001	Ind.	20076-00001-01	IBERDROLA, S.A.	40.105	Distribución de energía eléctrica
<b>AGUIRRE, IGNACIO</b>	20076-00002	Ind.	20076-00002-01	AGUIRRE IGNACIO	28.520	Ing. mec. general por cuenta de terceros
<b>IRASTORZA EXPOSITO, JOSE MARÍA</b>	20076-00003	Sol.	20076-00003-01	IRASTORZA EXPOSITO, JOSE MARÍA	28.401	Forja y estampación de metal
<b>ELECTRA ARAXES</b>	20076-00004	Ind.	20076-00004-01	ELECTRA ARAXES	40.105	Distribución de energía eléctrica
<b>AGUIRRE ELOSEGUI, IGNACIO</b>	20076-00005	Ind.	20076-00005-01	AGUIRRE ELOSEGUI, IGNACIO	28.520	Ing. mec. general por cuenta de terceros
<b>APELLANIZ PAGOLA, SERAFIN</b>	20076-00006	Ind.	20076-00006-01	APELLANIZ PAGOLA, SERAFIN	28.740	Fabricación de pernos, tornillos, cadenas y muelles
<b>BILORE, S.A.</b>	20076-00007	Mod.	20076-00007-01	BILORE, S.A.	24.5	Fabricac. Jabones, detergentes y otros artículos de limpieza y abrillantamiento
		Mod.	20076-00007-02	INDUSTRIAS REUNIDAS DE JABÓN	24.5	Fabricac. Jabones, detergentes y otros artículos de limpieza y abrillantamiento
<b>PEÑA BARANDIARAN, FRANCISCO</b>	20076-00008	Mod.	20076-00008-01	PEÑA BARANDIARAN, FRANCISCO	31.1	Fabricación de motores eléctricos, transformadores y generadores
<b>GARAJE GOYERRI, S.A.</b>	20076-00009	Ind.	20076-00009-01	GARAJE GOYERRI, S.A.	50.2	Mantenimiento y reparación de vehículos de motor
<b>LANARGI, S.L.</b>	20076-00010	Ind.	20076-00010-01	LANARGI, S.L.	31.6	Fabricación de otro equipo eléctrico
<b>MEKALAN, S.A.</b>	20076-00011	Ind.	20076-00011-01	MEKALAN, S.A.	28.520	Ing. mec. general por cuenta de terceros
<b>ALOÑA VEHÍCULOS INDUSTRIALES, S.A.</b>	20076-00012	Ind.	20076-00012-01	ALOÑA VEHÍCULOS INDUSTRIALES, S.A.	50.2	Mantenimiento y reparación de vehículos de motor
		Ind.	20076-00012-02	ALTTUR S. COOP.	29.121	Fabricación de bombas

		Ind.	20076-00012-03	GAZTAÑAGA ANAIK, S.A.	28.21	Fabricación de cisternas, grandes depósitos y cont. de metal
<b>ESNAOLA, PEDRO JOSÉ</b>	20076-00013	Ind.	20076-00013-01	ESNAOLA, PEDRO JOSÉ	51.571	Comercio al por mayor de chatarra
<b>ORKLI S. COOP. LTDA..</b>	20076-00014	Ind.	20076-00014-01	ORKLI S. COOP. LTDA..	29.1	Fabricación de máquinas, equipo y material mecánico
		Ind.	20076-00014-02	COPRECI S. COOP.	29.71	Fabricación de aparatos de electrodomésticos
<b>ORMALAN, S.A.</b>	20076-00015	Ind.	20076-00015-01	ORMALAN, S.A.	20.1	Aserrado y cepillado de la madera; preparación industrial de la madera
<b>HIJOS DE J. ARANA</b>	20076-00016	Mod.	20076-00016-01	HIJOS DE J. ARANA	24.5	Fabricac. Jabones, detergentes y otros artículos de limpieza y abrillantamiento
<b>AGUIRREZBALA OLANO, JUAN</b>	20076-00017	Mod.	20076-00017-01	AGUIRREZBALA OLANO, JUAN	36.141	Fabricación de muebles domésticos
<b>MERINO BRAVO JOSÉ MARTÍN-PEÑA BARANDIARAN</b>	20076-00018	Mod.	20076-00018-01	MERINO BRAVO JOSÉ MARTÍN	28.12	Fabricación de carpintería metálica
		Mod.	20076-00018-02	PEÑA BARANDIARAN	31.1	Fabricación de motores eléctricos, transformadores y generadores
<b>GARMENDIA RRUABARRENA FRANCISCO-MÚGICA</b>	20076-00019	Ind.	20076-00019-01	GARMENDIA RRUABARRENA FRANCISCO	28.12	Fabricación de carpintería metálica
		Ind.	20076-00019-02	GALARRECHE	28.21	Fabricación de cisternas, grandes depósitos y cont. de metal
		Ind.	20076-00019-03	AYALA CAMPINUN, MIGUEL ANGEL	50.2	Mantenimiento y reparación de vehículos de motor
		Ind.	20076-00019-04	MÚGICA CHAPARTEGUI, IGNACIO MARÍA	50.2	Mantenimiento y reparación de vehículos de motor
		Ind.	20076-00019-05	ECHEVERRÍA LIZARAZU, IGNACIO	36.1	Fabricación de muebles
<b>AUKERA-CARRO CERÍA MODELO</b>	20076-00020	Ind.	20076-00020-01	AUKERA	28.520	Ing. mec. general por cuenta de terceros
		Ind.	20076-00020-02	CARRO CERÍA MODELO	35.4	Fabricación de motocicletas y bicicletas
<b>GUIBELALDE CHACARTEGUI, MANUEL</b>	20076-00021	Ind.	20076-00021-01	GUIBELALDE CHACARTEGUI, MANUEL	50.2	Mantenimiento y reparación de vehículos de motor
<b>TALLER MECÁNICO IRURETAGOYENA</b>	20076-00022	Ind.	20076-00022-01	TALLER MECÁNICO IRURETAGOYENA	28.520	Ing. mec. general por cuenta de terceros
<b>DORRONSORO AYERBE, RAIMUNDO</b>	20076-00023	Ind.	20076-00023-01	DORRONSORO AYERBE, RAIMUNDO	50.2	Mantenimiento y reparación de vehículos de motor



<b>CUCHILLERÍA GOENAGA</b>	20076-00024	Rui.	20076- 00024-01	CUCHILLERÍA GOENAGA	28.6	Fabricación de artículos de cuchillería y cubertería, herramientas y ferretería
<b>GALARZA BERONA, MARIANO</b>	20076-00025	Mod.	20076- 00025-01	GALARZA BERONA, MARIANO	51.571	Comercio al por mayor de chatarra
		Mod.	20076- 00025-02	RUIZ DE AZUA ZABALETA, MARÍA CRUZ	93.01	Lavado, limpieza y teñido de prendas textiles y de piel
<b>AZURMENDI AMENABARRO, JOSÉ MARÍA</b>	20076-00027	Ind.	20076- 00027-01	AZURMENDI AMENABARRO, JOSÉ MARÍA	50.5	Venta al por menor de carburantes para la automoción
<b>OYARBIDE ARAMBURU, DIONISIO</b>	20076-00028	Ind.	20076- 00028-01	OYARBIDE ARAMBURU, DIONISIO	36.141	Fabricación de muebles domésticos
<b>GARÍN GOLMAYO JOSÉ FRANCISCO- CAMPOY J.</b>	20076-00029	Ind.	20076- 00029-01	GARÍN GOLMAYO JOSÉ FRANCISCO	22.22	Otras actividades de impresión
		Ind.	20076- 00029-02	CAMPOY J.	28.520	Ing. mec. general por cuenta de terceros
<b>MARTÍN LAMATA JESÚS MARÍA</b>	20076-00030	Ind.	20076- 00030-01	MARTÍN LAMATA JESÚS MARÍA	22.22	Otras actividades de impresión
<b>LECUONA IGNACIO</b>	20076-00031	Mod.	20076- 00031-01	LECUONA IGNACIO	36.1	Fabricación de muebles
<b>GOENAGA</b>	20076-00032	Mod.	20076- 00032-01	GOENAGA	51.571	Comercio al por mayor de chatarra
<b>ESNAOLA ESNAOLA, JOSÉ MARÍA</b>	20076-00033	Mod.	20076- 00033-01	ESNAOLA ESNAOLA, JOSÉ MARÍA	36.1	Fabricación de muebles
<b>ALONSO USABIAGA, JUAN CARLOS</b>	20076-00034	Mod.	20076- 00034-01	ALONSO USABIAGA, JUAN CARLOS	28.520	Ing. mec. general por cuenta de terceros
		Mod.	20076- 00034-02	GABILONDO LASA, DIONISIO	28.520	Ing. mec. general por cuenta de terceros
<b>ROMERO GARCÍA, JOSÉ MIGUEL</b>	20076-00035	Ind.	20076- 00035-01	ROMERO GARCÍA, JOSÉ MIGUEL	50.2	Mantenimiento y reparación de vehículos de motor
<b>COMPAÑÍA AUXILIAR DE FERROCARRILES</b>	20076-00037	Ind.	20076- 00037-01	COMPAÑÍA AUXILIAR DE FERROCARRILES	35.2	Fabricación de material ferroviario
<b>ARMENDÁRIZ, GREGORIO</b>	20076-00038	Mod.	20076- 00038-01	ARMENDÁRIZ, GREGORIO	24.620	Fabricación de colas y gelatinas
<b>INTERNACIONAL DE ACUMULADORES, S.A.</b>	20076-00039	Ind.	20076- 00039-01	INTERNACIONAL DE ACUMULADORES, S.A.	31.4	Fabricación de acumuladores y pilas eléctricas
<b>CREHUET, LUIS</b>	20076-00041	Ind.	20076- 00041-01	CREHUET, LUIS	93.01	Lavado, limpieza y teñido de prendas textiles y de piel
<b>MUEBLES SAN JOSÉ-EXPÓSITO Y CÍA.</b>	20076-00042	Ind.	20076- 00042-01	MUEBLES SAN JOSÉ	36.141	Fabricación de muebles domésticos
		Ind.	20076- 00042-02	EXPÓSITO Y CÍA.	36.141	Fabricación de muebles domésticos

<b>LANCIEGO, GUILLERMO</b>	20076-00043	Ind.	20076-00043-01	LANCIEGO, GUILLERMO	29.401	Fabricación de máquinas-herramientas para trabajar los metales
<b>MUEBLES MUNDUATE-IMAZ GOROSTIZAGA, DIONISIO</b>	20076-00044	Ind.	20076-00044-01	MUEBLES MUNDUATE	36.141	Fabricación de muebles domésticos
		Ind.	20076-00044-02	IMAZ GOROSTIZAGA, DIONISIO	29.401	Fabricación de máquinas-herramientas para trabajar los metales
<b>TALLER ZUNZUNEGUI- ORIA TELLERÍA, ANDRÉS</b>	20076-00045	Ind.	20076-00045-01	TALLER ZUNZUNEGUI	29.322	Reparación de maquinaria y material agrario
		Ind.	20076-00045-02	URBIETA AZCUE, JOSÉ MARÍA	50.2	Mantenimiento y reparación de vehículos de motor
		Ind.	20076-00045-03	ORIA TELLERÍA, ANDRÉS	50.2	Mantenimiento y reparación de vehículos de motor
<b>ARISTRAIN Y LASA, S.A.</b>	20076-00046	Rui.	20076-00046-01	ARISTRAIN Y LASA, S.A.	29.242	Fabricación de material para pesar
<b>CONSTRUCCIONES METÁLICAS IZAR, S.L.</b>	20076-00047	Ind.	20076-00047-01	CONSTRUCCIONES METÁLICAS IZAR, S.L.	28.12	Fabricación de carpintería metálica
		Ind.	20076-00047-02	HERNÁNDEZ CABERO, CELESTINO	50.2	Mantenimiento y reparación de vehículos de motor
		Ind.	20076-00047-03	CUELLAR ESCALANTE, FRANCISCO	28.510	Tratamiento y revestimiento de metal
<b>GARAJE ORIA</b>	20076-00048	Ind.	20076-00048-01	GARAJE ORIA	50.2	Mantenimiento y reparación de vehículos de motor
		Ind.	20076-00048-02	ZUDAIRE PÉREZ, LUIS	28.520	Ing. mec. general por cuenta de terceros
<b>CHATARRERÍA CALVO</b>	20076-00049	Ind.	20076-00049-01	CHATARRERÍA CALVO	51.571	Comercio al por mayor de chatarra
<b>JÁUREGUI AGUIRRE, LUCIO</b>	20076-00050	Ind.	20076-00050-01	JÁUREGUI AGUIRRE, LUCIO	28.520	Ing. mec. general por cuenta de terceros
<b>ESPEJOS SERIGRAFIADOS, S.L.</b>	20076-00051	Ind.	20076-00051-01	ESPEJOS SERIGRAFIADOS, S.L.	22.22	Otras actividades de impresión
<b>ANESDUR, S.L.</b>	20076-00052	Ind.	20076-00052-01	ANESDUR, S.L.	28.510	Tratamiento y revestimiento de metal
<b>TALLERES AUXILIARES GOIHERRI - TAG</b>	20076-00053	Ind.	20076-00053-01	TALLERES AUXILIARES GOIHERRI - TAG	28.12	Fabricación de carpintería metálica
<b>SOLDADURA CARMET</b>	20076-00054	Ind.	20076-00054-01	SOLDADURA CARMET	28.520	Ing. mec. general por cuenta de terceros
<b>IKASLAN</b>	20076-00055	Ind.	20076-00055-01	IKASLAN	28.520	Ing. mec. general por cuenta de terceros
<b>GOIPLAST</b>	20076-00056	Ind.	20076-00056-01	GOIPLAST	34.3	Fabricación de partes, piezas y accesorios no eléctricos para vehículos de motor

		Ind.	20076-00056-02	HERRAMIENTAS LEUN, S.A.L.	29.1	Fabricación de máquinas, equipo y material mecánico
<b>HERBE</b>	20076-00057	Ind.	20076-00057-01	HERBE	28.520	Ing. mec. general por cuenta de terceros
		Ind.	20076-00057-02	ITEYMAN	29.1	Fabricación de máquinas, equipo y material mecánico
<b>HERRAJES DEPORTIVOS, S.A.</b>	20076-00058	Ind.	20076-00058-01	HERRAJES DEPORTIVOS, S.A.	28.520	Ing. mec. general por cuenta de terceros
<b>CONSTRUCCIONES METÁLICAS IZAR, S.L.</b>	20076-00059	Ind.	20076-00059-01	CONSTRUCCIONES METÁLICAS IZAR, S.L.	28.12	Fabricación de carpintería metálica
<b>TALLERES MUAG, C.B.</b>	20076-00060	Ind.	20076-00060-01	TALLERES MUAG, C.B.	28.520	Ing. mec. general por cuenta de terceros
<b>AUKERA-ORMALAN</b>	20076-00061	Ind.	20076-00061-01	AUKERA	28.12	Fabricación de carpintería metálica
		Ind.	20076-00061-02	GARCÍA CARREÑO, GERMÁN	28.12	Fabricación de carpintería metálica
<b>BELOR, S.A.</b>	20076-00062	Ind.	20076-00062-01	BELOR, S.A.	28.740	Fabricación de pernos, tornillos, cadenas y muelles
<b>GARAJE ORDIZIA, C.B.</b>	20076-00063	Ind.	20076-00063-01	GARAJE ORDIZIA, C.B.	50.2	Mantenimiento y reparación de vehículos de motor
<b>GARAJE TXINDOKI, C.B.-CITROEN</b>	20076-00064	Ind.	20076-00064-01	GARAJE TXINDOKI, C.B. - CITROEN	50.2	Mantenimiento y reparación de vehículos de motor
<b>GARBI</b>	20076-00065	Ind.	20076-00065-01	GARBI	50.2	Mantenimiento y reparación de vehículos de motor
<b>HERNÁNDEZ CABERO, CELESTINO</b>	20076-00066	Ind.	20076-00066-01	HERNÁNDEZ CABERO, CELESTINO	50.2	Mantenimiento y reparación de vehículos de motor
<b>MUEBLES ORDIZIA, S.A.</b>	20076-00067	Ind.	20076-00067-01	MUEBLES ORDIZIA, S.A.	36.141	Fabricación de muebles domésticos
<b>TALLERES ELECTROMECÁNICOS HAMCEIT, S.A.</b>	20076-00068	Ind.	20076-00068-01	TALLERES ELECTROMECÁNICOS HAMCEIT, S.A.	31.1	Fabricación de motores eléctricos, transformadores y generadores
<b>INDUSTRIAS TUERMEKA, S.A.L.</b>	20076-00069	Ind.	20076-00069-01	INDUSTRIAS TUERMEKA, S.A.L.	28.740	Fabricación de pernos, tornillos, cadenas y muelles
<b>KALDER ORDIZIA</b>	20076-00070	Ind.	20076-00070-01	KALDER ORDIZIA	28.21	Fabricación de cisternas, grandes depósitos y cont. de metal
<b>IRASTORZA BARANDIARÁN, FRANCISCO</b>	20076-00071	Ind.	20076-00071-01	IRASTORZA BARANDIARÁN, FRANCISCO	28.520	Ing. mec. general por cuenta de terceros
<b>MECÁNICA GARMENDIA, S.L.</b>	20076-00072	Ind.	20076-00072-01	MECÁNICA GARMENDIA, S.L.	28.520	Ing. mec. general por cuenta de terceros
<b>GAZTAÑAGA ANAIAK, S.A.</b>	20076-00073	Ind.	20076-00073-01	GAZTAÑAGA ANAIAK, S.A.	28.21	Fabricación de cisternas, grandes depósitos y cont. de metal

<b>GOENAGA IRIBARREN, JUAN</b>	20076-00074	Ind.	20076- 00074-01	GOENAGA IRIBARREN, JUAN	51.571	Comercio al por mayor de chatarra
------------------------------------	-------------	------	--------------------	----------------------------	--------	--------------------------------------

*Iturria: IHOBE, 2004*

*Kokaleku mota:*

*-Ind.: Industria aktiboa*

*-W.: Zabortegia*

*-Mod.: Kokaleku eraldatua*

*-Rui.: Aurria*

*-Sol.: Orubea*

### 11.3. Jarduteko aukerak

IHOBEk egindako "Lurzoruaren Poluzioa eragiten duten Jarduera Potentzialak dituzten Guneen Inbentarioa"-ren arabera, erregistratu edo inbentarioan sartutako kokaleku gehienak ez dira azkenik poluituta izango, lurzoruaren kudeaketa eraginkorra eta ingurumenarekin begirunetsua izateko lagunduz. Aipatu inbentarioak udal teknikarientzat baliogarri izan behar du oinarritzko informazioa eta kontsulta-tresna moduan, hirigintza-planan eta kudeaketan lurzoruaren kalitateari buruzko alderdia kontuan izateko.

Inbentarioaren kapitulu batean udal teknikariari oinarritzko gakoak ematen zaizkio administrazio-prozedura bakoitzean lurzoruaren kalitatea sartzeko.

Bestalde, 2004ko martxoan Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak Lurzoruaren Poluzioa Prebenitzeko eta Zuzentzeko Lege Proiektua onartu zuen bere geroko eztabaida eta onarpenerako.

Aipatu Legeraen xedea da lurzoruaren babeserako EAEn diseinatutako politikaren hiru helburuak:

- Lurzoruetako alterazio berrien agerpena prebenitzea.
- Premiazko kasuei irtenbide ematea.
- Epe ertainean eta luzean lurzoru poluituen herentzia soluzionatzea, egun beren berreskurapena premiazkoa ez den arren.

### 11.4. Aktualizazioa edo eguneratzea

1998. urteko Potentzialki Kutsatutako Lurzoruen inbentarioa Ordiziako Udaletxeak jaso zuenetik kontutan izan du hiri antolakuntzan "lurzoruaren kalitatea"ren irizpidea barneratzeko tresna nagusi bezala.

## 12. AKUSTIKA

### 12.1. Udaleko zarata mailaren baldintza orokorrak

Zarata gizakiaren osasunerako soinu nekagarri edota kaltegarria da (gortasuna, zefaleak, suminkortasuna, loaldia etetea,... sor ditzake). Honi kutsadura akustikoa deitzen zaio.

Zarata sortzen duten eragile ezberdinen konbinazioak biztanleriak jasaten duen zarata maila ematen digu. Zarata sortzen duten aktibitate ohikoen barruan industriak, herri lanak, establezimendu komertzialak, autoen joan-etorriak sartzen dira, azken hau denboran eta espazioan eragin handiena duena izanik, orokorrean. Mugikortasuna eta zarataren artean erlazio handi bat dagoela esan daiteke, honela zarataren azterketa batek mugikortasunari buruzko informazioa ere ematen digu.

Puntu bati eragiten dion soinu maila dBtan (dezibel) emanda dago, baina dBA-k ere erabiltzen dira hauek gizakiak benetan entzuten duenaren antzekoena baitira. Leq-a (ordubeteko soinu maila etenbabearen parekoa) da erabiltzen den magnitude akustikoa.

Ondorengo taulak zarata (dBtan neurtuta) eta ahozko komunikazioa erlazionatzen du:

<b>0-20</b>	<b>Entzute Ataria</b>
<b>20-50</b>	Komunikazio erraza
<b>50-80</b>	Komunikazio posiblea
<b>80-110</b>	8h ko ihardunaldi bateko arrisku muga
<b>110-140</b>	Komunikazioa ia ezinezkoa
<b>&gt;140</b>	Mina

#### 12.1.1. Iturburu mugikorrek

Iturri mugikorrek erlazionatuta dagoen problematika nagusia, hein batean, trafiko-ardatzen ezaugarri eta kokapenarengatik zehaztuta dago.

##### ➤ Errepide sarea

Errepideko zaratak eguneko ordutan soinu-maila konstantea du ezaugarri, gaueko 10etatik aurrera jaitsiz, eta goizeko ordu bietatik eta hirurak bitartean maila minimoak lortuz. Hondoko baloreak 40 dB inguruan daude.

Ordiziak herriarteko errepide sare bat du eta horien artean GI-2133 (Ordiziatik Alegiara doa, Zaldibia, Abaltzisketa eta Amezketa iraganaz) , GI-2131 (Ordizia eta Alegia artekoa) eta Madril-Irun N-1 (autobia izaera du) aipatuko genituzke. Aipaturiko azken errepide honek sortzen du akustikoki eragin nabarmenena duen intentsitateagatik eta hirigunetik iragateagatik. Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolakuntza eta Ingurugiro Sailak eginiko E.A.E.-ko Zaraten Mapan, errepide honek 70 eta 75 dBa arteko zarata-mailak eragiten dituela inguruko eraikinetan adierazten da.

Ordizia eta Zaldibia arteko GI-2133 errepideari dagokionez, erregistratzen den zarata maila 65 eta 70 dBa artekoa da.

Gipuzkoan, zarata iturri nagusia herri barneko trafikoak sorturikoa da. Gertatzen diren balaztadek, bozina jotzeak eta sirena hotsek barietate ezberdinetako zarata sortzen dute: egunez gertaturiko kasu erdiak 70 eta 77 dB zarata mailan kokatzen dira eta batzutan 80 Db eta baita 90 dB-ko mailak ere gainditzera iritsi daitezkeelarik, beti ere, ahaztu gabe sakoneko 50 dB maila inguruko jarraiko zarata dagoelarik.

- *Parke mugikorra*

2002. urtean, udalerriko ibilgailu-parke 3.411 ibilgailuk osatzen zuten.

- *Trenbidea*

Trenak, errailetatik gertu dauden etxebizitzetan zarata maila handiak sortarazten ditu. Aipaturiko zarata maila hori iritsi daiteke 90 dB-ko mailara eta kontutan izan behar da gaeuz maila hau ez dela jeisten. Ordea, 10 metrotako distantziara 70 dB-ko zarata maila ez du gainditzen, horregatik esaten da trenbidea arazoan iturburu izan daitekeela baina gertueneren kokatuak dauden etxebizitzentzat.

Ordiziako udalerraren kasuan, RENFE espainiar estatuko enpresaren Miranda de Ebro-Irún trenbide-linea iragaten da. Trenbide linea honek sortarazten duen zarata maila 65-70 dBa-takoa da trenbidetik 10 metrora.

Bestalde, E.A.E.-ko Zarata Mapak Ordizia, Beasain eta Ormaiztegiarekin batera, errepideetako zarata talka erregistratzen duen udalerrira gisa identifikatzen du eta zarata pantailak ezartzea bideragarri dela adierazten du. Ordiziaren kasu konkretuan, Ordizia eta Beasain artean N-1 iragaten den eremuan zarataren aurkako pantailak ezartzea bideragarria da.

### 12.1.2. Iturburu finkoak

➤ *Jarduera industriala:*

Industriako zarata mota horrelako soinu-eragina sortzen duen jardueraren arabera da. Horrela, frekuentzia desatseginenak dituzten zaratak (haizegailuak, sirenak, makina birakariak, transformatzailu handiak) gogaikarrienak dira. Neurtutako %50k 60 eta 74 dBa arteko soinu-mailak dituzte, 77 dBa goreneko mailak izanik.

Hiritar orokorrez gainera, langileak beraiek dira horrelako zarata gehien jasaten dutenak. Horri buruzko azterketen arabera, EAEn langileek gutxi ezagutzen dute jasan ohi den arrisku-mailaren inguruan. Gipuzkoan, hain zuzen ere, biztanleria landunaren %49 laneko zarata jasateko arriskuan dago: %6k 60 eta 80 dBa arteko soinu-mailak jasaten ditu, %18k 80 eta 90 dBa artekoak, %6,6k 90 eta 95 dBa artekoak eta %0,6k 95 dBa baino gehiagokoak. Osasunaren Mundu Erakundearen baieztapena kontuan izanik; hots, "entzumenaren kontrako kaltea hasten da egunean 8 orduko 75 dBA soinu-mailak jasaten direnean", gutxienez Gipuzkoako biztanleriaren %42,5 arriskuan dago.

EAEko Zarata Maparen arabera, Ordiziako udalerrria ez dago zarata motaren bat sortzen duten industrialdeen zerrendan sartuta.

- *Saltokietako jarduera:*

Saltokietako aktibitateek sortutako zaratak jatorri ugari izan ditzakete, bai aktibitateak berak sorturikoak, bai bertara iristeko moduak sortu dezakeena, bereziki azken hau motordun ibilgailu baten bidez egiten bada.

- *Lokal publikoak: (tabernak, jatetxeak,...)*

Aktibitate hauek burutzen diren hurbileko inguruan nozitzen dira jaiegunetan eta gauetan, batez ere larunbatetan tabernen gainean kokatzen diren etxeak dira arazo handiena dutenak. Legeak dioenez etxe horietara gaez iritsitako zaratak ez du 30 dB-tik gora izan behar.

Aken urteetan, pub-ak eta tabernak gero eta ugariagoak dira udalerrian, auzokideak horien kezu ez izanik. Horren arrazoia da ostalaritza-sektorea eta Udalaren artean ezarritako hitzarmena, horrelako lokalak eguerdiko 3.30etatik aurrera itxita mantentzeko. Udalerrian giro handien duen zonaldea Zaldiurreta da, 9 pub-ekin; beste aldean Kale Nagusia edo zinemaren kalea dago, 8 pub-ekin.

- *Bide publikoan egiten diren gainontzeko jarduerak (herri lanak, jaiak,...)*

Iraupen txikiko jarduerak dira eta ekintza zehaztuetara mugatuta daude. Garrantzizko soinu-mailak eragin ditzakete; adibidez, herri lanetan erabilitako makinerian (mailu pneumatikoak, zulatzeko makinak, zerrak) zaratek 90 dBA gainditu dezakete, 10 metrotik neurrita.

## **12.2. Inguruneko maila akustikoen analisia**

### **12.2.1. Erabilitako metodologia**

Atal honetako informaziorik ez dago eskuragarri.

### **12.2.2. Emaitzak**

Atal honetako informaziorik ez dago eskuragarri.

### **12.2.3. Zarataren inzidentziaren pertzepzioa**

Atal honetako informaziorik ez dago eskuragarri.



## 13. JARDUERA EKONOMIKOEN INGURUMEN ERAGINA

### 13.1. Sarrera

Ordiziako jarduera ekonomikoen deskribapena egiteko Jarduera Ekonomikoen Zergaren (IEZ) zerrenda hartu da kontuan, GOIEKI Eskualde Garapen Agentziak argitaratutako "Goierriko Gida Industrialean" agertzen dena.

Gipuzkoan, sailkapen hau 1993ko apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu bidez aplikatzen da, non Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergaren testu bategina onartzen den.

Aipatu zerrendak emandako informazioaren arabera, zera ondorioztatu daiteke: udalerrian lan egiten duenaren gehiengoa (ia %40a) Hirugarren eta Laugarren Mailan aritzen dela lanean; hots, metalen transformazioan eta bestelako manufaktura industrietan.

<i>Industrien sailkapena, Ekonomia Ihardueraren Gaineko Zergen arabera</i>	<i>%</i>
<b>BIGARREN SAILA</b>	
<i>Materiale ez energetiko eta beren deribatuak erauztea eta transformatzea. Industri kimikoa.</i>	<b>8,3</b>
<b>HIRUGARREN SAILA</b>	
<i>Metal transformagintza. Prezisio mekanika.</i>	<b>38,8</b>
<b>LAUGARREN SAILA</b>	
<i>Bestelako manufaktura industria</i>	<b>38,8</b>
<b>BOSTGARREN SAILA</b>	
<i>Eraikuntza</i>	<b>13,8</b>

*Iturria: GOIEKI, S.A.*

### 13.2. Jarduera ekonomikoak

#### 13.2.1. Industria-jardueren ingurumen eragina

Industria-jardueren ingurumen eraginaren balorazioa egiteko administrazio ezberdinetatik jasotako informazioa erabili da. Jasotako informazio hau industriak ingurumenean eragin dezakeen alderdiei buruzko da: ur-kontsumoa, hondakin-uren isurketa, hondakinen sorrera eta tratamendua, poluzio atmosferikoa eta energia kontsumoa.

Ordiziako enpresa industrialak honako hauek dira:

<b>Izen Komertziala</b>	<b>Aktibitatea</b>	<b>Langile kopurua</b>
<b>ORKLI</b>	Balbuleria, segurtasun termoelektrikoa	275
<b>GUREAK</b>	Muntaketak eta mekanizazioak	50
<b>ESPARRU ERAIKUNTZAK</b>	Eraikuntza	50
<b>PAGOSA</b>	Okindegi industrialia	41
<b>PASTELERIA UNANUE</b>	Gozogintza, Pastelgintza	20
<b>HERBE</b>	Piezen mekanizazioa eta balbulen fabrikazioa	14
<b>MECANICA GARMENDIA</b>	Piezen mekanizazioa	14
<b>MEKALAN</b>	Piezen mekanizazioa	12
<b>GOIETXE, S.A</b>	Eraikuntza	11
<b>ORMALAN</b>	Egurrezko beste objektuen fabrikazioa	11
<b>ANESDUR</b>	Pieza metalikoen estaldura	9

Iturria: GOIEKI, S.A.

Jarraian, industria-jarduera horien ingurumen eraginari buruzko sintesia egiten da, ingurumen bektore guztiak kontuan hartuz:

## URA

Horren inguruko informazioa 7.3.2. atalean (Hondakin urak isurtzeko guneak) gaineratzen da.

## HONDAKINAK

Gaur egun arte ez dira industria sektoreak sorturiko hondakinen inguruko daturik eskaini. Atal honetan aipatu genitzakeen datuak Sasetako Mankomunitateak eskainitako zerbitzuarekin dute lotura, hau da, eskualdeko industria poligono garrantzitsuenei eskaintzen dien kartoiaren jasotze zerbitzuaren inguruko datuak. Zerbitzu honi 2002. urtean eman zitzaion hasiera esperientzia pilotu gisara.

Ordiziaren kasuan Mallutz-eko industria poligonoan egiten da jasotzea.

Bestalde, Sasetako Mankomunitateak eskualdeko industria poligono garrantzitsuenetako lantegi txikiei kartoiaren gaikako biltze zerbitzu bat eskaintzen die. Ordizian biltze hau astean bi egunetan egiten da, konkretuki astearte eta ostiralero 20.00etatik aurrera eta errespetatu beharreko araua da kaxak lurrean modu txukunean uztea. Gainera, kaxek ez dute plastiko, egur, zumitz eta metalezko elementurik izan beharko, ezta beste materialik ere, izan ere, berauen ondorengo birziklaia prozesuan eragina izan bait dezakete.

## **ATMÓSFERA IGORPENAK**

Horren inguruko informazioa 10.1.1. atalean aipatzen da.

## **ENERGIA**

Orain arte ez da udalerriko industrien gas eta elektrizitate kontsumoen gaineko informazio zehatzik eman.

Ingurugiro Kudeaketa Sistemei dagokionez, Ordizian, ORKLI S. Coop. Ltda. enpresak zeina, talde magnetiko, termopare eta ura eta gasaren etxeetako erregulazio elementuak diseinatu, garatu eta produzitzen dituen, ISO 14.001 ziurtagiria du. Bestalde, udalerrian kokatuak dauden beste bi enpresek, IKASLAN eta Goieki-Goierriko Ekimenak, Ekoscan-a dute.

“Certificación Forestal Paneuropea” (PEFC) deritzon ziurtagiria baso kudeaketa iraunkorra bultzatzeko eta boluntarioki zertifikatzeko sistema bat da. Ordizian ez da kudeaketa planik eskatu.

Bestalde, atal honetan azpimarratu behar da ORKLI, S.Coop enpresak 2003-2004-ko ingurugiro europar sari bat lortu zuen, konkretuki, enpresaren politikei bat datorkien errendimenduen hobetze nabariarena.

Orkli, S. Coop. Mondragon Corporación Cooperativa (MCC) taldearen barnean kokatzen da, konkretuki, Osagaien dibisioan kokatzen delarik. Enpresa honen egoitza soziala Ordizian kokatzen da eta 500 pertsona ingurutako lantaldea du. Bi produkzio planta ditu (Ordizia eta Arama), eta bere jardueraren objektua berogailu eta etxeko tresna elektrikoaren osagaiak egitean eta saltzean datza.

Ordiziako plantan segurtasun termoelektrikoko jarduera egiten da eta talde magnetiko eta termopareak egiten dira. Bere fabrikazio prozesuaren ezaugarri nagusienak dekoletajea, lapeadoa eta linea automatikoen muntaia dira.

Balbula egitearen jarduera Aramako plantan kokatzen da eta bertan balbula, eranskinak eta erregulazio eta kontrol osagarriak egiten dira. Fabrikazio prozesuaren ezaugarri nagusienak estanzioa, transfer makinetan eta mekanizazio zentruetan mekanizazioa egitea eta linea erdiautomatikoen muntaia dira.

Orkli, S. Coop. Kudeaketa Sistema Integratuaren garapenari hasiera ematen dio 1991. urtean ISO 9001 Arauak azaltzen duen Kalitate Sistemari jarraiki. Honela, garatu den Kudeaketa Sistema Integratuak egun, honako arau hauek eskatzen dituzten betebeharrak betetzen ditu:

**-ISO 9001:2000**

**-ISO 14001:1996**

### **-UNE 81900-EX**

Bestalde, Kudeaketa Sistema Integratua martxan jartzeak, eragin zuzena izan du 2001. urteko Azaroan Orkli, S. Coop. EUSKALIT-ek eskainiriko zilarrezko Q-a lortzerakoan.

#### **Kudeaketa Sistema Integratua martxan jartzeak suposatu dituen onurak:**

- Olio hidrauliko eta mozketetako kontsumoaren jeitsiera 41.000 l/urtean.
- Olio hidrauliko eta mozketetako hondakinen sorreran %80ko jeitsiera.
- Lehen osagaien eta hondakin arriskutsuen zentralizazioa.
- Taladrinaren berreskuratzea eta aipaturiko hondakin horren gutxitzea 220m<sup>3</sup>/urteko.
- Lapeadoa egiten den sailean garbigarrien kontsumoaren gutxiera %70ean eta lurzorua garbiketarako erabiltzen den garbigarriaren kontsumoaren jeitsiera %50ean.

#### **13.2.2. Baso eta abelur aktibitateen ingurune eraginak**

Ingurune sozioekonomikoari eta Hondakinei dagozkien ataletan topa daiteke informazioa.

#### **13.2.3. Erauzketa aktibitateen ingurune eraginak**

Ordizian aterakuntzako ustiategirik ez dago.

#### **13.2.4. Azpiegitura berrien ingurumen eragina.**

AA.SS-en helburuetako bat ondare eta ingurugiroaren erreserbara zuzentzen da:

- Udalerriko bizi kalitatea mantendu eta gehitzea, eraikia eta hiritartua dagoen ondarea biziberrituz (batez ere, guneko historikoa), irisgarritasuna bermatuko duten sare egokia ordenatzea, zarataren talka eta kutsadura murriztuaz. Ekipametuak kontsolidatu eta optimizatu nahi dira, ingurune zabalen hornidurarekin ingurugiroari balorea emanaz. Bestalde, nekazal eremuko eskuhartzeen baldintzak erregulatu nahi dira eta batez ere, Uraren Zikloarengan eragina duten azpiegiturenak eta baita saneamenduarengan eragina dutenak ere.

### **13.3. Jarduera sailkatuen kudeaketa**

Irekiera lizentziatarako jarduerak bi motatan sailkatzen dira: Jarduera sailkatuak (kaltegarriak) eta jarduera ez sailkatuak (kaltegabeak).

Jarduera Sailkatuak, otsailaren 27ko 3/98 Lege Orokorraren, EAeko ingurugiroa babesteari buruzkoa III. Kapituluaren arabera arautzen dira. Honek dioenez, pertsoneri edo beren ondasunei eta ingurugiroari kalte egin diezaieketen jarduera guztiek administrazioaren lizentzia-araubideari jarraitu beharko diete, martxan jarri aurretik eta nahitaez.

Jarduera sailkatu bat ezartzeko nahiz hedatu edo berriztatzeko ahalmena ematen duen udal-baimenari Jarduera Lizentzia deituko zaio. Jarduera lizentzia lortzeak irekiera lizentzia edukitzea dakar eta udaletxeak soilik eman dezake.

Irekiera lizentziak batez ere bi taldetan sailkatzen dira: Jarduera Sailkatuak eta Jarduera Askeak.

Sailkatuak, Euskal Parlamentuak onarturiko Ingurugiro Babeserako 3/98 Lege Orokorrek esandakoaren arabera tramitatzen dira eta Askeak berriz, Eusko Jaurlaritzak emandako 165/1999 Dekretuaren arabera.

Irekiera Lizentzia edozein jarduerentzako beharrezkoa da eta Udaletxeak bakarrik eman dezake.

#### **13.3.1. Espedienteen tramitazioa**

Atal honen inguruko informazioa falta da.

#### **13.3.2 Sailkaturiko jardueren ikuskapena eta kontrola**

Atal honen inguruko informazioa falta da.

## 14. INGURUNE-ARRISKUAK

### 14.1. Sarrera

Arriskuen efektuak minimizatzeko eman beharreko lehen pausoa, arriskuak existitzen direla aitortzea eta arriskuok zer-nolako dimentsioak har ditzaketen zehaztea da. Ingurumen arriskuak ebaluatzeko metodologiak oinarritzko hiru aspektu hartzen ditu kontuan:

- Industriako Jardueren ingurumen arriskuak
- Udal Planak
- Istripu handien prebentzioa

Ordiziako udalerrriak arrisku eta larrialdien aurrean honako informazio materia du:

- Udal Larrialdi Plana (2000. urteko Azaroa).

Udal larrialdi Plan honen oinarritzko helburuak honako hauek dira:

- Udalerrri mailan gertatzen diren larrialdien aurrean eskuhartzeak gauzatzeko antolaketa egitura eta jarraitu beharreko prozedurak taxutu.
- Udalerrri mailan autobabesa bultzatzea.
- Udalerrriko arrisku eta elementu zaurkorrak identifikatu eta aztertzea.
- Antzeman diren arriskuak murriztu edo ebitatzeko neurriak hartu.
- Biztanlegoari arrisku eta prebentzio neurrien berri eman eta kontzientziatu.
- Artikulazio sistema bat ezartzea Euskadiko Babes zibilerako lurralde planarekin eta maila goragoko kudeaketa eta koordinazio zentruekin

Larrialdi Plan honen aplikazio eremua Ordiziako Udalerrri osoa litzateke.

## 14.2. Arrisku Naturalak

Ordiziakoa Larrialdi Planean arrisku natural gisa lur mugimenduak, uholdeak eta suteak identifikatzen dira.

Lur mugimenduen kasuan honako eremuak identifikatzen dira arriskua sor dezaketenak bezala:

<b>Kodea</b>	<b>Arrisku eremua</b>
<b>MT-1</b>	Aramendi kalearen atzekaldeko Zelaya eta Ur Zentralekoa
<b>MT-2</b>	Okorro kaleko atzeko zelaia

*Iturria: Ordiziako Larrialdietarako Udal Plana, 2000*

Uholdeen kasuan arrisku guneak bezala honako hauek kontsideratzen dira:

<b>Kodea</b>	<b>Arrisku eremua</b>
<b>IN-1</b>	Oria ibaiaren bi hertzak

*Iturria: Ordiziako Larrialdietarako Udal Plana, 2000*

Suteei dagokionez, jarraian aipatzen diren eremuak dira arriskuguneak:

<b>Kodea</b>	<b>Arrisku eremua</b>
<b>IF-1</b>	Udalerriaren Hegoekialdeko eremuan aurkitzen diren baso landaketak
<b>IF-2</b>	Udalerriaren Iparraldean aurkitzen diren baso landaketak.
<b>IF-3</b>	Udalerriaren mendebaldean dauden baso landaketak
<b>IU-1</b>	Torrea
<b>IU-2</b>	Gune historikoko egurrezko egitura duten eraikinak
<b>IU-3</b>	Urdaneta, Goierri eta Kale Berria

*Iturria: Ordiziako Larrialdietarako Udal Plana, 2000*

### 14.3. Arrisku industrialak

Beraien jarduera medio, istripuren bat sortzeko gauza diren industria edota jarduera teknologiko garrantzitsuenak Ordiziako Larrialdi Planaren arabera honako hauek dira:

<b>Kodea</b>	<b>Arrisku eremua</b>	<b>Helbidea</b>
<b>RI-1</b>	Talleres Mecanicos Herbe, S.A.	Pol. Industrialdea Nave 20-21
<b>RI-2</b>	Gaztañaga Anaiak, S.L.	Pol. Industrialdea, 6
<b>RI-3</b>	Mecanica Garmendia, S.L.	Pol. Industrial Altamira, 6
<b>RI-4</b>	Gaiplastik, S.L.	
<b>RI-5</b>	Gasolinera	Urdaneta, 48

Iturria: Ordiziako Larrialdietarako Udal Plana, 2000

Industria Jarduera batzuk sor ditzaketen istripuen prebentziorako Uztailaren 15eko 886/1988 Errege dekretuak, 12. artikuluan esaten du biztanleriari modu egokian jakinarazi behar zaiola beraien berri eta alarma egoeran jarraitu beharreko pausuak komunikatu, gainera, beste eremuetako larrialdi planekin koordinatua egon behar duela aipatzen du.

### 14.4. Arriskuaren kudeaketa

#### 14.4.1. Jardunketarako plana

Ordiziako Larrialdi Planak, larrialdi motak sailkatzen ditu, arriskuen mapa diseinatzen du eta gerta daitezkeen larrialdi egoerak kontrolatzeko udalerriak dituen medioen katalogoa egiten du.

#### 14.4.2. Larrialdietarako Udal Planak (L.U.P.)

Babes zibilerako 2/1985 Legeak Udalerrri bakoitzari aitortzen dio eskuduntza bakoitzaren Larrialdi Plana aratzeko, behin onartuak izan direnean dagokion Autonomi Erkidegoko Babes Zibilerako Komisioak homologatu beharko ditu. Gainera, plan horiek Autonomia Erkidego mailako planetan integratuko direla aurrakusten da, honela, Ordiziaren kasuan, Eusko Autonomia Erkidegoko Babes Zibilerako Lurraldeko Planean barneratuko da.



Ordiziako Larrialdietarako Plana homologatua aurkitzen da.

Larrialdietarako Plana, azken finean, dokumentu bat da non udal mailako egitura iherarkiko eta funtzionala adierazten den eta giza baliabide eta materialen koodinazio sistema nolakoa izango den definitzen da.

Honela, Larrialdietarako Plana dokumentu bat da non udalerrri mailan gertatu daitekeen larrialdi kasuei erantzun egoki bat emateko. Bertan, antolakuntza egitura orokor bat definitzen da zeina gai izango den edozein arrisku motari (nahiz eta arrisku hori Larrialdietarako Planean ez definitua egon) aurre egiteko.

Ordiziako Larrialdietarako Plana aztertuz, zeina 2000. urteko Azaroan egin izan zen, identifikatu diren arriskuak honako hauek izan dira:

- Lur mugimenduak
- Uholdeak
- Jarduera industrial edo teknologikoei loturiko arriskuak
- Merkantzien garraioari eta garraio publikoari loturikoak
- Sute arriskuak
- Giza kontzentrazio handiei loturikoak
- Gizartearen aurkako ekintzak.

#### **LUR MUGIMENDUAK:**

Jokabide Plana:

- Krisialdiko mahaia osatu (Pleno aretoan).
- SOS-DEIAK-ekoekin kontaktatu (112) (elkartze puntu bat definitu) eta gertatutakoa jasan duten partikularrekin.
- Trafiko sarrerak, mozketak eta kontrolak egokitu, laguntza logistikoa posibilitatzeko. Beharrezko trafiko desbideraketak egin trafikoa moztuko den puntuak definituz eta alternatibak eskainiaz.
- Eraginda suertatu diren eraikinak ebakuatu, ebakuazio arduradunak definituz eta jendea eraman behar den puntuak edo ostatu emango zaien lekuak ezarriaz.

- Biztanlegoari informazioa eskaini eta baita eraginda suertatu direnei ere; desagertuen bilatzea; ondasunen zaintza; eraginda suertatu diren pertsonak eraman beharreko lekuen definitzea edo ostatua eman behar zaien kasuan ostatua definitzea; hildakoen gordailua egingo den lekua ezartzea; beharrezko diren tresnen eta beharrezko bizigaien hornikuntza (elikagaiak, arropak, e.a.); ebakuatuak izan diren pertsonentzat laguntza (psicólogo, mediku...)
- Egin beharreko obrak: hornigaien mozketak behar izanez gero, ura, gasa, elektrizitatea; lurren kentzea, inguruaren garbiketa; lur ezegonkorren eustea.

Arrisku eremuak:

- Aramendi kaleko atzekaldean dagoen zelaia eta Ur Zentralaren atzekaldekoa.
- Okorro Kalearen atzekaldean dagoen zelaia.

### **UHOLDEAK:**

Jokabide Plana:

- Krisialdiko mahaia osatu (Pleno aretoan).
- SOS-DEIAK-ekoekin kontaktatu (112) (elkartze puntu bat definitu) eta gertatutakoa jasan duten partikularrekin.
- Trafiko sarrerak, mozketak eta kontrolak egokitu, laguntza logistikoa posibilitatzeko. Beharrezko trafiko desbideraketak egin trafikoa moztuko den puntuak definituz eta alternatibak eskainiaz.
- Eraginda suertatu diren eraikinak ebakuatu, ebakuazio arduradunak definituz eta jendea eraman behar den puntuak edo ostatu emango zaien lekuak ezarriaz.
- Biztanlegoari informazioa eskaini eta baita eraginda suertatu direnei ere; desagertuen bilatzea; ondasunen zaintza; eraginda suertatu diren pertsonak eraman beharreko lekuen definitzea edo ostatua eman behar zaien kasuan ostatua definitzea; hildakoen gordailua egingo den lekua ezartzea; beharrezko diren tresnen eta beharrezko bizigaien hornikuntza (elikagaiak, arropak, e.a.); ebakuatuak izan diren pertsonentzat laguntza (psicólogo, mediku...)
- Egin beharreko obrak: hornigaien mozketak behar izanez gero, ura, gasa, elektrizitatea; lurren kentzea, inguruaren garbiketa; kanal, isurbide, drainatze sare, zubien eta e.a garbiketa; uraren txikaketa.

Arrisku eremua:

- Oria ibaiaren bi hertzak.

### **JARDUERA INDUSTRIAL ETA TEKNOLOGIKOEI LOTURIKO ARRISKUAK:**

Jokabide Plana:

- Krisialdiko mahaia osatu (Pleno aretoan).
- SOS-DEIAK-ekoekin kontaktatu (112) (elkartze puntu bat definitu) eta gertatutakoa jasan duten partikularrekin.
- Trafiko sarrerak, mozketak eta kontrolak egokitu, laguntza logistikoa posibilitatzeko. Beharrezko trafiko desbideraketak egin trafikoa moztuko den puntuak definituz eta alternatibak eskainiaz.
- Eraginda suertatu diren eraikinak ebakuatu, ebakuazio arduradunak definituz eta jendea eraman behar den puntuak edo ostatu emango zaien lekuak ezarriaz.
- Biztanlegoari informazioa eskaini eta baita eraginda suertatu direnei ere; desagertuen bilatzea; ondasunen zaintza; eraginda suertatu diren pertsonak eraman beharreko lekuen definitzea edo ostatua eman behar zaien kasuan ostatua definitzea; hildakoen gordailua egingo den lekua ezartzea; beharrezko diren tresnes eta beharrezko bizigaien hornikuntza (elikagaiak, arropak, e.a.); ebakuatuak izan diren pertsonentzat laguntza (psicólogo, mediku...); Prentsaurrekoa.
- Egin beharreko obrak: ura hartzen den eremuen lekutzea; hornigaien mozketa beharrezko kasuan, ura, gasa, elektrizitatea; gertatu dena konpontzeko obrak egitea: euste obrak, prebentzio obrak, garbiketa lanak, uraren txikatze lanak, isuriak izan diren materia arriskutsuak eusteko lanak; materia arriskutsuen baztertzea.

Arrisku eremuak:

- Talleres Mecanicos Herbe, S.A. (Pol. Industrialdea Nave 20-21).
- Gaztañaga Anaiak, S.L. (Pol. Industrialdea, 6).
- Mecanica Garmendia, S.L. (Pol. Industrial Altamira, 6).

- Gaipplastik, S.L.
- Gasolinera (Urdaneta, 48).

### **MERKANTZIA ARRISKUTSUEN GARRAIOAK SORTURIKO ARRISKUAK**

Jokabide Plana:

- Krisialdiko mahaia osatu (Pleno aretoan).
- SOS-DEIAK-ekoekin kontaktatu (112) (elkartze puntu bat definitu) eta garraio enpresarekin kontaktatu.
- Trafiko sarrerak, mozketak eta kontrolak egokitu, laguntza logistikoa posibilitatzeko. Beharrezko trafiko desbideraketak egin trafikoa moztuko den puntuak definituaz eta alternatibak eskainiaz.
- Eraginda suertatu diren eraikinak ebakuatu, ebakuazio arduradunak definituaz eta jendea eraman behar den puntuak edo ostatu emango zaien lekuak ezarriaz.
- Biztanlegoari informazioa eskaini eta baita eraginda suertatu direnei ere; desagertuen bilatzea; ondasunen zaintza; eraginda suertatu diren pertsonak eraman beharreko lekuen definitzea edo ostatua eman behar zaien kasuan ostatua definitzea; hildakoen gordailua egingo den lekua ezartzea; beharrezko diren tresnes eta beharrezko bizigaien hornikuntza (elikagaiak, arropak, e.a.); ebakuatuak izan diren pertsonentzat laguntza (psicólogo, mediku...); Prentsaurrekoa.
- Egin beharreko obrak: ura hartzen den eremuen lekutzea; hornigaien mozketak beharrezko kasuan, ura, gasa, elektrizitatea; gertatu dena konpontzeko obrak egitea: euste obrak, prebentzio obrak, garbiketa lanak, uraren txikatze lanak, isuriak izan diren materia arriskutsuak eusteko lanak; materia arriskutsuen baztertzea.

Arrisku eremua:

- Sagardotegi bihurgunea (C/ Joseba Rezola).

### **GARRAIO ETA GARRAIO PUBLIKOTIK SORTURIKO ARRISKUAK**

Jokabide Plana:

- Krisialdiko mahaia osatu (Pleno aretoan).
- SOS-DEIAK-ekoekin kontaktatu (112) (elkartze puntu bat definitu) eta

gertatutakoa jasan duten partikularrekin.

- Trafiko sarrerak, mozketak eta kontrolak egokitu, laguntza logistikoa posibilitatzeko. Beharrezko trafiko desbideraketak egin trafikoa moztuko den puntuak definituaz eta alternatibak eskainiaz.
- Eraginda suertatu diren eraikinak ebakuatu, ebakuazio arduradunak definituaz eta jendea eraman behar den puntuak edo ostatu emango zaien lekuak ezarriaz.
- Biztanlegoari informazioa eskaini eta baita eraginda suertatu direnei ere; desagertuen bilatzea; ondasunen zaintza; eraginda suertatu diren pertsonak eraman beharreko lekuen definitzea edo ostatua eman behar zaien kasuan ostatua definitzea; hildakoen gordailua egingo den lekua ezartzea; beharrezko diren tresnen eta beharrezko bizigaien hornitzea (elikagaiak, arropak, e.a.); ebakuatuak izan diren pertsonentzat laguntza (psicólogo, mediku...); Prentsaurrekoa.
- Egin beharreko obrak: gertatutakoa konpontzeko beharrezko diren obrak egitea, garbiketa lanak eta ibilgailuen erretiratzea.

Arrisku eremuak:

- Gudarien kalea eta Joseba Rezola kaleak sortzen duten bidegurutzea.
- Urdaneata kaletak eta Diego Rivero kaleak sortzen duten bidegurutzea.
- Trenbide Zubia.
- Kale Nagusia eta Foruen Pasealekuak egiten duten bidegurutzea.
- Iturtxo kaleko 3. zenbakian dagoen bidegurutzea.
- Txindoki kaleko 2. zenbakian dagoen bidegurutzea.
- Autobia azpiko zubia, hilerri norabidean.

### **SUTE ARRISKUAK:**

Jokabide Plana:

- Krisialdiko mahaia osatu (Pleno aretoan).
- SOS-DEIAK-ekoekin kontaktatu (112) (elkartze puntu bat definitu) eta gertatutakoa jasan duten partikularrekin.

- Trafiko sarrerak, mozketak eta kontrolak egokitu, laguntza logistikoa posibilitatzeko. Beharrezko trafiko desbideraketak egin trafikoa moztuko den puntuak definituz eta alternatibak eskainiaz.
- Eraginda suertatu diren eraikinak ebakuatu, ebakuazio arduradunak definituz eta jendea eraman behar den puntuak edo ostatu emango zaien lekuak ezarriaz.
- Mapa kartografiko eta planimetrikoen hornitu; biztanlegoari informazioa eskaini eta baita eraginda suertatu direnei ere; desagertuen bilatzea; ondasunen zaintza; eraginda suertatu diren pertsonak eraman beharreko lekuen definitzea edo ostatua eman behar zaien kasuan ostatua definitzea; hildakoen gordailua egingo den lekua ezartzea; beharrezko diren tresnak eta beharrezko bizigaien horniketa (elikagaiak, arropak, e.a.); ebakuatuak izan diren pertsonentzat laguntza (psicólogo, mediku...); Prentsaurrekoa.
- Egin beharreko obrak: ura hartzen den eremuen lekutzea; hornigaien mozketa beharrezko kasuan, ura, gasa, elektrizitatea; gertatu dena konpontzeko obrak egitea: euste obrak, prebentzio obrak, garbiketa lanak, eragina gertatu den lokalaren ikuskapena.

#### Arrisku eremuak:

- Udalerriaren Hegoekialdeko baso plantazioak.
- Udalerriaren Iparraldeko baso plantazioak.
- Udalerriaren mendebaldeko baso plantazioak.
- Dorrea.
- Gune historikoko egurrezko eraikinak.
- Nueva, Urdaneta eta Goierri Kaleak.

#### **GIZA KONTZENTRAZIO HANDIAK ETA GIZARTEAREN AURKAKO EKINTZAK:**

#### Jokabide Plana:

- Krisialdiko mahaia osatu (Pleno aretoan).
- SOS-DEIAK-ekoekin kontaktatu (112) (elkartze puntu bat definitu) eta gertatutakoa jasan duten partikularrekin.
- Trafiko sarrerak, mozketak eta kontrolak egokitu, laguntza logistikoa posibilitatzeko. Beharrezko trafiko desbideraketak egin trafikoa moztuko den puntuak definituz eta alternatibak eskainiaz.
- Eraginda suertatu diren eraikinak ebakuatu, ebakuazio arduradunak definituz eta jendea eraman behar den puntuak edo ostatu emango zaien lekuak ezarriaz.
- Biztanlegoari informazioa eskaini eta baita eraginda suertatu direnei ere; desagertuen bilatzea; ondasunen zaintza; eraginda suertatu diren pertsonak eraman beharreko lekuen definitzea edo ostatua eman behar zaien kasuan ostatua definitzea; hildakoen gordailua egingo den lekua ezartzea; beharrezko diren tresnak eta beharrezko bizigaien horniketa (elikagaiak, arropak, e.a.); ebakuatuak izan diren pertsonentzat laguntza (psicólogo, mediku...); Prentsaurrekoa.
- Egin beharreko obrak: ura hartzen den eremuen lekutzea; hornigaien mozketa beharrezko kasuan, ura, gasa, elektrizitatea; gertatu dena konpontzeko obrak egitea: euste obrak, prebentzio obrak, garbiketa lanak, eragina gertatu den lokalaren ikuskapena.

Arrisku eremuak (Giza kontzentrazio handiak):

- Plaza Nagusia (Asteazkenetako feria).

Arrisku eremuak (gizartearen aurkako ekintzak):

- Bilbao Vizcaya Bankua (Urdaneta, 3).
- Central Hispanoamericano Bankua(Nagusia, 1).
- Banco Guipuzcoano (Urdaneta, 6).
- Banco Vitalicio España eta Compañía de seguros y reaseguros (Domingo Unanue Plaza, 3).
- Bankinter (Urdaneta, 1).
- Caja Guipuzcoa San Sebastian (Nagusia, 26).

- Mutua General de Seguros (Gipuzkoa, 3).
- Caja Laboral Popular (Nagusia, 19).
- Seguros Mapfre (Garagartza Plaza, 8).
- La Caixa (Garagartza Plaza, 1).
- Udaletxea (Nagusia, 24).
- Batzoki (PNV-EAJ) (Santa María, 27).
- Correos Caja Postal Ahorros (Santa María, 4).
- Juzgado de Paz (Nagusia, 24)

#### **OINARRIZKO HORNIKUNTZARAKO ZERBITZUEN GABEZIAK:**

Jokabide Plana:

- Krisialdiko mahaia osatu (Pleno aretoan).
- SOS-DEIAK-ekoekin kontaktatu (112) (elkartze puntu bat definitu) eta oinarrizko hornikuntza ematen duten enpresekin.
- Trafiko sarrerak, mozketak eta kontrolak egokitu, laguntza logistikoa posibilitatzeko. Beharrezko trafiko desbideraketak egin trafikoa moztuko den puntuak definituz eta alternatibak eskainiaz.
- Biztanlegoari informazioa eskaini eta baita eraginda suertatu direnei ere; beharrezko diren tresnak eta beharrezko bizigaien horniketa (elikagaiak, arropak, e.a.);oinarrizko zerbitzuen mantentzea eta hauen gaineko kontrola.

#### **ELURTEAK:**

Jokabide Plana:

- Krisialdiko mahaia osatu (Pleno aretoan).
- SOS-DEIAK-ekoekin kontaktatu (112) (elkartze puntu bat definitu) eta gertatutakoa jasan duten partikularrekin.
- Trafiko sarrerak, mozketak eta kontrolak egokitu, laguntza logistikoa




posibilitatzeko. Beharrezko trafiko desbideraketak egin trafikoa moztuko den puntuak definituaz eta alternatibak eskainiaz.

- Eraginda suertatu diren eraikinak ebakuatu, ebakuazio arduradunak definituaz eta jendea eraman behar den puntuak edo ostatu emango zaien lekuak ezarriaz.
- Biztanlegoari informazioa eskaini eta baita eraginda suertatu direnei ere; desagertuen bilatzea; ondasunen zaintza; eraginda suertatu diren pertsonak eraman beharreko lekuen definitzea edo ostatua eman behar zaien kasuan ostatua definitzea; hildakoen gordailua egingo den lekua ezartzea; beharrezko diren tresnak eta beharrezko bizigaien horniketa (elikagaiak, arropak, e.a.); ebakuatuak izan diren pertsonentzat laguntza (psicólogo, mediku...); Prentsaurrekoa.
- Egin beharreko lanak: elurra erretiratzea eta komunikazio errepideen garbiketa; erortzeko arriskua duten elementuak erretiratzea; prebetzio eta/edo euste lanak; honikuntza sare oinarritzkoen mantenua: ura, gasa, elektraindarra.

### 14.4.3. Larrialdi-egoeretarako Antolakuntza L.U.P.-an

En Ordizia la organización municipal en situaciones de riesgo es la siguiente:

#### ORGANIGRAMA DEL MANDO DE EMERGENCIA



Fuente: PEM Ordizia, 2000.


Larrialdi egoera bi eratarantz eman daiteke: pribatuak ohartu direlako edo/eta Udaltzaingoa.

1. Pribatu batek antzeman bat egoera, honek normalean SOS-Deiak edo Udaltzaingoiari jakinaraziko dio.

Behin SOS-Deiak-ekoek egoeraren berri dutenean Udaltzaingoiari jakinaraziko diote.

2. Udaltzaingoiak antzematen badu egoera, edo SOS-Deiak-ekoek jakinarazten badiote, Planaren zuzendariari jakinaraziko zaio plana aktibatze beharra gertatuz gero.

Ondoko grafican azaltzen da larrialdiaren jakinarazpenaren sekuentzia:



Jarraian, larrialdi egoeraren aurrean, agente eta organismoen zereginak deskribatzen dira:

### **Planaren Zuzendaria**

- Alarma jaso eta ebaluatu.
- Larrialdi egoera deklaratu.
- SOS-DEIAK-ekin kontaktuan jarri.
- Krisialdiko mahaia sortu.
- Lerrun altuagoko agintariei jakinarazi.
- Biztanlegoari jakinarazi.
- Udalerrri mailako eta udalerriz gainerako errekursoak martxan jarri (azken hauek SOS-DEIAK-en bidez).
- Beharrezko kasuan denbora baterako desjabetzeak dekretatu.

- Larrialdiaren amaiera dekretatu eta komunikatu; edo lerrun altuagoa duten Planen aktibazioa eragin.

### **Aholkulari kontseilua**

#### **Udal Teknikari Arduraduna**

- Hondamendiaren eboluzio posiblea aztertuko du eta honek eragin ditzakeen elementu zaurkorren eta udalerrri barneko arrisku fokoen analisisia egikaritzeko du.
- Planaren Zuzendariari ebakuagu beharreko eremuak adieraziko dizkio eta ebakuazioa egikaritzeko erabili beharreko errepide eta medioak.
- Planaren Zuzendariari udalerrri mailako erabili beharreko medioak zein diren adieraziko dizkio.

#### **Larrialdien atentziorako zuzendaritzako teknikaria**

- Egoeraren inguruko informazioa jasoko du Udal teknikari arduradunaren partetik.
- Azken honekin batera SOS-DEIAK-ekoi komunikatuko diete errekurtsioen mugimendua eta baita Planaren Zuzendariari ere.
- Jarraitu beharreko ekintzen azterketa egingo du eta Planaren Zuzendariari jakinaraziko dizkio, honek era berean ekintza horietan parte hartuko duten organuei funtzioak esleitzeko.
- Ekintzak aurrera eramango dituzten taldeen koordinatzailea izango da, hauen funtzioetan bikoizketak ebitatzeko.
- Gertakarien arabera, SOS-DEIAK-etik beharrezkoak diren medioak lortuko ditu.
- Planaren Zuzendaria eta Larrialdien Atentziorako Zuzendaritza momentu oro informatua izango ditu gertakarien eboluzioari buruz, beti ere, aparteko errekurtsioak beharko balira edo gertakari honek beste udalerriren bat eragingo lukeen kasurako.

### **Udalerrri mailako ekintza taldeak**

#### **Eskuhartze taldea (Zerbitzu brigada)**

- Hondamendiaren edo arriskuaren ondorioz sorturiko ondorioak kontrolatu, murriztu edo neutralizatzea.
- Ondasun eta pertsonen bilatzea, erreskatea eta salbatzea.
- Behin larrialdi kontrolpean dagoela sortu daitezkeen arrisku berriak zaintzea.

### **Segurtasun Taldea (Udaltzaingoa)**

- Herritarren segurtasuna bermatzea.
- Larrialdi eremura sarrera-irteerak murriztea eta eskuhartzea gertatuko den eremua itxitzea.
- Trafikoaren erregulazioa larrialdia kontrolatzeko ekintzak errazteko.
- Arriskuan dauden pertsonen ebakuazio azkarra erraztea.
- Gizartearen aurkako ekintzen aurrean, ondasunen babesia.
- Erreskatean eta eraginda suertatu diren pertsonen salbatzean parte hartzen duen taldeari lagundu.
- Biztanlegoari egin behar zaizkion jakinarazpenen zabalkundearen laguntzea.
- Udalerriaren gainerako medioak jasotzera joatea aurretik definitu den puntura.

### **Logistika Taldea (Zerbitzu sozialak)**

- Garraiobideen hornidura kudeatu eta baita oinarritzko produktuena ere (elikagaiak, berokiak) bai lanean ari direnentzat baita larrialdiak eraginda suertatu diren pertsonentzat ere.
- Larrialdiko ostaturia kudeatzea, bere hornidura eta eraginda suertatu diren pertsonentzat garraioa ere, baita, elkartzeko puntuak ere ebakuazioa beharrezkoa den kasuan.
- Ebakuatuak izan direnei osasun laguntza eta psikologikoa kudeatzea.

### **Laguntza Teknikoko taldea (Bulego teknikoa)**

- Izaera zuzentzailea duten neurriak proposatzea (ingeneritza zibila edo beste mota batekoa), arrisku mota batzuen aurrean berauek kontrolatzeko edo ondorioak murrizteko, baita, beharrezko zerbitzuen berrezarkuntzarako.

### **Udalaz gainerako errekurtsoak**

#### **SOS-DEIAK**

Eusko Jaurlaritzaren errekurtsioen koordinazio zentru gisa jokatuko du.

Larrialdien aurrean elementu garrantzitsua dugu, izan ere, bere zentru eragileetan beharizan egoeren aurrean behar diren errekurtsioak aurkitzen direlako gordeta eta ordenatuta.

### **R.T.S.U.**

Urgentziako Osasun Garraioen Sarea (RTSU) sorospen mugikor postu batzuk osatzen dute, zeinak, Erkidego Autonomoan zehar zabalduak dauden eta SOS-DEIAK-ek mugitu eta koordinatzen ditu.

SOS-DEIAK-ekoek, Planaren Zuzendariaren edo hondamendia antzeman duen pertsonaren deia jasotzen dutenean, hondamendia gertatu den eremutik gertuen dagoen sorospen mugikor unitateari laguntza eskatuko diote eta era berean, behar den kasuan beste unitate batzuei ere deituko die.

Unitate hauen "in situ" koordinazioa Larrialdi Atentziorako Zuzendaritzaren teknikoak egikarituko du.

### **Segurtasun Zerbitzuak**

Udalaz gaindiko segurtasun zerbitzuak (Ertzaintza, Estatuko Segurtasun Indarrak, e.a.) Larraialdirako Planaren Zuzendariak eskatuako ditu SOS-DEIAK-en bidez.

Zerbitzu hauen "in situ" koordinazioa Larrialdi Atentziorako Zuzendaritzaren teknikoak egikarituko du.

Zerbitzu hauen funtzioak honakoak izango dira:

- Beharrezko den kasuan trafikoaren moztea eta beste errepide batzuetatik bideratzea.
- Arrisku eremuak kordoiz inguratu, larrialdi taldeko partaide ez diren guztiei sarrera debekatuaz.
- Ebakuazioa kanalizatu beharrezkoa balitz.
- Ordena mantendu, beldurrak, lapurretak edo sabotaiak sorturiko kontrolik gabeko ekintzak ebitatuaz.
- Pertsona zaurituak dauden kasuan berauen ebakuazioan lagundu.
- Biztanlegoari jarraitu beharreko pausuak azaldu.

## **Suhiltzaileak**

Suhiltzaileen zerbitzuak Planaren Zuzendariak mugituaraziko ditu SOS-DEIAK-en bidez.

Zerbitzu hauen zuzendariak, Larrialdi Atentziorako Zuzendaritzaren teknikoari beharrezko dituen errekurtsuak eskatuko dizkio eta kordioez lotu eta ebakatu beharreko eremuak zeintzuk diren adieraziko dizkio.

## **Beste Parte hartzaile batzu**

Hauen artean aipatuko genituke:

- OSAKIDETZA
- Gurutz Gorria eta DYA
- Materia arriskutsuetan tekniko adituak
- NATUR GAS-eko larrialdi teknikariak
- Salbamenduetarako Txakur taldeak
- Mendiko federazioa
- Basozainak eta Diputazioko Mendietako Zuzendaritza
- Lan publikoetako makinaria enpresak
- Estatuko Segurtasun Indarrak
- Indar armatuak

Errekurtsu hauen mugitzea Larrialdi Planaren Zuzendariak egingo du SOS-DEIAK-en bidez eta eskuhartzaile hauen koordinazioa Larrialdietarako atentzio Zuzendaritzaren teknikoak egingo du.

### **14.4.4. Leku Publikoen Larrialdietarako Planak**

Atal honen inguruko informaziorik ez dago.

## **15. BIZTANLERIAREN SENTSIBILIZAZIOA ETA PARTAIDETZA**

### **15.1. Tokiko Agenda 21ean biztanleriaren parte-hartzea.**

Tokiko Agenda 21 prozesu baten garapenean planteatzen den erronka handienetako bat ondoko hauxe da: ekonomia eta gizarteko eragileen inplikazioa Iraunkortasunerako Ekintza Plan baten elaborazioan, herriko komunitatearen kide ezberdinen esku-hartzea bermatuz.

Udal bakoitzeko ingurumen informazioa, ingurumen heziketako jarduerak eta ingurumen gaitan parte-hartzeko egungo organoak Udalen ingurumen komunikaziorako politikari lotutako aspektuak dira.

Herritarren pertzeptzioak eta partaidetzak sekulako garrantzia dute Agenda 21eko prozesu osoan zehar, Diagnostikoaren fasean barne. Horregatik, Iraunkortasunerako Foro bat deitzea espero da, non udalerriko elkarte ezberdinek prozesuan aktiboki parte-hartzeko aukera izan eta Ordiziako gizarte, ekonomia eta ingurumeneko errealitateari buruz eztabaidatu baitezaten.

### **15.2. Ingurumen komunikazioa Udaletik**

#### **15.2.1. Inguruneari buruzko informazioa**

Ez dago ingurugiro informazioa zabaltzeko mekanismo konkreturik. Udaletxeak <http://www.ordizia.org/> web orrialdea du eta bertan udalerraren inguruko informazioa, zerbitzuen, izapideei buruzko informazioa, merkatuko prezioak e.a. eskaintzen dira.

Egun ingurugiro informazioa lortzeko sail honetako teknikariekin jarri behar da kontaktuan: Hirigintza, Obrak eta Ingurugiro Saila. Ordea, ingurugiroarekin zerikusi zuzena duten beste materia batzu mankomunatuak daude edo beste Administrazio Publiko batzuk kudeatzen dituzte: airearen kutsadura, hondakin arriskutsuak, hiri hondakinen kudeaketa, ura eta saneamenduaren hornidura, e.a. Horregatik, informazio hau Udaletxe berak ematea zailago bihurtzen da.

#### **15.2.2. Udalak sustatutako ingurugiro hezkuntza aktibitateak**

Ordizia 2007 Plan Estrategikoaren barnean (Siadeco-k egina), diagnostiko fasean garaturiko analisiarekin erlazionaturiko sei planifikazio area planteatzen dira, eta bakoitzaren inguruan helburu estrategikoak definitzen dira, baita helburu horiekin erlazionaturiko ekintzak ere. Ingurugiroaren alorrean hauek dira planteaturiko helburuak:

**1.2.Helburua:** Udalerraren kontzientzia kolektiboa handitzea errekurso naturalen balorea,



espazioaren kudeaketa eta ondare arkitektonikoen inguruan.

**1.3. Helburua:** Goierriko beste udalerriekin elkarlanean, Tokiko Agenda 21-a garapen iraunkorraren bidean abiatzeko tresna gisara hartzea, UDALSAREA 21-en barneratuaz.

### **15.2.3. Biztanleriaren parte hartzea**

Ez dago atal honen informazioa eskuragarri.

### **15.3. Hiri erakundeak**

Ordizian elkarte izaera duten entitate asko aurki genitzake besteak-beste hauen aipamena egiten dugu:

- **KULTUR ELKARTEAK**

- **- AZEN ORDIZIAKO ERRALDOIEN LAGUNAK (2002)**

Helburuak: Ordiziako udalerriko Erraldoi eta Buruhandien taldea lagundu, sostengatu, bultzatu eta mantendu, herriko ondare folkloriko bezala.

- **- BETI ARGI MUSIKA BANDA ( 1979)**

Helburuak: Musikaren zabalkundea.

Ekintzak: Urteko kontzertuen eta kaleko musikaren programa.

- **- GOIERRIKO BERTSOLARI ESKOLA (1982)**

Helburuak: Bertsolaritza teknikak ikasi eta sakontzea.

Ekintzak: Lehiaketa eta txapelketetan parte hartzea.

- **- HITZARO EUSKARA TALDEA (1994)**

Helburuak: Herritarren artean euskararen erabilera bultzatzea bizitzako arlo guztietan: administrazioan, lan-munduan, irakaskuntzan, kirolean, aisialdian....

Ekintzak: Hizkuntza normalkuntza planen inplementazioa.

- **- IDIAZABAL GAZTAREN ORDIZIAKO KOFRADIA (1990)**

Helburuak: Eskuz egindako Idiazabal gazta defendatu eta ezagutaraztea. Gazta jateko ohitura bultzatzea. Artzainen egoera hobetzeko lan egitea.

Ekintzak: Gazta lehiaketa antolatzea. Eskuz egiten den gazta ezagutaraztea. beste kofradia batzuren bileretan parte hartzea. Idiazabal gazta egiten diren tokiak ikustea. Gazta lehiaketetako epaimahaietan parte hartzea.

**- JAKINTZA DANTZA TALDEA (1964)**

Helburuak: Euskal dantzen kultura bultzatzea, bai talde mailan, bai herri mailan.  
Ekintzak: Dantzarekin zerikusia duten guztiak, Euskal dantzak, ekitaldiak.

**- LAGUNTASUNA RONDAILA (1960)**

Helburuak: Bazter guziak musikaz poztea.  
Ekintzak: Urteroko jarduera programa, bai Ordiziarako, bai kanporako.

**- ORDIZIAKO MUSIKA ESKOLA (1983)**

Helburuak: Musika erakutsi eta zabaltzea.  
Ekintzak: ikasleen kontzertuak, kontzertu pedagogikoak....

**- ORDIZIKO TROBADORE ALAIAK (1998)**

Helburuak: kontzertuak egitea, lokalak lortzea musikarientzako, e.a....  
Ekintzak: kontzertuak.

**- OROITH ABESBATZA (1984)**

Helburuak: Musika korala bultzatzea.  
Ekintzak: Kontzertuen programa.

**- ORTZADAR ARGAZKI ELKARTEA (1984)**

Helburuak: Argazkigintza bultzatzea.  
Ekintzak: Argazki Txapelketak, Erakusketak, ikastaroak, argazki ralliak, hitzaldiak....

**- PEÑA TAURINA EL ALBERO (1999)**

Helburuak: Zezen zaletasuna bultzatzea.  
Ekintzak: Irteerak; bilerak, zezen-astea (solasaldiak, erakusketak....)

**- SANTA ANA ABESBATZA (1979)**

Helburuak: Musika korala bultzatzea.  
Ekintzak: Kontzertuak, irteerak. Urteko programaketa.

**- URDANETA DANTZA TALDEA (1987)**

Helburuak: haurren gustoko ekintza bat burutzea eta, era berean, gure kulturako alor bat ezagutzea.

Ekintzak: Probintziako Aurreku Txapelketa:Desafioa eta Alpargata; Aste Kulturala, Euskal Eskola Publikoaren Jaia, Altamira eta Otegi-Eneako Jaiak, Olentzeroren etorrera.....

**- URRUP ANTZERKI TALDEA (1992)**

Helburuak: Antzerki ekintza eta honen zaletasuna bultzatzea.  
Ekintzak: Ekitaldiak eta soin espresio ekintzak

• **LAGUNTZA ETA GIZARTE IZAERAKO ELKARTEAK**

**- KIMETZ EMAKUMEEN ELKARTEA (1993)**

Helburuak: Herriko ekintza guztietan emakumearen parte hartzea bultzatzea eta zabaltzea (Kultura, Politika, Soziala...).

Ekintzak: Ikastaroak, hitzaldiak, tailerrak, literatur tertuliak, etabar...

**- JUBILATU ETA PENTSIONISTEN ELKARTEA (1987)**

Helburuak: Bilerak egiteko eta aisirako bilgunea eskaini, denbora librerako ekintzak ere bai.

Ekintzak: Umore ona abesbatza, Erlajazioa, Antzerkia, Ikastaroak, Txangoak, kultur ibilbideak, Jaialdiak eta festak, etab...

**- CAFEKO JUBILATUEN EGOITZA (1964)**

Helburuak: Biltzeko toki bat eskaintzea.

Ekintzak: Atsedeen arlokoak, libreak.

• **AISIA ETA DENBORA LIBREKO ELKARTEAK**

**- ARGI BERRI ELKARTEA (1977)**

Helburuak: Kultur eta aisialdi ekintzak antolatzea, euskara eta euskararen aldeko jarrerak bultzatzea.

Ekintzak: Goierriko Bertso Eskola, Mus txapeleketa azkarra, bertsolari jaialdiak, Korrika, Kilometroak, Herri Urrats bezelakoetan laguntza; tombola, Elkarteak bertsogintzan....

**- AZARI ELKARTEA (1926)**

Helburuak: Ehiza eta arrantza kirolak sustatzea.

Ekintzak: Haurrentzat arrantza txapelketak antolatzea, platertiraketa, usokume tiraketa, arraza txakurren txapelketa, pisizikultura eta zinegetika.

**- BOXING CICLO CLUB (1953)**

Helburuak: Kirola bultzatzea, boxeoa eta txirrindularitzaren ingurukoak bereziki.

Ekintzak: Santa Ana jaietan boxeoa saioa antolatzea. Mus txapelketa.

**- CHAPEL GORRI KIROL ELKARTEA (1939)**

Helburuak: Txirrindularitza sustatzea eta probak antolatzea.

Ekintzak: Villafranca Proba, Profesionalentzako Nazioarteko Txirrindu-Proba, Kadete-probak...

**- IRRIKI ELKARTEA (1984)**

Helburuak: Ordizian jarduten duten talde sozialeei bilkura leku bat eskaintzea. Kultur jarduerak bultzatzea.

Ekintzak: Santo Tomas eguna antolatu. Jarduera puntaletan parte hartzea: Kilometroak...

**- ITXAROPENA ELKARTEA (1942)**

Helburuak: Gorputz-jarduerak eta kirola sustatzea.

Ekintzak: Udalerriko kirol eta soziokultura arloko ekintzak laguntzea.

**- JAI ALAI PILOTA ELKARTEA (1970)**

Helburuak: Pilota sustapena.

Ekintzak: Urteko egitaraua. Pilota eskola.

**- LARRUN ARRI ELKARTEA (1979)**

Helburuak: Kultura, aisialdi eta gastronomia arlokoak.

Ekintzak: Sukaldaritza lehiaketa antolatzea, aisialdi eta kultur arloko ekintzak bultzatzea.

**- GOIZ-ATERPE ELKARTEA (2002)**

Helburuak: Kultura eta kirola.

Ekintzak: San Silvestre lasterketa.

- **GAZTE ELKARTEAK**

**- ORDIZIAKO GAZTEEN ASANBLADA (1986)**

Helburuak: Gazteekin gizarte sanoagoa, justuagoa eta lasaigoa lortzeko lana egitea.

Ekintzak: Era guzitako ekintza sozio kulturalak.

- **BIZILAGUNEN ELKARTEAK**

**- ALTAMIRAKO BIZILAGUNEN ELKARTEA (1976)**

Ekintzak: Kultur arlokoak.

- **KIROL ELKARTE ETA KUBLAK**

**- CLUB ORDIZIA DE TIRO CON ARCO (1997)**

Helburuak: Aisia eta/edo lehiaketa, Basoan zehar ibiltzeko 2D.3D modalitatean.

Ekintzak: Basoko ibilbideko instalazioetan arku tiraketa taldeka edo banaka egitea, Aretoan tiraketa egitea, txapelketetan parte hartzea, Baso ibilbide modalitatean batez ere.

**- EMAKUMEZKOEN ARETO-FUTBOLA (1988)**

Helburuak: Kirol praktikan aurrera egitea.

Ekintzak: Urteko txapelketen egutegia

**- OIANGU PILOTA ESKOLA (1993)**

Helburuak: Pala bultzatzea, ez da baztertzen bihar-etzi beste pilota mota batzuk bultzatzea.

**- OKE FUTBOLA (1941)**

Helburuak: Kirolaren bitartez (futbolaren bitartez) ohitura eta jokabide egokiak garatu eta indartzea.

Ekintzak: Denboraldi bakoitzeko 7 talderen ( Regionala, gazte mailako bi talde, kadete mailako bi talde, haur eta emakumeak) .

**- OKE IGERIKETA(1975)**

Helburuak: Txapelketaren alorretik bideratutako igeriketaren praktika, lagun artea, ardura eta era honetako gauzak ematen diren bitartean.

Ekintzak: Txapelketen egutegia, eskolekin parte hartzea, gabonetan ospatzen den nazioarteko Saria...

**- OKE SASKIBALOIA (1970)**

Helburuak: Saskibaloia kirola praktikatzeko.

Ekintzak: Tenporadako egutegia (Gizonezkoen I.Autonomika, Probintziko senior, gazteak, kadeteak eta haurrak, Emakumezkoen Probintziko junior eta kadeteak..) Saskibaloiko Eskola ez arautua, Koadrilen txapelketak...

**- OKE URAZPIKOAK (1983)**

Helburuak: Urazpiko ekintzen praktika bultzatzea.

Ekintzak: Taldeen liga nazionala, ikastaroak, nazioko eta nazioarteko trapesiak.

**- OKE ZIKLOTURISMOA**

Helburuak: Zikloturismoaren praktika bultzatzea.

Ekintzak: Urteko egutegia asteko 35 irtereekin.Txangoak.

**- ORDIZIA JATORRA (1982)**

Helburuak: Atletismoa herri mailan bultzatzea.

Ekintzak: Atletismoa herri mailan.

**- ORDIZIAKO MENDIZALEAK (1945)**

Helburuak: Era askotako mendi jarduerak: martxa, eskalada, eskoia, BTT

Ekintzak: Asteko mendi irteterekin urteko egutegia (Udan izan ezik), mendi eta naturarekin zerikusia dituzten audiobisualak eta hitzaldiak antolatzea; federatuen karnetak tramitatzea.

**- ORDIZIAKO RUGBY ELKARTEA (1974)**

Helburuak: Rugbyan egitea eta kirol hori bultzatzea.

Ekintzak: Txapelketen urteko egutegia (Liga nazionala, Euskadiko Liga.Mailak senior, gazteak eta kadeteak, emakumezkoen taldea), Rugbyko eskola.

**- PAUSO GAIZTO GOIERRIKO MENDIZALEAK (1993)**

Helburuak: Mendiak eskaintzen dizkigun aukerak aprobetxatzea, bertan ongi pasa eta gozatu ahal izateko.

Ekintzak: Mendiak eskeintzen dituen guztiak: alpinismoa, eskalada, eskalada hizotzean, espeleologia, mountain-bike, kañoiien jetsierak, parapentea, senderismoa, trekking, puenting,...

**- TXAPAGAIN PILOTA ELKARTEA**

Helburuak: Pilota kirola praktikatzea.

Ekintzak: Pilota eskola, txapelketak...

**- TXINDOKI ATLETISMO TALDEA (1996)**

Helburuak: Maila guztietan atletismoa zabaltzea.

Ekintzak: Atletismoko probak eta urteko egutegia.

• **BESTE ELKARTEAK**

**-ORDIZIAN MERKATARITZA, OSTALARITZA ETA ZERBITZUEN ELKARTEA (1994)**

Helburuak: Ordiziako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen irudi baikorra sustatu.

Kanpokoei begira, udalerrria sustatu, hainbat erakundeen aurrean merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen ordezkari gisa aritu.

#### 15.4 Udaleko iraunkortasunaren problematikaren biztanleriaren pertzepzioa: Ordizia

Atal honetan iraunkortasunaren problematikari buruz Ordiziako biztanleriak dituen iritzi eta pertzepzioak jasotzen dira. Biztanleriaren iritzia kontsultatzea eta jasotzea Tokiko Agenda 21 burutzearen prozesuaren barne dagoen fasea da eta Goierri osoan egin da.

Udaleko pertsonak emandako datu esanguratsuenak jaso dira eta alderatzeko intentzioarekin udaltaldeko emaitzak ere aurkezten dira.

Ordizia Goierriko 4.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrien taldean (3) sartzen da Lazako eta Beasainekin batera.

#### Iraunkortasunaren gai orokerriko kezka

Galdeketa erantzun duten Ordiziako biztanleentzat, iraunkortasunaren hiru esparruetan zortzi alderdi orokorretatik ondorengo hauek dira garrantzitsuenak:

#### Alderdi orokor kezagarrienak

Ordizia	Taldearen batez-bestekoa	Goierriko batez-bestekoa
1.- Txirotasuna eta bazterketa soziala gutxitu.	1.- Txirotasuna eta bazterketa soziala gutxitu.	1.- Ingurunea babestu eta iraunarazi
2.- Ingurunea babestu eta iraunarazi	2.- Biztanleriaren osasuna hobetu	2.- Txirotasuna eta bazterketa soziala gutxitu.
3.- Biztanleriaren osasuna hobetu	3.- Ingurunea babestu eta iraunarazi	3.- Biztanleriaren osasuna hobetu

Ordiziako biztanleen artean kezka handiena sortzen duten esparru garrantzitsuenak soziolaborala, ingurugiroa eta osasuna hobetzea dira.

## Ingurumen arazoaren garrantzia

**Ordiziako** biztanleek bere taldeko udalerrietako biztanleek baino garrantzi txikiagoa ematen diote ingurugiroari lotutako arazoei ordea, Goierri mailako batez bestekoarekin konparatuz altuagoa da balorazioa.

### Ingurune arazoaren batzbesteko balorazioa

(0-tik10-era bitarteko puntuaketa)

Ordizia	Udaltaldearen batzbestekoa	Goierriko batzbestekoa
7,53	7,59	7,49

Ordiziako biztanleentzat ingurumen esparru honetan ageri diren arazo nagusienak honako hauek dira:

### Ingurugiro arazoaren garrantzia

1.- Ibaien kutsadura	5.- Hiri hondakinen sortze eta birziklapena
2.- Atmosferaren kutsadura	6.- Trafiko eta enpresek zortutako zarata
3.- Berdeguneen mantenimendua	7.- Garraio publikoa
4.- N-1tik kamioien iragaitza	



## Arazo sozioekonomikoen garrantzia

Ordiziako biztanleek Goierriko eta udaltaldeak baino era altuagoan baloratzen dituzte arazo sozioekonomikoak.

### Arazo sozioekonomikoen garrantzia

(0-tik10-era bitarteko puntuaketa)

Ordizia	Udaltaldearen batazbestekoa	Goierriko batazbestekoa
7,41	7,31	7,28

Ordiziak enpleguaren arazoarekin batera (8,43) nekazal udalerrri txikien egoera kokatzen du arazo garrantzitsu bezala.

Ordiziako biztanleentzat esparru sozio-ekonomikoan ageri diren arazo nagusienak honako hauek dira:

- 1.- Enpleguaren arazoa
- 2.- Landa udalerrri txikien egoera
- 3.- Abelur sektorearen egoera
- 4.- Goierriko industriaren egoera

## Arazo sozialen garrantzia

Ordiziako biztanleek arazo sozialen inguruan batez-beste 7,94ko puntuazioa eman dute 10 puntutako eskala batean, Goierrikoa (7,69) baino zertxobait altuagoa izanik eta udalerrri taldekoa baino balio txikiagoa izanik.

**Arazo sozialen garrantzia**

(0-tik 10-era bitarteko puntuaketa)

<b>Ordizia</b>	<b>Udaltaldearen batzbestekoa</b>	<b>Goierriko batzbestekoa</b>
<b>7,74</b>	<b>7,83</b>	<b>7,69</b>

Esparru honetan arazo garrantzitsuenak honako hauek dira:

- 1.- Etxebizitzen salneurri eta egoera
- 2.- Pentsioen egoera
- 3.- Pertsona helduei arreta
- 4.- Drogen arazoak
- 5.- Txirotasuna eta bazterketa sozialen egoera
- 6.- Emakumearen ezberdintasun arazoak

**Ordiziako udala**

Arazo ezberdinei emandako kalifikazioen batzbestekoen zerrenda.

**(0-tik 10-era)**

<b>Esparruak</b>	<b>Ordiziako udala</b>	<b>Udaltaldearen batzbestekoa</b>	<b>Goierriko batzbestekoa</b>
<b>Arazo sozialen garrantzia</b>	<b>7,74</b>	<b>7,83</b>	<b>7,69</b>
<b>Ingurune arazoaren garrantzia</b>	<b>7,53</b>	<b>7,59</b>	<b>7,49</b>
<b>Arazo sozioekonomikoen garrantzia</b>	<b>7,41</b>	<b>7,31</b>	<b>7,28</b>

Iraunkortasunaren esparruko 10 arazo nagusiak **Ordizian**:

Arazoak	Puntuaketa (0-10)	Esparrua
1.- Etxebizitzen salneurri eta egoera	9,19	Soziala
2.- Enpleguaren problematika	8,43	Sozioekonomikoa
3.- Pentsioen egoera	8,24	Soziala
4.- Edadetuei prestatutako arreta	8,19	Soziala
5.- Drogen problematika	8,13	Soziala
6.- Pobreziaren egoera eta desberdintasunak	8,13	Soziala
7.- Emakumezkoen desberdintza arazoak	8,07	Soziala
8.- Ibaien kutsadura	8,04	Ingurunekoa
9.- Atmosferaren kutsadura	7,99	Ingurunekoa
10.- Herri txikien egoera	7,97	Sozioekonomikoa

Etxebizitzaren arazoa, enplegua, pentsioak eta hirugarren adinekoekiko atentzioa dira galdeketa erantzun duten Ordiziako herritarrentzat arazo nagusienak.

#### **Iraunkortasunari buruzko administrazioaren sentikortasuna**

Ordizian bizi eta inkesta erantzun duten biztanleek, Goieki eta udalak iraunkortasun gaiekin duten sentikortasunaren inguruan emandako puntuazio batez bestekoa, udalerrri taldeko eta Goierri mailako batez bestekoa baino baxuagoa izan da.

**Administrazioaren Sentikortasuna**

(0-tik 4-rako puntuaketa)

<b>Erakundeak</b>	<b>Ordiziako biztanleek</b>	<b>Udaltaldeko biztanleek</b>	<b>Goierriko biztanleek</b>
<b>Eskualde Agentziaren (Goieki) sentikortasuna</b>	<b>1,81</b>	<b>1,89</b>	<b>1,91</b>
<b>Udaletxearen sentikortasuna</b>	<b>1,75</b>	<b>1,83</b>	<b>1,89</b>

**Ingurugiro egoeraren agente erantzuleak****Ordiziako biztanleek egindako balorazioa**

(erantzun %, erantzun anitzkoitzak)

<b>Agenteak</b>	<b>Goierriin</b>	<b>Udalerrian</b>
<b>Enpresa Industrialak</b>	<b>76,5</b>	<b>65,7</b>
<b>Kamioiak</b>	<b>72,1</b>	<b>41,2</b>
<b>Ibilgailu pribatuak</b>	<b>27,9</b>	<b>45,6</b>
<b>Biztanleak</b>	<b>10,3</b>	<b>23,5</b>
<b>Administrazioa</b>	<b>7,4</b>	<b>7,4</b>


Ordiziko biztanleen aburuz, Goierriren ingurumen egoeraren eragile nagusiak enpresa industrialak eta kamioiak dira.

Udalerri beraren kasuan, enpresa industrialak eta ibilgailu pribatuak identifikatzen dira ingurumenaren egoeraren sortzaile garrantzitsuenak.

### Ingurunearen bizi kalitatea hobetzeko aurretiko jarrera

**Aldaketa borondatea Ordizian**

**Aldaketa borondatea Goierriin**



Ordiziako udalerrriak duen aldaketarako borondatea Goierriko borondatea eta bere udalbarri taldeko borondatea baino altuagoa agertzen da.

Aurrejoera handiago hau, gai batzuetan garrantzitsua da ondoko taulan ikus daitekeen moduan:

**Ohitura aldaketarako predisposizioa**

Ohiturak aldatzeko erabateko predisposizioa duten %a.

<b>Ohitura aldaketa</b>	<b>Ordizia</b>	<b>Udal ertainen taldea</b>	<b>Goierri</b>
Tasa eta zerga gehiago ordaindu	14,7	11,7	11,2
Iraunkortasunari buruzko bileratan esku hartu	23,5	24,4	21,6
Garbiketa kanpainetan parte hartu	33,8	29,4	28,5
Kotxea gutxiago erabili	39,7	38,6	33,5
Produktu birziklagarriak erosi	38,2	38,2	35,5
Tokiko produktu ekologikoak kontsumitu	44,1	44,1	35,5
Ur eta energia kontsumoak gutxitu	42,6	39,6	36,2
Inguruneari eginiko erasoak salatu	42,6	41,6	39,2
Zakarrontzi selektiboak erabili	72,1	74,6	67,5



Ordiziako biztanleak ohiturak aldatzeko joera handiena honako gaietan azaldu dute: energia eta uraren kontsumoa murriztean, auto pribatuaren erabilera gutxitzean, garbiketa kanpainetan parte hartu eta tasa eta zerga gehiago ordaintzean.

**Ekintzen burutzearean eztabaida**

Inkestari erantzun dieten Ordiziako biztanleak, planteatu diren ekintzak gauzatzea 4,06ko batez besteko batekin baloratzen dute, hau izanik Goierriko (4,02) batez bestekoa baino altuagoa eta udalerrri taldeko (4,08) batez bestekoak baino balio txikiagoa.

**Ordiziako iritzi taldeak**

**4000 biztanle baino gehiagoko udalen iritzi taldeak**



Ordiziako hiru biztanletatik biek beharrezko edo oso beharrezko ikusten dute planteatu diren ekintzen egikaritzea.

Ordiziako biztanleen arabera beharrezkoak diren jarduketak ondorengo hauek dira:

- Alokairuzko etheen eta etxebizitza sozialen eskaintza handitu (80,9)
- Garraio publikoa hobetu (63,2)
- Paseorako errepideak eta bideak hobetu (61,8)
- Osasun sarea hobetu (60,3)

**Tokiko Agenda 21-eko bultzadari buruzko ezagutza**


Inkestari erantzun dien biztanleriaren % 7,4-ak bakarrik bere udalerrian Tokiko Agenda 21 proiektua bultzatzen ari dela ezagutzen du. Ordizian lorturiko batez besteko Goierriko 4000 biztanle baino handiagoko udalerrietako batez bestekoa (% 6,6) baino altuagoa da eta Goierriko eskualdeko (% 11,4) batez bestekoa baino baxuagoa.

Tokiko Agenda 21-en ezagutza (%)

	Ordizia	4000 biztanle baino gehiagoko udalak	Goierri %
SI	7,4	6,6	11,4

### Bileretan parte hartzeko alde zuzentzerako jarrera

Ordiziako biztanleak gai hauen inguruan parte hartzeko azaltzen duten borondatea bere udalerrri taldeko borondatearen antzekoa da eta aldiz, Goierriko borondatea baino txikiagoa.





## **16. INGURUGIRORAKO UDAL ANTOLAKETA ETA KUDEAKETA**

### **16.1 Udal antolaketa**

Atal honek ondoko hauen deskribapena du helburu: udal zerbitzu teknikoen egituraketa, beraiei dagokien eskumen-banaketa, eta egitura politiko eta administratiboaren arteko harremana. Udaleko egitura tekniko zein administratiboa ondoko eskeman azaltzen da, Udaleko Sail edo Departamendu ezberdinen arabera.

### **ORDIZIAKO EGITURA POLITIKOA**

Ordiziako Udalak honelako egitura du:

- Udalbatza
- Gobernu batzordea
- Alkatetza
- Batzorde informatzaileak
- Delegazioak: Ogasuna eta Administrazioa, Hirigintza disciplina, Hirigintza eta Ingurugiroa, Udaltzaingoa eta Zerbitzuak, Sustapena eta Garapena, Feria tradizionalak, Euskara, Gaztedia eta Hezkuntza, Kirolak, Jaiak eta Feria bereziak, Kultura eta Ongizatea.

### **ORDIZIAKO EGITURA ADMINISTRATIBOA**

- *IDAZKARITZA-KONTUHARTZAILETZA*
  - ❑ Administrazio Orokorreko teknikaria
  - ❑ Jendaurrerako Administrari laguntzailea
  - ❑ Alkatezako administraria
  - ❑ Organu kolegiatuetako Administraria
  - ❑ Langileen eta Ondasunen administraria
  - ❑ Idazkaritza eta Artxiboko administraria

- Euskarako itzultzailea eta dinamizatzaileria
- Informatikoa
  - *KONTUHARTZAILETZA*
- Diruzaina
- Kontuhartzailetza eta diruzaintzako administraria
- Kontabilitate administraria
- Kontuhartzailetza eta diruzaintzarako laguntzailea
  - *KULTURA, GAZTEDIA, JAIK, HEZKUNTZA ETA TURISMOA*
- Liburuzaina/kultura laguntzailea
- Kultura laguntzailea
- Gazte informatzailea
  - *ONGIZATEA, OSASUNA ETA KONTSUMOA*
- Gizarte langilea
- Gizarte hezitzailea
- Drogomenpekotasun teknikaria
- Administrari laguntzailea
  - *HIRIGINTZA, LANAK ETA INGURUGIROA*
- Aparejadorea
- Laguntzaile teknikaria
- Lan eta hirigintza administraria
- Lanen arduraduna
- Mantentze eta biltegi arduraduna

- **ZERBITZUAK**

- Laguntzaile teknikaria
- Zerbitzu Orokorren Laguntzailea
- Uren arduraduna
- Elektrizitatearen arduraduna
- Lorategi arduraduna
- Ehorzlea

- **UDALTZAINGOA**

## **16.2 Ingurugiroaren udal kudeaketa**

### **16.2.1. Udalaz gaindiko erlazioen kudeaketa eta koordinazioa**

Ordizia honako Mankomunitate, Partzuergo eta elkarteetan aurkitzen da:

#### **BARNEKO ORGANO KOLEGIATUA**

- ENBA Batzordea

#### **ORGANO AUTONOMOAK**

- HERRI ANTZOKIA
- SAN JOSE ERRESIDENTZIA
- MAJORI POLIKIROLDEGIA

#### **MANKOMUNITATE ETA PARTZUERGOAK**

- SASIETA
- HILTEGIA
- UREN KONTSORZIOA
- ENIRIO – ARALAR

## **SOZIETATE ANOMIMOAK**

- ❑ GOIERRI BEHEKO INDUSTRIALDEA, S.A.
- ❑ ASOCIACIONES, FUNDACIONES, Y EMPRESAS PRIVADAS
- ❑ GOIMEN
- ❑ FUNDACION GOIERRIKO HERRIEN EKINTZA
- ❑ CONSEJO RECTOR INGENIERIA
- ❑ IKASLAN
- ❑ GOIEKI eta GOITUR
- ❑ JUBILATUEN ETXEA

## **BESTEAK**

- ❑ URDANETA IKASTETXEAREN ESKOLA KONTSEILU
- ❑ EUDEL
- ❑ EUSKAL FONDOA

### **16.2.2. Udalaz barruko komunikazio eta Koordinazioa**

Atal honen inguruko informazioa falta da.

### **16.2.3. Udal ingurugiro kudeaketari atxikitutako enpresa eta erakundeak**

Hondakinen bilketan, garraioan eta tratamenduan, Sasieta Mankomunitatearekin batera, ondoko enpresak parte hartzen dute:

- Berzik S.L.
- Construcciones y contratatas S.A.
- Vidrala S.A.
- Ecoembes
- OLDBERRI, S. COOP. (Caritasen SAREA fundazioa)

- Uren horniketa eta saneamendua: Gipuzkoako Ur Patzuergoa.

#### 16.2.4. Tokiko ingurugiro arautegia

Ordiziako Udaletxeak ingurugiro babeserako ez ditu ordenantza espezifikoak.

#### 16.2.5. Udal aurrekontua

Ordiziako udal web orrialdeak eskaintzen dituen datuen arabera, 2003. urteko sarrera eta gastuen aurrekontua honako hau izan zen:

##### SARRERAK

<b>KAPITULU</b>	<b>IZENA</b>	<b>EURO.</b>
1	Zuzeneko zergak	1.513.850.-
2	Zeharkako zergak	240.000.-
3	Tasak eta bestelako sarrerak	2.267.102.-
4	Transferentzia arruntak	4.402.886.-
5	Ondarezko sarrerak	166.587.-
6	Inbertsio errealeen besterenganaketa	0.-
7	Kapital transferentziak	1.041.410.-
8	Finantza aktiboak	47.930.-
9	Pasibo finantzieroak	699.298.-
	GUZTIRA	10.379.063.-

##### GASTUAK

<b>KAPITULU</b>	<b>IZENA</b>	<b>EURO.</b>
1	Pertsonal gastuak	3.159.380.-
2	Ondasun arrunten erosketa	3.358.341.-
3	Interesak	84.576.-
4	Transferentzi arruntak	924.074.-
6	Inbertsio errealak	2.103.860.-
7	Kapital transferentziak	27.580.-
8	Finantza aktiboak	16.227.-
9	Finantza pasiboak	705.025.-
	GUZTIRA	10.379.063.-

Zeina ondoko aurrekontuen integrazioetik ondorioztatzen den:

**UDALAREN AURREKONTU PROPIOA**

<b>SARRERAK</b>		<b>GASTUAK</b>	
<b>Cap. 1.-</b>	1.513.850.-	<b>Cap. 1.-</b>	2.283.956.-
<b>Cap. 2.-</b>	240.000.-	<b>Cap. 2.-</b>	1.926.289.-
<b>Cap. 3.-</b>	1.109.510.-	<b>Cap. 3.-</b>	77.616.-
<b>Cap. 4.-</b>	3.844.429.-	<b>Cap. 4.-</b>	1.539.260.-
<b>Cap. 5.-</b>	134.074.-		
<b>Cap. 6.-</b>	0.-	<b>Cap. 6.-</b>	1.911.010.-
<b>Cap. 7.-</b>	1.026.410.-	<b>Cap. 7.-</b>	162.580.-
<b>Cap. 8.-</b>	47.930.-	<b>Cap. 8.-</b>	16.227.-
<b>Cap. 9.-</b>	670.900.-	<b>Cap. 9.-</b>	670.165.-
<b>TOTAL</b>	8.587.103.-	<b>TOTAL</b>	8.587.103.-

**O.A.A.- "RESIDENCIA SAN JOSÉ"-REN AURREKONTUA**

<b>INGRESOS</b>		<b>GASTOS</b>	
<b>Cap. 1.-</b>		<b>Cap. 1.-</b>	689.324.-
<b>Cap. 2.-</b>		<b>Cap. 2.-</b>	810.174.-
<b>Cap. 3.-</b>	716.992.-	<b>Cap. 3.-</b>	
<b>Cap. 4.-</b>	774.693.-	<b>Cap. 4.-</b>	
<b>Cap. 5.-</b>	7.813.-		
<b>Cap. 6.-</b>		<b>Cap. 6.-</b>	
<b>Cap. 7.-</b>		<b>Cap. 7.-</b>	
<b>Cap. 8.-</b>		<b>Cap. 8.-</b>	
<b>Cap. 9.-</b>		<b>Cap. 9.-</b>	
<b>TOTAL</b>	1.499.498.-	<b>TOTAL</b>	1.499.498.-

## O.A.A. "HERRI ANTZOKIA"-ren AURREKONTUA

SARRERAK		GASTUAK	
Cap. 1.-		Cap. 1.-	64.350.-
Cap. 2.-		Cap. 2.-	78.680.-
Cap. 3.-	62.300.-	Cap. 3.-	895.-
Cap. 4.-	80.600.-	Cap. 4.-	
Cap. 5.-	8.500.-		
Cap. 6.-		Cap. 6.-	15.000.-
Cap. 7.-	15.000.-	Cap. 7.-	
Cap. 8.-		Cap. 8.-	
Cap. 9.-		Cap. 9.-	7.475.-
<b>TOTAL</b>	<b>166.400.-</b>	<b>TOTAL</b>	<b>166.400.-</b>

## O.A.A. "MAJORI KIROLDEGIA"-REN AURREKONTUA

SARRERAK		GASTUAK	
Cap. 1.-		Cap. 1.-	121.750.-
Cap. 2.-		Cap. 2.-	543.198.-
Cap. 3.-	378.300.-	Cap. 3.-	6.065.-
Cap. 4.-	364.029.-	Cap. 4.-	45.679.-
Cap. 5.-	16.200.-		
Cap. 6.-		Cap. 6.-	177.850.-
Cap. 7.-	135.000.-	Cap. 7.-	
Cap. 8.-		Cap. 8.-	
Cap. 9.-	28.398.-	Cap. 9.-	27.385.-
<b>TOTAL</b>	<b>921.927.-</b>	<b>TOTAL</b>	<b>921.927.-</b>

Iturria: Ordiziako Udala, web [www.ordizia.org](http://www.ordizia.org)